



Hego Euskal Herriko Eliteak

Boterearen Azterketa

Talde-zuzendaria: Jon Diaz Egurbide

HEGO EUSKAL HERRIKO ELITEAK BOTEREAREN AZTERKETA

Talde-zuzendaria: Jon Diaz Egurbide

© Manu Robles Arangiz Fundazioa eta Ipar Hegoa Fundazioa

► **Talde-zuzendaria**

Jon Diaz Egurbide

► **© Ikerketa taldea**

Diaz Egurbide, Jon; Iztueta Armendariz, Paulo; Etxeberria Murgiondo, Juan; Lukas Mujika, Jose Frantzisko; Altonaga Begoña, Bakarne; Altuna Gabilondo, Larraitz; Artetxe Sanchez, Karmele; Gezuraga Amondarain, Monike; Imaz Bengoetxea, Joxi; Varela Pequeño, Mikel; Corres Medrano, Iruñe; Garmendia Larrañaga, Joxe; Iurrebaso Biteri, Iñaki; Santamaria-Goikuria, Imanol; Etxaniz Tesouro, Iñaki.

► **Lehen argitaraldia:**

Donostia, 2021eko ekainean

► **Diseinua eta maketazioa**

ISde0

► **ISBN**

978-84-939802-6-9

► **Lege gordailua**

LG BI 01178-2021


► **Manu Robles Arangiz Institutua eta Fundazioa**

Barrainkua 13 • 48009 Bilbo

► **Ipar Hegoa Fundazioa**

Rekalde Zumarkalea, 62 – Behea • 48010 Bilbo

Debekatua dago, legean aurreikusitako kasuetan izan ezik, liburu honen erreprodukzioa, banaketa, komunikazio publikoa eta eraldaketa egitea jabetza intelektualaren titularren baimenik gabe. Aipatutako eskubideak haustea jabetza intelektualaren kontrako delitutzat har daiteke (Kodigo Penaleko 270. art. eta ond.)



► **ESKERTZA:**

Liburu honen maketazioa eta diseinua Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederretako Akmea GIU-18/187 ikerketa taldeari esker burutu da.



► **Jagoba Zulueta** (Ipar Hegoa Fundazioa)

► **Unai Oñederra** (Manu Robles-Arangiz Fundazioa)

Britainia Handian Elite-Boterearen hezkuntza-ibilbidea aztertzeko 2014ean eta 2019an egin ziren ikerketa ospetsuak eredutzat hartuta, EHUKo irakasle talde honek gurean egin nahi izan du Elite-Boterearen azterketa hori. Azterketa hau egiteko topatu dituzten traba eta zailtasun ikaragarriek argi erakutsi dute Britainia Handia, kultura demokratikoaren aldetik, beste maila batean dagoela; ez zuten alperrik egin iraultza demokratikoa orain mende batzuk.


Euskal Herriko eliteak. Boterearen azterketa ikerketa plazara ekartzeko EHUKo irakasle-taldeak topatu dituen zailtasun horiek eraman gaitu Manu Robles-Arangiz eta Ipar Hegoa fundazioak, proiektua babestera. Kultura demokratiko osasuntsua duen herri batean laguntzatxo horren beharrik ez zen izango. Baina, interes ukaezineko lan honek agerian uzten duen lehen ondorioetako bat da eliteek eta botere guneek ez dutela beraiengan inolako kontrol sozialik nahi, eta kontrol hori saihesteko ahal duten guztia egiten dutela. Euskal Herriko eliteari eta botereari buruz independentziaz, ikuspegi sozialaz eta zehaztasun zientifikoz eta profesionalaz egiten diren ikerketak publikoki aitortuak eta lagunduak izan beharko lirateke. Baina, argi gelditu da herri hau ez dagoela puntu horretan. Gure aldetik, eta azterketaren ondorio guztiak gureak egiteko beharrik gabe, interes sozial eta politiko horren aitortza egiten dugu eta azterketa honek planteatzen dituen eztabaida sozial eta publikoak plazara ekarri nahi ditugu.

Ikerketa hau hutsune hori betetzera dator, hau da, gobernatzen gaituztenen,

botere publiko eta pribatuetatik denon bizitzak baldintzatzen dituztenen, erabakiak hartzen dituztenen kontrol demokratikoa egitera baitator. Jakina, ikerketak kontrol sozial hori beste eremu gehiagoetara eraman zezakeen. Horrela da, bai. Baina, honek abiapuntua baizik ez du izan nahi, eta azpimarra egin nahi dugu lantalde honek egin duen lana, hasierak baitira zailenak. Bestalde, unibertsitate publikoaren aldeko aldarria ere ba da. Unibertsitate publikoaren funtzio-soziala aztertzen duelako eta egungo sistemari duen lekua gero eta bazterrekoagoa dela salatzen duelako.

Azken hamarkadetan Hego Euskal Herrian eratu den sistema politiko, instituzional, mediatiko, ekonomiko enpresarial eta unibertsitarioaren gardentasun eza kultura politiko demokratiko faltaren zantzu garbia da. Ez bakarria, jakina. Sindikalgintzan gabiltzanok jakin badakigu elite politiko horiek langileen ordezkariak demokratiko eta frogatuari zeinen garrantzia eskasa ematen dioten eta zer aukera txikia ematen dioten kontrol sozialaren funtzioa betetzeari. Esan gabe doa gure ahotsak ez duela lekurik erabaki politiko eta instituzional nagusietan. Gardentasun eza, kontrol sozialerako tresna falta, kultura demokratikoaren gabezia, eliteen loturak eta unibertsitate publikoaren aldeko jarrera eza egungo boterearen ezaugarriak dira. Egoera aldatzeko etorkizunean ezinbestekoak izango dira hau bezalako ikerketak. Esan bezala, hau abiapuntua besterik ez da eliteari buruzko errealitatearen azterketarekin hasi duguna.

2021eko ekainaren 29an



SARRERA

1. Paulo Iztueta Armendariz 13

LEHEN ZATIA: XEDEAK ETA METOLOGIA

1. Oinarrizko abiapuntua 23
2. Elitea definitzen 25
3. Hego Euskal Herriko azterketa sozioekonomikoa 27
4. Unibertsitate pribatua datuetan 32
5. Datu-bilketa eta baliotasuna 37
- 5.1 Azterbide-prozedura
- 5.2 Euskara
- 5.3 Ikerketa-arloak
- 5.4 Gardentasun eta datu-babesari buruz argibide batzuk
6. Datu estatistikoen azalpena 47
- 6.1 Hego Euskal Herriko elite-boterearen azterketa-emaitzak
- 6.2 Ikasketen ranking-a
7. Ondorioak 52

BIGARREN ZATIA: ARLOEN AZTERKETA SEKTORIALA

1. Politikariak	57
• Eusko Legebiltzarkideak	
• Nafarroako Foru-Parlamentariak	
• Foru-Aldundietako Batzarkideak	
• Kongresuko Biltzarkideak	
• Senatariak	
• Europarlamentariak	
• Hiriburuetakako agintariak	
2. Goi-kargudunak	66
• Eusko Jaurlaritzako Goi-kargudunak	
• Nafarroako Foru Gobernuako Goi-kargudunak	
• Foru-Aldundiko Goi-kargudunak	
3. Zerbitzu publikoak	70
• Osakidetza eta Osasunbideako Zuzendariak	
• Justizia-auzitegiak	
4. Hezkuntza eta Kultura-erakundeak	74
• Kultura-erakundeak	
• Unibertsitateak	
5. Komunikabideak	76
• EITB Taldea	
• Komunikazio enpresaburuak	
6. Enpresa publikoetako zuzendariburuak	79
• Zuzenbide Pribatuko enpresa publikoak	
• Partzipazio Publikoko enpresak	
• Foru Aldundietako enpresa publikoko buruak	
7. Enpresa pribatuak eta kooperatibak	83
• Enpresa pribatuetako buruak	
8. Emakumezkoak	85
• Emakumezkoak	
9. Artea eta sormena	87
• Arte plastikoak	
• Musika garaikidea	
• Idazleak	
10. Kirolariak	92
• Basque-Team	

HIRUGARREN ZATIA: KASU AZTERKETA

1. Eliteak eta Jakintzaren zirimiria	97
Iñaki Goirizelaia Ordorika EHU-UPV-ko Errektore Ohia	
2. Hego Euskal Herriko elite politikoaren azterketa	101
Iñaki Antiguiedad Auzmendi	
3. Euskal Herriko erakundetze publikoa (1979-2021)	111
Joseba Agirreazkuenaga Zigorraga	
4. Osasunaren eliteak	117
Angel Bidaurrezaga Van Dierdonck, Oier Ateka Barrutia eta Lazaro Elizalde Soto	
5. Eliteak: Unibertsitatea eta Ikerketa Hego Euskal Herrian	127
Ane Larrinaga Renteria	
6. Euskal Kulturgintza eta liburugintzaren egoera 2010eko hamarkadan	159
Paulo Iztueta Armendariz eta Jon Diaz Egurbide	
7. EiTB taldea	219
Josu Amezaga Albizu	
8. Komunikabideetako botere elitean unibertsitate publikoa liderra	231
Iñaki Zabaleta Urkiola	
9. Euskal enpresa elitearen eraketa eta berorren formakuntza akademikoa	237
Baleren Bakaikoa Azurmendi	
10. Hego Euskal Herriko emakumezko elitearen heziketa	251
Gurutze Ezkurdia Arteaga eta Itxaso Biota Piñeiro	
11. Boterea, Elitea eta Kirola	261
Ekain Rojo Labaien	
12. Artea Hego Euskal Herrian: Elitearen eta Boterearen azterketa	273
Arantza Lauzirika Morea, Natxo Rodríguez Arkaute eta Igor Rezola Iztueta	
1. Taula estatistikoak	292
2. Bibliografia	296

Sarrera

- **Iztueta Armendariz, Paulo:** Soziologian Doktorea eta Donostiako Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Irakasle Titular erretiratu Euskal Herriko Unibertsitatean

Xedeak eta Metodologia

- **Diaz Egurbide, Jon:** Pedagogian Doktorea eta Donostiako Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateko Irakaslea Euskal Herriko Unibertsitatean
- **Iztueta Armendariz, Paulo:** Soziologian Doktorea eta Donostiako Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Irakasle Titular erretiratu Euskal Herriko Unibertsitatean

Azterketa estatistikoa

- **Etxeberria Murgiondo, Juan:** Irakasle Katedraduna Donostiako Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatean Euskal Herriko Unibertsitatean
- **Lukas Mujika, Jose Frantzisko:** Pedagogian Doktorea eta Donostiako Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateko Irakasle Titularra Euskal Herriko Unibertsitatean

Datu bilketa eta arloen azalpen sektoriala

- **Altonaga Begoña, Bakarne:** Irakasle Doktorea eta Bilboko Hezkuntza Fakultateko Irakaslea Euskal Herriko Unibertsitatean
- **Altuna Gabilondo, Larraitz:** Soziologian Doktorea eta Bilboko Hezkuntza Fakultateko Irakaslea Euskal Herriko Unibertsitatean

- **Artetxe Sanchez, Karmele:** Historian Doktorea eta Bilboko Hezkuntza Fakultateko Irakaslea Euskal Herriko Unibertsitatean
- **Diaz Egurbide, Jon:** Pedagogian Doktorea eta Donostiako Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateko Irakaslea Euskal Herriko Unibertsitatean
- **Gezuraga Amundarain, Monike:** Pedagogian Doktorea eta Bilboko Hezkuntza, Fakultateko Dekanordea Euskal Herriko Unibertsitatean
- **Imaz Bengoetxea, Joxe Inazio:** Soziologian Doktorea eta Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateko Irakaslea Euskal Herriko Unibertsitatean
- **Varela Pequeño, Mikel:** Filosofian Doktorea eta Bilboko Hezkuntza Fakultateko Irakaslea Euskal Herriko Unibertsitatean


Datu bilketa

- **Corres Medrano, Irune:** Donostiako Psikologia Fakultateko Irakaslea Euskal Herriko Unibertsitatean
- **Etzaniz Tesouro, Iñaki:** Historia Garaikidean Doktorea eta Bilboko Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Irakaslea Euskal Herriko Unibertsitatean
- **Garmendia Larrañaga, Jose Fernando:** Pedagogian Doktorea eta Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateko Irakaslea Euskal Herriko Unibertsitatean
- **Iurrebaso Biteri, Iñaki:** Donostiako Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateko Irakaslea Euskal Herriko Unibertsitatean

- **Santamaria-Goikuria, Imanol:**
Gasteizko Hezkuntza Fakultateko
Irakaslea Euskal Herriko
Unibertsitatean

Testugileak

- **Agirreazkuenaga Zigorruga, Joseba:**
Irakasle Katedraduna Gizarte eta
Komunikazio Zientzien Fakultatean
Euskal Herriko Unibertsitatean
- **Amezaga Albizu, Josu:** Irakasle
Katedraduna Gizarte eta Komunikazio
Zientzien Fakultatean Euskal Herriko
Unibertsitatean
- **Antiguedad Auzmendi, Iñaki:**
Irakasle Katedraduna Zientzia eta
Teknologia Fakultatean Euskal Herriko
Unibertsitatean
- **Ateka Barrutia, Oier:** Medikuntzan
Graduatua eta Medikuntza eta
Erizaintza Fakultateko Irakaslea
Euskal Herriko Unibertsitatean
- **Bakaikoa Azurmendi, Baleren:**
Ekonomia Aplikatuan Irakasle
Katedradun jubilatua Euskal Herriko
Unibertsitatean
- **Bidaurrazaga Van Dierdonck, Angel:**
Medikuntzan Doktorea eta Medikuntza
Fakultatean Irakasle Titularra Euskal
Herriko Unibertsitatean
- **Biota Piñeiro, Itsaso:** Doktoregaia
Bilboko Hezkuntza Fakultatean eta
Garaian Taldeko ikerlaria
- **Diaz Egurbide, Jon:** Pedagogian
Doktorea eta Donostiako Hezkuntza,
Filosofia eta Antropologia
Fakultateko Irakaslea Euskal Herriko
Unibertsitatean
- **Elizalde Soto, Lazaro:** Nafarroako
Osasun Saileko Zuzendari Ohia
- **Ezkurdia Arteaga, Gurutze:**
Pedagogian Doktorea eta Bilboko
Hezkuntza Fakultateko Dekano-ohia
eta Irakasle Titularra Euskal Herriko
Unibertsitatean
- **Goirizelaia Ordorika, Iñaki:** Irakasle
Katedraduna Bilboko Ingeniaritza
Eskolan eta Errektore-ohia Euskal
Herriko Unibertsitatean
- **Iztueta Armendariz, Paulo:**
Soziologian Doktorea eta Donostiako
Filosofia eta Hezkuntza Zientzien
Fakultateko Irakasle Titular erretiratu
Euskal Herriko Unibertsitatean
- **Larrinaga Renteria, Ane:** Soziologian
eta Zientzia Politikoetan Doktorea eta
Gizarte eta Komunikazio Zientzien
Fakultatean Irakaslea Euskal Herriko
Unibertsitatean
- **Lauzirika Morea, Arantza:** Arte
eta Teknologian Doktorea eta Arte
Ederren Fakultateko Dekanoa Euskal
Herriko Unibertsitatean
- **Rezola Iztueta, Igor:** Arte Ederretan
Doktorea eta Arte Ederren
Fakultateko Irakaslea Euskal Herriko
Unibertsitatean
- **Rodriguez Arkaute, Natxo:**
Irakasle Doktorea eta Arte Ederren
Fakultateko Irakaslea Euskal Herriko
Unibertsitatean
- **Rojo Labaien, Ekain:** Soziologian
Doktorea eta Gizarte eta Komunikazio
Zientzien Fakultatean Irakaslea Euskal
Herriko Unibertsitatean
- **Zabaleta Urkiola, Iñaki:**
Unibertsitateko Irakasle Katedraduna
Gizarte eta Komunikazio Zientzien
Fakultatean Euskal Herriko
Unibertsitatea



SARRERA

Paulo Iztueta Armendariz

Hego Euskal Herrian gizarte-eliteak zertan diren azaltzea da ikerketa-talde honen asmoa, epe-mugatzat 2010eko hamarkada hartuta. Ez gara lehenengoak hain egunekoa den gai hau aztertzen. José M. Imizkoz Beunzaren gidaritzapean, bederatzigarren laguneko unibertsitate-talde batek landutako *Elites, poder y red social. Las élites del País Vasco y Navarra en la Edad Moderna* izeneko lana eman zuen argitara EHUK. Elite kontzeptuaz zer ulertzen den ere zehazten da bertan: hots, “gizarte-harremanen barruan botere-sareztat dauzkagunak, harremanezko kapitala eta ekintzarako gaitasuna dutenak, non gizarte-ekintzaile desberdinek –bereziki indartsuenek-, gaitasuna baitute beren ekintzaren bidez besteengan eragiteko”¹. Autore honentzat gizarte-kategoriek –hala nola, gizarte-taldeek, klaseek, estratuek-, balio erlatiboa dute, ez absolutua, eta batzuetan ez nahikoa, batez ere gizarte-aktoreak eta gizarte-ekintzak aztertzeko orduan. Horregatik, harremanen arteko azterketa egin behar da. Hau da, bere ustez, gaur egun indarrean dagoen pentsamendua (Beunza, 1996, 14). Jose Felix Jarasusan-ek², lan kolektibo batean, elite garaikideek Nafarroan izan zuten eragina aztertzen du.

Bestalde, liburuaren izenburuan bertan datorren bezala, azterketa hau Aro Modernora mugatzen da, epealdi luze horretako joan-etorria ezagutzeko. Zentzu honetan, gure ikerketa-eremua askoz ere mugatuagoa da, XXI. mendeko bigarren hamarkada baino ez baitu besarkatzen. Tartean, noski, gizarte-maila guztietan sekulako aldaketak emanez datozen Aro Garaikidean aurrera goaz globalizazio eta iraultza informatikoaren zurrunbiloan barneratura. Ezinbestekoa da, bada, gaur elite kontzeptuaz zer ulertzen den galdatzea eta, ondorioz, egungo euskal gizartean

- 1 J. M. Imizkoz Beunza, “Comunidad, red social y élites. Un análisis de la vertebración social en el Antiguo Régimen”, 13-14 orr.
- 2 “Las élites contemporáneas en Navarra. Un vacío historiográfico”, in Pedro Carasa (arg.): *Elites. Proso-pografía Contemporánea*, Universidad de Valladolid, 1994, 299-302 orr.

zenbat elite-mota ematen diren zehaztea: politikoa, ekonomikoa, kulturala, kirolekoa, generoarena, eta besterik.

Bilketa informatikoetan oinarritutako gaiak bere espezifikotasunaren arabera sailkatuta aztertzen dira atal desberdinetan. Hamar dira guztira. Baina aurretik, atariko gisa, oinarritzko datuen aurkezpen orokorra egiten da, azterketa oso eta zehatzago baterako bide emango duena.

Gaian sartu aurretik, ordea, aurrera dezagun zertan den elitearen inguruko eremu kontzeptuala, besterik ez bada aditzera emateko ahots bakarreko diskurtsorik ez dela ematen ez abiapuntu teorikoetan ez xede praktikoetan, lan kolektibo honetan agertuko den bezala. Erlatibismoak eta transbertsalitateak eremu zabalak ireki dituzte giza eta gizarte-zientzien esparruan, eta hainbat kontzeptu klasikoren edukia, gizarte-eraginaren ondorioz, esanahi berriz zehaztua etorri da. Horregatik, elitearen kasuan bezala, zaila gertatzen da egun kontzeptu horrekin zer ulertzen den mugatzea.

Zailtasunak zailtasun, gure aztergaiaren inguruko hurbilketa hezkuntzaren soziologiaren ataritik begiratuta egingo dugu, beste arrazoi gehigarrien artean gai horri buruzko bibliografia zaigulako ezagunen eta landuena. Beti ere onartuz, gai honen inguruan ere, aho bakarreko diskurtsorik ez dela.

Elitearen kontzeptu hau "élire" frantsesetik datorrena da *hautatu* esanahiarekin. Tradizio soziologikoan modu askotara hartua izan da. Orokorrean hartzen bada, gizarteko talde txiki baten izaera adierazten du, pribilejio batzuk dauzkana eta gizartean goren maila betetzen duena. Klase dominatzailetzat ere hartzen da. Areago zehaztuz, esan daiteke elitea dela gizartean estatus pribilegiatu baten jabe den pertsonen talde bat, edo klase jakin bat. Zentzu honetan, elitekoak talde hautatu batzuk dira, pribilegiatuak, gizarteko talderik distiratsuen eta eraginkorrena, osperik gehien dutenak, aintzatespena zor zaienak, eragina eta aberastasuna dutenak. Hauek eragin kontrajarriak sortzen dituzte gizartean.

Kontuan izan dugu, baita ere, Ricardo Feliu Martínezek 2008. urtean Nafarroako Unibertsitate Publikoan, Peio Maria Ayerdi zuzendari zuela, argitara emandako *La distribución social del poder. La élite navarra en el cambio de siglo* doktore-tesia³. Egileak lan honetan Nafarroako eremu politiko, ekonomikoa eta burokratikoan elitismoak duen lekua aztertzen du. Elitearen izaera identifikatzea izan da lan honen helburu nagusia eta xede hau lortzeko izan dituen zailtasunen aurrean bi eredu metodologiko erabiltzen ditu: botere-guneen eta gizarte-sareen azterketa formala egitean zehazten dena. Lehenengo ereduan, botere-erakundearen goi mailako agintarien izen-zerrenda eta erakunde hauen arteko harremanetan aurkitzen direnak aztertzen ditu. Aukeraketa formala da hau, eremu politiko eta burokratikoak ezagutzeko erakundeek publiko egiten dituen izendegiaz baliatzen

3 Ikus egile beraren bertsio laburtu hau ere: "La élite de poder en la sociedad navarra en el cambio de siglo (1999-2005). *Hermes*, 6-6, 46-51 orr.

dena. Azterketa guztiz dokumentala da botere-gune nagusietan eta, izen-zerrenda biltzeko, bereziki Foru-Gobernuaren dokumentu publiko eta ofizialak erabiltzen ditu. Eredu intelektuala ere aztertzen du, aurretik aipatutako hiru eremu horien arteko harreman-sareak aztertzeko. Lan honetan elite-posizioan aurkitzen diren 141 subjektu identifikatzen ditu autore honek. Metodologia-eredu hau, aurretik Baena eta Pizarro egileek "The structure of the Spanish political elite, 1939-1957" lanean erabilitakoa da⁴. Boterea gizartean izaera estrukturala duen egitura dela, dio. Harreman-sareak ezagutzeko bigarren eredu metodologikoaz baliatzen da egilea. *Giza sareen analisisa* gauzatzea eskatzen du. Egitura sozialen eta aginte-organoetan gauzatzen diren arteko harremanak ezagutzeko ingurune konplexu bezain nahasia baita, bereziki elitearen identifikazioa burutu behar denean. Metodologia hau martxan ipintzeko hizkuntza matematikoa erabiltzen da "grafos" teoriaren arabera. Eredu honek modu argi batez erakusten ditu botere ekonomiko eta politikoaren arteko harremanak administrazio-kontseiluetan biltzen diren ibilbidea aztertuz. Beraz, azterketa burutzeko erabaki objektiboa bihurtzen da botere-postuetan direnak identifikatzea eta egitura edo erakunde hauen harreman-sarea aztertzeko. Erakundeak dira, ez gizartea, eliteen egiazko oinarria.

Ricardo Feliu egileak elitearen identifikazioa bi eredu hauen bitartez burutzen du. Batetik, ikuspegi formala eta objektiboa gauzatuz dokumentu-azterketa sakona egiten du; bestetik, agintean aurkitzen diren arteko sare-harremanak aztertzen ditu. Halere, lan honetan ere jadanik ezagunak diren arazo metodologiko batzuei aurre egin behar izan die. Aipatzen du aukeraketa honek alde batera uzten dituela aginte-guneetan jadanik ez dauden horiek eta egun instituzioetan eragina izan dezaketen taldeak, lobbyak, adibidez. Guk ere alderdi hori aztertzeko orduan arazo bera izan dugu, eta nahiz eta ez dugun baztertu, oso zaila egiten da hainbat sektoreren analisisa burutzeko. Beharbada etorkizuneko ikerketa batean heldu beharko zaion azterketa izango da.

Joseba Agirreazkuenagaren zuzendaritzapean, 1988tik abiatuta ikerketarako lantaldea egituratu da, *Biography & Parliament* izenekoa⁵. Talde honek Batzar Nagusietan eta Parlamentu-erakundearen Euskal Herriko barrutietan aukeratuak izan direnak zerrendatu, sailkatu eta aztertzen ditu. Iraultza liberalaren garaian aukeraturiko ordezkariak 1808tik 1986 artekoak aztertzen ditu. Hiztegi biografikoak ere sortu ditu. Parlamentari edo Batzar Nagusietako ordezkari bakoitzaren azterketa biografikoa burutzen du, ikuspegi tropologikotik abiatuz eta aldi berean hautatuak izan diren ordezkari politiko horien kudeaketa Legebiltzarrean aztertzen

4 Baena del Alcazar, H. eta Pizarro, N. (1985), in Moore, G. (arg.): *Research in politics and Society*, London, Jai Press.

5 www.prosoparlam.org

dute⁶. Ondoren azterketa prosopografikoak burutzen ditu.⁷ Aritz Onaindiak Eusko Legebiltzarrerako eta Espainiako Parlamenturako 1977-1982 epealdian hautatu zirenak hartzen ditu aztergaitzat eta azterketa estatistikoa burutu du⁸.

Bestalde, gogoeta soziologiko zabalago batera etorrita, esan dezagun paradigma desberdinak egon direla indarrean. Estatu Batuetan Charles Wright Mills soziologoak (1916-1962), *La élite del poder* liburuan (1956), Estatu Batuetan boterearen egitura nolakoa zen aztertu zuen, arreta Bigarren Gerraren ondoko intelektualen erantzukizunetan jarriz. Elite politiko, militar eta ekonomikoen arteko harremanak deskribatzen ditu, nabarmenduz pertsona horiek munduari buruzko ikuspegi komun bat dutela. Botere-eliteak estratu pribilegiatua du, gizartean goi-mailakotzat hartzen da eta maila horri eusteko botere-eliteko partaideak elkarren artean esposatzen dira. Botere-elitea batez ere hezkuntza-sisteman gauzatzen da, bereziki eliteko unibertsitateetarako sarbidea ematen dutenetan.

Estatu Batuetan XX. mendeko 1960 eta 1970eko hamarkadetan, etengabeko borroka egon zen desberdintasun ekonomikoaren kontra. Beltzak, emaztekiak, langabetuak eta behe-mailako gazte langileak kalera irten ziren gizarte-desberdintasunaren kontrako aldarria altxatuz. Arazo hauei erantzuteko Jencks eta Bane-k aukera-berdintasunean oinarritutako eredu tekno-funtzionalista aplikatu zen hezkuntza-sisteman, pentsatuz meritokraziak gizarte-mugikortasuna ekarriko zuela. Ez zuen arrakastarik izan, agerian geratu baitzen aukera-berdintasuna ezin zela lortu indarrean zegoen gizarte-egitura ekonomiko eta politikoa sakonki aldatu gabe. Samuel Bowles eta Herbert Gintis-ek gogor kritikatu zuten *La meritocracia y el "coeficiente de inteligencia": una nueva falacia del capitalismo* (1976) liburuan⁹, zalantzan jarriz adimen-koizentearen interpretazio genetikoak.

Mendebaldeko Europan, Mundu-Gerraren ondoren eta Gerra Hotzaren garaian, 1970eko hamarkadan zehar indarrean egon zen eredian "gizarte-taldeak desberdintasun ekonomikoen" aldetik begiratuta aztertzen ziren, non gizarte-taldeak beren produkzio-aparatuan zeukaten posizio eta interes desberdinengatik harreman antagonikoetan zatiturik aurkitzen baitziren. Eredu honetan desberdintasun

-
- 6 Agirreazkuenaga, J. eta Gomez-Morales J.A. (1998): *Eusko Ikaskuntza: Hiztegi biografikoa (1918-1998)* Donostia; Agirreazkuenaga, J.; Urquijo, J.R.; Serrano, S.; Urquijo, M. (1993): *Diccionario biográfico de los parlamentarios de Vasconia, 1808-1876*, Vitoria, Parlamento Vasco, 1.080; eta, Agirreazkuenaga, J., Alonso, E., Gracia J., Martínez, F., Urquijo, M. (Zuzend.) (2007): *Diccionario biográfico de Parlamentarios de Vasconia. 1876-1939*. Vitoria-Gasteiz, Eusko Legebiltzerra-Parlamento Vasco, 3 volúmenes.
- 7 Agirreazkuenaga, J.; Urquijo, J.R.; Serrano, S.; Urquijo, M. (1992): "Trayectorias de la élite parlamentaria vasca durante la crisis del Antiguo Régimen", En: *Historia Contemporánea*, nº 8, Bilbao, UPV-EHU, 177-190.
- 8 Onaindia, Aritz (2018): *De la biografía a la prosopografía: los parlamentarios de la comunidad autónoma vasca (1977-1982)*. Vitoria-Gasteiz, Parlamento Vasco.
- 9 Bowles, S. eta Gintis, H. (1976): *La meritocracia y el "coeficiente de inteligencia": una nueva falacia del capitalismo*. Barcelona, Cuadernos Anagrama.

ekonomikoak ziren “gizarte-taldeen” mugaketa zehazten zutenak, non, gizarte-antagonismoa tartekatzen zelarik, gizartean tirabira eta gatazkak gertatzen baitziren. Ikuspegi marxista klasikoari zegokion eredu zen hau. XX. mendeko 1980 eta 1990eko hamarkadetan, ordea, gizarte-ekintzaren muina egile eta harremanen sareetan ezartzen da eta ikerketa-ereduak beste bide bat hartzen du, interakzionalismoari lehentasuna emanez eta, bide batez, hezkuntza-sistema, erreprodukzio-gune huts izatetik harago, gizarte-berrikuntzarako produkzio-gune garrantzitsu ere badela –edo izan daitekeela–, aitortuz. Ikuspegi honen arabera, non erreprodukzio eta produkzioaren sareak elkar elikatzen baitira, agerian jartzen da gizarteko harremanak arras konplexuak direla eta alde bateko zein besteko ikuspegi deterministegietatik urrundu beharra dagoela.

XXI. mendean sartuak gauden une honetan, non gizarte-harremanetan globalizazioak eta informazioak agintzen baitute, ageri da arazo sozialaren harreman-sarea aurreko hamarkadetakoa baino konplexuagoa dela, beharrezkoa dela aurreko tradizioetik datozkigun determinismo jakin batzuk gainditzea eta, aldi berean, ikuspegi estratifikatzaile eta unikausaletik harago, komunikatzaile eta multikausala izatea, honekin aditzera emanez gizarteko harremanak uste zen baino konplexuagoak direla.

Frantzian, batez ere, Pierre Bourdieu eta J-C. Passeron¹⁰ izango dira, indarrean dagoen hezkuntza-sistema auzitan jarriz, erreprodukzioaren eta bortxa sinbolikoaren teoria landuko dutenak. Datu estatistikoetan oinarrituta, egiaztatzen dute goi-mailako irakaskuntzan eskolatzen diren gizarte-klase desberdinen ordezkartza desberdina dela. Bestela esanda: hezkuntza-sistemak gizartean dagoen desberdintasuna erreproduzitu baino ez duela egiten. Eskola-arrakasta edo porrota ez datza eskolan bertan, baizik familia-girotik eta gizarte-ingurunean jasotako kulturatik. Ildo beretik jarraituz, Pierre Bourdieu-k *Nobleza de estado, la educación de elite y espíritu de cuerpo* liburuan (2013) dakarrenez, hezkuntzak jite berriko “noblezia” sagaratzen du, titulu akademikoak eta jabetzakoak dituena. Noblezia honek eskola askatzailean sartu eta bertan lan-munduak eskatzen dituen gaitasun teknikoak lortzeko guztiek aukera berdina dutela defendatzen duen aldi berean, ikasle horiek kanpoan uzteko hautespen-mekanismo zorrotzak ezartzen ditu, zeinetan aurreikusten baita zein izango diren probintziako herri txiki batean lehen mailako irakaskuntzan arituko direnak eta zein administrazio publiko eta pribatuan goi-mailan arituko direnak. Eskola edo unibertsitate bakoitzak hautatzen du zein karrera-mota izango den goi-karguetara bideratuko duena, beti gorako bidean doana. Ikasleen etorkizuna aldeztatik finkatzen duten faktoreak bat baino gehiago dira: familia, bizilekua, eliteko ikastetxeak eta horietara joateko aurre-ikasketak, ospe handiko goi-hezkuntzako institutuak, eta abar. Elitekoek beren “apustuak” egiten dituzte, zein hezkuntza-mota

10 *Les héritiers. Les étudiants et la culture*, Paris, 1964.

den egokien, kontuan izanda jatorrizko kapital-mota: ekonomikoa, soziala, sinbolikoa, eta besterik.

Erreproduzioaren teoria honek ere bere kritikak jasoko ditu, zorrotzenak Estatu Batuetako neomarxista kulturalisten aldetik datozkionak. Carnoy-ren (1985, 31-32) ustez¹¹, jarrera mekaniko eta determinista azaltzen du eta ez bide du esplikatzeko langile-klaseek nola onartzen duten beren interesen kontra doan eskola-legitimitatea. Erreproduzioaren teoriaren bestaldean aurkitzen da Paul Willis-ek *Aprendiendo a trabajar* liburuan (1988) lantzen duen erresistentziaren teoria, non, ikerketa mikrosoziologietan oinarrituz, ondorioztatzen baitu langile-jatorriko ikasleek beren desadostasuna eta asaldura azaltzen dutela. Eskolak, testuinguru soziohistoriko desberdinen arabera, erreproduzitu eta produzitu egiten du, biak. Ordituk aurrera, teoria biak –erreproduzioarena eta produkzioarena–, elkarri eraginez joango dira. Gu ere, azken ildo horri jarraiki, garaian garaiko eliteek botere, hizkuntza eta hezkuntzarekin bilbatzen duten sarea hariltzen saiatu gara¹².

Frankismo-garaian sortu eta bideratutako herri-mugimendu soziopolitiko eta kulturalak –besteak beste, Ikastola eta AEKrenak–, erresistentziaren obra garbiak dira. Egun, erakundeetatik babestuagoak dauden aldetik, euskal kulturagintzako hasierako esparru horiek lainotuak edo indargetuak bezala daudela dirudi, ziklo berri baten zain.

Begirada nazioartera luzatuta zein ondorio ateratzen den? Maila teorikoan, oso bestelakoak diren bi lerro historiografiko horiek –hertsiki marxista eta neomarxista–, bateratu egiten direla. Honela, E. P. Thompson eta E. Hobsbawm britainiar historialariek¹³, marxismo estrukturalista –jarrera unikausala–, gairak, aldaketa-prozesuen egile giza gizakia jartzen dute, aztertuz honen praktikak, bizipenak eta ikuspegiak, eta, honela, klase-ikuspegia deskosifikatu eta aberastu egiten dute. Lehenak frogatzen du denboran zehar, *chappelles* edo eliza ez-konformistetan nola egituratzen den langile-klasearen kontzientzia eta antolaketa. Denboran barrena baino ez da ulertzen klasea eta eliteen sorkuntza eta bilakaera. Matxinadaren ondotik dator langile-klasearen eraketa. Era berean, historiografia frantsesean ere, antzeko

11 “Educación, economía y Estado”, in *Educación y Sociedad*, 3, Madrid, 7-52 orr.

12 Iztueta, Paulo (2000): *Hezkuntza, hizkuntza eta boterea Euskal Herrian*, Utriusque Vasconiae, Donostia; (1996): *Intelligentzia kimatuaren orbelak*, Kutxa Fudazioa, Donostia; eta, (2016): *Hizkuntza-asimilazioa eta Hezkuntza-sistema Euskal Herrian*, Utriusque Vasconiae, Donostia.

13 E.P. Thompson (1924-1993) Erresuma Batuko Alderdi Laboristako kidea izan zen eta bere ekarpen nagusiak herri-kultura, klase-kontzientzia eta pentsamendu marxistaz egiten dituen interpretazioak dira. Bere lanetako bat *La formación de la clase obrera en Inglaterra. La demonización de la clase obrera* (1963) da. E. Hobsbawm (1917-2012) Erresuma Batuko Alderdi Komunistako kidea izan zen, eta nazio-estatuaren inguruan tradizioaren eraketa aztertu zuen. Gure artean ezaguna da nazionalismoaz idatzitako bere liburu hau: *Nation and Nationalism since 1780: programme, myth, reality* (1990). Biak kritikoak marxismo ofizialarekiko, Frantziar Roger Garaudy (1913-2012) bezala. Hau Alderdi komunistatik bota egin zuten 1970ean. Bere lanetako bat *Marxisme du XXème siècle* (1966) da.

prozesua ematen da 1960ko hamarkatik aurrera, Agustin Agulhon-ek¹⁴ abiatutako bidetik. Dena den, ikerbideak bat baino gehiago dira.


Elitei buruzko azterketak ugalduz etorri dira azkenaldion eta ez da gure asmoa izan ekarpen berri horiez jardutea. Pedro Carasa-rekin¹⁵ esango duguna da orokorrean "elite" kontzeptuaren inguruan eklektizismo ideologiko eta kontzeptual nabaria ematen dela eta, zehazki Espainiari dagokionez berriz, aro garaikide horri buruzko ikerlanetan pobrezia teorikoa ematen dela.

Liburu hau talde-lan zabal baten emaitza da, diziplinartekotasun eta aniztasunaren ikuspegitik abiatuta mamitua, datu estatistikoetan oinarrituta, egungo euskal elitismoaren egoera zein den azaltzen duena. Guztietan asmatu ez badugu ere, ahalegindu gara berderen ahalik eta ikuspegi zabalenaekin jokatzeko eta, guztion lanak elkartuta, segida eskatzen duen hastapeneko azalpen orokor bat ematen. Berarekin darama ikerlari-talde kualifikatu baten freskura, osotasunaren begirada.

Bitez sarrerako ohar hauek ikerketa-gaian barnertatzeko bide-lagun argigarri.

14 Ikus, besteak beste, *Estudio de la mutación de la sociabilidad* (1977) eta *Historia y política de izquierda* (2005).

15 "De la burguesía a las Élités entre la ambigüedad y la renovación conceptual", *Ayer*, nº 42, 2001, 213-237 orr.



LEHEN ZATIA
XEDEAK ETA
METODOLOGIA



Sarrerako atarian begirada orokor bat bota diogu eliteei buruzko gai honi, egindako ekarpenak go-goan, ikerketaren nondik norakoa bideratzerakoan baliagarri izango zaigulakoan. Baliagarri diogu, ez gehiago, zeren segidan azalduko denez, ikerketa honek jadanik zehaztuak baititu bere xedeak eta metodologia. Eskuar-tean izan dugun eredu anglosaxoi honek gutxi du mota bateko zein besteko teoria konfliktualistatik eta asko tekno-funtzionalismotik zein meritokraziatik, segidan azalduko dugun bezala. Bere alde du eliteen gain-errepresentazioaren neurketa burutzen duela eta gure eskura ipini dituela gizartearen mugikortasun sozialaren azterketa burutzeko oinarri metodologikoak.

1. Oinarrizko abiapuntua

Hego Euskal Herriko Elite-boterearen ikerketa egiteko, Britainia Handiko *The Sutton Trust* agentzia independentearen eta *Social Mobility Commission* Gobernu-Erakundearen ereduari jarraitu diogu. *The Sutton Trust* Agentziaren ikerketa-lana oso emankorra izan da hezkuntza eta mugikortasun sozialaren esparruan, ia 300 azterketa burutu eta argitaratu baitituzte azken bi hamarkadetan. Guztietan entzutetsuena, Britainia Handiko Elite-boterearen hezkuntza-ibilbidea aztertzen duen ikerketa izan da, 2014an egin zena lehen aldiz¹. Lehen dokumentu honetan datozen ondorioak oso interesgarriak izan ziren, beste arrazoien artean, mugikortasun sozialaren ikuspegitik elitearen identifikazioan sakondu zuelako eta elitearen eta hezkuntza pribatuaren arteko lotura nabarmentzen zuelako bilakaera horretan. Lehen ahalegin honek jarraipena izan du eta 2019an *Social Mobility Commission* Agentzia Publikoarekin elkarlanean bigarren azterketa-lana burutu du. Bigarren honek ere berebiziko interesa eragin du komunikabideetan eta hezkuntza-komunitatean.

Elitist Britain 2019 dokumentuaren ikergaia goi-mailako elite-taldearen curriculumaren azterketa izan da. Baina 2014ko ikerketarekin alderatu nahi izan dute datuetan joera-aldaketarik eman den ala ez neurtzeko, mugikortasun sozialean aldaketa esanguratsurik eman den ala ez egiaztatzeko. Aginte-organismoetan eta goi-mailako lanpostu kualifikatuetan dihardutenen ibilbide akademikoa non, hezkuntza publikoan ala pribatuan, burutu duten neurtzen du. Norbanako bakoitzaren ibilbide osoaren azterketa ez da soilik unibertsitatera mugatu, bigarren mailako hezkuntzarekin dagoen ibilbide-harremana ere neurtzen baitu. Unibertsitate pribatuetan ikasten dutenek hezkuntza-egitura independente eta pribatuetako jatorria dutela erakusten jarraitzen du hala 2019ko dokumentuak nola 2014koak. Eta Britainia Handiko gizarteak, mugikortasun sozialari dagokionez, prozesu eta aldaketa handirik gabe jarraitzen duela frogatu du.

Ikerketa honen asmo nagusia gizartearen mugikortasuna neurtzea da, zehazkiago esanda, gizarte-egitura hierarkikoan gertatzen diren mugimenduei buruzko azterketa burutzea, elitearen presentzia instituzioetan azaltzea eta, bide batez, eliteen ibilbide akademikoa aztertzea. Eta hori Oxford eta Cambridge Unibertsitateetan ikasi dutenek goi-mailako lanpostuetan zer nolako presentzia duten abiapuntutzat hartuta egiten da.

Funtsean, txosten honek gizartearen mugikortasuna baldintzatzen duten faktore geografikoez eta sozio-ekonomikoez duten eragina neurtzen du eta, ondorioz, aukeraberdintasuna bermatzen ote den ala ez aztertzen. Gizartearen mugikortasuna aztertzen denean hezkuntzarako aukerak eta ibilbide profesional emankor batera hurbiltzeko lantzen diren estrategia akademikoez aztertzen dira. Bi ikerketa hauek frogatzen dute gizarte-mugikortasuna norbanakoaren meritu akademikoen gainetik familia edo jatorri

1 Social Mobility and Child Poverty Commission (SMCPC)(2014): *Elitist Britain*. London: The Stationery Office.

ekonomikoaren arabera baldintzatuta geratzen dela. Bide batez, ikerketa honetan Britainia Handiko gazteen etorkizuna baldintzatzen duen errealitatea erabat argitzen da, hango gizarteak eta bide batez etorkizuneko ikasleriak jatorri ekonomikoaren arabera diskriminatuak izaten jarraitzen baitute. Orokorrean, gutxiengo baten nagusitasuna erakusten duten ehunekoak nabarmentzen dira, gizarte osoaren gutxiengo txiki batek osatzen baitu agente-organismoetan gehiengoa. Elitearen gain-errepresentazioa egitura sozialetan erabatekoa da.

Eraitzen inguruan antzeko datuak aurkezten dira bi dokumentuetan, nahiz eta 2019ko dokumentuan berdintasunera hurbiltzen doazeneko aldaketa-zenbakiak azaltzen diren, nolahi ere aldaketa oso txikiak. Baina Britainia Handian goi-mailako diru-sarrerak dituztenen familietako oinordekoek oraindik goi-mailako diru-sarrerak lortzeko probabilitate gehiago dutela salatzen da bi dokumentu hauetan. Britainia Handiko gizartean, herritarrek egiten dituzten esfortzu eta merituen arabera beraien etorkizuna garatu eta lortu ordez, jatorrizko familiaren posizio sozialari esker betetzen dira goi-mailako lanpostuak.

“Hego Euskal Herriko elite-boterearen azterketa” burutzeko orduan, *Elitist Britain 2019* dokumentuan oinarritu gara, horko ereduaren arabera elite, agente eta goi-mailako lanpostuetan dihardutenen unibertsitate-prestakuntza eta ikasketak aztertzeko asmoa betez. Azterketa hau burutzeko 5.500 erregistro bildu dira eta 10 arlotan sailkatu dira erregistro guztiak. Horretarako norbanako bakoitzaren ibilbide akademikoa eta formazioa zehatz-mehatz aztertu nahi izan da: batetik, unibertsitate publiko eta pribatuaren garapena gizartean zein izan den ezagutzeko; bestetik, eta sakonean, aukera-berdintasuna gizartean bermatzen den ala ez baloratzeko. Ikerketa esanguratsua izan dadin, aztertzen den erregistro-zerrendatik datuen % 70 lortu nahi izan da.

Ezin izan da erregistro guztien curriculum osoa ezagutu. Ezinezkoa gertatu da, halaber, guztien bigarren hezkuntza-mailako curriculum-datuak biltzea. Zergatik? Batik bat gehiengo batek ez duelako azaltzen bere *curriculum vitae* non egin dituen bere ikasketak hauek. Beraz, hausnarketa eta analisirako unibertsitate pribatuan ikasten dutenen ibilbide osoa zein izan den jakiterik ez dugu izan. Halere, bada azaldu beharreko beste datu bat, eta da unibertsitate publikoan ikasten duen ikasle-kopurua pribatuarekin alderatuz gero, gutxitzen ari dela. Izan ere, azken estatistikek diotenez, 2020-21 ikasturterako Euskal Herriko Unibertsitate publikoan Gradu-ikasketak egiteko eskaintzen diren plazak gutxitzen doaz, Unibertsitate pribatuetan kopuruak handitzen diren bitartean. EAEn 7 puntu kendu dizkio Unibertsitate pribatuak publikoari². Graduetako ikasleen matrikula-datuak ere aurrerago azalduko ditugu azken hamarkada honetako bilakaera zein den alderatzeko.

2 EUSTAT (2020): “Aumenta el número de estudiantes de las universidades vascas en el curso 2018/19 por segundo año consecutivo”, Nota de prensa 20/07/2020.

2. Elitea definitzen

Arestian esan bezala, ikerketa honek *TheSutton Trust* eta *Social Mobility Commission* elkartekoek *Elitist Britain 2019* dokumentuan landu duten metodologiaren jarraipena egiten du. Elitearen definizio-eredu bat baino gehiago dagoen arren, ikerketa honek nagusiki britainiar iturriek erabiltzen dituzten oinarri kontzeptualak hartzen ditu kontuan.

Azterketa hau burutzeko bildu den izen-zerrenda eliteari lotua baldin badago ere, batik bat, estatus sozioekonomiko goreneko taldeek osatzen dutenengana mugatzen da. Baina elitearen portzentajea zenbatekoa den argitu aurretik, izen-zerrenda hau osoa ez dela adierazi beharrean gaude. Izan ere, aukeraketa honetan ez dira hainbat arlo kontuan hartu, banka, finantza eta enpresa-lobbyak adibidez, batik bat azterketa-eremu hauek ezagutzeko informazioa eskuratzea ez delako batere erraza gertatzen.

Ikerketa honek goi-mailako lanpostuetara -gizarte-maila garaia dutenengana-, heltzen direnen ibilbidea aztertzeo asmoa betetzen du. Elitekoak ospe, eragin eta lansari edo soldata garaiak dituzten populazio-taldeak dira. Pribilegioz, abantailaz hornituta dauden eta familia oparoetan jaio diren populazio-taldeak dira. Boterea eta eragina dutenak, beren erabakiekin gizarteko bizimodua baldintzatu eta etorkizunean eragina izan dezaketenak.

Zerrenda honetan bildu dira eliteari egozten zaizkion eremu eta arlo gehienak: elite politikoa, ekonomikoa eta kultural edo intelektuala,.

Elite kultural eta intelektuala pentsamenduaren produkzio, erreprodukzio eta zabalkundearen kontrola duen taldea da. Jakintzaren kontrola elite ekonomiko eta politikoen arteko harremani lotua ematen da. Unibertsitate, ikerketa-zentro, museo, argitaletxe eta komunikabide ezagunenetako zuzendariak bildu dira zerrendan. Elite kulturalaren sarea nola egituratzen den aztertzea ez da lan erraza izan. Artea, idazleak eta musika garaikidearen alderdiak ere bildu ditugu zerrenda honetan.

Elite ekonomikoaren errepresentazioan enpresa publiko eta pribatuak aztertu dira. Batetik, ekonomiaren arloan ranking-etako zerrendetan irabazirik gehien lortzen duten enpresak aukeratu dira, hala nola, energia-enpresak, eraikuntzakoak, eta automozio eta mekanizatuan dihardutenak, guztira 113. Urtean 70 milioi euroko fakturazioa baino gehiago duten enpresak dira. Administrazio-kontseiluen azterketa burutu da, gerente, zuzendari eta aholkulari eta kontseilarien izen-zerrenda bilduz. Enpresen arteko sarea ezagutzeko aukera ematen du azterketa honek. Bertan azaltzen dira bankan eta politikan izandakoak ere, elite politiko eta ekonomikoaren arteko harremanen adibide gisa. Izaera teknokratikoa hartu duen enpresa-sarea da hor dagoena, hainbatetan transnazionala dena, Estatu espainoletik haratago zabaldua dagoena. Zerrenda honetan aurkitzen ditugu atzerrikotik etorritako enpresa-buru ugari ere. Bestetik, Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak diruz hornitu dituen titularitate pribatuko hainbat enpresa publikoren sare osoa ere bildu da. Iturri eta diru-laguntza

publikoaz sortutako edo lagundutako erakundeak dira, guztiak zuzendaritza pribatuek kudeatzen dituztenak. Eusko Jaurlaritzaren agirietatik 192 enpresaren datuak aztertu dira, Foru Aldundietatik 41 eta Nafarroako Foru Gobernukotik 25 enpresa. Guztira, eremu publikoak (politikoak) babestutako 258 enpresatako administrazio-kontseilu aztertu dira.

Elite politikoa oso esparru zabala da gure ikerketan. Nafarroa eta Euskadiko Autonomia Erkidegoan diren botere-organo guztiak bildu dira: Legebiltzarretako gobernua eta ordezkariak, foru-ahaldun nagusiak eta batzarkideak, hiriburuetako hautetsi eta alkateak, Administrazioan buruzagitza-lanpostuetan daudenak ere bai. Gobernuko sail, erakunde eta administrazio guztietako goi-mailako lanpostuak betetzen dituztenak, aholkulari eta kontseilariak, baita administrazio-ko lanpostu teknikoak ere bildu dira.

Soziologiaren ikuspegitik klase eta eliteari egotzen zaizkion ezaugarriak aztertzen badira, azken hamarkadetan aldaketa esanguratsuak izan direlako izan da. Klase kontzeptuaren bilakaera ez da bakarrik baldintza sozioekonomikoetan aldatu, hau da, errentaren parametroetan, goi-mailako lanpostuen identifikazioa ere zalantzakoa bihurtu da gaur egungo lan-merkatuaren geruzetan. Britainia Handian egin diren ikerketek agerian uzten dituzte mugikortasun sozialean emandako aldaketak. Ikerketa hauetan klasearteko bereizketa egiteko, biztanleria eta klase sozialen estruktura zehazteko, hiru oinarri ezartzen dira: giza kapitala, kultura-kapitala eta ekonomia-kapitala. Kapital ekonomikoan errenta eta etxebizitzaren balorea hartzen dira kontuan, hau da, soldata handiak eta jabetzak izatea. Gutxiengo batek betetzen dituen baldintzak dira hauek. *Elitist Britain* txostenaren arabera populazioaren % 5ek soilik ditu oso soldata altuak. Antzeko emaitzak aipatzen dira Euskadiko Autonomia Erkidegoan ere, non populazioaren % 4ak bakarrik eskuratzen du 60.000 euroko errenta. Giza kapitalean familiaren eta harreman-sareen azterketa burutzen du, unibertsitateko prestakuntza akademikoa arlo honen ikergai nagusitzat hartuz. Batik bat, unibertsitate pribatuaren analisisa egiten du Oxford eta Cambridge unibertsitateek elitean duten presentzia aztertzen duenean. Kasu honetan populazioaren % 1ek du aukera erakunde hauetan ikasteko. Unibertsitatean ematen dira bizitza profesionalean garatuko diren harreman-sare berriak. Britainia Handiko azterketaren arabera, harreman-sare hau hezkuntza pribatu eta independentean gauzatzen da. Ikerketa hau egiteko arrazoi nagusia hori izan da, hots, agintaritzak eta zuzendaritzako postuetan daudenen gain-errepresentazioa salatzea eta, bide batez, elitearen gehiegizko ordezkartzak aginte-organoetan nolako bilakaera duen aztertzea. Unibertsitateari buruzko azterketak erakusten du Unibertsitate pribatu ezagunetara iristeko baldintza ekonomikoak zedarri bat ezartzen duela klase sozialen artean. Azkenik, *kultura* kapitalaren atalean aisialdia eta denbora librearen inguruko ezaugarriak biltzen dira. Ikerketa honek artea, idazleak eta musika garaikidea aukeratzen ditu arlo honetan.

Elitea mugatzeko orduan, beraz, hiru ezaugarri hauek kontuan hartuta, honako taldeak sailkatzen ditu eredu britainiarrak, soziologia klasikoan erabiltzen diren klase terminoetatik oso urrun daudenak: elitea, ezarria dagoen klase ertaina; klase tekniko ertaina; langile-talde berriak; langile-talde tradizionala; goraka doazen zerbitzu-langileak eta estu bizi den taldea.

3. Hego Euskal Herriko azterketa sozioekonomikoa

Ikerketa honen emaitzen azalpenarekin hasi aurretik, elitearen identifikazioa egiteko helburuarekin, lagungarri izan diren hainbat erakunde ofizialen estatistika-datuak erabiliko ditugu. Nafarroa eta EAekoak batera biltzen dituen estatistika-egituren daturik ez dugu topatu, nazio bezala egituratzen gaituen erakunderik ez baitago. Beraz, Estatuko zein Erkidego bakoitzeko estatistika-erakundeen datuak erabiliko ditugu irakurketa bateratu bat egiteko.

Lehenik, EUSTATEk sortutako bi taula azaldu nahi ditugu. Biztanleria eta etxebizitzaren zentsua egoera sozioekonomikoaren arabera sailkatzen duen taula aurrena; eta jarraian, egoera sozioekonomikoaren arabera batez besteko errentaren datuak aztertzen dituen taula. Lehenengo taulan populazio-portzentajeak zehazten dira goi-mailako lanbideen arabera emanda. Bigarren taulak, aldiz, batez besteko errentaren datuen kopuruak adierazten ditu. Bi oinarri hauek datu ofizialen arabera klase eta estatus sozioekonomiko goreneko taldeak identifikatzen laguntzen dute. Estatus sozioekonomiko goreneko taldeak goi-mailako lanbideekin eta errenta altuekin alderatzen diren taldeak baitira.

Bestetik, Hezkuntza Ministerioko dokumentuak erabiliko ditugu, Educabab, Educabase eta Estatuko Hezkuntza Adierazlearen Sistema³ unibertsitateko ikasleen matrikula-datuak aurkezteko. Datu hauek lanbide-hezkuntza, batxilergo eta unibertsitateko matrikularen portzentajeak aztertzeko aukera ematen dute. Hemen ere Euskal Herriko perspektiba azaltzen duen erakunde estatistiko baten falta nabari dugu. Baina irakurketa hau EUSTAT eta NASTAT erakundeen datuekin kontrastatuko dugu.

Azken hamarkada honetako datuek unibertsitate pribatuen gorakada nabarmentzen dute, nahiz eta ekonomia krisian izan, urtetik urtera ikasle gehiago hartuz jarraitzen baitute. Unibertsitateko ikasleen matrikulazio-datuek azken joera honekin klase eta estatus sozioekonomikoen bereizketa nabarmentzeko balio dute. Izan ere, unibertsitate-matrikula publikoan baino lau aldiz garestiagoa da Deustu eta Mondragon

3 Ministerio de Educación y Formación Profesional (2020): *Sistema estatal de indicadores de la educación*, Instituto Nacional de Evaluación Educativa.

“ EUSKAL AUTONOMI ERKIDEGOAN, BATAZ
BESTE, BIZTANLERIAREN % 4AK 61.000 EURO
BAINO GEHIAGOKO ERRENTA JASOTZEN DU.
100.000 EURO BAINO GEHIAGO JASOTZEN
DUEN PORTZENTAJEA EZ DA % 1ERA IRISTEN.

Unibertsitatean, adibidez, eta zazpi aldiz garestiagoa Universidad de Navarra-n⁴. Badirudi krisiak ez duela eraginik izan erakunde pribatuetan.

Aurretiko azterketa hau egin eta gero, datu estatistikoaren analisiaren atalean botere ekonomiko eta politikoaren portzentajeak agerian utziko dute unibertsitate pribatuan ikasi dutenen gain-errepresentazioa. Hainbat eremutan oso nabarmen, gainera. Has gaitezen, beraz, lehen taularen aurkezpenarekin, non EUSTATEk ematen dituen biztanleria eta okupazioaren kopuru absolutuak eta erlatiboak jasotzen diren⁵.

- 4 “En 2008, las universidades públicas atraían el 21,7% de la población de 18 a 27 años que deseaba cursar estudios universitarios. En 2017 esa atracción ha crecido hasta el 26,6% de esa franja de edades. Simultáneamente, mientras que en 2008 solo el 2,6% de la población entre 18 y 27 años elegía las universidades privadas para cursar estudios universitarios, en 2017 ya elegía este tipo de universidades el 5,9% de esa población. Es decir, lo que se ha producido, como se ha señalado anteriormente, es un fuerte crecimiento de 8,2 puntos en la preferencia para seguir estudios universitarios. De ese crecimiento las universidades públicas han captado 4,9 puntos y las universidades privadas 3,3 puntos. Es sin duda un cambio sustancial del reparto en la captación de estudiantes, dada la situación de partida que tenían ambos subsectores en la distribución de la matrícula, y resulta evidente que la oferta privada ha construido su propia demanda ofreciendo servicios educativos diferenciales, en un contexto especialmente adverso de caída de los demandantes potenciales, los jóvenes, e intensa crisis económica. Y lo ha logrado ofreciendo además, un precio que –por término medio– cuadruplica el de las familias deben atender para pagar los estudios universitarios de sus miembros... Resulta significativa la dispar evolución que se ha producido en cada uno de los ámbitos, público o privado, de la matrícula por niveles de estudio y por modalidad de enseñanza. Ambos tipos de universidades han visto reducirse su matrícula de estudios de grado en los últimos cinco cursos (2012/13 a 2017/18), un descenso del 13,9 % las universidades públicas y un 1,2 % las universidades privadas. (CRUE, pag 15)”.
- 5 EUSTAT (2016): “Biztanleria eta Etxebizitzaren Zentsua, Egoera sozioekonomikoaren arabera”. Norberak moldatua.

Taula 1

**Biztanleria eta etxebizitzaren zentsua egoera sozioekonomikoaren arabera.
Euskal Autonomia Erkidegoa. EUSTAT 2016.**

	Biztanleria	%
Enpresa-buruak	8.026	0,4
Profesio liberalak	22.387	1,0
Jabe txikiak	31.896	1,5
Enpresa-zuzendari eta buruak	13.996	0,6
Goi-mailako profesioak	157.417	7,2
Bitarteko profesioak	97.078	4,5
Autonomoak eta familia-laguntzak	96.734	4,4
Erdi-mailako arduradunak	14.946	0,7
Administrazio-langileak	103.256	4,7
Merkataritza eta zerbitzu-enplegatuak	181.205	8,3
Langile kualifikatuak	152.762	7,0
Langile ez-kualifikatuak	170.095	7,8
Ez-aktibo ez-menpekoak	-	-
Ez-aktibo menpekoak	1.126.779	51,8
GUZTIRA	2.176.577	100

Norberak moldatua.

Taula honetan Lanbideen Sailkapen Nazionalaren kodetza (CON-2011) erabiltzen da goi-mailako taldeak identifikatzeko orduan. EUSTATEk honako lanbideak biltzen ditu goi-mailako lanpostuen zerrendan: enpresa-buruak, zuzendaritzakoak, gerentziakoak, lanbide liberalak, jabe txikiak eta goi-mailako lanbideak. Adierazi behar da lanpostu hauetan ematen direla errenta osoaren batez besteko garaienak. Talde honek, osotara hartuta, populazioaren % 10,7ko portzentajea ematen du. Beraiek dira estatistika-zerbitzu ofizialarentzat goi-mailako taldearen kopuru ofiziala osatzen dutenak.

Nafarroako Estatistika Erakundeak erabiltzen duen sailkapenak, berriz, oraindik nahasmen gehiago sortzen du gure azterketan. Bertan datozen lanbideen zerrendak ez dira bat etortzen aipatu diren lanbideekin. Hau da bertan proposatzen den zerrenda: zuzendaritza eta gerentziako lanpostuak; ikerlari eta profesional zientifiko eta intelektualak; gizabanako teknikoak eta laguntzaile profesionalak; administrazio

eta bulego kontulariak; zerbitzu, salmenta eta babesera zuzendutako gizabanakoak; nekazaritza, abeltzaintza, baso-ustiapien eta arrantzara zuzendutako gizabanakoak; eraikuntza, artisautza eta industri-manufakturen gizabanakoak; muntatzaile eta makineria operadoreak; oinarrizko okupazioetako gizabanakoak; eta, indar armatuak. Nafarroako Estatistika Erakundeak ez du egoera sozioekonomikoaren arabera azterketa zehatzik burutzen. Baliteke argitasunik eza hau beharbada estatistika hauek aztertu nahi duten eremuarengatik izatea. Batik bat, pobrezia-eremuak eta hauen eboluzioa aztertzeko eraikitzen direlako horrelako datu-bildumak. Izan ere, ez dira inoiz elitearen bilakaeraren portzentajeak ezagutzeko xedearekin burutzen. Ondorio nagusi moduan datuetan batasunik ez dugula adierazi behar dugu. Euskal Herria aztertzeko duen azterketa estatistikorik ez da burutzen, are gutxiago horrelako azterketa-lan bat egituratu nahi denean.

Errentaren azterketako datuak ematen direnean batez besteko errenta osoa kontsumo-unitatearen arabera batez beste 21.760 eurokoa da EAEn eta 14.722koa pertsonako. Nafarroan, berriz, kontsumo-unitatearen arabera kopurua 20.094 eurokoa da, eta pertsonako 13.585ekoa. Zehaztasun gehiago ematen duen taula hau aurkezten dugu, EUSTATEk 2016an egindakoa, bertan goi-mailako lanbideen batez bestekoak azaltzeko⁶.

Taula 2

Inguruabar sozioekonomikoaren arabera batazbesteko errenta sexuaren arabera, EUSTAT 2016.

2016 (Eurotan)	Errenta Osoa	Gizonezkoen errenta	Emakumezkoen errenta
Goi-mailako lanbideak	40.447	47.817	34.456
Erdi-mailako arduradunak	22.972	29.647	19.043
Artisau eta nekazariak	22.649	25.332	17.321
Langile kualifikatuak	27.144	27.790	22.353
Langile ez-kualifikatuak	14.892	19.677	10.375
Ez-aktibo menpekoak	13.331	18.448	9.487

Norberak moldatua.

6 EUSTAT, (2016): "Inguruabar sozioekonomikoaren arabera batazbesteko errenta sexuaren arabera". Norberak moldatua.

Bigarren taula honetan, errenta-motaren azterketa burutzen da, baina EUSTATEk ez du Lanbideen Sailkapen Nazionalaren CON-2011 kodetza erabiltzen oraingo honetan. Errenta osoaren datua 18 urteko edo hortik gorako pertsonen lan-errentak, ekonomia-jarduera, transferentzien edo gizarte-prestazioen ondoriozko errentak eta higigarri eta higiezinaren kapitalaren errentak gehitzetik edo batzetik ateratzen da.

Ondorioetara iritsi aurretik, azter dezagun goi-mailako taldearen errenta osoaren batez besteko kopurua, 40.447 eurokoa, zeina nabarmentzeko datua baita sexu-bereizketaren azterketa egiten denean. Kontua da 47.817 euroko errentak mugatzen duela gizonezkoen taldea, eta emakumezkoetan, aldiz, 34.456koak, hau da, % 28 gutxiagokoak. Lan-merkatuak nolako aldeak eraten dituen ikusita, bistan dago izugarrizko arrakala ematen dela genero eta berdintasunaren aldeko borrokan. Goi-mailako taldeko biztanleria-kopurua ere identifikatzen da taula hauetan: guztira 201.826 pertsonak osatzen dute goi-mailako taldea, populazio osoaren % 10,7ak. Talde hau da errentaren 40.447ko batez bestekoa gainditzen duen populazioa.

Bi taula hauen azterketa egiteko adierazi behar da erregistroen kategorizazioa ez dela bat etortzen, zaku berean biltzen baititu errenta garaienak lanpostuen kategorizazioaren kodetza erabili gabe. Noski, goi-mailako lanpostuetan dihardutenak errentaren batez bestekoaren oso gaintetik dauden taldeak dira. Baina ez da zuzena elitearen kategorian sartzea goi-mailako profesioetan dauden guztiak, nahiz eta esan dugun bezala, errentan batez besteko garaia izan.

Baina hori al da elitea osatzen duen biztanleria-kopuruaren portzentajea?

EUSTATEko errenta osoaren datuak oinarritzat hartuta, langa hauek proposatzen ditugu biztanleria-portzentajearen ehuneko zehatz bat alderatzeko⁷: 61.000 eurotik 78.000 bitarteko populazioaren % 2,07; 78.000 eurotik 90.000 bitarteko % 0,65; 90.000 eurotik 102.000 bitartean % 0,38; azkenik, 102.001 eurotik gorako % 0,93ko portzentajearekin. Zenbaki hauek goi-mailako taldearen barruan egiten den bigarren sailkapen bat da, non aurretik talde honek populazioaren % 10,7ko portzentajea biltzen duela esan badugu ere, langa berri honek goi-mailako taldea bitan zatitzen du. Guztira, biztanleriaren % 4,03ko portzentajea da 61.000 eurotik gorako errenta osoa duen goreneko taldea. Bera izan liteke "elitea" ordezkatzeko duen gizarte-biztanleriaren portzentaje zehatza errentaren batez bestekoaren arabera. Bera izango da, beraz, gure datuekin alderatuko dugun portzentajea eremu politiko, ekonomiko eta intelektualean eliteen gain-errepresentazioa ematen den ala ez ezagutzeko orduan.

7 EUSTAT (2018): "18 urteko eta gehiagoko biztanleria, errenta pertsonalaren geruzaren, lurralde historikoaren eta sexuaren arabera".

” 2018. URTEAN HEGO EUSKAL HERRIAN GRADU IKASLE BERRIEN % 32,7AK UNIBERTSITATE PRIBATUA AUKERATU ZUEN. NAFARROAN, BERRIZ, IKASLE GEHIENGOAK UNIBERTSITATE PRIBATUA AUKERATZEN DU, % 53,9AK.

4. Unibertsitate pribatua datuetan


Euskal Herria bere lurraldean biltzen duen hezkuntza-saileko azterketa estatistikoak egiten dituen erakunderik ez dago eta nazio-eremu hau neurtzen duten lanak oso urriak direnez, Paulo Iztuetak 1996an *Jakinen* argitara emandako “Irakaskuntza katolikoa Hego Euskal Herrian” lana erabiliko dugu hezkuntza pribatuaren bilakaera ezagutzeko abiapuntu gisa. Lan honetan egileak sare pribatuko eskolatzean Elizak duen lekua nabarmentzen du. Hego Euskal Herriko ikasleriaren datuak ere badakartza. Sare pribatuari buruz egiten duen hausnarketa abiapuntutzat har liteke gaur egungo egoerarekin erkatzeko, berak esatera hezkuntza pribatuak garrantzi handia baitu “irakaskuntza-maila guztietan, ez-unibertsitarioan bezala unibertsitarioan”⁸. Gure datuek oraindik ere horrela dela frogatu baino ez dute egiten. Gure asmoa unibertsitateko ikasle-matrikularen bilakaera-datuak ezagutzea da goi-mailako taldeen unibertsitateko prestakuntza-emaitezkin erkatu eta eliteen goi-errepresentazioa botere-guneetan azaltzeko.

Lan honetan unibertsitate pribatuaren bilakaera 1981-1995 urte-bitartean aztertzen duenean unibertsitate publikoaren aldeko joera nabarmentzen du, zeinaren portzentajea baita ehuneko 65etik 69a bitartekoa. Baina aipatu bezala, Jesuiten eta Opus Dei-koen unibertsitate-eskaintza pribatuaren eragina bortitza dela nabarmentzen du. Estatuko datuekin alderatuz gero, harrigarria da Espainiaren aldean Hego Euskal Herrian goi-irakaskuntza pribatuak duen eragina. Ondoko taula honetan frogatuta geratzen denez, oraindik ere unibertsitate pribatuaren eragina oso handia da eta azken hamarkada honetan gora egin du, gainera.

8 Iztueta, Paulo (1996): “Irakaskuntza katolikoa Hego Euskal Herrian”, *Jakin*, 95, 64-85 orr.

Taula 3

Nafarroako Foru Erkidegoa eta Euskadiko Autonomi Erkidegoa batera 2018-2019



Iturria: EDUCABASE datu estatistikoen ataria. Norberak moldatua.

Unibertsitate-erakunde bakoitzaren iturri ofizialetako datuak bateratu ditugu taula honetan, 2018-2019 ikasturtea oinarritzat hartuta. Eta Paulo Iztuetak orduan emandako datuekin bat datozen portzentajeak dira, gainera.

Joera hori egiaztatzen duen beste iturria 2020an Ministerioak urtero argitaratzen duen "Sistema estatal de indicadores de la educación"⁹ agiria da. Ikasleen eskolatzeko datuak ematen ditu adinaren arabera sailkatuta. EAEn 2017-2018 ikasturtean unibertsitatean matrikulatzen diren 18 urteko ikasleen % 42,2 portzentajea ematen duela esaten du, horietatik % 25,4 unibertsitate pribatuan eta % 74,6 unibertsitate publikoan matrikulatzen direlarik. Nafarroako Foru Komunitatean, aldiz, unibertsitatea aukeratzen duen ikasleriaren portzentajeak % 36,8koa ematen du, eta horietatik % 57,2 unibertsitate pribatuan eta % 42,8 publikoan dabilta¹⁰. Bi erkidegoetako datuak Estatuko datuen batez bestekoen gaineratik dauden portzentajeak dira, baina Nafarroako datuak oraindik ere garaiagoak ditugu. Bereziki Universidad de Navarra-ren datuek eragindako egoerari zor zaio igoera hori, da, bertan ikasten duen atzerriko ikasle-kopuruaren portzentajeariari, alegia, aurrerago azalduko duguna. CRUE Unibertsitate-Errektoreen txostenaren arabera, Estatuan unibertsitate-ikasketak egiteko aukera egiten duen ikasleen batez besteko portzentajea % 32koa da. Bistan da kopuru horiek

9 Ministerio de Ciencia, Innovación y Universidades(Ed.)(2019): *Datos y cifras del Sistema Universitario Español*.

10 Ministerio de Educación y Formación Profesional (2020): "Sistema estatal de indicadores de la educación". Madrid. Instituto Nacional de Evaluación Educativa. Subdirección General de Estadística y Estudios.

arras garaiagoak direla bi Komunitateetan, Nafarroan 4 punturekin eta EAEn, berriz, 10 puntu gehiagorekin.

EUSTAT¹¹ estatistika-zerbitzuak 2018/19 ikasturteari buruz emandako prentsa-oharrean honako azalpena zabaltzen zuen ikasle-matrikulari buruz: unibertsitate publikoaren eta pribatuaren arteko diferentzia 7 puntu apaltzen zela, alegia:

"Unibertsitate publikoak unibertsitateko ikasleen % 72 du; azken zortzi urteotan, ehuneko 7 puntu galdu ditu... Euskal Autonomia Erkidegoan, 18 urteko biztanleen % 44 unibertsitate-ikasketaren bat egiten ziharduen 18 urteko gazteetan, Euskadin, unibertsitate-ikasketei lotutako eskolatzeta-tasa, autonomia-erkidegoen artean alderatuta, % 44koa da; zerrendako bigarren erkidegoa da, Madrilen atzetik (% 52), Estatuko batezbestekoa baino ehuneko 11 puntu gehiagorekin".

CRUEren arabera, unibertsitate pribatuan ikasten duen Estatuko batez besteko portzentajea % 5,9koa da. EAEn unibertsitate pribatuetan ikasten duen gizarte-taldeen populazioa % 11koa dela ondorioztatzen da, hots, Estatuko batez bestekoaren bikoitza. Datu hau nola eraikitzen den azaltzea interesgarria da. Izan ere, unibertsitate-ikasketak aukeratzen dituen ikasleriak % 44ko portzentajea osatzen du, gainontzeko ikasleek ikasketak utzi edo lanbide-hezkuntza aukeratzen duten bitartean. Beraz, aurretik azaldu dugun % 44ko horretatik unibertsitate pribatua aukeratzen dutenak % 25,4ko portzentajea osatzen du, unibertsitate-ikasleriaren laurdena. Nafarroako Foru Komunitatean ikasleen unibertsitate-ikasketak aukeratzen dituen ikasleriak % 35,6ko portzentajea osatzen du. Baina Nafarroan % 55ek unibertsitate pribatua aukeratzen du publikoaren gainerik. Datu hauek ikasle atzerritarren kopuruak kontuan hartuta lortzen dira. Nabarmendu behar da Nafarroako Unibertsitatean gradu-ikasketak burutzen dituzten ikasle atzerritarren kopurua ezohikoa dela % 14,19ko portzentajearekin. Guztira 1.169 ikasle atzerritar daude gradu-ikasketak egiten.

Euskal Herriko unibertsitateen irakurketa egiteko bateratasunik ez dagoenez gero, kopuru hauek ematen ditugu Estatuko estatistiketan oinarrituta unibertsitate pribatuan ikasteko aukera duen populazio-portzentajeak aztertzeko helburuarekin. Jarraian datorren taulan gradu-ikasleen datuak Erkidegoaren arabera sailkatzen dira. Hego Euskal Herrian unibertsitate publikoa aukeratzen duen ikasle-portzentajea % 67,3koa dela ondorioztatzen da; unibertsitate pribatuaren portzentajea, aldiz, % 32,7koa. Antzeko datua ematen da gradu-ikasle berrien matrikula-datuen portzentajea ateratzen dugunean, non % 31,1ek unibertsitate pribatua aukeratzen duen eta % 69,9ak unibertsitate publikoa.

11 EUSTAT (2020): *Aumenta el número de estudiantes de las universidades vascas en el curso 2018/19 por segundo año consecutivo, nota de prensa 20/07/2020.*

Taula 4**Nafarroako Foru eta Euskadiko Autonomi Erkidegoan Matrikulatutako Graduetako Ikasleak Unibertsitate Publiko eta Pribatuetan, 2018-2019¹²**

2018-2019	Unibertsitate-izaera	Graduko ikasleak	%	Ikasle berriak	%
UPV-EHU	Publikoa	36.156	74,5	8.805	72,5
Mondragon Unibertsitatea	Pribatua	4.312	8,9	1.338	11,0
Universidad de Deusto	Pribatua	8.046	16,6	2.008	16,5
Guztira		48.514		12.151	
Universidad de Navarra	Pribatua	8.574	55,0	2.133	53,9
UPNA-NUP	Publikoa	7.007	45,0	1.826	46,1
Guztira		15.581		3.959	

Iturria: EDUCABASE. Norberak landua.

Unibertsitate bakoitzaren irakurketa azalduko da segidan.

Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV-EHU) gradu-ikasketak egiten 36.156 ikasle daude, gradu-ondoak egiten 3.409 eta doktorego-ikasketak egiten 3.805. Ikasle atzerritarren kopurua guztira 2.234koa da, horietatik 873 ikasle gradu-ikasketak egiten ari direnak. Ikasturte honetan matrikulatutako ikasle berrien kopurua 8.805koa da. Kopuru osoak ikasketa-adarretan banatuz gero, emaitza hauek ateratzen ditugu: 15.985 ikasle aurkitzen dira Gizarte eta Lege Zientzian gradu-ikasketak burutzen % 44,2ko portzentajearekin; 8.253 ikasle Ingeniaritza eta Arkitektura egiten, % 22,8koarekin; 5.836 ikasle Osasun-Zientzietan % 16,1ekoarekin; Arteak eta Giza Zientzien graduetan 3.370 ikasle % 9,3koarekin; azkenik, 2.695 ikasle Zientzietan gradu-ikasketak burutzen, % 7,4koarekin¹³.

UPV-EHUren datuek azken urteetan ikasleen kopurua graduetan jaitsi egin dela erakusten dute. Gradu-tituluen eskaintza igo bada ere, 2017-2018 ikasturtean 71 titulu eskaintzen ziren eta egun, 2020-21 ikasturtean, 80 izatera iritsi da; ikasle-kopurua, ordea, 36.484 jaitsi egin da: ikasle berrien matrikulen garapena 8.777koa izan da

12 Soilik presentziazko graduak eta aurrez aurreko ikasketak kontuan hartu dira. Universidad a Distancia-ren (UNED) datuak ez dira jaso. Atzerriko ikasleen kopuruari dagokionez, Universidad de Navarra-k 1.373 ikasle atzerritar ditu gradu-ikasketak egiten; Euskal Herriko Unibertsitateak 873 ikasle; Mondragon Unibertsitateak 216; Nafarroako Unibertsitate Publikoak 210 eta, azkenik, Universidad de Deusto-k 82 (EDUCABASE 2018-2019).

13 UPV-EHUren datu estatistikoak, 2018-2019.

2018an eta 2019an, berriz, 8.450ekoa; azken ikasturtean, 2020an, 8.448 ikasle-berri matrikulatu dira.

Deustuko Unibertsitatearen 2018-2019 ikasturteko datu ofizialak ez baititugu lortu, 2019-2020 ikasturtekoak erabili ditugu¹⁴. Guztira 10.880 ikasle matrikulatu direla adierazten dute agiri ofizialetan: 8.274 Bilboko Campusean, 1.892 Donostiakoan eta Begoñako Andramari Irakasle Fakultatean 714 ikasle. Graduetako ikasleek 8.362ko kopurua osatzen dute 2019-20 ikasturtean, gradu ondoko ikasketak egiten 2.061 ikasle ari dira eta 457 doktorego-ikasketak egiten. Ikasturte honetan Graduiko ikasleen kopuru osoa honela banatzen da: Giza Zientzia eta Zuzenbidean 5.994 ikasle matrikulatu dira, Arte eta Humanitateetan 490, Ingeniaritza eta Arkitekturaren 933 eta Osasun Zientzietan 713. Gradu, gradu ondoko eta doktorego-ikasketak betetzen ari diren ikasle atzerritarren kopurua 1.596koa da.

Mondragon Unibertsitatean (MU), 2018-2019 ikasturtean, Graduiko matrikulen ikasle-kopurua 4.360koa da, honela banatuta: Enpresa-Zientzietako Fakultatean 1265, Humanitate eta Hezkuntza Zientzietan 1096, Gastronomian 414 eta Goi-Eskola Politeknikoan 1585. Ikasle-kopuruak 2019-2020 ikasturtean gora egin du nabarmen, 300 ikasle gehiago direla adierazten dute datu ofizialek.

Nafarroako Unibertsitate Publikoak 2018-2019 ikasturtean guztira 7.830 ikasle dituela azaltzen du: Gradu-ikasketak egiten 7.007 ikasle, gradu ondokoak egiten 823 eta doktorego-ikasketak egiten 395. Ikasle atzerritarren kopurua 341ekoa da, % 4,3koa. Graduiko ikasleen kopuru osoa honela banatzen da: Giza, Gizarte eta Hezkuntza Zientzietan 1.820 ikasle; Zientzia Juridikoen Fakultatean 645, Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatean 1.415; Industria, Informatika eta Telekomunikazio Ingeniaritzako Fakultatean 1.917, Nekazaritza, Ingeniaritza eta Biozientzietako Eskola Teknikoan 532, eta Osasun Zientzien Fakultatean 678.

Universidad de Navarra 2018. urtean Estatuko unibertsitate pribatuen artean ohorerik gehien zuen unibertsitate gisa izendatu zuten nazioarteko ranking-etan, eta Estatuko bigarrena azterketa orokorretan Universidad Autónoma de Barcelona-ren atzetik. Unibertsitate pribatu honetan 2014tik 2018ra arteko bilakaeran graduiko ikasleen kopuruak gora egiten du, 7.639 ikasle izatetik 8.239 ikasle izatera eta, orobat, graduak 34 izatetik 38 izatera pasatzen baita. Graduiko ikasketak burutzen ari diren ikasleak 8.239 dira, nazioartekoak 1.169, % 14,19ko portzentajearekin; Estatuko jatorria duten ikasleen kopurua, berriz, 7.070ekoa da, % 85,81ekoarekin. Universidad de Navarra-n 12.738 ikasle dira guztira: master-ikasleak 2.317, eta hauetatik atzerritarrak 1.163, % 50,19koarekin, doktorego-ikasleak 1.006, atzerritarrak 321, % 31,91koarekin. Datu hauek bigarren irakurketa bat eskatzen dute, esanez gatozenez, bertan ikasten duen ikasle atzerritarren kopurua oso handia delako: 3.083koa balore absolutuetan, hau da, gradu-, master- eta doktorego-ikasketak kontuan hartuta, % 24,2ko portzentajea ematen

14 Memoria Universidad de Deusto, 2018-2019.

du. Atzerriko ikasleen kopurua Deustu Unibertsitatearekin alderatzen badugu, aldeak oso nabarmenak dira, bikoiztu egiten baititu portzentajeak. Nafarroan unibertsitate pribatua ikasketak burutzeko interes elitista aspaldikoa den arren, gaur egun atzerriar ikasleen datuak aurretik aipatu den % 54,1eko portzentajea gailentzen dela erakusten du eta publikoaren gainetik ipintzen du unibertsitate pribatuaren datua. Datu hau kontuan hartzen ez bada, unibertsitate publiko eta pribatuko ikasleen portzentaje-kopuruak berdintzeko arriskua dago, ekidin beharreko zerbait oinarritzkoa dena.

5. Datu-bilketa eta baliotasuna

Euskal Herria bi albo-estatuaren arteko tenka nazionalean eta hiru administrazioetan banatua dago. Gure xedea Euskal Herria bere osotasunean hartu eta aztertzea zen, eta da, baina, arestian esan denez, gure ikerketa-eremua ezinbestez Hego Euskal Herrira mugatu da, datu-bilketa koherentea bururatzea zaila gertatzen zelako. Hori du ezinbesteko muga ikerketa honek, zeinaren arabera agerian geratzen baita euskal gizarteak aldi berean naziotasun eta klasearen arteko arazoa ezkututzen duela, funtsezkoa den zerbait. Iparraldea ikerketa honetatik at geratzen da, inoiz antzeko beste ikerketa batekin osatu beharko litzatekeena. Orduan hartuko luke ikerketa honek ikuspegi osatuago bat.

Lehen lana datuak bildu eta prozesatzea izan da. Eta egiteko hau hogeita hamarretik gorako unibertsitate-talde batek lan egin du eskura izan dituen iturri ofizialak arakatu eta jasoz gero, arlo berezietan sailkatu eta baliozkotatzen. Eginkizun honetan eta, bereziki, datu-bilketan EHUko Bilbo eta Donostiako Hezkuntza Fakultateko irakasleak jardun dira; baliozkotu eta analisi estatistikoak egiten, berriz, Donostiako Hezkuntza Zientziak Fakultateko irakasleak. Lan honen atarian aipatzen diren parte-hartzaileen zerrendan aurkezten diren gainontzekoek hamar zatitan banatutako eremu bakoitzari dagokion azterketa burutu dute. Zerrenda honetan sartzen dira EHUko hainbat Fakultateko katedradun, titular eta doktore, hainbat dekanok eta errektore izandakoak. Eskertzekoa da kolektibo honek egin duen lana, beti ere begi batek ikusten ez duena besteak ikus baitezake, begirada zabaldu eta kontrastatzea eskatzen baitu.

5.1. Azterbide-prozedura

Eliteei buruzko azterketa honek norbanako bakoitzaren unibertsitateko ibilbide akademikoa hartu du kontuan. Hasiera batean bigarren hezkuntzan burututako ibilbidea ere aztertu nahi zen eta hezkuntza pribatuaren garapena nola aldatu den ikusi. Mugikortasun sozialaren arrakala nolakoa den baloratu nahi genuen. Aurretik adierazi den moduan, ordea, ez da posible izan inork gutxik adierazten duelako bere curriculumean non egin dituen bigarren hezkuntzako ikasketak. Nahiz eta bigarren

hezkuntzan hizkuntza-ereduaren inguruan datu batzuk aurreratzen ditugun, hurrengo baterako utzi dugu bigarren hezkuntza eta unibertsitate-izaeraren arteko alderaketa aztertzea.

Ikasketen sailkapena egiteko orduan unibertsitate bakoitzaren titularitatea eta lurraldea aztertzea hobetsi da, Estatuko, Atzerriko edo Euskal Herriko unibertsitate publikoak eta pribatuak bereiziz. Lurraldetasunaren esparrua, batetik, EAEk eta Nafarroako Foru Komunitateak osatzen dute eta, bestetik, Estatu eta Atzerriko unibertsitate-multzoak. Esana daukagunez, halabeharrez, azterketa hau Hegoaldera mugatzen da. Unibertsitate-ikasketen neurketa eta ikerketari bide ematen dion curriculum akademikoa Hego Euskal Herrian betetzen dutenen artean gauzatzen da.

Aurrez aurreko eskolak ematen dituzten unibertsitateak baino ez dira kontuan hartu. Izaera publikoa dutenak UPV-EHU eta UPNA-NUP dira. Unibertsitate independente edo pribatuen taldea, berriz, hiru unibertsitate hauek osatzen dute: Deustu Unibertsitateak, MUK eta Universidad de Navarra-k. Bestalde, UNEDk izaera publikoa duen arren, Estatuko unibertsitateen zerrendan kokatu dugu, presentzialtasunik ez duen egitura akademikoa delako. Bereizketa bera egiten da estatu-mailako unibertsitateko matrikulazio-datu ofizialak argitaratzen diren estatistika-dokumentuetan.

Unibertsitateko lehen diplomatura, hots, lizentziatura edo graduazioa bakarrik aztertzen da. Graduatu ondokoen eta doktorego-ikasketen analisirik ez da burutu. Gradua edo Lizentziatura lortu edo amaitu ez dutenak *“ez du unibertsitate-prestakuntzarik”* moduan katalogatu dira. Talde honetan sartu dira, halaber, Lanbide Hezkuntzan prestakuntza jaso dutenak. Emaitzetan bada erregistro-kopuru handi bat ere ikasketak unibertsitatean egin dituela dioena, baina unibertsitatea ezezaguna duena, non egin dituen ez dakiena. Hauen datuak bildu ezin izan direnen taldean katalogatu dira, *“ez da curriculum a ezagutzen”* izenpean. Gehienetan parte hartzeko borondaterik azaldu ez dutenen erregistroak izan dira, asko baitira gure parte-hartze deiarri erantzun ez diotenak.

5.2. Euskara

Euskararen azterketa burutzea ere gure asmoetan zegoen helburuetako bat izan da. Euskararen ezagutza-mailaren akreditazioa burutzeko European erreferentziazkotzat erabiltzen den marka onartu da: A1-A2-B1-B2-C1-C2. Hitz egiteko eta idazteko gaitasuna bermatzen duen erreferentzia C1 maila denez, berau erabili da Euskarazko gaitasuna baduela ondorioztatzeko. Beraz, hitz egin eta idazteko gaitasuna hobetsi da, hau da, tituluaren gaitetik komunikaziorako gaitasuna neurtu da. Curriculumean euskara-gaitasunaren aitortzarik ez dutenek *“ez du ageri”* moduan identifikatu da. Euskararen eremuak duen garrantziagatik, Gardentasunari buruzko atalean jardutean emango ditugu arlo honen inguruko argitasunak.

5.3. Ikerketa-arloak

Jarraian azaltzen diren tauletan ikerketa hau burutzeko aztertu diren sektoreak eta bilaketa-iturriak adierazten dira. Guztira 5.500 erregistro inguru bildu dira. Aipatu bezala, *Sutton Trust* eta *Social Mobility Commission* elkarteek *Elitist Britain* 2019ko dokumentua osatzeko erabili duten metodologia bera erabili da. Ikerketa burutzeko bi elkarte hauen baimena eskuratu da, gainera. Eta ahal izan den neurrian 2015-2020 bosturteko epealdiaren konparaketa burutu da.

Guztira gure azterketa-eremua 10 arlo hauek osatzen dute: Politikoak, Goi-karguak, Erakunde Publikoak, Kultura-Erakundeak, Komunikabideak eta Media, Enpresa Publikoak, Enpresa Pribatuak, Eragin Handiko Emakumeak, Artistak eta Mundu Sortzailea, eta amaitzeko Kirola.

Arlo hauetan aukeratu diren erregistroen zerrenda prestatzeko erakunde ofizialen dokumentuak erabili dira. Ezin izan denean oinarritzko bibliografia hartu dugu iturburu gisa. Arte- eta musika-eremuan, adibidez, hauek: Morazaren kartografiak eta *Mekarteak* ikerketa-lana, Okiñenaren *The History of Basque Music* liburua eta Etxepare Euskal Institutuak argitaratu emandako arte eta musika garaikideko liburuak¹⁵.

Ikerketa honek eremu politiko, ekonomiko eta intelektuala aztertzea du helburu. Eremu hauen sarea ezagutzeko honako arloak hartu ditu kontuan:

- **Politikoak:** Eusko Legebiltzarra, Nafarroako Foru Gobernua eta hiru lurraldetako Foru Aldundietako Batzar Nagusiak; Espainiako Diputatuen Kongresua eta Gorte Nagusiak; Europako Parlamentariak; eta azkenik, lau hiriburu-tako udal-agintari eta hautetsiak.
- **Goi-mailako kargu publikoak:** Eusko Jaurlaritzakoak, Nafarroako Foru Gobernuak eta Foru Aldundietako goi-mailako zuzendaritza-karguak. Zuzendariez gain, kontseilariak, idazkari-buruak eta aholkulariak ere zerrendan dira.
- **Erakunde publikoak:** Erakunde publikoen eremuak Osasuna eta Justizia azpimultzoak biltzen ditu: lehenengoan Osakidetza eta Osasunbidea erakunde-tako goi-mailako postuak, eta bigarrenengoan, berriz, EAE eta Nafarroako Justizia-Auzitegi Nagusiak.
- **Kultura- eta Hezkuntza-eremuak:** Atal honetan azpi-multzo hauek biltzen dira: batetik, titularitate publiko zein pribatuko unibertsitate-errektoretzak, eta bestetik, Zientzia Ikerketa zentro-tako Zuzendaritza nagusiak, Museo-tako Zuzendaritzak eta Kultura-Erakundeak.
- **Komunikabideak eta Mediak:** Lehenik, eremu honetan EITB taldeko administrazio-kontseilua eta Komunikabidearen zuzendaritza aztertu da; bestetik,

15 Moraza, J. L. (2007): *Ezezagunak* (Euskal Herriko arte garaikidearen kartografiak). Guggenheim, Bilbao; Okiñena, Jokin (2019): *The History of Basque Music*. Center for Basque Studies Press, University of Nevada; eta, Askoren Artean (2018): *Mekarteak. 68aren ostean. Artea eta praktika artistikoak Euskal Herrian 1968-2018*. Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea.

komunikazio-erakunde pribatuak, komunikabide-enpresetako administrazio-kontseiluak eta erredakzio-zuzendaritzak bilduz. Bigarren eremu honek beste azpiatal bat ere sortu du, zeinetan sartzen baitira komunikabideetan ezagun diren kazetariak eta Rikardo Arregi euskal kazetaritza saria lortu dutenak.

- **Enpresa Publikoak:** Arlo honek botere ekonomikoaren eremuan kokatutako zuzenbide pribatuko enpresa publikoak, partizipazio publikoko enpresak, eta Foru Aldundietako enpresa publikoak biltzen ditu. Enpresa publikoen zerrenda osatzeko Eusko Jaurlaritzako, Nafar Foru Gobernuko eta Foru Aldundietako zerrenda ofizialak hartu dira oinarritzat. Hiru azpiatalez osatu da enpresen eremu hau: batetik, Zuzenbide pribatuko erakunde publikoak daude, guztira 58 enpresa; bestetik, partizipazio publikoko entitateak dauzkagu, hauek gehiago dira, 134 guztira; azkenik, Foru Aldundietako enpresa publikoak. Zerrenda honetan sartzen dira kontsortzioak, arrisku-hondoak, fundazioak eta irabazi asmorik gabeko elkarteak ere.
- **Enpresa Pribatuak:** Enpresa pribatuaren eremuak fakturazio garaiak dituzten enpresen ekonomia-ranking-ak erabiltzen ditu zerrenda osatzeko oinarri bezala. Arlo honetako enpresa pribatuak 70 milioitik gorako fakturazioa baino garaia goa dutenak dira. Guztira, 150 enpresa ditugu horrelakoak. Atal honetan aztertu dira, halaber, 50 kooperatiba.
- **Eragin Handiko Emakumeak:** *Elitist Britain* dokumentuak *Harpers Bazaar* aldizkariak aukeratutako 150 emakumeren izen-zerrenda erabiltzen du abiapuntutzat. Ikerketa honek, ordea, ez ditu inongo erakunde pribatuek sarituak edo aipatuak izan direnen izenak biltzen. Sarituak edo aipatuak izatea ez da oinarritzat hartu aintzatespena nork merezi duen erabakitzeke orduan. Atal honetan emakumeei begira bestelako proposamen bat egituratzea hobetsi da. Egoera-azterketaren atalak jaso du ikerketaren interesa eta ez datu bilketak.
- **Arte-Mundua:** Arte-munduan idazleak, arte plastikoak, ikus-entzunezkoak, dantza eta musika garaikidea azpiatalak biltzen dira. Artea eta mundu sortzailearen arloa lau ataletan banatu da. Lehenengoak arte plastikoetako diziplinak biltzen ditu. Erregistroak osatzeko hainbat iturri bibliografiko erabili dira, 250 artistaren zerrenda osatzeko. Bigarrenak idazleen zerrenda biltzen du. Literatura-sari ezagunen sailkapenetik aukeratu dira idazle guzti hauek, hor sartuz Euskadi Saria, Irun Saria, e.a. Hirugarren atalak goi-mailako musikariak biltzen ditu eta laugarrenak arte dramatikotako artista ezagunak. Bi atal hauetako erregistroak gaur egungo arloko bibliografian tokia duten artistek osatzen dute zerrenda.
- **Kirola:** Kirolarien azterketa burutzeko *Basque Team* erakundean biltzen diren eliteko kirolarien zerrenda bildu da.

Ikerketa hau burutzeko honako aldagai askeak hartu dira kontuan. Bat, eremu bakoitzeko izen zerrenda. Bi, unibertsitatearen titularitatea, izaera publikoa eta

pribatua moduan bereizten dena; hiru, ibilbide akademikoaren edo ikasketen identifikazioa.

Nola bilatu den pertsona bakoitzaren hezkuntza-ibilbideari buruzko informazioa?

Erregistro bakoitzaren ibilbide akademikoaren eta curriculumaren bilaketarako erabili diren iturriak hauek izan dira:

- Eusko Jaurlaritzaren Gardentasun eta Irekia atariak.
- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Gardentasun ataria.
- Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako lurralde historikoetan Gardentasun eta Herritarren Parte-hartze eta Gobernu onaren atariak.
- *El Economista* orrialdea, enpresen ranking-a.
- *LinkedIn*.
- *Wikipedia*.
- *Facebook*.
- *Prensa idatzia*.

Iturri horietatik jaso da pertsona bakoitzaren hezkuntza-ibilbideari buruzko informazioa. Atari hauetan informaziorik aurkitu ez denean e-postaren bitartez zuzenean harremanetan jartzeko ahalegina burutu da. Administrazio publikoan lan egiten dutenei erregistro ofizialen bitartez eskakizuna ere igorri zaie. Datu pertsonalen informazioa ez dela zabalduko adierazi zaie informazio-eskakizuna egin zaien guztiei. Beste zailtasunik ere izan da, horietako batzuk gainditzetik izan ez ditugunak, jarraian azaltzen ditugunak.

5.4. Gardentasun- eta datu-babesari buruz argibide batzuk

Ikerketa honetan bildu diren 3.927 erregistroren datu-bilketa egiteko, metodologia atalean aurretik aipatu diren zerbitzu digitalez gain, erakunde publikoek herritarrekin harremana izateko zabaldu dituzten egoitza digitaleko zerbitzuak erabili ditugu. Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundietako Gardentasun eta Irekia atariak eta Nafarroako Foru Gobernuaren *Gobierno Abierto* atariak, hain zuzen. Atari hauetan bereziki politikarien eta goi-mailako kargudunen *ondasun eta jardueren aitortpenak* eta *bateragarritasunak* argitaratzen dituzte¹⁶. Politikarien eta goi-mailako kargudunen

16 Erreferentziatzko Lege eta Dekretuak: Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2011ko abenduaren 19ko 4/2011 Foru Araua ezarri zuen Goi-kargudunen ondasun eta jardueren aitortpenaz publiko egiteko araua. Bizkaiko Foru Aldundiak, berriz, 2011ko apirilaren 12ko 80/2011 Foru Dekretuan ezarri zuen eta 2016ko martxoaren 22ko 57/2016 Foru Dekretuaren bitartez moldatu. Gaur egun Arabako Foru Aldundiak, 2018ko uztailaren 11ko 10/2018ko Foru Arauaren bitartez ezarri ditu goi-kargudunen betebeharrak zeintzuk diren. Eusko Jaurlaritzak 1999ko otsailaren 23ko 129/1999 Legean ezarritakoa betetzen du eta 2014ko ekainaren 26ko 1/2014ko Legean Kargu Publikodunen jokabide-kodean eta haien interes-gatazkak

curriculumak ere ematen dituzte. Halere, adierazi behar da ez dela egoki tratatzen kargu publikoen ikasketen alderdia. Gehienetan ikasketak unibertsitate publikoan ala pribatuan egin diren ez da adierazten, soilik lortutako graduazioa ematen da. Ikasketak euskaraz burutu dituzten ala ez, ez da esaten; euskaraz badakiten ala ez ere ez da adierazten; ez da adierazten, inola ere, bigarren hezkuntzako ikasketak non burutu dituzten. Datu oso interesgarriak dira horiek guztiak politikarien eta goi-kargudunen ikerketa prosopografikoa burutu nahi denean. Politikariekin eta goi-kargudunekin harremanetan jartzeko informazioa eskuratu nahi izan dugunean, gehienetan ez da ematen. Nafarroako Gobernuko atariak bakarrik ematen ditu goi-kargudunen helbidea, telefonoa eta e-posta; gainontzeko administrazioek ez dute horrela jokatzeko.

Ikerketaren erregistroen informazioa osatzeko egitura ofizialetara jo dugu eta informazio-eskaerak burutzeko orduan, politikariekin eta goi-kargudunekin harremanetan jartzeko bi bide erabili ditugu. Erregistro ofizialaz gain, galdetegia zuzenean e-postaz pasa zaie politikari eta goi-kargudunei. Ez dugu izan arazo gehiegirik Foru Aldundietara eta Batzar Nagusietara e-postaz bidaltzeko, guztietan Alderdiaren helbidea ematen delako. Nafarroako Foru Gobernuaren web orrialdeak, gainera, zuzenean politikari bakoitzari gutuna bidaltzeko aukera ere eskaintzen du. Bistan da, ikerketan parte hartzeko eskaria zabaltzeko harreman zuzena hobetsi dugula eta gutun digitala izan dela kargudun publikoei parte hartzeko proposamena bideratzeko tresna. Erantzunak oso desberdinak izan dira eta alderdi bakoitzaren errepresentazioa hobetsiz azalduko dugu zer nolako emaitzak jaso ditugun. Baina goi-kargudunekin harremanetan jarri nahi izan dugunean ezintasunak izan ditugu, gehienetan zuzenean harremanetarako aukerak eskaintzen ez direlako.

Harrerari begira aipatu beharreko beste gertaera bat ere azaldu behar dugu, eta da Gipuzkoako Foru Aldundiaren ataria erabiltzerakoan ez dugula halako zorterik izan. Ez dakigu Covid-19ko pandemiak sortu duen egoera nahasiarengatik izan den ala ez. Nolanahi ere, eskariak erregistratzeko garaian arazoak izan ditugu. Gainontzeko Administrazioekin ez da arazorik suertatu.

Galdeketa bigarren itzulian, eta aurretik harreman zuzena lortu ez denean, Gardentasun eta Irekia zerbitzuetara jo dugu berriro. Eskari guztiak erregistro ofizialetik sartu ditugu. Zerbitzu honek, eskaria edo galdetegia jaso behar duen pertsonari helarazten dio eta gehienetan egoki lan egiten duela adierazi nahi dugu. Bertako langileen prestutasun eta ardura nabarmendu nahi dugu eta, bide batez, eskerrak eman nahi dizkiegu, lerro hauen bitartez Nafarroako, Bizkaiko eta Arabako Foru Aldundietako langileei.

Aitortu behar da gurekin harremanetan jartzean edo argibideak behar izan direnean zailtasunak egon direla. Egoera honen aurrean, jaso ditugun emaitzen inguruan aipatu

beharreko hainbat egoera azalduko ditugu orain. Horretara pasa aurretik zabaldu ditzagun lehenik datu batzuk.

Nafarroako Foru Gobernuaren atarian bai, baina beste Administrazio publikoek ez dute emaillez zuzeneko harremana izateko aukera eskaintzen. Ez EAEko Foru Aldundietan, ezta Eusko Jaurlaritzan ere. Beste erakunde publikoekin ere antzeko egoerak aurkitu ditugu, Osakidetzarekin, adibidez. Gainera, Osasun-Zuzendaritzaren kargudunekin harremanetan jartzeko orduan bide ofizialak ez du emaila positiborik eman. Beraz, nahiz eta erregistro ofizialak erabili, isiltasun administratiboa izan da emaila bakarra.

Amaitzeko, bada aipatu beharreko beste egoera bat ere. Une honetan Gardentasun-eta Datu-Babesari buruzko Legeek hartzen dute eztabaidarako tokia, ez baitaukagu oraindik argi Lege hauek noiz eta nola bete behar diren. Guretzat ezezagunak izaten jarraitzen dute arau hauek, eta are ulergaitzagoa izan da ariketa-praktika honetan erabili den jokabidea. Ondorioak atera aurretik aipa ditzagun lehenik ikerketa burutzeko suertatu zaizkigun eta konparagarriak diren gertaera batzuk.

Bizkaiko eta Arabako Foru Aldundiei zuzendutako eskariekin Goi-kargudunen curriculumaz egiazteko asmoa bete nahi zen. Bide batez, euskaraz hitz egiteko gaitasuna ere neurtu nahi zen. Xede bikoitz hori aurrera eramateko, Arabako Foru Aldundiko Goi-kargudunen datuak eskuratzeko eskaera ekainaren 2an egin zen, 80/2000 espediente zenbakia duena. Eskariak Diputatu Nagusiaren oniritzia jaso zuen, honako azalpena emanez: "Ez da gertatzen gardentasunari buruzko araudian aurreikusitako informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen muga kasuetako bat ere, eta, datu pertsonalak egonez gero, datu horiek disoziazioaren bidez eskuratzeko aurreikusten da, eragindako pertsonak identifikatzea galarazteko moduan. Era berean, ez da gertatzen aipatutako araudian eskaera ez onartzeko arrazoi diren kasuetako bat ere". Foru Aldundiak igorritako erantzunean kargudun guztien datuak jasotzen genituen. Izen eta abizenak eta nortasun-agiri zenbakiak izan ezik, datu-babeserako legeak behartzen duen moduan, kargua, sexua, unibertsitatea, ikasketak, eta euskaraz hitz egiteko gaitasuneko datuak ematen ziren. Bizkaiko Foru Aldundiak emandako datuetan, berriz, ez zen kargudunaren eta karguaren identifikaziorik egiten. Beraz, eta datu hau argitzeko asmoz, eskaera berri bat egin zitzaion ikerketaren analisia ahalbidetzen ez zuelako. Datuak eskuratzen genituen, baina karguaren identifikazioari loturiko ikasketa eta ibilbide akademikoa ez zen adierazten.

Beraz, ekainaren 24an berriro kargudunen identifikazioa eta datuak eman zitzatela eskatzen zen¹⁷. Eskari honi emandako erantzunak sortarazi du atal hau idazteko arrazoiak, honakoa adierazten baitzen Foru Aldundiko Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren Zuzendari Nagusiaren partetik: "Eskatutako datu pertsonalak ezin direnez bereizi, ezin da eskatutako informazioa eskuratu. Gainera gogorarazten da Bizkaiko

17 Erregistro data 2020/06/24, SAIP-2020-054 eskaera.

Gardentasunari buruzko 1/2016 Foru Arauak, 22. artikuluan, eskaera errepikakorra ez onartzea arrazoitzat ezartzen duela eta goi-kargudunei buruzko informazio publikoa, aipatutako arauaren 6. artikulua arabera, foru kargudun publikoa betetzen duen pertsonaren ibilbide politika edo profesionalera mugatzen dela, Bizkaia Gardena-n kontsulta daitekeena¹⁸.

Erantzuna legearen arabera ulergarria bada ere, beharbada gogorarazi beharko litzateke Bizkaia Gardena atariak ez dituela Aldundiko politikari eta goi-kargudun guztien ibilbide akademikoa publiko egiten. Beraz, ezin izan da osotasunez eremu honetako curriculumak ezagutu ezin izan delako bildutako datuekin eta erakunde honek emandako erantzunarekin prestakuntzaren datuak balidatu. Gainera goi-kargudunen kopurua ez dator bat guk osatu dugun zerrendarekin. Foru Aldundietako Aholkulari eta Goi-kargudunek 67ko kopurua osatzen dute eta 65ek dituzte ikasketak unibertsitarioak, bi baino ez dira unibertsitatean ikasketak burutu ez dituztenak, Nafarroako Unibertsitate pribatuan 2, Deustun 31 eta atzerrian, Boston University-n, bat baino ez. Unibertsitate publikoan ikasi dutenak, berriz, 31 dira; EHUn ikasketak 30ek bete dituzte eta batek baino ez Estatuko unibertsitate batean. Euskaraz hitz egiteko gaitasunari buruz 45ek euskaraz hitz egiteko gaitasuna dutela adierazten dute, baina horietatik 3. eta 4. hizkuntza-profila dutenek 27ko taldea osatzen dute. Zerrenda honetatik kanpo utzi ditugu euskaraz hitz egiteko gai ez direnak oraindik C1 mailako profila egiaztatu ez dutelako; 7 dira lehenengo eta bigarren hizkuntza-profila lortu dutenak. Pentsatzen dugu gainontzeko 11 lagunek ama-hizkuntza euskara dutenak osatzen dutela. Euskaraz hitz egiteko gai ez direnek 29ko taldea osatzen dute, talde honetan sartzen ditugu C1 profila lortu ez duten 7 langile horiek ere.

Ikerketak osotasunez ezin izan dio Euskararen trataerari buruzko datuak argitu eta ez dute gure asmoetan emaitza egonkorrik eman, batik bat, aztertu ditugun curriculumetan euskararen erreferentzia oso eskasa delako. Ondorioak azaldu aurretik eman ditzagun lehenik datuak. Euskaraz hitz egiteko gai direnen kopurua eta curriculumean euskaraz dakitela azaldu dutenek % 27,4ko portzentajea osatzen dute.

18 Foru Aldundiko Zuzendari juridikoen partetik honako argudioak eman ziren: Lehenik, "Bizkaiko Gardentasunari buruzko 1/2016 Foru Arauaren 22.e) artikuluan aurreikusitako ez onartzeko arrazoia gertatzen dela ikusten da; izan ere, ez onartzeko arrazoia gisa ezartzen baitu eskabidea nabarmen errepikakorra izatea. Eskaera honek Administrazio honek dagoeneko seudonimizatuta emandako datu berberak eskatzen ditu, interesdunak berak egin zuen SAIP 45i emandako erantzunean, baina orain pertsona bakoitzaren karguaren datua eskatzen du". Bigarrenik, "Foru Arau beraren 18.3 eta 18.5 artikuluen mugak daudela ikusten da. Artikulu horiek informazio publikorako sarbidea arautzen dute, bana betiere datuak babesteko printzipioak eta araudia errespetatuz eta datu pertsonalen eta eraginpean egon daitezkeen oinarritzko eskubide guztien babesa errespetatuz". Hirugarrenik, "Hirugarren pertsonen datuak daudela ikusi da, Foru Arauaren 20.5 artikuluan eta datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren xedatutakoaren ondorioetarako, eta ezin da eskatutako datu pertsonalen disoziaziorik egin". Amaitzeko, "Bizkaiko Gardentasunari buruzko 1/2016 Foru Arauaren 6. artikulua arabera, goi-karguei buruzko informazio publikoa foru-kargu publikoa betetzen duen pertsonaren ibilbide politika edo profesionalera mugatzen da, eta informazio hori Bizkaia Gardenean kontsulta daiteke".

Gainontzekoek curriculumean ez dute hizkuntzaren gaitasunaren alorrean euskararen aipamenik egiten eta egiten dutenek ez dute oraindik C1 maila eskuratu, eta hauek gehiengo osatzen dute % 52,1ko portzentajearekin.

Ondorio nagusia zein den? Aztertu dugun erregistroetan euskarari garrantzirik ez zaiola ematen. Administrazio publikoan aztertu ditugun erregistroetan, adibidez, curriculuma publiko egiteko formula egokirik ez dagoenez, asko dira unibertsitatearen izena eta izaeraren berri ematen ez dutenak. Hizkuntzarekin ere berdin gertatzen da, datuek ez dute dudarik uzten. Jarraian emango ditugun datuek frogatu egiten dute hizkuntzaren trataerari ematen zaion garrantzia zenbatekoa den. Erregistro guztietatik C1 eta C2 profila dutenen norbanakoen kopurua 141ekoa izan da, A eta B profila dutenen kopurua 30ekoa, eta 11 lagunek bakarrik adierazi dute elebidunak direla. Gainontzeko guztiek ez dute curriculumean hizkuntzari buruzko azalpenetan euskaraz dakitenik esaten.

Politikarien datuen irakurketa egitera pasako gara orain. Gehienetan lortu ahal izan diren datuek Unibertsitatea eta burututako graduazio akademikoa bakarrik identifikatzen dute. Aurretik esan den bezala, ezin izan dugu euskara-gaitasunaren eta akreditazioaren ziurtapenik jaso, ezta bigarren hezkuntzako ibilbidearen daturik ere.

Eusko Jaurlaritzako politikarien datuak lortzeko ahaleginean hauteskundeak atzeratu izanak gure ibilbidean ondorioak izan ditu, 2020ko ekainaren 12an burutu izanak ez baitu denbora gehiegirik utzi datu-bilketa egoki egin ahal izateko. Une hori geneukan lan horretarako hautatua. Beraz, ikasketen informazioa ezagutzeko galdetegirik ezin pasa izan genien interesatuei. Gauzak horrela, 10 dira ezagutzen ez diren politikarien curriculumak, hor sartuz EH-Bilduko 5 parlamentari, EAJ-ko 4 eta Podemos-Ahal Dugu-Ezker Anitzako 1.

Estatuko Kongresuan daudenen ikasketa akademikoen datuak jaso dira, baina badira oraindik senatarien artetik ezezagunak diren EAJko 3 politikariren curriculumak. Nafarroako Foru Gobernuan 8 dira guztira ezezagunak diren politikariren curriculumak, NA+, PSN-PSOE eta Podemos-Ezker Anitzako bina kideren curriculuma eta Geroa Bai eta EH-Bilduko kide batena.

EAEko Foru Aldundietako politikariren ikasketei buruzko azterketan, aldiz, hutsuneak askoz ere nabarmenagoak dira. Gipuzkoako Foru Aldundian EAJko 7 politikariren curriculumak ez dira jaso, EH-Bildu eta Podemos alderdietako 2rena eta PSOEko batena. Bizkaiko Foru Aldundian, berriz, EAJko 9ren curriculuma ez da ezagutzen, Podemos alderdiko birena eta PSOEko batena ere faltan ditugu. Arabako Foru Aldundian ere egoera antzekoa da, EAJko 6 kideren curriculuma ezagutzea falta da, PSOEren 4 kiderena eta PP eta EH-Bilduren 3rena. Guztira, EAJko 29 kideren curriculumak ez da jaso, ezta EH-Bilduko 10ena, PSOE alderdiko 7rena, Podemos alderdiko 7rena, PPko 3rena, Na+ alderdiko 2rena eta Geroa Bai 1ena ere.


Alderdi politiko guztiei eskaria egin zitzaizen arren erantzunik jaso ez dugun politikariren zerranda luzea da. Dena den, hainbat politikariren harrera eta jarrera

nabarmendu nahi dugu, asko izan baitira gure gutunari erantzuna eman diotenak. E-postaren bitartez EH-Bildu alderdiko hogeiki kideren partetik erantzuna jaso baita. Badira bestelako jarrera azaldu dutenak ere, e-postaz eskaria jaso arren erantzun ez dutenak, eta eskaria ofizialetik egin arren, ikerketari muzin egin diotenak ere bai.

6. Datu estatistikoaren azalpena

Bitan zatituko da datu estatistikoek erakusten duten euskal gizarteari buruzko erradiografia. Euskal eliteari buruzko datuak eman ondoren, ikasketetan zein sailek duten garrantzirik gehien ikusiko da.

Prestakuntza akademikoa



6.1. Hego Euskal Herriko elite-boterearen azterketa-emaitzak

Hego Euskal Herriko elite-boterearen azterketaren ikerketan goi-mailako lanpostuetan diren trebakuntza eta ibilbide profesionalaren arteko erlazioa zein den aztertzen da. Maila sozioekonomiko garaiko taldeen azterketa eta goi-mailako lanpostuetan dihardutenen diru-sarreraren azterketa burutzea erronka izan da. Argitu behar da erregistroen izen-zerrenda 10 eremutan adarkatzen dela, baina azterketa burutzeko egitura konplexuagoa izan da. Zerrenda honetan biltzen diren pertsonaiak arlo batean baino gehiagotan aurkitzen direlako gertatzen da hori. Enpresa publikoen arloan, adibidez, aurkitzen dira izen-bikoizketa gehienak. Enpresa pribatutik egitura publikoan bigarren lanbide bat aurkitu dutenak ere asko dira. Egitura pribatuaren eta publikoaren arteko loturan ez da sakondu. Ez da hori izan ikerketa honen asmoa, baina bai egiaztatu dela egitura pribatuaren eragina eta administrazio publikoarekin duen harremana.

Gure azterketan jaso diren izenak dagokien arloan kokatu dira eta analisirako erregistro-datu bezala erabili ditugu, pertsona berdinak arlo batean baino gehiagotan aurkitzen direlako. Halere, orain eman berri dugun erregistro guztien analisi-datueta izen bikoizketa saihestu egin da. Fidagarritasuna baldintzatzen duten arrazoiak direla medio.

Emaitzen analisiak honako datuak eman ditu, urratsez urrats, zehazten joango garenak. Aztertu den izen-zerrenda 3.953 erregistroz osatzen da. Erregistro hauekin analisirako hartu den ezaugarri nagusia unibertsitate-prestakuntza eta unibertsitatearen izaera publiko ala pribatua izan da.

Unibertsitate-ikasketak dituztenen datuak, berriz, honakoak izan dira: Unibertsitatean ikasi dutenen kopuruak % 64ko portzentajea eman du. Lanbide Hezkuntzako ikasketak dituztenen datuak 258 erregistro ditu, % 6,5eko portzentajearekin. Amaitzeko ezagutzen ez diren erregistroen datuak % 29,5eko portzentajea eman du, hau da, 1.147 erregistroren datu akademikorik ezin izan dugu jaso. Izaera publikoa duen unibertsitatera joan direnen kopurua 1.425ekoa da, kopuru osoaren % 56,4a. Unibertsitate pribatura joan direnak 1.103 dira, % 43,6.

Eliteen bilakaeraren azterketari goi-mailako ikasketen trebakuntza erlazionatu dugu. Hego Euskal Herriko Unibertsitate publiko eta pribatuen datuek jaso dute gure arreta analisiaren orduan. Hego Euskal Herrian ikasketak burutu dituztenak kopuruz nagusi dira % 79,2ko portzentajearekin. Estatuan eta atzerrian ikasketak burutu dituztenek, berriz, % 17,4ko eta % 3,5eko portzentajeak dituzte, hurrenez hurren. Oraindik Estatuko unibertsitateen datua adierazgarria den arren, esan liteke 80ko hamarkadan ikasketak burutu zituztenen identifikazioa azaltzen duela; Unibertsitate publikoen egituraketa Aro Autonomikoan garatzen hasi zeneko curriculumak dira gehienak, eta Euskal Herrian ikasketak betetzeko aukerarik izan ez eta kanpoan ikasteko aukera bete zutenek osatzen duela gehien bat talde hau. Estatuko unibertsitate pribatuko bezeriarik ia ez dago, atzerrian ikasketak burutu dituztenak, aldiz, bai. Arrazoia garbi dago, oraindik ere hemen aurkitzen baita unibertsitate pribatuan goi-mailako ikasketak burutzeko aukera ezin hobea.


Erregistro guztien artetik generoaren bereizketa eta irakurketa ere egin dugu. Guztira emakumezkoak 1.410 eta gizonezkoak 2.542 dira. Analisi honek hainbat arlotan generoaren inguruan arrakala handia dagoela adierazten du eta gizonezkoen nagusitasuna nabaria da, batik bat botere-gune ekonomikoan. Emakumeen kopuru osoa % 35,7koa baita, gizonezkoena, aldiz, % 64,3koa.

Ikerketari hasieran jarritako helburua bete egin dela adierazi behar da, denera % 70eko erregistroren datu akademikoak jaso nahi zirelako. Halere, adierazi behar da hainbat ikerketa esparrutan ez garela iritsi helburu horretara. Adibidez, Osakidetzako atalean % 50eko erregistroren datuak baino jaso ez direlako edo enpresa pribatuetako zuzendari nagusien ibilbide akademikoek % 62,6ko portzentajea eman dutelako.

Hego Euskal Herriko bost unibertsitatetan adarkatzen diren datuek EHU-UPV Unibertsitate publikoaren nagusitasuna azaltzen dute. Guztira 977 erregistro azaltzen dira, instituzio honetan ikasketak egin dituztenenak, % 49,5ekin. Nafarroako Unibertsitate publikoan ikasketak egin dituztenetan, berriz, 74 erregistro bildu ditugu, % 3,8koarekin. Unibertsitate pribatuan ikasketak egin dituztenak antzeko kopuruak ematen ditu. Deustu Unibertsitatean ikasketak egin dituztenek 567ko kopuruarekin

% 28,8 osatzen dute eta Nafarroako Unibertsitate pribatuan 322ko kopurua % 16,3koarekin. Mondragon Unibertsitatean ikasketak egin dituztenek oso kopuru txikia erakusten dute, 32 erregistrotan bakarrik jaso baita ikasketa unibertsitarioak instituzio honetan egin dutenen kopurua, % 1,6koarekin.

Hala eta guztiz ere, datu hauek unibertsitate pribatuaren presentzia instituzioetan zenbateko izan den adierazteko argitasun pixka bat ematen du. Azken bost urte hauetan unibertsitate pribatuaren gain-errepresentazioa instituzioetan oso nabarmena da. Batetik populazio talde oso txiki batek duelako aukera unibertsitate pribatuetan ikasteko eta kopuru hauek ez direlako instituzioetan berdintzen. Hau da, instituzioetan unibertsitate pribatuan ikasi dutenen kopurua askotan gainditu egiten du unibertsitate publikoan ikasi dutenena. Batik bat herri honen agintari eta politikoen kasuan ordezkatzan duten gizartea eta ikaskuntza ereduak ez baitu bat egiten gizarte demokratiko baten ereduarekin, ez eta hezkuntza publikoaren filosofia eta helburuekin.



6.2. Ikasketen ranking-a

Ikasketak honek unibertsitatearen izaeraz gain botere-guneetan ikasketen nagusitasuna zientzia-eremuen arabera sailkatzeko aukera ematen du. Lehenik, eta guztien gainetik Gizarte eta Lege Zientziak jakintzetako ikasketak nagusitzen dira. Oso portzentaje zabalean gainera, % 59,8ko portzentajearekin. Bigarrenik, Giza Zientziak jakintzak % 16,9koarekin. Jakintza-arlo hau Arte Ederretako eremuak aztertzen ditugulako nabarmentzen da. Azterketa-eremu oso bati dagokio Arte Ederretako ikasketak

burutu dituztenen erregistro-kopuruak % 7,7ko portzentajea du, aipatutako % 16,9koaren erdia. Hirugarrenik, Zientzia eta Teknologia jakintzak burutu dituztenak % 13,8ko portzentajearekin azaltzen dira. Azken bi jakintzak, Osasun Zientziak eta Zientzia Zehatzak eta Materiarenak, % 4,9 eta % 4,5ekoekin, hurrenez hurren. Osasun Zerbitzuetako eremuan kokatzen dira beren ikasketak Osasun Zientzietan burutu dituzten mediku eta erizain guztien datuak oso parte hartzea txikia erakusten dute, % 51ko portzentajearekin. Osasun Zerbitzuetako eremuan zuzendaritzan direnek ez diete gure eskariei erantzunik eman eta, nahiz eta erregistroz parte hartzeko eskatu zitzairen, ez dute beren curriculumaren berri eman.

Taula 5

Unibertsitate Prestakuntzaren emaitzak Sailetan banatuta.

	Guztira 2.682	%
GIZA ZIENTZIAK	454	16,9
Filologia	91	3,4
Filosofia	63	2,3
Literatura	5	0,2
Geografia/Historia	88	3,3
Artea	207	7,7
GIZARTE ETA LEGE ZIENTZIAK	1.605	59,8
Zuzenbidea	535	19,9
Ekonomia	481	17,9
Pedagogia	118	4,4
Psikologia	36	1,3
Soziologia	94	3,5
Komunikazio Zientziak	306	11,4
Gizarte Langintza	35	1,3
ZIENTZIA ZEHATZAK ETA MATERIARENAK	120	4,5
Biologia	42	1,6
Geologia	11	0,4
Fisika	22	0,8
Kimika	31	1,2
Matematika	14	0,5

	Guztira 2.682	%
OSASUN ZIENTZIAK	132	4,9
Enfermeria	25	0,9
Medikuntza	107	4,0
INGENIARITZA ETA ARKITEKTURA	371	13,8
Ingeniaritza	188	7,0
Ingeniaritza Zibila	22	0,8
Telekomunikazioa eta Informatika	72	2,7
Ing. Forestala	30	1,1
Nautika	9	0,3
Aeronautika	4	0,1
Arkitektura	46	1,7
ERANTZUNIK EZ	1.064	
Lanbide Heziketa	70	
Kontserbatorioa	72	
Ez ditu amaitu	28	
Eklesiastikoak	11	
GUZTIRA	3.927	

Norberak prestatua.

Prestakuntza-eremuaren inguruan guztien gainera hiru nagusitzen dira, hirurak Gizarte eta Lege Zientziak jakintzetako ikasketak. Lehenik, Zuzenbidea dago % 19,9ko portzentajearekin; bigarrenik, Ekonomia-ikasketak nabarmentzen dira, % 17,9koarekin. Portzentaje berean bildu dira Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza-ikasketak eta Ekonomiakoak. Graduak sortu zirenetik elkarrekin bat egin eta gradu bikoitz modura bilakatu diren ikasketak dira. Azkenik, Komunikazio-Zientziak nabarmentzen dira % 11,4ko portzentajearekin. Aipagarria da hiru ikasketak hauek nabarmentzen direla eremu gehienetan, baina nagusiki botere-eremu politiko eta ekonomikoan.

Ikasketen eremuak ere merezi du argitasun pixka bat ematea, ez baita harrizkoa Zuzenbidea, Kazetaritza eta Ekonomia eta Enpresako ikasketen nagusitasuna emaitzetan ikustea. Estatu-sistemaren beharrei erantzuten dien ikasketak nagusitzen baitira botere egitura politiko eta ekonomikoan. Funtzio publikoko zerbitzuak hornitzen dituzten ikasketak dira, gehienetan lehiaketa publiko edo oposizio bidezko ibilbidea gauzatzeko aukera ematen dutenak, zeinetan sartzen baitira epaile, fiskal, diplomatiko, estatuko abokatu, notaritzea, autonomia legebiltzarretan, foru aldundi eta udaletan letradun edo idazkari izateko aukera ematen duten ikasketak.

Jakintza-eremu hauetan ikasi dutenen artean unibertsitate pribatuaren nagusitasuna nabarmena da, hala EAEn nola Nafarroan. Beste behin instituzio publikoetan unibertsitate pribatuaren gain-errepresentazioa nabarmena da. Guztien gainera Universidad de Deusto-n ikasi dutenen erregistro kopuruak ez du gizartearen unibertsitate-ikasketak dituztenekin proportzio-emaitzarik adierazten; Nafarroan ere berdin gertatzen da Universidad de Navarra-rekin, honen datuak hirukoiztu egiten baititu unibertsitate publikoarenak.

7. Ondorioak

Gizarte-aniztasuna funtsezko eginkizuna izan behar du gizarte osoan, jatorri guztietako pertsonen talentuak aprobetxa ditzagun. Egitura publikoek desabantaila sozioekonomikoaren eragina nola murriztu dezaketen behar bezala kontuan hartu, eta aukerak guztiontzat izan behar direla adierazten duen seinale bat igorri beharko lukete.

Eliteei buruzko ikerketa honek 3.953 pertsonen prestakuntza akademikoa aztertzen du. Lan honen helburu nagusia goi-mailako lanpostuak betetzen dituztenen prestakuntzaren eta ibilbide profesionalaren arteko erlazioa ikustea da. Bereziki goi-mailako talde sozioekonomikoetan eta egitura publikoetan lanean ari direnen curriculumaz aztertu da.


Azterketaren ezaugarri nagusia unibertsitateko prestakuntza eta unibertsitatearen izaera publikoa zein pribatua aztertzea izan da. Ikerketaren analisiak biztanleriaren talde txiki batek menderatutako herrialde baten argazkia margotu du; eta botere-egituretan unibertsitate pribatuetan, hau da, Universidad de Navarra eta Universidad de Deusto ikasi dutenen gain-errepresentazioa nabaritu da.

Datu horiek nahiko argiak dira unibertsitate pribatuak erakundeetan duen presentzia zehazteko orduan. Azken bost urteotan, unibertsitate pribatuan ikasi dutenen ordezkariak instituzionala oso nabarmena izaten jarraitzen du. Batetik, biztanleria-talde oso txiki batek unibertsitate pribatuetan ikasteko aukera duelako soilik, eta kopuru horiek ez datozelako bat erakunde publikoek gizartearen errepresentazioaren portzentajearekin. Hau da, erakunde-publikoetan unibertsitate pribatuan ikasi duten pertsonen kopurua unibertsitate publikoan ikasi dutenena baino handiagoa da. Zenbakiek unibertsitate-izaeraren arabera gizarte-klasearen eta aurrekari sozioekonomikoak dituztenen nagusitasuna nabarmentzen dutelako.


1. Eusko Jaurlaritzako parlamentarien % 37,8ak¹⁹, Nafarroako Gobernuako parlamentarien % 60ak, Foru Aldundietako batzarkideen % 35,1ak, euskal hiriburu-taldearen eta zinegotzien % 57,1ak Euskal Herriko unibertsitate pribatuetan burutu ditu bere ikasketak.
2. Eusko Jaurlaritzako goi-kargudunen % 50ak, Nafarroako Foru Gobernuko goi-kargudunen % 59,7ak, Foru Aldundietako goi-kargudunen % 43,9ak unibertsitate pribatuan egin ditu bere lehen ikasketak.
3. Euskadiko eta Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko epaileen % 66,7ak, Nafarroako Osasun Publikoko goi-kargudunen % 70ak eta Osakidetzako goi-kargudunen %30,6ak unibertsitate pribatuan lortu du bere akreditazioa.

19 2020ko ekainean burutu ziren hauteskundearen emaitza jaso dugu, datuen % 86,7a baino ez da bildu. 2016ko legegaldian baino 11 puntu gutxiago. Orduan parlamentarien % 48,6ak Euskal Herriko unibertsitate pribatuan egin zituen ikasketak.

4. Eusko Jaurlaritzako titulartasun pribatuko enpresa publikoetako gerenteen % 52,1ak, partaidetza publikoa duten enpresa pribatuetako gerente eta zuzendarien % 53,4ak; lau Foru Aldundietako enpresa publikoetako zuzendarien % 53,1ak unibertsitate pribatuan burutu ditu bere ikasketak
5. Enpresa pribatuetako eta kooperatibetako zuzendarien % 61,3ak unibertsitate pribatuan burutu ditu bere ikasketak.
6. Eremu kultural eta zientifikoan aztertutako kultura-erakundeetako zuzendarien % 67,6ak, bost unibertsitateetako errektoretza eta zuzendaritza-taldeetako % 60,4ak eta ikerketa-zentroetako goi-kargudunen % 50ak unibertsitate pribatuan burutu ditu bere ikasketak.
7. EITBko goi kargudunen eta administrazio kontseiluaren % 41,7ak, komunikabideetako zuzendarien % 41,7ak eta kazetarien % 53,5 unibertsitate pribatu batean lortu dute beren titulazio akademikoa.
8. Basque-Team taldeko kirolarien % 42,9ak lortu du bere titulazio akademikoa unibertsitate pribatu batean.
9. Euskal Herriko lehiaketa ezagunetan sarituak eta aitortuak izan diren idazleen % 55,1ak unibertsitate pribatu batean burutu zuen bere prestakuntza akademikoa.
10. Amaitzeko, azpimarratu behar da artista plastiko ezagunen % 99,5ak UPV/EHU Unibertsitate Publikoan burutu dituela bere ikasketak.




BIGARREN ZATIA
ARLOEN AZTERKETA
SEKTORIALA




1. Politikariak

Eusko Legebiltzarkideak

Prestakuntza akademikoa 2020 (2016)



Bildutako erregistroak guztira



Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrak ordezkatzeko duen ganberak Eusko Legebiltzarra du izena. Hau 75 legebiltzarkideek osatzen dute. Osaera paritarioari eutsiz, legebiltzarkideak hiru barrutitan banatzen dira, hau da, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde historikoek ordezkari-kopuru bera dute, 25ena. Eusko Legebiltzarrerako hauteskunderen buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legearen arabera, barruti bakoitzaren legebiltzarkideen hautaketa lurralde historiko bakoitzean gauzatzen da, ordezkartza proportzionaltasun irizpideei jarraituz, D'Hont deituriko metodoa oinarritzat hartuta, hain zuzen ere. Azkeneko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak, XII. legegintzaldiari dagozkionak, 2020ko uztailaren 12an egin ziren. Lortutako eserlekuak honakoak izan ziren: EAJk 31, EH Bilduk 21, PSE-EEK 10,

Elkarrekin Podemos-Ezker Anitzak 6, PP gehi Ciudadanosek 6 eta Voxek 1. XI. legegintzaldiari dagozkion hauteskunderen 2016ko abenduaren 25ean ospatutakoetan, EAJk 28, EH Bilduk 18, PSE-EEK 9, Elkarrekin Podemosek 11 eta PPK 9 legebiltzarkide eskuratu zituzten.


Atal hau osatzen duten legebiltzarkideen kopurutik lortu diren erregistroek % 86a (% 97a) osatzen dute. Horietatik, % 35,6k (% 49,2k) unibertsitate pribatuan ikasi zuten; unibertsitate publikoan, aldiz, % 64,4k (% 50,8k). Espazio geografikoari dagokionez, gehienek Hego Euskal Herriko unibertsitateetan ikasi zuten, % 91,4k (% 90,3k), hain zuzen ere, gainerakoek Estatuko unibertsitateetan zein atzerrian, hurrenez hurren, % 5,2 (% 6.5) eta % 3,4ko (% 3,2) portzentajearekin. Ikasketak Hego

Euskal Herriko unibertsitateetan gauzatu dituztenen artean, % 34k (% 40k) Universidad de Deusto-n, % 1,9k (% 73k) Universidad de Navarra-n, % 1,9k (% 1,3k) Mondragon Unibertsitatean eta % 62,3k (% 50,9k) Euskal Herriko Unibertsitatean ikasi dute, lehenengo hirurak unibertsitate pribatuak izanik. Portzentaje erlatiboetan izaera publikoko unibertsitateen nagusitasuna nabarmentzen bada ere, datuak


xehetasun gehiagorekin irakurtzea komenigarria da, legealdi batetik bestera datu-bilketak 11 puntuko gorabehera erakusten baitu. Ondorioz izaera publiko eta pribatuaren artean 20 puntuko alderaketa nabarmentzen da epe honetan. Portzentaje erlatiboetan UPV-EHUren emaitzetan 11 puntuko gorakada nabarmentzen da, eta Universidad de Navarra eta Universidad de Deusto-ren portzentajeetan, berriz, 6 puntuko jaitsiera jaso da bakoitzean.

Nafarroako Foru-parlamentariak

Prestakuntza akademikoa 2019 (2015)



Bildutako erregistroak guztira



Nafarroako herritarrak ordezkatzeko dituen ganberak Nafarroako Parlamentua du izena. Parlamentua barruti bakarretik hautatutako 50 foru parlamentarik osatzen dute. Eserlekuak D'Hont sistema proportzionalari jarraiki banatzen dira, azaroaren 17ko 1986/16 Lege Foralaren arabera, Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzen dituena. Azkeneko hauteskundeak, X. legegintzaldiari dagozkionak, 2029ko maiatzaren 26an


ospatu ziren, ondorengo emaitzekin: Navarra Sumak 20, PSN-PSOEK 11, Geroa Baik 9, EH Bilduk 7, Podemos-Ahal Duguk 2 eta Izquierda-Ezkerrak 1 eserleku eskuratu zituzten. IX. legegintzaldiari dagokionez, 2015eko maiatzaren 24an ospatutakoan lortutako eserlekuak honako hauek izan ziren: UPNk 15, Geroa Baik 9, EH Bilduk 8, Podemos-Ahal Duguk 7, PSN-PSOEK 7, PPNk 2 eta Izquierda Ezkerrak 2.

Atal honetan erregistratutako % 84 (% 82) parlamentarien datuak lortu dira. Aztertutako curriculum horietatik, % 44,5 (% 54,3) unibertsitate pribatuan eta % 51,5 (% 45,7) publikoan ikasitako parlamentariak dagozkie. Halaber, horietatik guztietatik, % 75,8k (% 80k) Hego Euskal Herriko unibertsitateetan ikasi zuten; gainerakoek, % 24,2k (% 20k), Estatuko unibertsitateetan. Hego Euskal Herriko unibertsitateei dagokienez, parlamentarien % 8k (% 7,1ak) Universidad de Deusto-n, % 52k (% 53,6k) Universidad de Navarra-n, % 16k (% 25ak) EHU-n eta % 24k

(% 14,3k) Nafarroako Unibertsitate Publikoan, lehen biak pribatuak izanik eta azkenengo beste biak, aldiz, publikoak. Eredu honetan unibertsitate pribatuaren portzentajeak nagusitzen dira, hala 2015eko legealdian nola 2019koan. Universidad de Navarra-ren portzentaje erlatiboak guztien gainetik oso nabarmen azaltzen dira; azken laurtekoan egonkor mantentzen diren kopuruak dira, gainera. Elitearen gain-errepresentazioaren adibiderik garbiena dugu ikerketa honen emaitzetan Nafarroako Foru Gobernuan ematen dena.

Foru Aldundietako Batzarkideak

Prestakuntza akademikoa 2019 (2015)



1979ko Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren arabera, Foru Aldundia Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Historiko bakoitzeko organo exekutiboa da. Foru Aldundi bakoitza (Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako Foru Aldundiak) bere Batzar Nagusien mendean dago, azken hau organo legegilea izanik. Legebiltzar hauek

Bildutako erregistroak guztira

% 75,3 (% 68,3)

Unibertsitate Pribatua

% 39 (% 34,5)

Unibertsitate Publikoa

% 61 (% 65,5)

EHko Unibertsitatean

% 92,9 (% 90,8)

Estatuko Unibertsitatean

% 7,1 (% 6,6)

Atzerriko Unibertsitatean

% 0,0 (% 2,6)

osatzen dituzten 51na legebiltzarkideak (Araban, prokuradoreak, Bizkaian, ahaldunak; eta Gipuzkoan, batzarkideak deiturikoak) Udal-hauteskundeekin batera egiten diren herri-bozketaren bidez aukeratzen dira, Lurralde Historiko bakoitzaren barrutien arabera (4na Bizkaia eta Gipuzkoan eta 3na Araban) D'Hondt sistema


proporzionalari jarraiki. Era berean, Foru Aldundi bakoitzeko Batzar Nagusiek bere Diputatu Nagusia izendatzeko eskumena dute. XI. legegintzaldian, 2019ko maiatzaren 26ko hauteskunde onorioz lortutako emaitzak hurrengoak izan ziren: Arabako Batzar Nagusietan, EAJk 17, EH Bilduk 12, PSE-EEk 10, PPK 8 eta Elkarrekin Podemosk 4 prokuradore. Bizkaiko Batzar Nagusietan, EAJk 25, EH Bilduk 10, PSE-EEk 8, Elkarrekin Podemosk 6 eta PPK 2 ahaldun lortu zituzten. Gipuzkoako Batzar Nagusietan, EAJk 20, EH Bilduk 17, PSE-EEk 9, Elkarrekin Podemosk 4 eta PPK batzarkide bakarra erdietsi zituzten.

Atal honetan erregistratutako % 75,3 (% 68,3) legebiltzarkideren curriculumak lortu dira. Aztertutako horietatik, % 39 (% 34,5) unibertsitate pribatuan eta % 61 (% 65,5) unibertsitate publikoan ikasitako legebiltzarkideei dagozkienak dira. Halaber, horietatik guztietatik, % 92,9k (% 90,8k) Hego Euskal Herriko unibertsitateetan ikasi zuten;

gainerakoek, % 7,1ek (% 6,6k) Estatuko unibertsitateetan. Hego Euskal Herriko unibertsitateei dagokionez, parlamentarien % 32,5ek (% 33,3k) Universidad de Deusto, % 1,3k (% 2,9k) Universidad de Navarra, % 1,3k (% 1,9k) Mondragon Unibertsitatea, % 63,8k (% 59,4k) EHU eta % 1,4k (% 1,3k) Nafarroako Unibertsitate Publikoa aukeratu zuten, lehenengo hiruak pribatuak izanik eta azkenengo beste biak, aldiz, publikoak. Atal honetan izan dugun arazorik larriena datu-bilketa izan da, politikarien eremuan batzarkideen parte-hartzea oso apala izan baita, gardentasun-atalean adierazi dugun moduan. Egoera honek gure datuen fidagarritasuna kolokan jartzen ez badu ere, ondorioak zalantzazkoak dira unibertsitate bakoitzaren portzentaje erlatiboak adierazteko garaian. Legealdi bakoitzaren artean datuek aldaketa nabarmenik adierazten ez badute ere, erregistro askoren prestakuntza akademikoa ezezaguna izaten jarraitzen baitu.

Kongresuko Biltzarkideak

Prestakuntza akademikoa 2019 (2015)



Bildutako erregistroak guztira

Bildutako erregistroak guztira % 100 (% 100)

Unibertsitate Pribatua

% 43,2 (% 40)

Unibertsitate Publikoa

% 57,8 (% 60)

EHko Unibertsitatean

% 94,7 (% 78,9)

Estatuko Unibertsitatean

% 5,3 (% 21,1)

Atzerriko Unibertsitatean

-


Espainiako Kongresua 350 diputatu osatzen dute, 52 barruti ordezkatur. Barruti bakoitzeko diputatu-kopuruaren banaketa Estatuko Hauteskunde Arabide Orokorrari Buruzko Lege Organikoaren (LOREG) arabera egiten da. Lege Organiko honek, bere 163. artikuluan, D'Hondt deituriko metodoa ezartzen du alderdi bakoitzak probintzia bakoitzean jasotako botuen arabera lortutako diputatuen kopurua kalkulatzeko eredu gisa. Azkeneko hauteskunde orokorretan, 2019.eko azaroaren 10ean ospatutakoak, Bizkaitik 8 diputatu, Gipuzkoatik 6 diputatu eta Arabatik 4 diputatu hautatuak izan ziren Gorteerako. Oro har, Hego Euskal Herriko lurraldeari dagozkion barrutietatik 23 diputatu daude Kongresuan XIV. legealdian.

Alderdi politikoei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoan EAJ-PNVk 6 diputatu lortu zituen; PSE-EEK 4; Elkarrekin Podemosek 4; eta EH Bilduk beste 4. Nafarroari dagokionez, barruti honek 5 diputaturen ordezkartza du, NA+ek 2, PSOEk 1, EH Bilduk 1 eta Unidas Podemosek beste diputatu 1.

2019. urteko datuei dagokienez, atal honetan erregistratutako diputatu guztien curriculumak lortu ahal izan dira. Gehiengoak Hego Euskal Herriko unibertsitateetan egin ditu ikasketak, zehazki % 94,7k eta % 5,3k Estatuko unibertsitatearen batean. Erdia baino gehiagok, (% 57,8k) unibertsitate publiko batean egin ditu ikasketak eta gainerako % 43,2k unibertsitate pribatuan. Datu hauek unibertsitate pribatuaren aldeko joera-aldaketa adierazten dute, 2015eko legealdian izaera publikoko unibertsitateak % 60ko kopurua ematen baitzuen. Unibertsitate bakoitzaren portzentaje erlatiboetan EHUREn nagusitasuna nabarmena da bi legealdietan, datuetan kopuru antzekoak ematen dira, gainera. Aldaketa nagusiak Universidad de Deusto-n eta Universidad de Navarra-n ematen dira, Deusto-k aurreko legealdian baino 13,4 puntu gehiago ematen baitu 2019an, eta Universidad de Navarra-k, aldiz, 5eko jaitsiera.

Senatariak

Prestakuntza akademikoa 2019 (2015)



Bidutako erregistroak guztira

% 80 (% 85,7)

Unibertsitate Pribatua

% 44,8 (% 20)

Unibertsitate Publikoa

% 56,2 (% 80)

EHko Unibertsitatean

% 81,2 (% 81,8)

Estatuko Unibertsitatean

% 18,8 (% 18,2)

Atzerriko Unibertsitatean

-

Senatua 265 senatarik osatzen dute. Horien hautaketa egiteko bi prozedura daude indarrean: alde batetik, senatarien gehiengo barruti probintzialetan hautatzen da, sufragio unibertsalaren bidez; bestetik, Autonomietako Parlamentuek hautatutako senatariak dauzku. Azkeneko hauteskundeetan, Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako barrutietako bakoitzak 4 senatariren ordezkaria du. Horietaz gain, Eusko Legebiltzarrak izendatutako 3 senatari. Nafarroako barrutian beste 4 senatariren hautaketa egin da azkeneko hauteskundeetan, eta honi gehitu behar zaio Nafarroako Parlamentuak izendatutako senatari 1. Orotara, 20 kide daude Senatuan Hego Euskal Herriko lurraldeetatik hautatuak.

Alderdi politikoen antolaketari dagokionez, EAEtik EAJ-PVnK 10 senatari dauzka (9 hautetsiak eta 1 izendatua), PSE-EEK 3 (2 hautetsiak eta 1 izendatua) eta EH Bilduk 2 (1 hautetsia eta 1 izendatua). Nafarroako barrutitik PSOE, UPN, Ciudadanos eta

PPk hautetsitako senatari bana dute Senatuan, eta honi gehitu behar zaio Geroa Baiko senatari 1, Nafarroako Parlamentuak izendatua.


2019. urteko datuei dagokienez, atal honetan erregistratutako senatarien % 80aren curriculumak kontsultatu ahal izan ditugu. % 81,2k Hego Euskal Herriko unibertsitatearen batean ikasi du. Baita senatarien kasuan ere, Kongresuko diputatuekin gertatzen den moduan, unibertsitate publikoan ikasi dutenak erdia baino zertxobait gehiago dira, % 56,2, eta unibertsitate pribatuetan ikasi dutenak % 44,8. Unibertsitate bakoitzaren portzentaje erlatiboak aztertzen direnean legealdi bakoitzaren artean aldaketa sakonak ikusten dira. Ageri da, batetik, 2019an Universidad de Deusto eta Universidad de Navarra-ren artean % 53,8ko kopurua eman zela eta, bestetik, oso datu harrigarria da UPV-EHU ikasi dutenen kopurua % 38,5era jaitsi zela aurreko legealdian % 70eko kopurua ematen baitzuen. Aldaketa hauek aurreko atal batzuetan adierazi

dugun moduan bildutako erregistroen kopuruak moldatzen ditu. Baina orain arte esan dugun moduan eta nahiz eta portzentaje erlatiboetan unibertsitate publikoen nagusitasuna nabarmendu, unibertsitate pribatueta ikasi dutenen

gain-errepresentazioa nabarmena da, batik bat Universidad de Deusto-n ikasi duten EAEko senatari eta Kongresuko Biltzarkideen, eta Nafarroan Universidad de Navarra-n ikasi dutenen kasuan.

Europarlamentariak

Prestakuntza akademikoa 2019 (2015)



Bildutako erregistroak guztira

Unibertsitate Pribatua % 71,4 (% 85,7)

Unibertsitate Publikoa % 40 (% 50)

EHko Unibertsitatean % 80 (% 83,3)

Estatuko Unibertsitatean % 20 (% 16,7)

Atzerriko Unibertsitatean -

Europar Batasuneko kide diren Estatueta hautatuak, europarlamentariak, 1979. urtetik aurrera sufragio unibertsalaren bidez hautatuak dira 5 urtez behin. *Brexit*-a baino lehen, Europako Parlamentuak 751 diputatu zituen. Baina 2020ko urtarrilaren 31an Erresuma Batua Europar Batasunetik atera zenetik 705 diputatuk osatzen dute. Europako Parlamentuak europar mailako legegintza-funtzioak betetzen ditu; Europar Batasuneko aurrekontua onartzearen ardura hartzen du bere gain; eta Europar Batasuneko erakundearen kontrol demokratikoa bermatzen du.

Europako Parlamenturako diputatuak Estatu-kide bakoitzak aukeratzen ditu, bere kabuz. Aulkien banaketa tratatu europearretan dago ezarrita eta hauen kalkuluan proportzionalitate-neurriak hartzen dira Estatu bakoitzaren biztanleriaren kopuruaren arabera. Estatu bakoitzari diputatuen zenbaki finko bat ezartzen zaio eta egun, 2020ko otsailetik aurrera, Espainiak 59 aulki dauzka IX. legegaldian. Hautagaiak aurkeztea Estatu mailako alderdi politikoen ardura bada ere, Estatu desberdinetako ideologia berdineko alderdi politikoen arteko aliantzak sortzen dira Europa mailako talde politiko handiagoak eratuz. Espainiaren kasuan, Europako



Parlamenturako hauteskudeetarako barruti bakarra dago, Estatu mailakoa.

2019. urteko datuei dagokionez bildutako erregistroetatik % 71,4a kontsultatzea lortu da. Horietatik % 80ak Hego Euskal Herriko unibertsitatearen baten egin ditu

ikasketak eta gainerako % 20ak estatuko unibertsitatearen batean. Europarlamentarien kasuan gehiengoak, % 60ak, unibertsitate publiko batean burutu zituen ikasketak, % 40ak pribaturen batean egin zituen bitartean.

Hiriburuetakoko agintariak

Prestakuntza akademikoa
2019 (2015)



Hego Euskal Herrian lau hiriburu ofizial daude. Nafarroako Komunitate foralak Iruñea du, eta beste hirurak Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta daude. Izan ere, 1978ko Gernikako Estatutuaz geroztik, Euskadiko Erkidegoak hiru lurralde historiko aitortuta ditu, eta bakoitzak bere hiriburu: Bilbo, Bizkairako, Donostia, Gipuzkoarako eta Gasteiz, Arabarako. Hiriburu bakoitzeko agintariak udal hauteskunde

bidez finkatzen da. Ondoko tauletan 2015eko maiatzaren 25eko eta 2019ko maiatzaren 26ko udal hauteskundeetan aukeratutako zinegotzien unibertsitate ikasketei buruzko datuak jaso dira.

Hiriburuetakoko azken bi udal hauteskundeetan aukeratutako zinegotzien unibertsitate ikasketak ibilbidea aztertu da, guztira 166 agintariren prestakuntza¹. Horietatik 46 hautetsi, azken bi hauteskundeetan

1 Zinegotzien alderdiei dagokionez, aipatutako hauteskundeetako emaitzak ondoko hauek izan ziren: Iruñean, UPN-k 10 eserleku lortu zituen, EHBildu-k 5, baita GBAI-k ere, PSN-PSOE-k eta Aranzadi Iruñea Denon Artean plataformak hiruna, eta azkenik I-E(n)-k 1. Lau urte beranduagoko hauteskundeetan, Navarra Suma-k 13, EH Bilduk 7, PSN-PSOE-k 5 eta Geroa Baik 2. Gasteizeko ordezkariek berriz, honela banatu ziren: PP-k 9, EH Bilduk 6, EAJ-PNVk 5, PSE-EEk 4, Sumando-Hemen Gaude 2 eta azkenik, Irabazi-k 1. 2019ko hauteskundeetan EAJ-PNVk 7, PSE-EEk eta EHBilduk seina, PPK 5 eta Podemos,

aukeratuak izan dira, hortaz, errepikatu dute izendapena². Beste 57ren kasuan, ez da unibertsitate-mailako prestakuntzaren gaineko daturik eskuratu, edo ez du goi-mailako prestakuntzarik, beste ikasketa batzuk dituelako edo amaitu ez duelako. Zehazki 2015eko hauteskundeetako ordezkarietatik unibertsitate-prestakuntza ez duten hautetsi-kopurua 14koa da, Donostian 2koa, Iruñean 3koa, Gasteizen 4koa eta Bilbon 5koa. 2019an berriz, 10ekoa. Bestalde, badira 24 zinegotzi, unibertsitate titulua izan arren, ez dugula izan modurik jakiteko zein unibertsitatetan ikasi zuten. 2015eko udal-hauteskundeen kasuan egoera horretan 14 daude, Donostian 3, Bilbon 7, Iruñean 3 eta Gasteizen 1 eta 2019ko hauteskundeetan 10, Iruñean 2, Bilbon 2, Donostian 1 eta Gasteizen 5.

Zinegotzien gehiengoak (% 88,5ak) Hego Euskal Herrian egin ditu bere ikasketak, eta oso gutxi dira atzerrira

joandakoak (% 1,6a). Espainiar Estatuan prestakuntza jasotakoak % 9,8 dira. Izaerari dagokionez, goi-mailako prestakuntza unibertsitate publikoetan dutenak % 52,5 dira eta pribatueta ostera, % 47,5. Hego Euskal Herriko unibertsitate publikoetan ikasitakoei dagokienez, gehienak, alegia (% 88,5a) UPV-EHUn eta UPNA-NUPen egin zuten karrera, nahiz eta Espainia (% 9,8a) eta atzerriko unibertsitate publikoetan (% 1,6a) formatutakoak ere badiren.

Pribatuen kasuan, aztertutako zinegotzietatik, kasu bat kenduta, beste guztiek (% 98,2a) unibertsitate-prestakuntza Hego Euskal Herriko unibertsitate pribatueta jaso dute, bereziki Deustuko Unibertsitatean EAeko agintzaileek, eta Nafarroako Unibertsitatean nafar zinegotziek. Izan ere, Iruñean 27 ordezkarietatik 10ek, hau da, % 37ek lurraldeko unibertsitate konfesionalean prestatu ziren, eta NUPen formatutakoak % 7,4a.


Ezker Anitza-IU, EQUO eta Berdeak koalizioak 3. Gipuzkoako hiriburuan, EAJ-PNVk 9 zinegotzi lortu zituen, PSE-EEK 7, EHBilduk 6, PPK 3 eta Irabazi-Ganar Donostia koalizioak 2. 2019ko hauteskundeetan EAJ-PNVk 10 lortu zituen, EHBilduk 6, PSE-EEK 5, PPK 3 eta Podemos, Ezker Anitza-IU, EQUO eta Berdeak koalizioak 3. EAeko hiribururik handienez, hau da, Bilbon, alderdiek ondoko ordezkariak lortu zuten: EAJ-PNVk 13, EHBilduk, PSE-EEK eta PPK launa bakoitzak, eta Udaberri-Bilbao en común-ek zein Ganemos-ek bina. 2019ko hauteskundeetan EAJ-PNVk 14 zinegotzi lortu zituen, PSE-EEK 5, EHBilduk 4, Podemos, Ezker Anitza-IU, EQUO eta Berdeak koalizioak 3 eta PPK beste 3.

2 Bilbon eta Donostian 13 hautetsik hiriburu bakoitzean, Gasteizen 9 eta Iruñan 11.

2. Goi-kargudunak

Eusko Jaurlaritzako Goi-kargudunak

Prestakuntza akademikoa 2019 (2015)



Bildutako erregistroak guztira

% 84,5 (% 81,9)

Unibertsitate Pribatua

% 46,6 (% 52)

Unibertsitate Publikoa

% 53,4 (% 48)

EHko Unibertsitatean

% 92,4 (% 90,7)

Estatuko Unibertsitatean

% 7,6 (% 7,8)

Atzerriko Unibertsitatean

% 0,0 (% 1,5)

Administrazio Orokorreko Goi-kargudunen zerrenda lurralde-eremua bereiztuz aztertu da. Batetik, Eusko Jaurlaritzaren goi-kargudunen zerrenda osatu dugu. Bigarrenik, Nafarroako Foru-Gobernua; eta azkenik, Erkidego Autonomikoan diren hiru Foru Aldundiak.

Eusko Jaurlaritzako Sailak dokumentu ofizialen arabera aztertu dira. Azterketa honetan bildu diren datuak 2020. urtearen hasieran jaso ziren, urtarrilean hain zuzen ere. Atalez atal sailen arabera honako erregistro-kopurua bildu da: Lehendakaritzak 23 goi-kargu ditu zuzendari, idazkari, ordezkaritza-karguak eta aholkularien artean. Segurtasun Sailean 20 kargu identifikatzen dira; Lana eta Enplegua Sailak 18; Gobernantza Publikoa eta Autogobernua Sailak 33;Ekonomiaren

Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena Sailak 41; Ekonomia eta Ogasun Sailak 24; Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailean 21 goi-kargudun zerrendatu dira; Osasun Sailean 112; Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak 23; Kultura eta Hezkuntza Politika Sailean 25; Turismoa, Merkataritza eta Kontsumo Sailean 13; eta azkenik, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetako Batzordea, Lan-Harreman Kontseilua eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoan 53.

Goi-kargu guztiak sektore publikoaren zerbitzura zuzendaritza-eginkizunak edo horien parekoak betetzen dituzten langileak dira. "Gizarte, ekonomia edo kulturarekiko interesen partaidetza

edo ordezkari-eginkizunak edo aholkularitza eta kontrolekoak betetzen dituzten organoetako kideak dira⁴.

Administrazioan goi-mailako kargudunek elitearen identifikazioan toki berezia hartzen dute. Goi-karguen atalean lanpostu kategoriak baldintzatzen du aginte-organoen zuzendaritza edo buruzagitza, eta lanpostua ez da beti meritokraziaren arabera finkatzen. Lanpostu hauetarako izendapen asko politikarien konfiantza eta harremanak baldintzatuta betetzen baitira. Datuen artean Eusko Jaurlaritzaren XI. Legealdian ziren 153 goi-kargu jarraitzen zuten XII. legealdian, hau da 2019. urtean.

Guztira erregistroen % 84,5en datuak eskuratzea lortu da. Nahiz eta goi-kargudunen prestakuntza akademikoaren analisiak unibertsitate publikoaren eta pribatuaren artean pareko baloreak eman, unibertsitate bakoitzaren presentzia neurtzean


EHU-ren emaitzak % 49,6ko portzentajea ematen du, aurreko agintaldian baino 6 puntu gehiago. Universidad de Deusto-ren portzentajea, aldiz, % 43,9koa da, aurreko legealdian baino 8,5 puntu apalagoa. Zenbakien aldaketa honek publikoaren aldeko joera-aldaketa erakusten du. Baina oraindik mesfidati azaldu beharrean gaude, unibertsitate publikoaren aldeko joera lau urteko epealdi honetan aldatu egin dela esatea ez baita fidagarria, batik bat datuen % 15,5eko portzentajea ezezaguna denean.

Bestalde, Hego Euskal Herriko unibertsitate pribatuetan ikasi dutenen kopuruak 49,9ko ehunekoak ematen du. Eusko Jaurlaritzako goi-kargudunen eremuan eliteen gain-errepresentazioaren beste adibide garbi baten aurrean gaudela esan dezakegu. Unibertsitate pribatuetan ikasten dutenek lau aldiz aukera gehiago ditu goi-mailako lanpostu bat lortzeko.

4 1/2014 LEGEA, ekainaren 26koa, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituen: "Aplikazio-eremuan, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren zerbitzura diharduten kargu publikodunak sartzeko, baita legean zehaztutako beste kargudun batzuk ere, haien izaera eta eginkizunei erreparatuta lege-araubide honetan sartu beharrezkotzat jotzen direlako. Hortaz, lehendakaria, Jaurlaritzako kideak eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legean jasotako Administrazio goi-kargudunak ez ezik, lege honen aplikazio-eremuan sartzeko, oro har, sektore publikoaren zerbitzura egonik, zuzendaritza-eginkizunak edo horien parekoak betetzen dituzten langileak ere".

Nafarroako Foru Gobernuko Goi-kargudunak

Prestakuntza akademikoa 2019 (2015)



Bildutako erregistroak guztira

% 57,7 (% 92,9)

Unibertsitate Pribatua

% 44,9 (% 52,7)

Unibertsitate Publikoa

% 55,1 (% 47,3)

EHko Unibertsitatean

% 71 (% 72,6)

Estatuko Unibertsitatean

% 29 (% 27,4)

Atzerriko Unibertsitatean

-


Zerrenda honetan aurkitzen dira Nafarroako Foru Gobernuko Saitetako Zuzendaritza Nagusikoak: Lehendakariaren Kabineteko Zuzendaria eta bi aholkulariak; Lehendakaritzako Berdintasuna, Funtzio Publikoko eta Barneko Saileko kabinete-burua eta 7 zuzendariak; Lurralde-Antolamendu, Etxebizitza, Paisaia eta Proiektu Estrategikoak Saileko kabinete-burua eta 3 zuzendariak; Lurralde-Kohesioa Saileko kabinete-burua eta 3 zuzendariak; Ekonomia eta Ogasuna Saileko kabinete-burua eta 3 zuzendariak; Ekonomia- eta Enpresa-Garapena Saileko kabinete-burua eta 3 zuzendariak; Migrazio-Politika eta Justizia Saileko kabinete-burua eta 2 zuzendariak; Hezkuntza Saileko kabinete-burua eta 3 zuzendariak; Eskubide Sozialeko kabinete-burua eta 4 zuzendariak; Osasuna Saileko kabinete-burua eta 3 zuzendariak; Herritarrekiko Harremanak Saileko kabinete-burua eta 3 zuzendariak; Unibertsitate, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitala Saileko kabinete-burua eta 3 zuzendariak; Landa-Garapen

eta Ingurumeneko kabinete-burua eta 3 zuzendariak; azkenik; Kultura eta Kirola Saileko kabinete-burua eta 2 zuzendariak.

Goi-kargudunen eremuan aurreko atalean egin den moduan, hemen ere 33 kargudunek 2019ko legealdian lehengo postu berean jarraitzen zutela identifikatu da. Naiz eta ikerketarako parte hartzea eta erakunde publikoen lankidetzaz oso urria izan den, emaitzak 2015 eta 2019ko legealdietan bat datoz. Nafarroan botere-egituretan daudenen curriculum izaera pribatuko unibertsitatean garatzen dela ageri da. Bildutako erregistroak guztira % 57,7ko (% 92,9) portzentajea ematen du. Universidad de Navarra-n ikasi dutenen portzentajeak nahiko antzekoak dira % 54,3koa 2019an eta % 60,1ekoa 2015eko legealdian. NUPeko emaitzetan % 24,8ko portzentajea ematen du 2019an, baina bost puntu gutxiago 2015eko legealdian. Orotara, datu erlatiboetan, oso nabaria da unibertsitate pribatuak instituzioetan duen nagusitasuna eta, bide batez, gain-errepresentazioa.

Foru Aldundiko Goi-kargudunak

Prestakuntza akademikoa 2019 (2015)



Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Goi-kargudunen prestakuntza akademikoaren azterketak EHUren nagusitasuna erakusten du 2019 eta 2015eko legealdietan. Izaera publiko eta pribatuko unibertsitateen ehunekoak aldaketa esanguratsua erakusten du, 2015eko legealdian lortutako datuen arabera, % 50eko portzentajeak maila berean ipintzen baitzituen bi eredu hauek; 2019an, ordea, publikoaren nagusitasunak 15,8 puntuko aldea erakusten du. Estatuko unibertsitateetan ikasten dutenen

Bildutako erregistroak guztira

Unibertsitate Pribatua % 94,1 (% 81,9)

Unibertsitate Publikoa % 42,1 (% 50)

EHko Unibertsitatean % 57,9 (% 50)

Estatuko Unibertsitatean % 91,6 (% 90,7)

Atzerriko Unibertsitatean % 7,6 (% 7,8)


Atzerriko Unibertsitatean % 1,9 (% 1,3)

datua, berriz, egonkorra da % 7,8 eta % 7,6ko portzentajeak eman baititu bi legealdietan. EHUren portzentaje erlatiboak egonkorak dira, % 51ko portzentajearekin 2019. urtean eta % 49,3koarekin 2015ean. Jarraian Universidad de Deusto-ren % 37,8ko (% 42) portzentajea dator. Universidad de Deusto-ren kopuru-jaitsierak eta NUPen 5 puntuko aldaketak eragiten dute publikoaren aldeko portzentaje-aldaketa, 2015ean 1,4ko portzentajetik % 5,1era pasatzen baita.

3. Zerbitzu publikoak

Osasun-Zerbitzuak: Osakidetza eta Osasunbideako Zuzendariak

Prestakuntza akademikoa (Osakidetza) 2019 (2015)



Bildutako erregistroak guztira

% 49,5 (% 46)

Unibertsitate Pribatua

% 46,6 (% 52)

Unibertsitate Publikoa

% 53,4 (% 48)

EHko Unibertsitatean

% 92,4 (% 90,7)

Estatuko Unibertsitatean

% 7,6 (% 7,8)

Atzerriko Unibertsitatean

% 0,0 (% 1,5)

Osakidetzaren egituraren barruan hiru lurraldetako Osasun-Erakunde Bateratuak aurkitzen dira: Santa Marinako Ospitalea, Gorlizko Ospitalea, Osasun Mentaleko hiru lurraldetako Sarea, Emergentsiazko Lurralde-Unitateak, Transfusio- eta Giza Ehunen Euskal Zentroa eta, azkenik, Osatek S.A eta Bioef-Berrikuntza eta Osasun-lkerketarako Euskal Fundazioa. Egitura honetako zuzendaritzan kargu guztiak bildu dira⁵. Kargudunen artean Zuzendari Gerenteak, Zuzendari Medikuak, Erizainen Arloko Zuzendariak, Langileen Zuzendariak, Integrazio Asistentzietako


Zuzendariak eta Ekonomia- eta Finantza-Zuzendariak bildu dira. Gogoratu behar da zuzendariekin emailer harremanetan jartzeko biderik ez dela izan. Batetik, ez datorrelako e-posta helbiderik atari digital ofizialetan eta, bestetik, erregistro bidez eskaria egin den arren, erantzunik jaso ez delako. Egoera berean aurkitu gara Justizia eta Auzitegietako kargu publikoen curriculumak ezagutzeko egin dugun gutunarekin ere.

Beraz, erantzunik ez duen erregistroen portzentajeak oso datu garaiak dira. Bi epealdien artean alderik ez dago eta % 49,5eko (%)

5 Zerrenda honetan aurkitzen dira Arabako, Donostiako eta Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleak; Lezako Ospitalea; Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sarea; Arabako Erakunde Sanitario Integratua, Araba-Errioxa Erakunde Sanitario Integratua. Ezkerraldea-Enkarterri Gurutzetako Erakunde Sanitario Integratua, Bilbao Basurtoko Erakunde Sanitario Integratua, Santa Marina Ospitalea, Gorlizko Ospitalea, Barakaldo Sestaoko Erakunde Sanitario Integratua, Barrualde Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratua, Uribeko Erakunde Sanitario Integratua, Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratua, Bidasoako Erakunde Sanitario Integratua, Goierri-Urola Garaiko Erakunde Sanitario Integratua, Debabarrena Erakunde Sanitario Integratua, Debagoienako Erakunde Sanitario Integratua eta Tolosaldeko Erakunde Sanitario Integratua.


47) portzentajearekin curriculum hauek ezezagunak izaten jarraitzen dute. Osakidetzaren barnean kargua errepikatu dutenen kopurua ere oso handia da, 63 kargudunek goi-mailako lanpostuetan jarraitzen baitzuten 2015 eta 2019ko epealdietan. Unibertsitate pribatuetan ikasi dutenen artean portzentajea egonkorra da, % 30,9koarekin (% 29,8). Unibertsitate bakoitzaren portzentaje erlatiboa aztertzerakoan, Hego Euskal Herriko unibertsitateetan ikasi dutenen artean EHU lehen tokian azaltzen da % 69,4ko portzentajearekin. Datu hau ez da batera harrigarria baldin kontuan hartzen bada unibertsitate publikoak duen presentzia Osakidetzan dihardutenen artean.

Prestakuntza akademikoa (Osasunbidea) 2019



Nafarroako Osasunbidean diren goi-kargudunen zerrenda laburragoa da. 2019. urteko erregistroak bakarrik ezagutzen dira eta guztira 23 zuzendaritza kargu zenbatu dira. Horietatik 15 erregistroen prestakuntza akademikoa ezaguna da eta zortzirena ezin izan da aurkitu. Beraz, osasun-erakundeetan zuzendaritza lanpostuetan direnen % 65,2koen informazioa eskuratu da. Gehiengoak


Medikuntza Fakultatearen ibilbidea kontuan hartu behar da, bera baita, momentuz, ikasketa hauek burutzeko EAEn dagoen aukera bakarra. Urtero graduetan 300 matrikula berri egiten dira, nahiz eta bertan ikasteko 3.000 eskari baino gehiago jaso. Nafarroan ematen da Medikuntza ikasteko bigarren aukera eta hemen ere datuek bertan ikasi dutenen presentzia erakusten dute, % 6,1eko indizearekin (% 8,7). Universidad de Deusto-ren datuak, aldiz, ez dira medikuntza-ikasketarekin loturarik duten curriculumak, hauek kudeaketa eta gestiora zuzendutako goi-kargudunak baitira. Oso kopuru handian bada ere, datuak egonkorak dira % 24,5eko portzentajearekin (% 23,9).




unibertsitate publikoan ikasi du gainera % 53,3ko kopuruarekin. Hego Euskal Herriko unibertsitate batean ikasi dutenak bi unibertsitate ezagunetan banatzen dira, Universidad de Navarra eta UPV-EHU. Unibertsitate bakoitzaren portzentaje erlatiboak aztertzerakoan Universidad de Navarra nagusi da % 70eko kopuruarekin eta UPV-EHU % 30eko kopuruarekin.

Justizia-auzitegiak

Prestakuntza akademikoa 2019



Bildutako erregistroak guztira



Justizia-Auzitegi Nagusiak komunitate autonomoen lurraldeko antolakuntza judizialeko egiturak dira. Justizia-Auzitegi Nagusien egoitzak Iruñea eta Bilbon kokatzen dira. Biak Autonomia-Estatutuaren justizia-maila goreneko auzitegiak dira, erkidego osoko errekurtsu guztiak hemen agortzen dira, Auzitegi Gorenean aurkeztu behar diren errekurtsuak izan ezik. 1978ko Espainiako Konstituzioak Estatuari esleitzen dio Justizia-Administrazioaren eskumen eksklusiboa. Beraz, epaileak Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren mendekoak dira, fiskalak Estatuko Fiskaltza Nagusiaren mendekoak eta Justizia Administrazioaren letradunak Justizia-Ministerioaren mendekoak. Euskadiko Justizia-Administrazioa Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren menpe dago. Nafarroan Migrazio Politiketako eta Justizia Sailaren bitartez egituratzen dira. Sail hauek Justizia-Administrazioaren mendeko baliabide

ekonomikoak zein giza baliabideak kudeatzen dituzte.

Gaur egungo justizia-egiturak Autonomia-Erkidego bakoitzaren izaera eta lurraldea kontuan hartzen ditu. Nafarroako Justizia-Auzitegi Nagusia abuztuaren 10eko 13/1982ko Lege Organikoko 59. artikulua ezartzen duenetik sortu zen, eta 1989ko maiatzaren 23an eratu zen. EAEn, berriz, 1980ko irailaren 26ko Errege-Dekretuaren bitartez gauzatu ziren justizia-eremuan lehen transferentziak. Zerbitzu eta eskumen gehiago arazoaren 6ko 1684/1987 eta martxoaren 1eko 410/1996 Errege Dekretuaren bitartez lortu ziren.

Justizia-Auzitegi Nagusiez gain Probintzia-Auzitegiak ere badaude, eta hauek lurralde bakoitzeko eskumenak betetzen dituzte. Epaitegiak eta auzitegiak arlo zibileko, zigor-arloko, lan-arloko eta administrazioarekiko auzien arloko gaiak epaitzeko eskumena dute.


Eremu honetan epaile eta fiskal nagusien erregistroak bildu dira. Kopuruz oso erregistro gutxi dira eta, nahiz eta guztiek zuzenbide-ikasketak burutu dituzten, ezinezkoa izan zaigu justizia-eremuan diharduten guztien prestakuntza akademikoa non lortu duten jakitea. Bildu diren datuen artetik aipagarriak diren bi ondorio nabarmentzen dira. Batetik,

Estatuko unibertsitateetan ikasi dutenen kopurua oso garaia dela, % 33,3ko portzentajearekin. Eta bestetik, unibertsitate bakoitzaren portzentaje erlatiboak aztertzerakoan Universidad de Navarra guztien gainera azaltzen dela, % 50eko portzentajearekin. Jarraian datoz EHU % 33,3koarekin eta Universidad de Deusto % 16,7koarekin.

4. Hezkuntza eta kultura erakundeak

Unibertsitateak

Prestakuntza akademikoa 2019



Bildutako erregistroak guztira

Unibertsitate Pribatua % 81,5

Unibertsitate Publikoa % 54,7

EHko Unibertsitatean % 45,3

Estatuko Unibertsitatean % 88,7

Atzerriko Unibertsitatean % 11,3


Atzerriko Unibertsitatean -

Unibertsitate-eremuaren barruan Errektoradutzako taldeetan bildu diren agintari akademiko kideak aztertu dira. Batetik, izaera publikoko unibertsitateetan EHU eta NUPeko errektoradutza-taldeak eta, bestetik, unibertsitate pribatuetan, Universidad de Navarra, Universidad de Deusto eta Mondragon Unibertsitatekoak aztertu dira. Zerrenda honetan sartu dira, orobar, UNED Vitoria, UNED Bergara, UNED Iruñea, UNED Bizkaia eta UNED Tuterako zuzendaritzak. Datuek erakusten dutenez, izaera pribatuko prestakuntza akademikoa dutenen nagusitasuna nabaria da % 54,7ko portzentajearekin pribatuan

eta % 45,3koarekin publikoan. Ikasketak Estatuan burutu dituztenen portzentajea ere adierazgarria da, nahiz eta % 11,3ko portzentajea bakarrik eman. Unibertsitate bakoitzaren portzentaje erlatiboak aztertzen direnean Universidad de Navarra eta EHUren nagusitasuna nabaria da, bietan % 29,2ko portzentajearekin. Jarraian dator Universidad de Deusto % 25eko portzentajearekin eta NUP % 10,4koarekin. Azken tokian dago Mondragon Unibertsitatea % 6,3koarekin. Unibertsitateetako dekanotzetako kopuruak bat datoz unibertsitate bakoitzaren izaerarekin.

Kultura-erakundeak

Prestakuntza akademikoa 2019



Bildutako erregistroak guztira

Bildutako erregistroak guztira % 69,2

Unibertsitate Pribatua % 56,3

Unibertsitate Publikoa % 43,7

EHko Unibertsitatean % 71,6

Estatuko Unibertsitatean % 21,6

Atzerriko Unibertsitatean % 6,9

Atal honen baitan bildu dira kultura-erakundeak eta fundazioak, euskal ondare historiko, lingüistiko eta kulturalaren gune neurgarriak, kultura idatziaren adierazpen diren argitaletxeak eta, azkenik, museoak. Horien artean, Alberdania, Susa, Erein, Pamiela, Argia, Ediciones Aranzadi, Grupo de Comunicación Loyola, Ediciones Saldaña, Ediciones Deusto, Gerediaga Elkarteak, Elkar Fundazioa, Etxepare Euskal Institutua, Barandiaran Fundazioa, Sabino Arana Fundazioa, Euskaltzaindia, Aranzadi Zientzia Elkarteak, Eusko Ikaskuntza, UZEI, HAZI Fundazioa, Azkuna Zentroa, Erika Fundazioa, Euskalduna, Untzi Museoa, Cristobal Balenciaga Museoa, Euskal Herria Museoa, San Telmo Museoa, Bilboko Itsasadarra Itsaso Museoa, Arabako Arte Eder Museoa, Artium Arte Garaikideko Museoa, Bilboko Arte Eder Museoa, Gernikako Bakearen Museoa, Bilbao Arte Fundazioa eta Guggenheim Bilbao Museoa.

Kultur egituratuak eta bere baitan biltzen diren aginte-egiturek iruditeria kolektiboak sortu eta hedatzen laguntzen dute, baita joera estetiko zein kulturalak,



eta zentzu hertsia goan ideologikoak ere. Zalantzarik gabe, leku nabarmena betetzen dute gizartean. Horrez gain, bada beste ezaugarri bat azterketa honi begira oso aintzat hartu beharrekoa, eta da kultura-erakunde gehienak, izaera pribatua izanik ere, funts publikoek sostengatuak direla, alegia. Nabarmenki, museoak eta beste hainbat egitura (Euskaltzaindia, Eusko Ikaskuntza, Aranzadi Zientzia Elkarteak, Labayru, UZEI, etab.).

Arras dibertsifikatua den esparru honetatik 156 erregistro gehitu dira azterketara. Horietatik, % 3,2k ez du unibertsitate ikasketarik. Gainerakoan, % 56,3k ikasketak unibertsitate pribatu batean burutu ditu eta % 43,7k unibertsitate publiko batean. Lurraldetasuna eta izaera publiko/pribatua uztartuz, Euskal Herriko unibertsitateetan ikasi dutenak erregistro guztien % 71,6a osatzen dute. Horietatik, % 52,7k Universidad de Deusto-n ikasi du, % 32,4k EHU-n, % 13,5k Universidad de Navarra-n eta % 1,4k MU-n.

5. Komunikabideak

EiTB taldea

Prestakuntza akademikoa 2019



EiTB Eusko Jaurlaritzaren menpeko erakunde publikoa da. 1982an sortu zen ikus-entzunezko komunikazio-talde publiko modura legeztatu zen Autonomia-Estatutaren 19. artikularen babesean.

EiTBren sozietate egoitza Bilbon dago, zerbitzu zentralak eta telebista, irratia eta Interneteko negozio-unitateak. Donostian, Miramonen, Telebistako programen produkzioa burutzen da eta, nahiz eta euskarazko irratieteen egoitza izan, Gasteizen ere beste egoitza bat ere badu. Horrez gain, Iruñea eta Baionan irratia eta telebistarako zentroak ere baditu. Orotara EiTB taldeak 1.000 enplegatu ditu eta 145 milioi euroko aurrekontua⁶. Horrela adierazia dator behintzat enpresaren dokumentuetan.

Bildu diren erregistroen artean EiTBko Administrazio-Kontseilua dago, EiTB irratia eta telebistako komunikabide-talde bakoitzeko zuzendari eta zuzendari-ordeak, programetako eta delegazio bakoitzeko zuzendariak, produkzio-zuzendariak; sistemetako, komertzio eta finantza-zuzendariak, eta giza zerbitzuetako eta ingeniari-buruak ere bai. Zerrenda honetan EiTBk dituen korrespontsalak ere bildu ditugu, beraiek baitira eremu internazionalako berri-emaile nagusiak.

Eremu honetan bildutako erregistroak guztira % 74,4ko portzentajea eman du. Unibertsitate publikoan prestakuntza akademikoa lortu dutenak nagusi dira % 60,4ko portzentajearekin. Horietatik Hego


6 EiTB azpital eta ustiapen-aurrekontuak (2020). Aurre ikusitako urteko kontuak 2020.

Euskal Herrian ikasi dutenak % 90,6ko portzentajea eman du. Atzerrian ikasi duten erregistrorik ez dago, baina Estatuan ikasi dutenek % 9,4ko indizea eman du. Unibertsitate bakoitzaren portzentaje erlatiboak, hemen ere, EHUren nagusitasuna erakusten du %

58,3ko portzentajearekin, Universidad de Deusto-ren % 27,1koa bikoizten duelarik. Universidad de Navarra-n ikasi dutenek % 12,5eko portzentajea ematen dute. Azkenik, Mondragon Unibertsitatean ikasketak burutu dituztenen portzentajea % 2,1koa da.

Komunikazio Enpresaburuak

Prestakuntza akademikoa 2019



Bildutako erregistroak guztira

% 64,9

Unibertsitate Pribatua

% 39,4

Unibertsitate Publikoa

% 60,6

EHko Unibertsitatean

% 84,3

Estatuko Unibertsitatean

% 9,8

Atzerriko Unibertsitatean

% 5,9

Atal honetan bildu dira komunikazio-talde nagusiak. Azterketa honetan irratia, egunkariak eta komunikabide grafiko taldeak bildu dira. Batetik, Euskalerrria Irratia, Onda Vasca, Onda Cero, Radio Nacional, Cadena Ser taldeko Radio San Sebastian eta Radio Bilbao eta Radio Popular Bilbao taldeak bildu dira. Komunikazio taldeen medio idatziak ere zerrendan bildu dira, eta hauek dira erregistroen gehiengo osatzen dutenak: *Grupo Vocento, El Diario Vasco, El Correo, El Correo Alava; Deia eta Editorial Iparragirre; Grupo Noticias, Noticias de Gipuzkoa, Noticias de Alava, Noticias de Navarra egunkariak; Diario de Navarra, Gara* eta

Baigorri Argitaletxea; Berria Taldea eta Euskarazko Komunikazio Taldea.

Komunikazio-enpresetan berriemaile-zuzendariak, zuzendari nagusiak, zuzendaritza-taldeak, kontseilari eta lehendakariak, erredakzio-buruak, eta saileko areako buruak bildu dira. Bildutako erregistroak guztira % 64,9ko portzentajea eman du eta horrek zuzendaritza-postuetan diren askoren curriculumaz ezagutzeko izan diren zailtasunak erakusten ditu. Unibertsitate publikoaren nagusitasuna nabaria da, % 60,6ko portzentajea ematen baitu izaera honetako erakundeetan ikasi dutenen erregistro-kopuruak. Unibertsitate

bakoitzaren portzentaje erlatiboetan EHU dago guztien gainerik, % 57,3ko portzentajearekin. Jarraian dira Universidad de Navarra % 22,9koarekin eta Universidad de Deusto, hurrenez hurren % 22,9 eta % 17,7koekin. Azkenik, Mondragon Unibertsitatean eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan ikasi dutenen batez bestekoa % 1ekoa da.


Azterketa honek komunikabide erredakzio buruen curriculumaren lehen azterketa burutzen du. Jakina da komunikabideek gizartea informaturik edukitzeaz gain erakunde indartsuen eta hautatutako politika-taldeen agendaren berriemaileak direla. Komunikabideek influentzia asko duten erakundeak dira politikoen, gizartearen eta kultur-agendaren baitan.

Editoreek beraiek erabakitzen baitute argitaratzen duten informazioa nola argitara atera eta are garrantzitsuagoa dena zer atera. Unibertsitatean ikasi dutenen nagusitasuna nabaria da baina unibertsitate pribatuetan ikasi dutenen kopurua baloratzean ikerketa honen metodologiaren oinarrietan aurretik azaldu den emaitza bera aurkitzen dugu, zuzendaritza postuetan direnen gain-errepresentazioa. Azterketa honek prozesu horizontal bat eskatzen du; komunikazio-arauak, jakintzak eta praktikak auzitan jartzen dituen prozesu zabalagoa. Komunikazio-prozesuan agerian geratzen baitira botere-erlazioak eta dimentsio politikoa, metodologia horizontalen bi elementu nagusi.

6. Eusko Jaurlaritzako enpresa publikoko buruak

Zuzenbide pribatuko enpresa publikoak

Prestakuntza akademikoa 2019



Bildutako erregistroak guztira

% 72,2

Unibertsitate Pribatua

% 46,9

Unibertsitate Publikoa

% 53,1

EHko Unibertsitatean

% 89,0

Estatuko Unibertsitatean

% 10,0

Atzerriko Unibertsitatean

% 1,0


Eusko Jaurlaritzan biltzen diren erakunde publikoen zerrenda ofiziala Zuzenbide Pribatuko ente publikoak eta Partizipazio publikoa duten enpresa publiko modura identifikatzen diren bi enpresa-multzok osatzen dute. Lehenengo multzoak, zuzenbide pribatuko erakunde publikoak, guztira 58 enpresetako zerrenda osatzen du: zortzi dira arlo publikoko fundazioak; EITB taldea 5 enpresaz osatzen da; SPRI taldea 19 enpresek osatzen dute; Eusko Trenbideak taldea bi enpresaz osatzen da; eta amaitzeko beste 24 enpresaren izenek betetzen dute azterketa-arlo hau. Batzuk aipatzearren, hara hor zerrenda: Osatek, Neiker-Tecnalia, Alokabide, Itelazpi, Basquetour, Emakunde, IVAP, Osalan, Lanbide, Euskal Estatistika Erakundea, Kontsumobide eta abar luze bat.

Lehen multzo honetan ezagun den erregistroen prestakuntza

akademikoaren portzentajea % 72,2koa da. Orokorrean unibertsitate publikora joan direnak nagusi badira ere, aurreko elite-eremuetan bezala, hemen ere beharrezkoa da azterketaren analisi erlatiboa gauzatzea. Euskal Herriko unibertsitate pribatuetan ikasi dutenak nagusi baitira. Unibertsitateen portzentaje erlatiboek EHUren nagusitasuna erakusten dute % 46,7ko portzentajearekin. Nafarroako Unibertsitate Publikoan ikasi dutenak % 1,1 dira. Bestalde, unibertsitate pribatuetan ikasi dutenen artean Universidad de Deusto-ren nagusitasuna ematen da % 43,8ko portzentajearekin. Jarraian Universidad de Navarra eta Mondragon Unibertsitatea datoz, hurrenez hurren % 4 eta % 4,3ko portzentajearekin. Hiru unibertsitate pribatu hauen arteko baturak % 52,1eko portzentajea ematen du.

Partizipazio publikoko enpresak

Prestakuntza akademikoa 2019



Bildutako erregistroak guztira

Bildutako erregistroak guztira % 72,2

Unibertsitate Pribatua % 47,3

Unibertsitate Publikoa % 52,7

EHko Unibertsitatean % 81,1

Estatuko Unibertsitatean % 16,9

Atzerriko Unibertsitatean % 2,0


Bigarren multzoan, Partizipazio publikoko enpresa pribatuak bildu dira eta askoz ugariagoak dira. Partaidetza publiko gehienduna duten eta ezein administrazio-tako sekto re publikoan sartuta ez dauden erakundeak osatzen dute multzo hau: Merkataritza sozietateak, Fundazioak, Partzuergoak, Irabazi Asmorik Gabeko entitateak, eta amaitzeko kontabilitate nazionala duten entitateak dira. Guztira 134 enpresatako zerrenda osatzen dute.

Enpresa-multzo honetan gerentzia- eta zuzendaritza-postuetan direnen erregistro-zerrenda osatu da. Administrazio-kontseiluetan diren kargudunen izenak ere bildu dira erregistro-zerrendan. Aurreko

enpresa-taldearekin alde nabarmenik ez dago eta emaitzak oso antzekoak dira. Partizipazio publikoko enpresarien artean Estatuko unibertsitateetan ikasi dutenen kopurua % 16,9koa da. Eta portzentaje erlatiboetan berriro ere EHUren nagusitasuna ematen bada ere Hego Euskal Herriko unibertsitate pribatuen nagusitasuna agerian dago. Kasu honetan ere Universidad de Deusto-ren portzentajea nagusitzen da % 41,4ko portzentajearekin. Universidad de Navarra-n prestakuntza akademikoa burutu dutenen datua ere nabarmentzekoa da, aurreko enpresa-taldearekin alderatuz 6 puntu gehiago ematen dituelako, % 10,3ko portzentajearekin.

Foru-Aldundietako enpresa publikoko buruak

Prestakuntza akademikoa 2019



Bildutako erregistroak guztira

% 75,2

Unibertsitate Pribatua

% 47,2

Unibertsitate Publikoa

% 52,8

EHko Unibertsitatean

% 83,5

Estatuko Unibertsitatean

% 15,6

Atzerriko Unibertsitatean

% 0,9

Foru-Aldundietako enpresa publikoen kopurua oso ugaria da. Izaera pribatuko enpresak diren arren, horietako batzuk erakunde publikoen aurrekontuetan guztiz babestutako enpresak dira. Beste batzuk partizipazio publikoa duten izaera pribatuko enpresak dira eta Foru-Aldundien aurrekontuetan ez dira ehuneko txikiagoan babesten enpresa-saiakera hauek. Hainbat enpresak, gainera, Eusko Jaurlaritzaren babesa ere jasotzen dute. Hainbat adibideren artean Euskadiko Orkestra dago.

Enpresa horiek lurraldearen arabera antolatu ditugu datuak aztertzeko orduan.

Nafarroako Foru Aldundiko Enpresa publikoetako gerentziak eta zuzendaritzak aztertu dira. Zerrenda honetan aurkitzen dira Gan-Nik, Nasertik, Navarra de Infraestructuras Locales, Tracasa Instrumental, Empresa Navarra de Espacios Culturales, Centro Navarro de Aprendizaje de Idiomas, Ciudad Agroalimentaria de Tudela, Tecnologías e Infraestructuras

Agroalimentarias, Nafarroako Enpresen eta Berrikuntzaren Europako Zentroa, Sodena, Nasuvinsa-Navarra de Suelo y Vivienda, Garraioaren Nafarroako Agentzia, Corporación Pública Empresarial Navarra, Navarrabiomed, Baluarte, e.a.

Bizkaiko Foru-Aldundian hauek dauzkagu: Aparkabisa, Azpiegiturak, Basalan, Beaz, Garbiker, Lantik, Gufel-fas, Interbiak, Byscaytik Fundazioa, Bilboko Orkestra, EPEF Bizkaikoa, ELA-LAE, Euskalduna, Bizkaia Fundazioa, SEED Capital, Sestao Bai, Bizkaia Tutoretza Erakundea eta Zugaztel.

Gipuzkoako Foru-Aldundian besteok: Gaia Net Exchange, Gureak Lanean, Katea-Legaia, Aberekin, Bidegi, Kursaal Elkargunea, Informatika Zerbitzu Foru Elkarte, Euskadiko Orkestra, Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkea, Eraldaketa Lehiakorreko Sozietatea, Adinberri, Arantzazu Gaur, Biozientziak Gipuzkoa, Gipuzkoako Ur Partzuergoa eta Hondakinen Partzuergoa.

Arabako Foru-Aldundian biltzen diren enpresa publikoen zerrendan hauek aurkitzen dira: Arabat-Arabako bideak, Arabako Kalkulu Gunea, Kirolaraba Fundazioa, Indesa, Gizarte Ongizateko Foru Erakundea eta Naturgolf.


Eremu honetan prestakuntza akademikoari buruzko erregistroak % 75,2ko portzentajea erakusten du. Unibertsitatearen izaerari erreparatuz gero, oso alde txikia dago publiko eta pribatuaren artean, bost puntukoa baino ez. Aldiz, Estatuan ikasi dutenen portzentajea nabarmena da, guztizko kopuruaren % 15,6ak Euskal Herritik

kanpo burutu baititu goi-mailako ikasketak. Unibertsitateen portzentaje erlatiboak aztertzen baditugu, berriz, EHUK ematen du emaitzarik gorenena % 35,6ko portzentajearekin. NUPen ikasi dutenen portzentajea ere adierazgarria da % 10,9ko kopuruarekin. Baina azterketa honetan nabarmendu behar den beste datu bat Universidad de Deusto (% 30,6) eta Universidad de Navarra-ri (% 22,5) dagokiena da, bien artean Hego Euskal Herrian ikasi dutenen gehiengoa osatzen baitute, bien artean % 53,1eko portzentaje erlatiboa lortuz.

7. Enpresa pribatuetako buruak

Enpresa pribatuetako buruak

Prestakuntza akademikoa 2019



Bidutako erregistroak guztira

% 62,6

Unibertsitate Pribatua

% 49,1

Unibertsitate Publikoa

% 50,9

EHko Unibertsitatean

% 51,3

Estatuko Unibertsitatean

% 40,7

Atzerriko Unibertsitatean

% 8

Atal honetan bildu diren enpresen zerrenda egiteko *El Economista* atariak sortzen duen ranking-aren sailkapenez baliatu gara. Sailkapen honetan 80 milioi euroko fakturazioa baino gehiago duten enpresetako zuzendariak eta administrazio-kontseiluak bildu dira. Guztira 116 enpresa eta 50 kooperatiba aztertu dira. Lortu diren emaitzak nahiko adierazgarriak dira % 62,6ko portzentajearen lortu baita zuzendaritza-kargudunen unibertsitate-prestakuntzari buruzko datuak jasotzea.

Zerrenda honetan sartzen dira Iberdrola, Petroleos del Norte eta Repsoleko zuzendariak eta administrazio-kontseiluak. Hauek 6.000 milioi euro baino gehiago fakturatzeko duten energiaren arloko enpresak dira. Energia-eremuan txikiagoak direnak ere kontuan hartu dira, Bahía de Bizkaia Electricidad eta Siemens-Gamesa

Renewable Energy enpresak, 200 milioi baino gehiago fakturatzeko dutenak dira.

Elikadura-eremuan, Compañía Norteña de Bebidas Gaseosas eta Alvean Sugar S.A., hurrenez hurren 837 eta 2.500 milioi euroko fakturazioa duten enpresak dira. Cecosa-k 700 milioiko fakturazioa du eta Eroski taldeak 600 milioi baino gehiagokoa. Bi enpresa hauek eta Supermercados Ercoreca -hau 200 milioi baino gehiago fakturatzeko duena-, erreferenteak dira fakturazio-zenbakietan.

Burdinagintza eta automobil industrian aritzen diren enpresak ere jaso dira, oso ugariak dira gainera: Sidenor, 800 milioi euro baino gehiago; Aludium 600 milioi baino gehiago, Befesa-Zinc, Gestamp, Aceros Inoxidables Olarra, Arcelor-Mital, CIE Automotive e.a. Teknologia-arloan aritzen direnak ere zerrendatu ditugu

Euskaltel, Sener eta Vinzeo, batzuk aipatzearen.

Farmazia-industrian aritzen direnak ere badira zerrenda honetan. Guztietan aipagarriena Faes-Farma 150 milioi baino gehiago fakturatzen duen enpresa da. Higiezin sektorean aritzen direnen artean aipagarriak dira Neinor Norte eta Befesa, biak 150 milioi baino gehiago fakturatzen duten enpresak dira. Eraikuntza aritzen direnak ere agertzen zaizkigu: Amenabar, Construcciones San Martin eta Altuna y Uria.

Kooperatiben artean Maier, Cikautxo, Orona, Fagor, Irizar, Ulma, Orkli, Ampo, LKS Krean, Laboral Kutxa, Lagun Aro, Mondragon Assembly, Ordea eta Ederfil Kooperatibak aztertu dira, batzuk aipatzearen.



Emitzen analisia egiteko orduan unibertsitate publiko eta pribatuaren datu orokorrak parean dira. Baina asko dira Hego Euskal Herritik kanpo

ikasketak burutu dituztenak: % 40,7k Estatuko unibertsitate batean egin ditu goi-mailako ikasketak eta % 8k atzerrian. Baina Hego Euskal Herrian ikasketak burutu dituztenen arteko portzentajeek bestelako errealitate bat erakusten dute. Hemen izaera pribatuko unibertsitatearen nagusitasuna nabarmetzen da. Universidad de Deusto nagusi da eremu honetan % 42,3ko portzentajearekin. Lehen aldiz Mondragon Unibertsitatearen presentzia nabarmendu behar da % 4,9koarekin. Portzentajea txikia bada ere oso ulergarria da aztertu den kooperatibetan biltzen direlako eremu honetako erregistro gehienak. Universidad de Navarra-k ere oso zenbaki altuak bildu ditu % 14,1eko portzentajearekin. Izaera publikoan EHU da nagusi berriro ere % 37,3ko portzentaje erlatiboarekin.

8. Emakumezkoak

Emakumezkoak

Prestakuntza akademikoa 2019



Ikerketa hau egiteko eredu moduan hartu dugun ikerketak eragin gehien duten emakumeen sailkapenera mugatzen da. Britainia Handian emakumezkoen elitea identifikatzen duen erakunde, fundazio eta komunikabideak badira. Urtero saritzen dira eragin gehien duten emakumeak. Elitist Britain dokumentuak bertatik jasotzen ditu eragin gehien duten emakumeen erregistroak. Azken hamarkada honetan Estatuan ere eredu honek hartu du tokia eta hainbat euskaldunek sariak jaso dituzten arren, ez da guk balioetsi nahi izan dugun eredu.

Euskal Herriko azterketa burutzerakoan emakumeen eragina neurtzen duten erakunde bakar bat aurkitu dugu. Emakunde betekizun hori ere betetzen saiatu da. Emakunde bere ibilbidean hainbat emakume ezagunen

eta erakunderen lana goraiatzeko ahalegina burutu du urtero sari bat emanez. Ikerketa honetan elite-eremuetan bildu diren emakumezkoen kopuruak ematera mugatuko gara, generoaren arrakala zenbateraino alderatzen den ezagutzeko aukera ematen duelako.

Guztira bildutako erregistroen % 35,7 emakumezkoak dira, izugarrizko arrakala erakusten duten zenbakiak dira.

Orokorrean hiru emaitza-mota ematen dira, batetik gizonezkoen eta emakumezkoen erregistroen artean ia alde adierazgarririk ez duten eremuak identifikatzen dira. Politika-eremuetan bermatzen dira legez ezarri diren berdintasun-arauak. Ikerketa honetako Politika-eremu guztiak bilduz, datuetan % 48,5eko portzentajeak errepresentatzen du emakumeen

presentzia. Nafarroako Foru Gobernuan % 49,2k; Eusko Jaurlaritzan % 48,5ek; Hiriburuetako Udaletxeetan % 52,6k, e.a. Auzitegi Nagusietan eta, Nafar Foru-Gobernuko Goi-kargudunen eremuan, hurrenez hurren, % 51,7 eta % 49,2ko emaitzak jasotzen dira. Aldiz, Eusko Jaurlaritzako eta beste Foru-Aldundietako goi-kargudunen irakurketa egiterakoan datuek ez dute generoan berdintasunik azaltzen % 39,5 eta % 40,6ko portzentajeek erakusten dutenez. Gainontzeko eremuetan berdintasunaren arrakala duten portzentajeak honako emaitzak eman ditu: EiTbn % 42,2; Unibertsitate-Errektoradutzan % 43,1; Arte-munduan % 44,4; Musika eta Dantza garaikidean % 36,1; Kultura-erakundeetan


% 34; Ikerketa-erakundeetan % 31,5; Kazetariak % 28,7; Idazleak % 23,6; eta Komunikazio pribatuko enpresak % 13,6.

Enpresa-munduaren azterketa burutu denean ere antzeko datuak jaso dira, Zuzenbide pribatuko enpresa publikoetan emakumezkoak % 26,9ko portzentajea eman baitu; partizipazio publikoko enpresa pribatuetan % 25,8koa; Foru-Aldundietako Enpresa publikoetan % 30,9koa; enpresa pribatuetan % 13,8koa. Azkenik, emakumeen nagusitasuna azaltzen duten eremuak aztertu denean honako datuak jaso dira: Osakidetzan % 58koa eta Kirolarrietan % 55,4koa.

9. Artea eta sormena

Arte plastikoak

Prestakuntza akademikoa 2019



Bidutako erregistroak guztira

Unibertsitate Pribatua % 3

Unibertsitate Publikoa % 97

EHko Unibertsitatean

Estatuko Unibertsitatean % 92,1

Atzerriko Unibertsitatean % 5,4

Atzerriko Unibertsitatean % 2,5

Ikerketa honen azken eremuak sortzaileen mundua aztertzen du, hor sartuz; arte ederrak, idazleak, ikus-entzunezkoak, dantza eta musika garaikidea. Esparru honek sorkuntzako alor profesional ugari aztertzen ditu, ekonomiaren gainetik herri baten kultura eta bizitzan toki garrantzitsua hartzen duten alorrak dira. Gainera, oso erakargarriak diren ibilbideak eta esperientziak biltzen dira egile eta sortzaileen bizitzan, gizarte osoaren interesa eta begirunea sortzen dutenak. Oso adierazgarria da sortzaileen inguruan Bankuetako Fundazio Pribatuek hartu duten tokia, lehiaketen bitartez sortzaile gutxi batzuen lanak promozionatzeko eta komertzializatzeko bidea jorratzen dute. Gehienetan ikuspegi ekonomiko batetik neurtzen delako arte eta literaturaren produkzioa eta sorkuntza. Bestelakoa da hezkuntza-alorretik egiten den irakurketa, jarraian

Arte Ederretako irakasle-talde honek egin duen testuan adierazten den moduan.

Arte plastikoen eta ikus-entzunezkoen erregistro-zerrenda osatzeko hainbat sariketa kontuan hartu dira. Bereziki bi dira aukeratu direnak: Gure Artea Sariak eta Certamen Arte Vital. Gure Artea Sariak eredu bat finkatu du artisten sorkuntza-lana eta ibilbide artistikoa aintzat hartzeko garaian. Eusko Jaurlaritzak bideratzen duen sariketa honetako irabazle guztiak dira zerrenda honetan. Vital Fundazioaren sariketa ere kontuan hartu da. Asko dira, gainera Certamen Arte Vital Saria eta Gure Artea saria jaso duten artistak.



Oinarri bibliografikoak ere kontuan hartu dira zerrenda osatzeko garaian. Euskal artisten lanak biltzen dituen Mekarteak lan-bilduma eta Juan Luis Morazak sortutako euskal artisten mapa. Seguruenik ez da zerrenda osoa eta

sakona prestatu dugun hau, artisten mundua oso dinamiko delako eta agian artista berri asko zerrendatik kanpo geratu direlako. Eztabaida ugari eragiten duen gaia ere bada, euskal sortzaileen mapa egituratzea ez baita lan erraza artisten eta artista-familien artean ere. Emaitzak aztertzeko garaian erregistroen prestakuntza akademikoa Euskal Herriko Unibertsitateko Arte

Ederretako Fakultatearen erabateko presentzia nabarmentzen da, % 98,9ko portzentaje erlatiboarekin. Batik bat arte-munduaren begirunea izaera publikoko unibertsitateetan garatzen delako. Leioan den Fakultateak hartzen du Estatuko ranking-azterketetan goi-mailako hezkuntza-aukeren artean lehen posizioetako bat.

Musika garaikidea

Prestakuntza akademikoa 2019



Musika eta dantza garaikidean biltzen diren artisten zerrenda osatzeko hainbat oinarri bibliografiko erabili dira. Lehenik Josu Okiñenak 2019an argitaratutako *The History of Basque Music* liburuak erabili da. Bereziki Mikel Chamizok argitara emandako "Basque music: From the Transition (1975) to the Present (2018)" atala oinarri moduan hartu da. Bertatik jaso dira Musika garaikidean ospe eta fama gehien duten musikari eta zuzendari gehienak. Bestetik, Etxepare Euskal Institutuak argitaratutako Euskal Kultura Saila bildumako liburu bi berreskuratutakoak: lehenik, Karlos

Sanchez Ekizaren Euskal Musika Klasikoa liburuak eta, Oier Araolaza Arrietaren Euskal Dantza liburuak. Sail honetako liburuak ere oinarri interesgarria izan dira azken hamarkada honetako artista ezagunen zerrenda osatzeko. Zerrenda honetan bildu dira espezializazio-ikasketak egiteko Nikanor Zabaleta Beka eskuratu zuten hamar artista, egun bere ibilbide profesionala atzerrian burutzen ari direnak.

Erregistroen goi-mailako prestakuntzaren irakurketa egin aurretik hainbat ohar eman behar dira. Batetik, Musika eta Dantza Goi mailako

titulazioak unibertsitateko gradu-ikasketen pareko bihurtu den dekretua 2009an onartu zela. Arau honek 2006ko lege-dekretua aldatzen zuen⁷ eta, oharrak azaltzen duen moduan, musika-eta dantza-ikasketak gradu-ikasketekin berdintzeko araua moldatzen zuen. Bestetik, gaur egun EAEn goi-mailako ikasketak ezin direla izaera publikoko kontserbatorio batean egin⁸. Musikene sortu aurretik, Kontserbatorio publikoetan goi-mailako musika-ikasketak egiteko aukera bermatzen zen lau lurraldeetan. Baina 2001. urtean EAEn Musikene Euskal Herriko Goi-Mailako Ikastegia martxan ipini zen eta ikasketa hauek izaera pribatuko hezkuntza ikastegi honetara bideratu ziren⁹. Erabaki honek izugarritzko eztabaidak eragin zituen, eredu elitista bermatzen zelako hezkuntza-eredu publikoaren aurretik. Fundazio baten bitartez ikastetxea sortzea

ere salagarria bihurtu zen Euskadiko Herri Kontuen Euskal Epaitegiak bere txostenean jaso zuen moduan¹⁰.


Zerrenda honetan aurkitzen diren artista gehienak ikasketa-zentro publikoetan egin ditu ikasketak, gehienak 2618/1966 Dekretuaren arabera goi-mailako ikasketak eskuratu zituzten¹¹. Baina daturik adierazgarriena Ikastetxe eta Kontserbatorioaren titularitatearen aipamenari loturik dago. Ikerketaren emaitzen arabera Musikenen ikasketak burutu dituztenen kopurua % 13,5koa da.

Eta etorkizunean kopuru hori handituz joango da. Honela, erabat baldintzatuta geratzen da goi-mailako ikasketak egiteko Euskal Herrian dugun izaera publikoko kontserbatorio bakarra Nafarroako Goi-Mailako Musika Kontserbatorioa delako.¹²

- 7 Modificación del Real Decreto 1614/2009, de 26 de octubre, por el que se establece la ordenación de las enseñanzas artísticas superiores reguladas por la Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación.
- 8 PÉREZ, C. E. P., & VILAR, J. M. P. (2019). Conservatorios de música en España. *Epistemos. Revista de Estudios en Música, Cognición y Cultura*, 7(1), 004-004.
- 9 Real Decreto 303/2010, de 15 de marzo, por el que se establecen los requisitos mínimos de los centros que impartan enseñanzas artísticas reguladas en la ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación (BOE, 9 de abril de 2010): "Artículo 18. *Centros privados superiores de enseñanzas artísticas*: Son centros privados superiores de enseñanzas artísticas los autorizados por las Administraciones educativas y cuyo titular sea una persona física o jurídica de carácter privado".
- 10 Herri Kontuen Euskal Epaitegia (2019): *Euskal Herriko Goi-Mailako Musika Ikastegirako Fundazio Pribatua*.
- 11 EDU/520/2011 Agindua, martxoaren 7koa, ekainaren 10eko EDU/1603/2009 Agindua aldatzen duena; agindu horren bidez ezartzen da zein baliokidetasun dituzten Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoak, maiatzaren 3koak, ezartzen dituen Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduak eta Batxillerreko titulatuak (BOE, 2011ko martxoaren 14koa).
- 12 Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioa, Proyecto Educativo de Centro, Curso 2019-2020, pag. 2-4: "El Conservatorio Superior de Música de Navarra es un centro público que se crea tras la aprobación por el Parlamento de Navarra de la Ley Foral 7/2002, de 27 de marzo, que a su vez regulaba la implantación del Grado Superior de Música en nuestra comunidad" ... "El Conservatorio Superior de música de Navarra es el único centro de la Comunidad Foral que imparte las enseñanzas superiores de Música".

Idazleak

Prestakuntza akademikoa 2019



Bildutako erregistroak guztira

Bildutako erregistroak guztira % 68,6

Unibertsitate Pribatua % 50,6

Unibertsitate Publikoa % 49,4

EHko Unibertsitatean

EHko Unibertsitatean % 79,8

Estatuko Unibertsitatean % 14,6

Atzerriko Unibertsitatean % 5,6

Idazleen zerrenda osatzeko Hego Euskal Herrian diren idazle-sariketak aztertu dira. Prestigioa eta ezagun egiten duen erredua hobetsi da, idazleek administrazio publikoak antolatzen dituen lehiaketa hauetan duelako ezagun izateko aukera. Bereziki azken bi hamarkadetan Euskadi Literatura Saria, Irun Hiriko Literatura Saria eta Donostia Hiriko Literatura Saria jaso duten idazle guztien zerrenda osatu da, guztira 140 idazle. Baina erregistroen prestakuntza akademikoa aztertzeko orduan datu bilketa % 68,6ko portzentajearen bete da. Emaitzen arabera idazle-gehiengoa euskalduna da eta unibertsitate pribatuan hezia. EHUn ikasi dutenak nagusi badira ere % 44,9ko portzentajearekin, Hego Euskal Herriko Unibertsitate pribatuetan ikasi dutenak dira zenbakiz talde nagusia. Oso adierazgarria da Universidad de Deusto-n prestakuntza akademikoa dutenen kopurua % 42koa-rekin eta Universidad de Navarra-n % 11,6koarekin.

Literatura-lehiaketen inguruan Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak antolatut zituen lehenak 1982an jarri ziren martxan. Jon Mirande Sariaren lehenengo edizioa Anjel Lertxundik eskuratu zuen *Hamaseigarrenean*, *aidanez* lanarekin. Lizardi Lirika Saria eta kontakizun laburren Kirikiño Sariak, berriz, 1983an jarri ziren martxan. Euskadi Literatur Sariketako 1997an jarri ziren martxan lehen aldiz. Lehiaketa honetan sorkuntza-eremu zabalagoak biltzen dira: euskarazko literatura, saiakera, itzulpen-gintza eta haur eta gazteen literatura-lanak. Ilustrazioari zuzendutako sari bat ere ematen da. Gazteleraz ere literatura- eta saiakera-lehiaketak ere egiten dira.

Irun Hiriko Literatura Saria eta Donostia Hiriko Literatura sariak gaur egun Kutxa Fundazioaren izenean bi urtez behin antolatzen dira. 25.000 eta 10.000 euro bitarteko diru-sariak banatzen dira eta aurkezten diren lan gehienak gazteleraz izaten dira. Bertan Euskarazko Literaturaren sorkuntza eta

hedapena bultzatzeko asmoz eleberria eta olerkia saritzen dira. Donostia Hiriko Literatura Sariketaren LV. edizioa burutu da 2020. urtean. Donostian antzerkia eta ipuinak saritzen dira. Lehiaketara azken urteotan 500 lan baino gehiago jasotzen dira, baina euskaraz aurkezten diren lanen portzentajea ez da iristen ehuneko 10era. Irunen XLIII. edizioa burutu zen 2019. urtean.

Lehiaketa hau Gipuzkoako Aurrezki Kutxak antolatu zuen 1966. urtean lehen



aldiz eta ipuinen sorkuntzara bideratu zen. Urte hartan lehen saria Andrés Recio Beladiez idazleak eskuratu zuen *Los suaves minutos de una hora* ipuinarekin. Euskarazko saria 1977. urtean eman zen lehen aldiz eta Gotzon Garatek lortu zuen sariketa irabaztea *Oroitzapenetan* ipuinarekin. Gaur egun Kutxa Fundazioaren izenean burutzen dira bi lehiaketa hauek¹³.

13 La Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Gipuzkoa y San Sebastián, Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxa 1990. urteko abenduaren 1ean jarri zen martxan. Izaera pribatuko kreditu erakunde modura eratu zen Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipala (1879.ean sortua) eta Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialaren (1896ean sortua) bat-egitearen ondoren. 2011. urtean Gipuzkoako eta Donostiako Aurrezki Kutxa, Bilbao Bizkaia Kutxa, Aurrezki Kutxa eta Bahitetxea, eta Araba eta Gasteizko Aurrezki Kutxaren bat-egiteak Kutxabank izeneko banketxea sortu zuen.

10. Kirolariak

Basque-Team

Prestakuntza akademikoa 2019



Elite-kirol eremuan espezialitate desberdinak aztertu dira. Ikerketaren lehenengo fasean futbola, esku-pilota eta txirrindularitza talde profesionalekin harremanetan jarri eta partehartzeko eskaera luzatu genuen. Baina hiru espezialitate hauetan emaitza positiborik ez zen lortu. Emakumezkoen Athletic taldeak soilik erantzun zuen, eta bertako bost futbolariak unibertsitate-ikasketak amaiturik zituztela adierazi ziguten. Ikasketak burutzen ari direnen berririk ez genuen jaso. Gainontzeko kirol-taldeen ez zuten feed-back positiborik eman, ez UCI World Tour mailako Txirrindulari-taldeen ez eta esku-pilota enpresak ere. Orokorrean kirol-eremu hauetako daturik ezin izan da jaso.

Elite-kirolaren azterketa egiteko, beraz, ikuspegi berri batetik abiatu


gara eta Basque Team Fundazioaren kirolarien azterketa burutu da. Hasi-ara batean Euskadi Kirola Fundazioa izena hartu zuen egitasmo honek eta 2007an sortu zen goi-mailako kirola eta nazioarteko kirol-ordezkaritza bultzatzeko. 2016an izen-aldaketa egin zen. Fundazio honek bi milioi euro inguruko aurrekontua du eta kirolarien artean laguntza ekonomikoak bideratzen ditu. Banakako kirolarien artean 528.000 euro banatzen ditu. 13 kirol-elkarteek ere jasotzen dute laguntza ekonomikoa, Euskal Herriko Surf Federazioak diru-laguntza lodiena jasotzen du 64.063 euroekin. Laguntza hauetan teknikiariak ere sartzen dira. Fundazio honek publizitatea, propaganda eta harreman publikoetan 633.422 euro erabiltzen

ditu, bakarkako kirolariek jasotzen duten diru-kopurua baino gehiago¹⁴.

Azterketa honetan lortutako emaitzek erakusten dute oraindik elite-kirola ez dela hezkuntza-prestakuntzarekin bat etortzen, baina hezkuntzan ibilbidea mantentzen duen kirolari-taldea generoari loturik jarraitzen duela. Lortu ditugun emaitzetan 65 kirolarik jasotzen dute Basque Team Fundazioaren laguntza ekonomikoa, horietatik emakumezkoak 36 dira. Unibertsitate-ikasketak dituzten kirolari-kopurua 23koa da, eta aldi berean elite-kirola eta unibertsitate prestakuntza uztartzen ari diren kirolari-kopurua 18koa da. Kirola eta unibertsitatea uztartzen duten kirolari horietatik emakumezkoak 28 dira eta gizonezkoak 13. Bi ondorio nabarmentzen dira irakurketa honetan, batetik emakumezkoen profesionalizazioak oraindik izugarritzko arrakala

duela gizonezkoen kirol-ibilbidearekin konparatzen badugu. Eta bestetik, kirol-profesionalizazioa gaztaroan bideratzen den ibilbide bat dela eta dedikazio handiko prozesua izanik ez duela unibertsitate-ikaskuntza partekatzeo aukerarik uzten. Gai honi buruz gehiago eta sakonago jarraian Ekain Rojo ikerlariaren lanak azalduko duen moduan Leire Olaberriari egindako elkarrizketan. Baina ondorio nagusia Britania Handiko txostenean bezala, gurean ere, erreproduzitzen den gizarte-araua bihurtu dela emakumezkoen elite-kirola. Emakumeen elite-kirolak eredu profesional batera hurbiltzeko oraindik bide luzea duela egiteko eta erakunde publikoek ez dutela aintzakotzat hartzen, eta bitartean gizonezkoek ez bezala emakumeek ikasteari heltzen diotela.

14 Macua Auditores (2019). *Basque Team Fundazioaren auditoria txostena, urtekokontuak eta kudeaketa-txostena*. 2019ko abenduaren 31n.



HIRUGARREN ZATIA
KASU AZTERKETA

01

Eliteak ala jakintzaren zirimiria?

Iñaki Goirizelaia Ordorika

UPV/EHUko errektore ohia

Euskal Herriko lehen unibertsitate publikoa, UPV/EHU, 1980ko otsailak 25ean sortu zen. Berrogei urte baino ez ditu bete. Esan daiteke unibertsitate heldua dela, bai, baina beste unibertsitate batzuekin alderatzen badugu oso gaztea da oraindik. Adibide batzuk jartzearen, Salamancako Unibertsitateak 800 urte bete ditu dagoeneko, edo Harvardeko Unibertsitatea, 380 baino gehiago.

Ibilbide akademiko labur honetan, euskal unibertsitate publikoak hainbat lorpen lortu ditu arlo akademiko guztietan. Euskal Herriko eliteei buruz hitz egin nahi den honetan, lorpen horien artean badago bat nabarmendu nahiko nukeena: aukera-berdintasuna.

Zer behar du herri batek? Eliterik? Jakintzaren zirimiririk? Ala biak? Nire ustez, euskal gizartearen betebeharra da goi-mailako hezkuntza pertsona guztien esku jartzea, eskatzen diren merituko akademikoak lortu ezker, noski. Jakintza zirimiririk bezala, Euskal Herriko bazter miresgarri guztietara zabaldu behar dela zalantzarik ez dut. Hortaz, ezagutzeari inbertitzea da edozein herri egin dezakeen etorkizuneko apusturik onena.

Goi-mailako hezkuntzari dagokionez, Euskal Herriko Unibertsitateak lagun ororentzat ditu ateak zabalik. Goi-mailako ikasketak burutzeko aukera-berdintasuna bermatzen duen erakunderik garrantzizkoena da ez bairik gabe, gurean ikasteko bete behar den baldintza bakarrik beharrezko maila akademikoa izatea da, besterik ez. Aukera-berdintasuna UPV/EHUren funtsezko printzipioetako bat da.

350.000 pertsona baino gehiago trebatu dira gure ikasgeletan 1980tik. Batzuetan, badirudi UPV/EHU unibertsitate ikusezina dela. Hala ere, gure campusetik igaro diren pertsona horiek guztiek euskal gizarte osoa blaitu dute.

Osakidetzako langileak, eskoletan eta ikastoletan irakasten duten irakasleak, arkitektoak, filosofoak, kazetariak, abokatuak, artistak, ingeniariak, sistema judizialeko langileak ... UPV/EHUK prestatu ditu profesional gehienak. Hori da Euskal Herriko Unibertsitateak euskal gizarteari ematen dion zerbitzurik garrantzikoena, ilusioz eta erantzukizunez ematen duena. Hau da, gure osasunean, gure umeen hezkuntzan, gure sare industrialean, gure kulturaren, ... UPV/EHUn eragina izugarria izan da azken urteetan.

Berrogei urte dira Euskal Herriko Unibertsitatea sortu zenetik. Hasieran unibertsitate ahul bat zena eta zalantza beteta, erreferente bihurtu da gaur egun euskal gizartearentzat, bai ikerketan, bai prestakuntza akademikoan, bai ezagutzaren transferentzian edo zabalkundearen. Zientzia, teknologia, ezagutza, sorkuntza artistikoa, pentsamendu kritikoa, gaitasun profesionalak ... denon esku jartzeko lan egiten dugu gogotsu. Zeregin horretan berrogei urte daramatzagu egunero ahalegintzen. Ibilbide horretan asko izan dira zailtasunak, ahaleginak, lorpenak, une zailak eta pozak.

Xede hau lortzeko gurea bezalako unibertsitate publiko batek, gizartea ordezkatzeko duten politikarien begirada luzea eta eten gabeko konpromisoa behar du, etorkizunean Euskal Herria izango baita, neurri handi batean, beraren unibertsitate publikoa ematen duena. Unibertsitate barik ez dago etorkizunik, edo oso bestelakoa izango da.

Pandemiaren eragina sufritzen ari garen honetan, argi ikusi dugu zerbitzu publikoaren balioa zein garrantzitsu den; hainbeste miresten dugun euskal sare sozioekonomikoa baino garrantzitsuago. Zer esanik ez, zerbitzu publiko hori ematen ari diren gehienak UPV/EHUKo ikasgeletatik sortuak dira.

Txosten honetan ikusten da eliteen artean UPV/EHUKo profesionalek, beharbada, eduki behar zuten presentzia baino gutxiago daukatela. Unibertsitate pribatuetatik sortutakoek gehiegizko presentzia dutela dirudi. Argazki finko bat erakusten da. Nik beste irakurketa bat egiten dut. Niretzat adierazgarriena da ibilbide labur honetan UPV/EHUKo profesionalek eliteen artean lortu duten presentzia. Argazki finko baino, askoz garrantzitsuagoa da UPV/EHUK egin duen 40 urteetako pelikula.

Adibidez, sektore industrialari dagokionez, zuzenbide pribatuko enpresa publikoetan UPV/EHUn ikasitakoak dira % 46,7; enpresa pribatu eta kooperatibetan % 37,3. Azpimarratzekoa da ere arlo politikoan daukagun presentzia. Eusko legebiltzarkideen artean % 62,3 dira UPV/EHUKo ikasle ohiak, % 40 dira UPV/EHUn ikasi duten hiriburuetakoko alkate eta hautetsiak. Antzeko portzentajeak ikusten dira aztertutako arlo guztietan. Datu oso adierazgarriak kontuan hartuta unibertsitate publikoaren ibilbide laburra. Eliteen azterketa honetan, UPV/EHUn ikasle ohien presentziaren bilakaera da adierazgarriena. Nork pentsatuko zukeen hori orain dela bakarrik berrogei urte?

“Eliteak vs jakintzaren zirimiria” galdera hau nire buruari egiten diodanean, zirimiria garrantziaz jabetzen naiz, Euskal Herriko bazter guztietan lortu baitugu gure profesionalen jardueraren eragina nabarmena izatea. Hori da gakoa etorkizunari

begira, jakintzaren zirimiria behar dugu Euskal Herriaren etorkizuna eraikitzeko, eliteek ezin baitute eragin positiborik izan jakintzaren zirimiririk gabe.

Unibertsitate publikoa euskal gizartea egunero dinamizatu eta sustatzen duten eragileetako bat da. Gure herrialdeko egitura instituzional, profesional eta sozialaren barruan kontuan hartzen gaituzte. Baina eginkizun are garrantzitsuagoa betetzen dugula uste dut: aldaketarako motorra gara, irakaskuntzatik, ikerketatik, kritikatik, iritzi publikoaren eraketatik, sorkuntza artistiko eta literariotik jarduten duen aldaketarako motorra.

Horrez gain, pandemia garai honetan ikusten den bezala, gure irakasleak egunero daude komunikabideetan beren ikerketen, ekimenen eta argitalpenen berri emanez. Jakintzaren onura herritarren esku jartzen ahalegintzen dira. Mundu konplikatu eta zail honetan gertatzen ari dena hobeto ulertzeko, azalpen hurbilak ematen dizkiote euskal gizarteari, behar bezalako zorrotasun zientifikoarekin, ulertzeko modukoak. Itzela izan da pandemia garaian UPV/EHUko irakasleek eta ikertzaileek egunero eman dizkiguten azalpenak, aholkuak, iradokizunak, iritziak ... Hori bai da gizartean eragin positiboa sortarazteko bide egokia.

Gaitasun lauso batez ari gara, ez beti erabat ikusgarri, baina oso boteretsu eta euskal gizartean egunez egun eragiten duena, gizarte kultuagoa sortzeko balio duena, eta aurrera egiteko adorea ematen duena. Ezagutzaren eliteei buruz hitz egiten ari gara.

Testu hau idaztean, Lazkao Txiki bertsolariari entzundakoa etorri zait gogora. Behin batean bera eta Mattin Usurbilen zeuden eta Mattinek esan zuen:

Ikusten al dituk bi gizon horiek? Horiek dituk gizonak, ez gu, bi alu inora ailegatzen ez geranak.

Eta Lazkao Txikik honela erantzun omen zion:

Ixilik egon adi, gu ere lurreraino ailegatzen gaituk eta!

Ba bai, Euskal Herriko Unibertsitatearen eragina euskal gizartearen txoko guztietara iristen da. Lazkao Txikik esandakoa parafraseatuz, gure jakintzaren zirimiria lurreraino ailegatzen duk/n eta!

02

Hego euskal herriko elite politikoaren azterketa

Iñaki Antiguedad Auzmendi

Sarrera

Elite boterearen azterketa honetan atal berezitu batean hartu dugu kontuan elite politikoa, hots, Hego Euskal Herriko erakundeetan azken legegaldi bietan hautetsi izan diren politikariak, bai eta kanpoko erakundeetan euskal ordezkariak izan dutenak ere. Hortaz, lehenengo kasuan azterketara bildu ditugu Eusko Legebiltzarra (2016, 2020), Nafarroako Foru Parlamentua (2015, 2019), Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako Batzar Nagusiak (2015, 2019) eta Iruñea, Bilbao, Donostia eta Vitoria-Gasteizeko udalak (2015, 2019) erakundeetako hautetsiak, eta bigarrenean Espainiako Diputatuen Kongresua eta Senatua (2016, 2019) eta Europako Parlamentua (2015, 2019) erakundeak.

Azterketa 6 taldetan banatu da, ordena honetan: 1) Eusko Legebiltzarra (150), 2) Foru Parlamentua (100), 3) Kongresua eta Senatua (78), 4) Europako Parlamentua (14), 5) Batzar Nagusiak (306) eta 6) Hiriburuetako udalak (220). Kasu batzuetan ezinezkoa izan da hautetsi guztien datu guztiak biltzea (Txosten honen hasieran adierazi moduan), hala ere osatutako datu-basea nahiko mamitsua izan da, atera diren emaitzak kontuan hartzeko bestekoak. Taldez talde egin da azterketa, eta tartean alderaketa batzuk egin ere, erakunde batzuen emaitzak parez pare jartzeko.

Talde bakoitzean segitu den eskema bera da. Lehenik eta behin, erregistratutako politikarien sexu banaketa, ikuspegi honetatik erradiografia eguneratua izateko, nahiz eta azkeneko bi legegaldietako datuak izanda ezin denbora-bilakaera ganoraz ondorioztatu. Bigarrenik, prestakuntzari erreparatu zaio, hau da, unibertsitate-ikasketak dituzten ala ez, izatekotan unibertsitatea publikoa edo pribatua izan den,

bertokoa edo kanpokoa, ikasketen arloa ... Kontuan hartu diren Hego Euskal Herriko unibertsitateak hauek dira: publikoak (Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU, Universidad Pública de Navarra/Nafarroako Unibertsitate Publikoa UPNA/NUP), pribatuak (Mondragon Unibertsitatea MU, Universidad de Deusto UD, Universidad de Navarra UNAV).

Ikasketak jakintza-arloka bereiztu dira, ohikoa den banaketa erreferente hartuta: Giza Zientziak, Gizarte eta Lege Zientziak, Osasun Zientziak, Zientzia Zehatzak eta Materiarenak, Ingeniaritza eta Arkitektura. Ikasketen inguruko informazio hau oso argigarria da, zeren botere legegilean ari diren horiek hartzen dituzten erabakiek eragin zuzena duten gizartearen egunerokoan, eta *konparazio hori egitea, formazioaz zertan dauden prestatuta eta politikan zertan erabakitzen duten, gobernantzaren koherentzia politiko-teknikoa neurtzeko irizpide har daiteke.*

1. Eusko Legebiltzarra

150 erregistro bildu dira (75 legealdiko). Sexuari begiratuta nahiko orekatuta dago banaketa: % 51.3 emakumezko eta % 48.7 gizonezko. Banaketa nahiko antzekoa izan da legealdi bietan, azkenekoan (2020) emakumezkoen presentziak apur bat behera egin badu ere (% 49.3; 2016koan % 53.3).

Unibertsitate-ikasketei erreparatzen badiegu 17 legebiltzarkideren kasuan ezin izan da kontua argitu. Besteen artean, % 57.4k publikoan ikasi dute eta % 42.6k pribatuan. Publikoan ikasi dutenen artean gehien-gehienek (% 92.6) Hego Euskal Herriko unibertsitateetan egin dute, guztiek UPV/EHU. Pribatuan ikasi dutenen artean gehienek (% 88.5) Hego Euskal Herrian egin dute: % 85.1k UDn, % 10.6k UNn eta % 4.3k MUn.

Ikasketen jakintza-arloari dagokionez, Gizarte eta Lege Zientziena gailentzen da, dudarik gabe, % 77.1eko portzentajearekin, horren barruan Zuzenbidea izanik prestakuntza zabalduena (% 57.4, erdia baino gehiago pribatuan), Komunikazio Zientziaren (% 17.8, gehienak publikoan) oso gainetik, atzean Ekonomia eta Pedagogia direla (% 10.9 bakoitza, lehena publikoan nagusi eta bigarrena pribatuan), gainerako % 3 Psikologiak eta Soziologiak hartzen dutela.

Nagusi den arlotik oso urrun Ingeniaritza eta Arkitektura (% 9.9) eta Giza Zientziak (% 7.6) geratzen dira. Lehenengoan Ingeniaritza da zabalduena (% 46.1, publikoan eta pribatuan antzera), oso atzean geratzen direla Telekomunikazioa eta Informatika (% 15.4, pribatuan), Nautika (% 15.4, publikoan) eta Arkitektura (% 15.4, publikoan eta pribatuan antzera), eta Baso-Ingeniaritza % 7.7 dela (pribatua). Giza Zientziei dagokiela, gehienak (% 60, pribatuan gehiago) Historia eta Geografiakoak izanik, % 30 Filologiakoak (publikoan gehiago) eta % 10 Artekoa (publikoa). Geratzen den apurra Zientzia Zehatzak eta Materiarenak arloak hartzen du (% 3.1; Biologia eta Kimika

berdinduta, publikoan beti ere), eta Osasun Zientzietakoak (% 2.3, Medikuntza hain zuzen ere, publikoan).

Gauzak horrela, azpimarratzekoa da Eusko Legebiltzarrean Zuzenbideak duen nagusitasuna, erregistratutako legebiltzarkideen artean % 44.3 hartzen baitu. Honetaz gain, % 10etik gora dagoen arlo bakarra Komunikazio Zientziak dira, % 13.7rekin. Bestera esanda, bi arlo horiek Botere Legegileko hautetsien prestakuntzaren % 58 hartzen dute, gainerakoa oso barreiatuta dagoela bestelako jakintza arloetan (Ekonomia % 8.4). Hortaz, *bada hemen kezkarako motiborik, XXI. mendeko euskal lurraldeetako gizarteek aurrean dituzten erronka nagusien tamaina eta konplexutasuna ikusita (klima aldaketa, globalizazioa, pandemiak ...), ziurgabetasunak barne, erabakiak hartu behar dituztenen aldetik askoz ere jakintza-esparru zabalagoko prestakuntza espero baitzatekeen halako botere gunean (soziologia, osasun zientziak, natura zientziak ...).*

2. Nafarroako Foru Parlamentua

100 erregistro (50 legealdiko). Sexuari erreparatuz gero % 50na dute emakumezkoek eta gizonezkoek, haien ordezkariak % 48tik % 52ra pasatu dela 2019ko legealdian. Ikasketei dagokienez 68 erregistrotan baino ez da galdera argitzen. Eskura izan diren datuekin, % 48.5ek unibertsitate publikoan ikasi dute eta % 51.5ek pribatuan. Publikoaren kasuan % 63.6k Hego Euskal Herriko unibertsitateetan ikasi dute (% 47.6k UPV/EHU, % 52.4k UPNA/NUPn) eta gainerako % 36.4k Estatukoetan, atzerrikoetan inor ez dela. Pribatuan ikasi dutenen artean, gehien-gehienek (% 91.4) Hego Euskal Herrian bertan egin dute: % 87.5ek UNn, % 12.5ek UDn.

Parlamentarien prestakuntzari dagokionez, Gizarte eta Lege Zientziak aise gailentzen dira % 76.5 hartuta, atzetik, oso urrun, Giza Zientziak (% 10.6), Osasun Zientziak (% 8.2) eta Ingeniaritza eta Arkitektura (% 4.7) datozela; deigarria bada ere, erregistroetan ez da Zientzia Zehatzak eta Materiarenak arloko ikasketak egin dituenik. Arlo nagusiari erreparatuta, nahiko sakabanatuak ageri dira azpi-arloak: Zuzenbidea (% 27.7, gehienak pribatuan), Ekonomia (% 16.9, gehienak publikoan), Pedagogia (% 15.4, publikoan zein pribatuan), Komunikazio Zientziak (% 13.9, pribatuan nagusi), Gizarte Langintza (% 12.3, publikoan nagusi), Soziologia (% 9.2, publikoan nagusi), eta Psikologia (% 4.6, publikoan batez ere).

Giza Zientzien kasuan (% 10.6), azpi-arlo nagusia Filologia da (% 66.7, publikoa, nagusi), atzean Filosofia (% 22.2, publikoa) eta Historia eta Geografia (% 11.1, publikoa) direla. Osasun Zientziak sailean (% 8.2) ikasketa den-denak Medikuntzakoak dira (publikoan zein pribatuan). Eta azkenik, Ingeniaritza eta Arkitekturan ikasketa gutxi (% 4.7) eta barreiatuak (erdia Arkitekturan, pribatua, eta beste erdia parekatuta Ingeniaritzan, publikoa, eta Telekomunikazioa eta Informatikan).

3. Hego Euskal Herriko erakunde nagusi bien alderaketa

Eusko Legebiltzarra eta Foru Parlamentua alderatzen baditugu hainbat ondorio ateratzen dira. Sexu banaketari begira antzeko egoera dago bietan: emakumezkoak % 51.3 Legebiltzarrean eta % 50 Parlamentuan. Unibertsitate-ikasketei begiratuta, publikoan ikasi dutenen portzentajea % 48.5 (Parlamentua) eta % 57.4 (Legebiltzarra) tartean dago, gehienak Hego Euskal Herriko publikoetan ikasiak: % 92.6 Legebiltzarrean (denak UPV/EHUn) eta portzentaje baxuagoa (% 63.3) Parlamentuan (% 52.4 UPNA/NUPn, % 47.6 UPV/EHU). Aipatzekoa da UPNA/NUPn ikasitakoek presentzia Foru Parlamentuan (horien presentziarik ez da Eusko Legebiltzarrean). Hego Euskal Herriko unibertsitate pribatuetan ikasi dutenen portzentajea altua da erakunde bietan (% 88.5 - % 91.4), Foru Parlamentuan gehienek (% 87.5) Nafarroako Unibertsitatean eta Eusko Legebiltzarrean gehienek (% 85.1) Deustuko Unibertsitatean ikasi dutela; erakunde bakoitzean falta den portzentajea beste unibertsitateak hartzen du; salbuespena, Mondragon Unibertsitateak hartzen duen lekua, % 4.3, Legebiltzarraren kasuan.

Parlamentu bien hautetsien ikasketei dagokienez, bietan zein bietan gailentzen dira Gizarte eta Lege Zientziak (% 76.5 - 77.1), eta, zehatzago esanda, Zuzenbidekoak (% 57.4 Legebiltzarrean eta % 27.7 Foru Parlamentuan, beti ere ikasketa pribatuak nagusi direla). Hala ere, azken erakunde honetan sakabanatuagoak dira arlo nagusi horretako ikasketak, % 9.2 - 16.9 tartean, ordenaz, Ekonomia (publikoa), Pedagogia (pareko), Komunikazio Zientziak (pribatua), Gizarte Langintza (publikoa) eta Soziologia (publikoa) sartzen direla; beraz, Eusko Legebiltzarrarekin alderatuta, ekonomialari, pedagogo, gizarte langile eta soziologo gehiago eta komunikazio zientzietakoak gutxiago Foru Parlamentuan. Abiapuntu modura, behintzat, jakintza-esparru zabalagoa.

Arlo nagusia erakunde bietan bera bada ere, geroko ordenan aldatetak dira: Ingeniaritza eta Arkitektura bigarrena da Legebiltzarrean (% 9.9, ingeniariengatik batez ere) baina laugarrena baino ez Foru Parlamentuan (% 4.7, arkitektoak nagusi). Legebiltzarrean hirugarren arloa dena (Giza Zientziak, % 7.6, historialariak nagusi direla) bigarrena da Parlamentuan (% 10.6, hemen nagusi filologoak direla, eta publikoan ikasiak) eta azken honetan hirugarrena Osasun Zientziak (% 8.2) dira, Medikuntzakoak guztiak (publikoan zein pribatuan), Eusko Legebiltzarrean (% 2.3) baino dezente portzentaje handiagoarekin. Gogora dezagun lehen esandakoa, hau da, *Hego Euskal Herriko unibertsitateetan egindako ikasketa publiko gehienak UPV/EHUn eginak direla, nahiz eta UPNA/NUPn ikasitakoak apur bat gailendu foru erakundeetan; bertoko unibertsitate pribatuetan ikasitakoek banaketa argia erakusten dute: Eusko Legebiltzarrean Deustukoa da nagusi, eta Foru Parlamentuan Nafarroakoa, bietan zein bietan alde handiz.*

4. Espainiako Kongresua eta Senatua

78 erregistro beharko zutekeen, 46 Diputatuen Kongresuan (23 legealdiko) eta 32 Senatuan (4 herrialdeko eta legealdiko), baina guztira 56 erregistro lortu dira. Bere osoan hartuta erakunde biak, emakumezkoek % 39.3 hartzen dute eta gizonezkoek gainerako % 60.7.

Unibertsitate-ikasketei begiratuta, 10 hautetsik ez dute holakorik, edo ez dute behintzat bere curriculumen agertzen. Agertzen dutenen artean % 54.3k publikoan egin ditu ikasketak eta % 45.7k pribatuan. Gehienek (% 82.2) Hego Euskal Herriko unibertsitateetan ikasi dute (erdia publikoetan - % 44.4 UPV/EHU, % 5.6 UPNA/NUP - eta beste erdia pribatuetan - % 25 UD, % 25 UN), eta gainerakoak Estatukoetan (% 17.8).

Prestakuntzako jakintza-arloei dagokiena, hurrengo atalean komentatzen da, Kongresuko eta Senatuko datuak Europako Parlamentukoekin bateratuta.

5. Europako Parlamentua

Guztira 14 erregistro izan dira, 7 legealdiko (2015, 2019). Emakumezkoak gehiago izan dira (% 57.2) gizonezkoak baino (% 42.8). Ikasketen informazioa duten erregistroak 11 izan dira, guztira. Horren arabera, % 54.5ek unibertsitate publikoan eta % 45.5ek pribatuan burutu dituzte euren ikasketak. Lehenengoan artean % 83.3k UPV/EHUn ikasi dute eta % 16.7k UPNA/NUPn. Pribatuan ikasitakoan artean denek egin dute UDn.

Jakintza-arloei erreparatuta, eta multzo berean sartuta Kongresuko eta Senatuko hautetsien datuak ere, hauxe ondorioztatzen da. Guztira 80 erregistro bildu dira; kasu bakar batean ikasketa eklesiastikoa ageri da, eta bere horretan utzi dugu, ohiko inongo jakintza-arlori gehitu gabe. Gauzak horrela, gailentzen den arloa Gizarte eta Lege Zientziak da, % 77.5ekin; honen barruan Zuzenbidea ageri da nagusi (% 51.6, publikoa gainetik dela), gero Ekonomia (% 17.7, publikoa batez ere), Komunikazio Zientziak (% 9.7, publikoa), Pedagogia (% 8.1, pareko), Psikologia eta Soziologia (% 4.8na, publikoa nagusi) eta Gizarte Langintza (% 3.3, publikoa).

Bigarren eta hirugarren arloak, lehenengotik oso urrun, Giza Zientziak eta Osasun Zientziak dira, biak % 6.25ekin. Arlo horretan gehienak Filologiakoak dira (% 80, pribatukoak), eta Filosofiakoak gainerakoak, pribatukoak ere. Osasun Zientzietan, Medikuntzakoak dira gehien-gehienak (% 80, pareko), eta Erizaintza-Farmaziakoa bestea, pribatukoak. Atzerago, Ingeniaritza eta Arkitektura dago, % 5ekin, erdia Telekomunikaziokoak eta beste erdia Baso-Ingeniaritzakoak. Eta azkenik, Zientzia Zehatzak eta Materiarenak (% 3.75), Biologian, Kimikan eta Matematikan kasu banarekin.

6. Hego Euskal Herriko erakundeen eta kanpokoek arteko alderaketa

Orain arte aipatutako erakundeen arteko alderaketa eginda zera ondorioztatzen da, beti ere portzentajeak oinarri. Sexuari begira, Hego Euskal Herriko erakunde bietan (Legebiltzarra eta Parlamentua) nahiko orekatuta daude emakumezkoak eta gizonezkoak. Ez da halakorik gertatzen kanpoko erakundeetan. Izan ere, Kongresu-Senatuan, batera hartuta, askoz handiagoa da gizonezkoen presentzia (% 60.7), eta, beste aldean, emakumezkoen presentzia nabarmen da handiagoa Europako Parlamentuan (% 57.2).

Unibertsitatean burututako ikasketei erreparatuz gero, nahiko orekatua da publikoaren (% 48.5 - % 57.4) eta pribatuaren (% 42.6 - % 51.5) arteko hautua, publikoaren presentzia altuena Eusko Legebiltzarrean eta pribatuarena Foru Parlamentuan direla. Kasu gehienetan oso altua da Hego Euskal Herriko unibertsitateetan egindako ikasketen portzentajea: pribatuan % 88tik gorakoa, eta % 63tik gorakoa publikoan; azken honetan, emandako portzentajea Foru Parlamentukoa da, non ez dira gutxi Estatuko unibertsitate publikoetan ikasitako kasuak.

Hego Euskal Herriko unibertsitateen hautuari dagokionez, nabarmen geratzen da UPV/EHUK duen pisua publikoan, beti % 83tik gorakoa, Foru Parlamentuan salbu, non % 47.6koa den; izan ere, UPNA/NUPK hortxe du presentzia handiena, % 52.4koa, Euskal Herriko kanpoko instituzioetan % 11 - 16 izanik eta presentziarik gabea Eusko Legebiltzarrean. Pribatuaren hautuari dagokionez, Deustuko (UD) eta Nafarroako (UN) Unibertsitateen artean dago joko, lehena nagusi dela Euskadiko eta Europako parlamentuetan (% 85etik gora) eta bigarrena Nafarroakoan (% 85). Mondragon Unibertsitateak (MU) Eusko Legebiltzarrean baino ez du presentzia, datuak datu, % 4 eskasarekin.

Hautetsien formakuntzari begira, beti ere unibertsitate-ikasketak abiapuntu hartuta, kanpoko erakundeetan zein Hego Euskal Herrikoetan denetan gailentzen da Gizarte eta Lege Zientziak arloa (% 76.5 - 77.5), beti ere Zuzenbidea dela horren barruko atal nagusia, gehienetan alde handiz gainera. Hortaz, kanpoko erakundeetan eta Eusko Legebiltzarrean % 50etik gorakoa da Zuzenbidearen presentzia, arloaren barruan, eta horren erdia, kasik, Foru Parlamentuan. Zuzenbidearen ostean datoz Ekonomia (% 10.9 - 17.7), Komunikazio Zientziak (% 9.7 - 17.8) eta Pedagogia (% 8.1 - 15.4).

Agerian geratzen da, berriro ere, Zuzenbidea ikasitakoek duten pisu handia erakunde horietan, erradiografia honek, gutxienez, bi arazo dakartzala: batetik, gizarteak aurrean dituen erronka asko eta askotarikoei begira behar besteko ezagutza-ehuna, zabala eta sakona, ez dela erabakiak hartzen diren botere-guneotan ematen; eta bestetik, zuzenbidean trebatu diren horiek zer punturaino ez ote diren traba bihurtzen, azken finean erronka horiek aldaketa sakonak eskatzen baitituzte, eta erabakiak ere, are gehiago behar besteko eskumenak ez dituen Hego Euskal Herria bezalako lurralde partekatuan.

Gizarte eta Lege Zientzien atzetik Giza Zientziak datoz, filologo, filosofo eta historialariek, gehiago edo gutxiago erakundearen arabera. Eta Osasun Zientziak ere (Medikuntzakoak nagusi, oso), Eusko Jaurlaritzan salbu non oso portzentaje urrian ageri den arlo hau (% 2.3an, Foru Parlamentuko % 8.2rekin eta kanpoko erakundeetako % 6.25ekin alderatuta); kontrara, Eusko Legebiltzarrean Ingeniaritza eta Arkitektura arloak duen presentzia (% 9.9, ingeniariak nagusi) nahiko altua da beste erakundeetako datuen aldean (% 4.7 Foru Parlamentuan eta % 5 kanpokoetan).

7. Batzar Nagusiak

306 erregistro beharko zutekeen, 51 herrialdeko eta legealdiko. Dena dela, kasu askotan ezin izan da hautetsien informazio osoa jaso; honek agerian uzten du Batzar Nagusietan ari diren hautetsien gaineko argibide eskasa. Izan ere, azkenean, batzarkideen % 53.4en datuak baino ezin izan dira bildu. Ez da bereizketarik egin hiru lurralde historikoetako (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa) erakundeen artean, eta erakunde bakar gisa tratatu dira datuak. Hori abiapuntu, eta sexuari erreparatuta, emakumezkoek % 51.5 hartzen dute, eta gizonezkoek gainerako % 48.5.

Unibertsitate-ikasketei dagokienez, publikoan % 63.4k ikasi dute, eta % 36.6k, ostera, pribatuan. Publikoan ikasitakoen artean gehien-gehienek (% 91.3) Hego Euskal Herrian bertan ikasi dute (% 7.7k Estatuan eta % 1.0k atzerrian), eta horien ia guztiek UPV/EHU (% 97.9), UPNA/NUPn % 2.1k ikasi duela. Pribatuan ikasi dutenen artean ere gehien-gehienek (% 94.9) bertoko unibertsitateetan ikasi dute (% 89.2k UDn, eta portzentaje berean, % 5.4, UNn eta MU), % 3.4k atzerrian eta gainerako % 1.7k Estatuan egin dutela.

Batzarkideen ikasketa-arloari erreparatu eta erregistroetan bildutako informazioa abiapuntu hartuta, hauxe atera da. Kasu batean kontserbatorioko ikasketak ageri da, eta bere horretan utzi dugu, ohiko arloetan sailkatu gabe. Ohikoetara joanda, Gizarte eta Lege Zientziak da arlorik zabalduena, % 72.1ekin, gero, hurrenez hurren, hauexek: Giza Zientziak (% 17.4), Ingeniaritza eta Arkitektura (% 6.3), Zientzia Zehatzak eta Materiarenak (% 2.6) eta Osasun Zientziak (% 1.6).

Nagusia denera joanda, Zuzenbidea gailentzen da (% 38.7, publikoa gehiago pribatua baino), segituan Ekonomia (% 17.5, publikoa batez ere), Soziologia (% 16.2, publikoa batez ere), Komunikazio Zientziak (publikoa) eta Pedagogia (publikoa nagusi) % 10.2na, eta azkenik Psikologia (% 3.6) eta Gizarte Langintza (% 3.6) bietan publikoa nagusia dela. Bigarren arlo nagusia, alde handiz, Giza Zientziak dira, horren barruan Filosofia eta Historia eta Geografia berdinduta daudela (% 30.3 bakoitza, publikoa eta pribatua pareko), ostean Filologia (% 21.2, pareko ere) eta Arteak (% 18.2, publikoa) egonda. Hirugarren arloa Ingeniaritza eta Arkitektura da, Ingeniaritza nagusi (% 66.6, pribatua batez ere) eta Telekomunikazioa eta Informatika (% 16.7, pribatua) eta Baso

Ingeniaritza (% 16.7 pareko) atzean datozela. Geratzen diren arlo biek presentzia eskasa dute; Zientzia Zehatzak eta Materiarenak (Fisika, Kimika eta Matematika, publikoa beti) eta Osasun Zientziak (Medikuntza).

Hurrengo atalean egiten da Hego Euskal Herriko erakunde guztien arteko alderaketa. Dena dela, eta Batzar Nagusietatik atera gabe, eta erregistro bilketan izan diren hutsuneak hutsune, hainbat aipu egin daitezke. Batetik, Gizarte eta Lege Zientziak gailentzen badira ere, eta beti legez Zuzenbidea nagusi izanda ere, nahiko banatuta ageri dira arlo barruko ikasketak, behintzat Eusko Legebiltzarrekoekin alderatuta; hortaz, deigarria da lurralde historikoetako erakundeotan Soziologiak duen pisua, % 16.2, inongo altuena, dudarik gabe. Antzekoa esan daiteke Giza Zientzien arloaz, erakunde guztietako pisurik altuena izateaz gain (% 17.4) nahiko orekatua da azpi-arloetan, Arteak, kasurako, presentzia esanguratsua duela (% 18.2). Gainerako arloetan portzentajeak txikiak dira.

8. Batzar Nagusien eta Euskal Herriko goragoko erakundeen arteko alderaketa

Nahiz eta datu dezente falta diren hiru lurralde historikoetako erakundeen erregistroetan, interesgarri iruditu zaigu Foru Parlamentuarekin eta Eusko Legebiltzarrekin alderaketa egitea; azken batez, gure gaurko barne-eraketan garrantzia handia hartzen dute Batzar Nagusiek. Sexu banaketari dagokionean ez da alderik nabaritzen, emakumezkoek duten portzentajea (% 51.5) ia-ia Eusko Legebiltzarrekoa (% 51.3) bera baita, apurtxo bat altuagoa Foru Parlamentukoa baino (% 50).

Nabarmenagoa da aldea, ostera, unibertsitate-ikasketei dagokienean; izan ere, % 63.4k ikasi du publikoan, *6-9 puntu gehiago goiko erakunde bietan baino*. Honek, agian, balio dezake adierazteko *Batzar Nagusiak bezalako behe-erakundeetan hautetsien esparru sozio-politiko zabalagoa dela; konparazio baterako, publikotik pasatuak direnak gehiago direla. Dena dela, argi utzita zoritxarrez erregistro asko falta izan direla azterketa hobea egin ahal izateko*.

Jakitza-arloei erreparatuz gero, Batzar Nagusietako ezagutza-eremua zabalagoa da, Gizarte eta Lege Zientzien arloak nagusi izaten segitu arren (eta Zuzenbidea gailendu ere) zerbait banatuago ageri baitira azpi-alorrak, Soziologiak goi-erakundeetan baino presentzia gehiago duela. Giza Zientzien arloak ere segitzen du aurreneko postuetan, baina honetan ere banatuago ageri dira azpi-arloen pisuak, Arteak berak presentzia handia duela. Hala ere, aipatutako bi arloen artean % 89.5 justifikatzen dute Batzar Nagusietan, % 87.1 Foru Parlamentuan eta % 84.7 Eusko Legebiltzarrean (honetan bigarren arlo nagusia Ingeniaritza eta Arkitektura dela), hau da, *pisu gutxi uzten dietela ezagutzaren bestelako arloei, eta hori kezkarako motiboa izan bada*.

Hortaz, positibo har badaiteke ere lurralde historikoetako erakundeetan den jakintza-eremua sakabanatuagoa izatea, bertan diren hautetsien eremu sozial zabalagoaren neurria eman dezakeena (ahaztu gabe ere zenbakitan gehiago direla), *kezkarri har daiteke erakunde horietan ere jakintza orekarik ez egotea, hau da, gaurko giza-erronkei erabakietatik erantzuteko beharko litzatekeen ezagutza integratu eta orekatua, bertan diren eztabaiden aberasgarri beharko lukeena.*

9. Hiriburuetako Udalak

Guztira, lau hiriburuetan, 110 zinegotzi dira legealdiko. Guk denetara 166 erregistro bildu ahal izan ditugu, eta datu horiekin egin da azterketa. % 48.2 dira emakumezkoak eta % 51.8 gizonezkoak. Unibertsitate-ikasketak burutu dituztenak 118 zinegotzi dira, horietatik % 52.5k publikoan eta % 47.5k pribatuan ikasi dutela. Haien artean % 88.7k Hego Euskal Herriko unibertsitateetan egin dituzte ikasketak (% 96.4k UPV/EHU eta % 3.6 UPNA/NUPn), eta besteak gehien bat Estatukoetan (% 9.7). Pribatuan ikasitakoen artean % 98.2k bertoko unibertsitateetan egin dute (% 81.5ek UDn eta % 18.5ek UNn), eta gainerakoak atzerrian. Atal honetan ez dugu unibertsitate-ikasketen azterketa egin.

03

Euskal Herriko erakundetze publikoa (1979-2021)

Joseba Aguirreazkuenaga

Gaur egungo agintari politikoen azterketa egikerakoan, erakunde publikoen egituraketa zer nolakoa den argitu beharko dugu. Lege nagusi bi ditugu 1978ko Espainiako Konstituzioan oinarriturik. Batetik, Autonomiarako Estatutua, Araban Bizkaian eta Gipuzkoan indarra duena, erreferendum batean onartua izan zena 1979an, eta ondoren Eusko Legebiltzarra sortu zen. 1979an Batzar Nagusiak eta Nafarroako Foru Parlamentua edo Nafarroako Gorteak osatu ziren. Batzar hauetan zuzen zuzenean aukeratutako ordezkariak egon ziren. Bestetik, Nafarroako Foru Parlamentuak 1982ko Nafarroako Foru Hobekuntza onartu zuen eta autonomia estatutuen araberako egituraketa egokitu zuen Nafarroarako, baina Nafarroan herritarrek ez zuten erreferendum bidez onartzeko edo baztertzeko aukerarik izan egituraketa hau.

Berez agintariak aldi baterako aukeratzen dira eta gobernuetan ekintzabideak burutzeko izendatuak dira gobernu kide. Gurean, Eusko Legebiltzarra eta Nafarroako Foru Parlamentua ditugu eta horrez gain Batzar Nagusiak Bizkaia, Gipuzkoa eta Araban. Guztiak legegileak dira. Batzar Nagusiak zerga eta finantzen arloan ere legegileak dira eta honek berebiziko indarra eta erantzukizuna eransten die. Azken batean Foru Batzar Nagusiak eta Nafarroako Foru Legegileak zergak eta finantzak kudeatzen dituzte, hau da, agintearen gihar eta boterearen nerbio dira zerga finantza publikoen sistema hau. Eta Euskal Autonomia Erkidegoan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Gobernuak dira zergen kudeaketaz arduratzen direnak baina Eusko Jaurilaritza da gastu publikoaren atal nagusiak kudeatzen eta erabakitzen dituena.

Beraz, aginteen eraketa eta sistema federala antolaturik eta erroturik dago. Laburbilduz, Eusko Legebiltzarrean onartuak izan ziren hiru lege nagusi hauek dira aipatu beharrekoak:

- 27/1983 Legea, Autonomia-Elkarte Osorako Erakundeen eta bertako Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Erakundeen arteko harremani buruzkoa.
- 1/1987 Legea, Kondaira-Lurraldeetako Batzar Nagusietarako Hauteskundeei buruzkoa.
- 2/2007 Legea, baliabideen banaketarako eta Foru Aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko 2007-2011 aldian aplikatuko den metodologiari buruzkoa.

Horrez gain, hiri nagusietan zinegotzi guztiek bilkura osoan parte hartzen dute eta aldi berean zinegotzi batzuk aginte gobernua eratzen dute.

Ipar Euskal Herrian 1995ean sortu zen Hautetsien Kontseilua. Lurralde egitasmoen eguneratzearen ardura dauka. Ondoren Elkarte sortu zen 2007an estatutu batzuen bidez arautuz "Euskal Herriko Hautetsien Kontseilua" eta honezkero ibilbidea egina du, politika publiko guztien koherentzia aseguratzea Euskal Herri mailan du zeregin nagusizat.

Beraz, egitura nahiko konplexu eta aberatsa du Euskal Herriak eta partaidetzarako grina eragiteko modukoa. Euskal Herrian egitasmo eta iritziz aniztasuna bermaturik dago eta ordezkariak herri mailan hautatuak izaten ohi dira, deialdi publikoaren bidez.

1. Azken mendeetako bilakaera laburra (1789-1979)

Europar bezalaxe, Euskal Herrian ere abiapuntua iraultza liberalean dugu eta bereziki 1789an Frantzia barrera abiatu zen gizakiaren eskubide indibidualen aldarrikapenean eta Errepublikaren finkapenean jarri zen. Ipar Euskal Herrian ohiko erakundetze publikoa erabat aldatu zen eta Biarneseekin batera Departamentu berria asmatu zuten; nolahi ere, barne kantonamenduetan antolaturik agiri da Ipar Euskal Herria. Kultura politiko errepublikano berriak ondoko erresumetan ere eragin zuzena izan zuen eta Europar barrera. Baina kultura errepublikanoa ez zen bat batean gailendu. Europako hainbat herrialdetan, kostaldeko Euskal Herriko herrialdeetan barne, erroturik zegoen jadanik. Foru Konstituzioa eta Espainiar nazio konstituzional berriaren antolaketa-prozesuaren nondik norakoa azaltzeko eta arakatzeko ondoko abagune politiko nagusiak aintzat hartu behar ditugu¹:

1 Agirreazkuenaga, Joseba (2012): *Euskal herritarren burujabetza (1793-1919): Euskal herritarren autogobernu auziaren bilakaeraz, Foruen erakundetzetik Autonomia Estatuturara*. Irún, Alberdania, 324or

1. Espainiar Erresuma eta Frantziako Errepublikaren artean 1793an gerra piztu zen eta giro honetan 1793ko urriaren 30ean Bilbon bildu ziren Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako agintariak, Foruen bidezko Konstituzio politiko baten jabe zirela aldarrikatuz, hiruren arteko bilkurak eta ekintza bide komuna adostuz. Azkenik, 1800an Espainiako Carlos IV.aren errege agindu batez, Mariano Luis Urquijo ministro nagusia zelarik, hiru herrialdeetako ordezkarien arteko bilkura horiek ("Conferencias") legeztatu egin ziren, Gaztelako kontseiluaren iritziaren aurka. Aurrerantzean, beraz, *Irurak Bat* izeneko gobernu sortu zen, euskal gobernu politiko eta administratiboa, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ordezkariez osoturik. Bestalde, Nafarroak erresuma egitura bezala antolaturik jarraitzen zuen.
2. Espainiako erresuma konposatuan eta mundu osoan barreiatua zena, 1808an, 1812an, 1837an, Konstituzio liberalak indarrean ezarri ziren "nazio" bakarra aldarrikatuz eta aldi berean Euskal Herriko erakundetze publikoaren jarraipena ezbaian jarri ziren. Adibidez 1837ko irailaren 16an Espainiako Parlamentuak Lege batez Foruen bidezko erakundeak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan ezabatu egin zituen. Baina 1839ko urriaren 25eko Legearen ondorioz, berriz ere Foruen bidezko erakundetzea berreskuratu egin zen eta indarrean jarri. 1841ean Nafarroa erresuma izatetik probintzia izatera igaro zen, baina Nafarroako zor publikoaren erreskatea lortu zuten bertako buruzagiek (Foruen moldaketarako Legea 1841-VIII-16).

Baina Foruen moldaketa geroko geroan luzatu zen Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan eta elkarren arteko loturak indartu egin ziren eta erakundetze publiko forala; aldiz, "euskal nazionalitatearen" erakusle zela aldarrikatu zuten Gernikako Batzar Nagusietan 1850ean Araba eta Gipuzkoako buruzagi politikoei. Euskal Estatu baten egituraketa hartzen joan zen: 3 Batzar Nagusi, 3 Foru Diputazio edo gobernu herrialde bakoitzean eta "Irurak bat" izeneko gobernu komuna.² Hala ere, egin beharreko Foruen bidezko erakundeak agintaritzan, Espainiar Konstituziora egokiturik gabe jarraitzen zuen bere horretan Foru gobernuen eskumenak oso zabalak zirelarik arlo guztietan. 1869an Espainiar Konstituzioak gizonezkoentzako botoa jarri zuen indarrean eta Eliza katoliko eta Estatuaren arteko bereizketa. Karlistak, berriz, armetan altxatu ziren erlijioa eta errege karlistaren eskubideak defendatzeko eta galdu egin zuten.

- 2 "Cada una de estas provincias constituye dentro de la federación o fraternidad euskara una especie de estado independiente y autonómico y las tres están unidas en la identidad de la sangre y de la ley formando el Irurac bat de nuestro original y primitivo pueblo. Las tres provincias hermanas tienen, pues, fuertes y estrechos lazos de unión y se reúnen en Conferencias, cuando la gravedad e importancia de los asuntos comunes a todas lo exigen" R. Becerro de Bengoa, *El libro de Alava*. Centro Literario Vascongado. Vitoria, 1877, 288 or.

3. Espainiar Erresuman 1876ko Konstituzio atzerakoia indarrean ezarri zen eta Alfonso XII errege berriak eta Antonio Cánovas-en eraginez, Espainiako Parlamentuan lege berri bat onartu zen 1876ko uztailaren 21ean. Euskal Herriko liberalak gerra irabazi ondoren euskal erakundeen jarraipena aldarrikatu zuten Batzar Nagusietan. Baina azkenean A. Cánovas-ek 1877an Batzar Nagusiak eta Gobernuak ezabatu egin zituen eta Diputazio Probintzial berriak izendatu. Aurrerantzean Espainiako kontzertu edo esparru ekonomikoan 8 urteko trantsizioa onartu zuen A. Cánovas-ek 1878an eta agindu hau izango da aurrerantzean Kontzertu ekonomiko-administratiboen sorburua.
4. 1917an, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Diputazioetako diputatu probintziales, batzar komun batean foruen berreskurapena eskatu zuten edo, besterik ezean, autonomia politikoa Estatutu batean finkaturik. 1918an *Hermes* aldizkariko arduradunen artean, Euskal Gobernu baten premia aldarrikatu zen eta Ramon Belaustegigoitiak "Gobierno nacional vasco" izeneko egitasmoa argitaratu zuen. Eta horrela, Espainiako II Errepublikako Konstituzioak ahalbidetu zuen Autonomia Estatutuan oinarriturik, 1936an, Eusko Jaurlaritza-Gobierno Vasco izeneko erakunde berria antolatzea, euskal nazioaren agintaritzaren erakusle gisa.

04

Osasunaren eliteak

Angel Bidaurrezaga Van Dierdonck
Lazaro Elizalde Soto
Oier Ateka Barrutia

Sarrera

Lan honetarako Hego Euskal Herriko osasun arloko hainbat langilerekin elkarrizketak egin ditugu, bakoitza eremu eta erakunde ezberdinetako ikuspegia aztertuz lidergoari dagokionez. Azken urteetako karguetako datuak ere kontutan eduki dira egoeraren azterketa egiteko orduan.

Hego Euskal Herriko osasungintza bi arlotan banatuta dago titulartasunari begira: hots, publikoan eta pribatuan; baina bien arteko interferentziak eragina du osasun eliteak kokatzeko momentuan. Arlo publikoaren egitura Espainiakoaren parekoa da kudeaketa eta egiturari dagokionez. Argi dago aginte maila ertainetik gora politikaren eragina nabarmena dela eta alderdi politikoek botere politikoarekin erlazio zuzena dutela.

1. Osasun publikoa

Bai Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) zein Nafarroan, Osasun kontseiluek daramate osasun sistemen kontrola. Bietan osasun asistentziarako kudeaketa duten bi erakunde publiko handi sortu dituzte, Osakidetza EAEn eta Osasunbidea Nafarroan.

Osakidetzaren kasuan, 1997ko *Ley de Ordenación Sanitaria*-k zehazten du Osakidetzaren agintea administrazio kontseilu batek daramala, bertako burua Osasun sailburua izango dela, eta batzordeko kideak Osasun Saileko sailburuordeak eta Osakidetzako zuzendari nagusia direla, azken honek ahotsa bai baina botorik ez duena. Kontseilu honek hartuko lituzke erabaki nagusiak: gastua, plantillak, Euskara planak, etab. Beraz, nahiz eta tamainaz Osakidetza Osasun Saila baino handiagoa den, bere kontrol politikoa legezko arau honen arabera zehaztatuta dago. Dena den, Saila eta Osakidetzaren arteko botere "lehiak" ohikoak izan dira azken urteetan, bien arteko egitura administratiboak ezberdinak diren neurrian. Goazen haien giza baliabide eta organigramaren azterketa egitera.

Osasun Sailean, egitura administratibo bezala, bere lankideak estatutarioak edo funtzionarioak dira eta, beraz, lan poltsetatik (IVAPekoak) kontratu administratibotik sartzen dira lanean. Urte batzuen buruan, Enplegu Publikorako Eskaintza (EPE) batera aurkeztuz lan finkoa lortzeko bidea dute. Tekniko mailatik gora 3 urrats egin ditzakete arlo bateko azpi- zuzendari izan arte, konkurtso publikoen bidez. Hurrengo gorako urratserako, hau da, zuzendari izateko, konfiantzazko kargua edo kargu politikoa behar da izan, beraz, politikaren garrantzia nagusitzen da meritokraziaren gainetik.

Osakidetzan asistentzia egitura bezala bi eremu bereiz ditzakegu: anbulategietako lehen arreta eta ospitaleak. Bietan ere goi mailako kargudunak botere politikoarekin lotuta daude: lehen arreta anbulategietako ESI (Erakunde Sanitario Integratuak) eta ospitaletako gerenteak, eta haien azpian dauden zuzendari mediku eta erizainarenak. Botere-gune bezala bereiz ditzakegunak hauek dira: anbulategietako JUAPak (*"jefe de unidad asistencia primaria"*) eta ospitaletako zerbitzu buruak. Bai batzuk zein besteak ezin dira kargu politikotzat hartu, merituetako lehiaketa bezala hartzen direlako. Ospitaletako zerbitzu buruak plaza hartu ezkerro, behin betiko karguan direnez, askok osasun elitetzat hartzen dituzte bere zerbitzuetako kontrolaz gain askotan arlo pribatuan batera dabilzalako, eta askotan unibertsitatean ere bai. Nafarroan ez bezala, ez daukate beraien karguaren kudeaketaren inongo ebaluaziorik egin beharrik, honela haien boterea azpian dituzten arduradun kliniko, mediku adjuntu (EPEtatik finkoak direnak) eta MIR egoiliarren gainean ezarriz eta mantenduz.

Nafarroan, Osasun Saileko oraingo araudiak dio *"Departamentuak dituela araudia sortzeko konpetentzia, eta kudeaketarako lerro nagusiak eta estrategiak definitzeko funtzioa"*. Hala nola: Osasun Plangintza, Ikerketa, Formakuntza, Berrikuntza, Ikuskaritza edo Osasun Herritartasuna.

Kudeaketarako badira bi egitura: Osasunbideak kudeatzen dituen baliabide propioak eta eremu pribatuko zentroekin kontzertatzen dituen zerbitzuak, Departamentuak markatzen dituen araudiak betez. Bestetik, Nafarroako Osasun Publikoko eta Lan Osasuneko Institutuak Osasun Publikoko atal guztiak kudeatzen ditu (Osasun Sustapena, Epidemiologia, Osasun Publikoko Laborategiak, Elika eta Ur Osasuna, eta Lan Osasuna, Lan Ikuskaritza barne).

Geografikoki, Nafarroan badira hiru eremu: Iruñerria, Lizarra eta Tuterak. Iruñerriko eremuak 500.000 biztanle inguru ditu, Lizarrak 60.000 eta Tuterak 80.000, gutxi gora behera. Eremu bakoitzak ospitale bat eta Lehen Arretako Osasun Talde ezberdinak dauzka. Beraz, desberdintasun handiak daude hiru eremuen artean populazioari eta baliabideei begira.

Tuterak eta Lizarrako eremuek kudeaketa propioa daukaten bezala, Nafarroa osoko Lehen Arretak, Adimen Osasunak, eta Nafarroako Ospitale Eremuak ere gai kudeaketa propioarekin funtzionatzen dute. Tuterak eta Lizarrak, beraz, EAEko ESlen antza dute kudeaketa ereduan.


Nafarroako Ospitale Gunea da Nafarroa osoko erreferentzia hirugarren mailako espezialitateetan: Bihotz Eremua, Onkologia, Pediatria, Neurokirurgia, eta beste espezialitateak.

Departamentuko eta bi erakunde autonomoen egitura pertsona gutxi agertzen dira "goi-kargu" gisa. Nafarroan horrelako izendapenak baditu ezaugarri bereziak, beste lanpostuetan izan behar ez direnak. Nafarroako Osasungintzako goi-karguak hauek dira: Osasun Kontseilaria, Osasun Departamentuko Kabinete Burua, Osasun Zuzendari Nagusia, Osasun Publikoko eta Lan Osasuneko Zuzendari Kudeatzailea, eta Osasunbideak Zuzendari Kudeatzailea.

Nafarroako Osasun eremuko lanpostu gehienak funtzionarioenak dira, ez dago estatutariorik. Plaza guzti horien estaldura oso prekariora da eta guztietatik % 50a gutxienez behin-behinekoak dira.

Koadroa 1

Nafarroako Osasun Zerbitzuaren Antolakuntza Egitura 2020



Goi-kargu izateko eman behar den arduraldia eskusiboa eta absolutua da, hortaz ez dago beste motatako jardurekin konpatibilizatzerik, kasu gutxitan ezik (formakuntza denbora mugatua).

Goi-karguen azpitik badago egitura zehatza, non burua izateko funtzionarioa izan behar den eta, teoriarik, lanpostu horiek betetzeko deialdiak bete behar diren. Kasu askotan hori ez da bete egin eta behin-behineko izendapenen bitartez bete dira. Zerbitzu eta atalburuetan pertsona kopuru handia mantendu da horrela eta maila horretan nolabaiteko funtzionariokrazia finkatu dela esan daiteke. Kontutan izanik UPN alderdi politikoa 1990-etik 2015 arte gobernuan izan zela (1995eko urte bateko

parentesia ezik), erdi mailako kargu gehienak ideologikoki nahiko markatuak izan direla baieztatu daiteke.

2. Osasun pribatua

Espainiako *Ley General de Sanidad*ek 90. artikuluan Osasun Administrazioek beste entitate batzuekin kontzertatzea posible zutela zioen, baina horretarako alde aurretik baliabide propioen optimizazioa derrigorrezkoa zela.

Geroago, estatuko 15/1997 legeak privatizazioari ateak zabaldu zizkion, privatizazio horretarako eremu desberdinak definituz. Testuinguru horretaz baliatuz sortu eta zabaldu dira Hego Euskal Herriko osasun sistemetako privatizazioko erak.

2015 urtean, Espainiako enpresarien CEOE elkarteak *El libro blanco de la sanidad* argitaratu zuen. Liburu horretan agertzen diren proposamenekin CEOEk osasunaren negozioan dabilzan enpresetako eskari orri bat betetzen du, non neoliberalismoan oinarritutako ideologia nonahi irakur daiteken. Zer suposatzen du horrek? Bada, estatuak enpresentzako lan egin behar duela eta behar diren neurriak hartu beharko dituela enpresarien negozioa bermatzeko (morositatea kendu, zergak gutxitu, konbenioak doitu,...), gizarte indibidualista eta basati baterako prestatuz, non osasuna eta aberastasuna hertsiki lotuta dauden, zerbitzuak ordaintzeko aukera dutenek soilik osasun zerbitzuak jasoko dituztelarik.

Gaur eguneko kontraesan nabarian sartzen dira jarduera hauek, haiekiko gastua handitzeko helburuarekin, baina zergak jaitsiz eta bezero orokorrei kobratuz (aseguruak,...), hots, eredu amerikarra baina Europako estatuaren laguntzarekin. Beste adibide bat askotan ageri diren antzeko berzentralizazio eta batasun asmoak lirarteke, komunitate autonomoetako ordainketa atzeratuak kentzeko.

2021-eko eta aurreko urteetako EAEko aurrekontuei begiratuta, zein azken urteetako txosten ezberdinek aurkeztutakoa, zenbait datu interesgarri azter ditzakegu. Osasun Sailaren gastu-aurrekontua 2021erako (4.183 milioi euro) Euskadiko aurrekontu osoaren % 33,63 da (1.912€ biztanleko), hau da, EAEko BPGren % 5,41 soilik. 2019an aldiz, Osasuneko gastu pribatu osoa 2.192 milioi eurokoa izan zen (gastu osoaren -7.041 milioi- kontzeptu guztiengatiko % 31,1a); Nafarroan, berriz, gastu pribatua 400 milioi ingurukoa izan zen (% 30,1a). Honek argi erakusten digu osasun-gastu publikoaren herena urtero aurrekontuetatik pribatura bideratzeko kentzen dela. Ikus dezagun nola gertatzen den hau.

Aseguru pribatuek % 15 handitu dute aseguratuaren kopurua 2015 eta 2019 artean. EAEn, adibidez, 459.000 herritarrek (biztanleriaren % 20,9) aseguru pribatua zuten 2019an. Laguntza mediko-farmazeutikoko aseguru libreko 40 erakunde daude EAEn momentu honetan. Sektore horretan 26 ospitale daude (guztien % 60a) eta 2.300 ohe baino gehiago (erabilgarri dauden plazen % 29a). Erresonantzia magnetikoko

ekipamenduen % 78 eta PETen (positroien emisioagatiko tomografiaren) % 60 ere baditu, talka-uhinen bidezko litotriziakoen % 71a, hemodinamika-gelen % 42a eta eskanerren % 33a. Ospitaleko 3.500 eta ospitalez kanpoko 10.000 profesional baino gehiago ditu, adibidez, ebakuntza kirurgiko guztien % 21a burutzen dutenak. Orokorrean, gaixoak lekualdatzeko zerbitzua da gastuarekiko ehuneko handiena duena (% 31,8), eta, ondoren, osasun-zentroek emandako zerbitzuak (% 27,5), ambulategietako zerbitzuak (% 15,7) eta zentro psikiatrikoek emandako zerbitzuak (% 13,8).

Beste alde batetik, EAEko Farmaziako gastua, errezeta edo preskripzio medikoetan soilik, 531 milioi eurokoa izango da 2021erako, Sailaren gastuaren % 12,7. Era berean, ospitaleko farmazia-gastua 309 milioi eurokoa da (urtero goranzko joeran), eta kanpoko beste enpresa eta zerbitzu batzuek egindako lanak ia 350 milioi eurora iristen dira. Sailaren inbertsioen atalak, berriz, 72 milioi baino ez ditu jasoko (beharrezkoa dena, adibidez, diagnostiko-tekniken zerbitzuak eguneratzeko eta hornitzeko).

Honek guztiak, lobby farmazeutikoek eta aseguru zein osasun-enpresa pribatuek gaur egungo osasun-arretan duten eragina azpimarratzen du, gaur egungo gobernuak osasun pribatuaren alde egiten duten goranzko apustu etengabea azaleraziz. Erabat sistema sinbiotiko bat eratu dute bata bestearen osagarri moduan bizitzeko, publikoaren gastuaren herena pribatuetarako doalako, eta pribatuak ezin lukeelako iraun diru iturri hori gabe. Bien arteko erlazioak zuzenak dira eta arlo pribatutik publikora eta biraka dabiltzanen izenak dira osasungintzako lider ezkutak.

3. Eliteak eta interes taldeak

Botere elitea gizartearen botere sarearen goi mailetan aurkitzen den, partaideen arteko kohesio soziala mantentzen duen, eta balore eta sinesmen berdintsuak dituen giza taldea bezala definitzen da. Eliteetan, botere mailaren arabera, nukleoa eta periferia bereizten dira, hau da, botere mailetan *beti* aritzen direnak eta boterean *noizbehinka* egoten direnak.

Administrazioko elite politikoak elite politiko orokorrekin lotura dute administrazioko goi mailako izendapenak arlo politikotik egiten direlako eta, bitartean, elite funtzionarialak karrera administratiboko goi mailetara heltzen diren funtzionarioak dira. Azken hauek *elite burokratiko* bezala izendatu daitezke, goian aipatutako atal edo negozioetako buruak direnak, meritu konkurtsoagatik igoz.

Boterearen analisisetan elite intelektualak kontutan hartzen dira, haien bidez baloreen kategoriak eta erabakien berme ideologikoa eutsiz, eta kontzeptu eta ideien kategoriak boterearen mesederako izendatuz. Elite honek autoritatearen sinesmenaren bidez gizarte bateratze ideia moral batzuk gordetzen dituzte boterearen ideologia zabalduz. Talde hau kazetariak, idazleak eta unibertsitateko irakasleak osatuko lukete.

Interes taldeak beraien interesen alde dauden talde edo elkarteak dira, ideia eta behar berdintsuen inguruan osatutako giza taldeak, beraien helburuen alde batu eta lan egiten dutenak. Sindikatuak edo elkargo medikoak, adibidez, osasun arloan.

Zenbait kasutan lotura politiko zuzena argi ikusten ez bada ere, espektro politiko mugatuaren artean harremanak eta ideologia dute eliteek, eta organigramen artean gorakadak edo beherakadak izanik, mugimendu horiek mugatuak izaten dira eta maila bat edo bi gora edo behera izaten dira, haien artean karguak banatuz beti. Joera honetan, batzuetan garrantzia handia du goian dagoenaren pertsona edo talde interesak markatzen duenak.

4. Osasungintzako eliteak eta interes taldeak

Osasun arloko eliteak izendatzeko orduan bi arlo berezi ditzakegu: arlo politikoa eta administratiboa. Atal politikoan, alderdi politikoen eragina erabatekoa da eta partidokraziaren baloreetan oinarritzen da, hots, aginteari fideltasuna beste balore batzuen gainetik, formazioa esaterako. Osasun sailtako goi mailako aginteak izendapen politikoak dira eta bertara heltzeko meritokraziak balore eskasa dauka. Aginte postuetara heltzeko pareko ideologia dute gehienek, neoliberalismoan kokatua, nahiz eta ezkutatzeko ahaleginak egin.

Atal administratiboan izendatutako goi-kargudunek eta goi mailako funtzionarioek botere nukleo bat osatzen dute, politikoa baino apalagoa baina erabat eraginkorra ospitaletan zerbitzu buruek bezala. Azken hauek, behin postua lortua, ia ez diote inori konturik eman behar eta batzuetan benetako *kasta* bat osatzen dute, ez bakarrik beraien kargu publikoan, baizik eta lan pribatuko edo unibertsitarioko botere hedapenarekin.

Zenbait kasutan interesak bi motatako enpresetan gauzatzen dira, publikoetan eta pribatuetan interes ekonomikoa dutelako. "Goi-karguak" ez ezik, beste goi mailako funtzionarioek eremu pribatuan eta eremu mistoan lan egiten dute. Horrelako aukerak izateko indarra egiten dute dituzten *lobby*etatik, konpatibilitate hori mantentzeko. Adibide gisa, pribatuetara jarduera desbideratzeko irizpide urriak, publikoan funtzionarioek eman beharreko estandarrak ongi finkatuta ez egotea, edo eta itxaron zerrendak gutxitzeko kasuak pribatuetara bidaltzea leudeke. Beste batzuetan, publikoko estandarrak apropos gutxitzen dira, deribazioen kopurua ez gutxitzearen. Legeak aukera ematen du bi eremuetan lana egiteko. Ondorioz, alde batetik, eremu publikoko baliabideak ez dira ongi kudeatzen (ordutegi osoa erabiliz, adibidez), ez eta medikuen jardunaldiak ere. Bestetik, presio ezkutuaren bitartez konpatibilitatea zabaldu egin da; horren isla, lehen zerbitziburuek eksklusibitatea derrigorrez izan behar zuten eta denborarekin kendu egin zitzairen.

Azpitarragarria da, eremu pribatua lan egin arren, bai aldi berean edo publikoa utziz, formakuntza osoa (MIR-egoiliar hezkuntza, barne formakuntza, kongresuak, eta abar) publikoan egiten dutela gehienek eta ez dagoela arautua horren guztiaren kostua nola itzuli behar dioten sistema publikoari.

Nafarroan bada egoera berezi bat Nafarroako Unibertsitate pribatuarekin. 2015 urtera arte kupo bat zegoen, non beraien langile propioak artatzerakoan Osasunbideak ordaintzen baitzuen gastu hori. Giza presioaren ondorioz, legealdiko programan jarri eta 2015ean amaitu zen kontzertu berezi hori.

Hala eta guztiz ere, Nafarroan zentro pribatuekiko "kontzertazioa" mantendu egin da. Etekin asmo dutenen artean IMQko Clínica San Miguel eta OPUSeko Clínica Universidad de Navarra dira kontzertua duten erakundeak. Gainera, badira zentro pribatuei ematen zaizkien beste motatako desbiderapenak, adibidez: Adimen Osasun erakunde zentroekin egindakoa (non plaza gehienak kontzertatuta dauden, eremu publikotik arduraz baztertuz), edo eta zentro pribatuetara gero eta maizago desbideratzen diren diagnostiko frogak (eskanerrak, erresonantziak, ekografiak, kolonoskopiak, etab.).

Horrez gain, San Juan de Dios Ospitalea bezalako adibidea aipatu beharra dago, etekin gabeko ospitalea dena. Osasun Publikotik, oro har, zerbitzu ezberdinak kontzertatuta dituzte, bai Nafarroan zein EAEn: zainketa aringarriak, kirurgia ambulatorioa, odontologia, larrialdiak eta ospitalizazioa, errehabilitazioa, kanpo kontsultak, erradiodiagnostikoa, etab. Maiz bertako zerbitzuetan lan egiten duten Osasun Publikoko profesionalak beraien jardunaldia jarraitzen dute batean hasi eta bestean bukatuz.

Interes talde bezala sindikatuak hartu beharko genituzke kontutan, gremiokoak gehienbat, medikuena (SME -Sindicato Médico de Euskadi-, de Navarra) eta erizainena (SATSE). Azken bi hauek ohiko sindikatuak baino indar gehiago dute haien langileen interesen defentsan. Zenbait kasuetan interesak medikuen edo beste profesionalen elkargoetatik bideratu dira eta egoeraren arabera presioa inongo gardentasunik gabe egin izan da. Adierazgarria da SMEk eksklusibitatearen ordainsaria produktibitate aldatu izana pribatu/publikoaren aldi bereko lan aukera lortzearen, edo eta SATSEk konplementuaren lorpenarekin indar gehiago lortu izana ospitaleko eremuetan.

Zeharkako beste interesen alde ari diren beste elkarte batzuk ere badaude:

- Erizain eta mediku elkargo ofizialak, eskuineko baloreen aldeko jarrerarekin. Fisioterapiako elkargoak oraindik indar gutxi dauka bere ofizioko onarpena osasungintzan lortzearen.
- OSALDE, osasun publikoaren aldeko elkarte, urte asko daramana ezker ikuspegitik osasun publikoaren aldeko proposamena eta osasun agintariekin kontaktuak lortzen.
- OSATZEN, berriki lehen arretan dabiltzanen famili medikuek osatuta dagoen elkarte, lehen arretako gainbeheraren aurrean antolatu direnak.

- OEE, Osasungoa euskalduntzeko erakundea, osasungintzan euskararen alde aspaldi dabilen elkartea.

5. Datuen analisisia

Osasun ataleko 230 goi-mailako karguen datuetatik honako emaitzak lortu ditugu. Hasteko, talde nagusiko 71 kargutan ez daukagu formazioari buruzko daturik. Bestetik, unibertsitate publikoan (UPV/EHU) Medikuntza ikasitakoak 60 lagun dira eta Nafarroako unibertsitatean hezitako medikuak 13, batez ere Nafarroako goi-karguetan. Osasun zientzietako beste ikasketa gutxi batzuk ere agertzen dira, 5 farmazeutiko, 4 erizain eta 4 psikologo esaterako (azken hauetako erdiak Deustuko unibertsitatean ikasitakoak izanik).

Osasun sailletako kudeaketa-eredu ekonomizistaren baitan, 60 lagunek ekonomiako ikasketak egin dituzte, erdiak UPV/EHU eta beste erdiak Deustuko unibertsitatean. Era berean, beste ikasketa motadunak ere agertzen dira: 4 biologo eta matematikari, arkitekto eta zientzia politiko bana.

Adierazgarria da zein zaila den goi-karguen heziketari buruzko datuak lortzea, kontutan hartuta multzorik handienez ez daukagula daturik. Nahi izan gabe izango da? Gardentasun gabeziagatik edo ezkutatzeagatik? Honen erakusle, orain dela bi urte prentsaren bidez Osakidetzako Larrialdietako buruak formazio profesionaleko gradua besterik ez zuela jakitera eman zenekoa.

Tituluez gain ez dago kudeaketarako formazio berezirik jaso duenik. Euskararen ezagutza 32 goi-kargudunek baino ez dute adierazi, denak EAEkoak. Tamalgarria da nola edozein langile publikori hizkuntza ofizialen ezagutzaren ziurtagiriak eskatzen zaizkion eta goi-kargudunei ez. Kontraesan nabaria da hau eta euskararen onerako behingoz bukatu beharko litzatekeena.

Nafarroan gehienak Medikuntzan Lizentziatuak dira eta formakuntza batez ere Nafarroako Unibertsitate Pribatuan jaso dute. Eremu pribatuko formakuntzak ez du lotura zuzenik populazioaren beharrekin. Edonondik etor daitezke ikasleak Nafarroako Unibertsitate pribatura formakuntza jasotzera eta sarrera mugatua da, unibertsitateak berak definitzen duen arren zeintzuk sar daitezken eta zeintzuk ez, irizpide ez-garden eta ezezagunak jarraituz.

Bertan ematen den formakuntza ez da Nafarroako edo bertako osasun beharretatik edo ikuspuntu bio-psiko-sozialetik irakasten, baizik eta espezialitateen ikuspuntutik, berori etorkizuneko medikuntza dela adieraziz. Ikuspuntu bera jarraitzen da bertan kudeatzen den ikerketa eta argitalpenetan.

Hizkuntzen ikuspuntutik, gutxi batzuk dira euskaldunak, Osasunbidean orain dela gutxi arte ez zelako euskara eskakizun edo meriturik kontutan hartzen lanpostu bat lortzeko, salbuespen gutxitan izan ezik.

Bibliografia

CEOE (2015): *Libro Blanco de la Sanidad*, Comisión de Sanidad, Asuntos Sociales e Igualdad de CEOE

EH BILDU (2017): *Osasun politikaren barne txostena*. (publikatu gabea)

ELA Sindikatua eta MANUEL ROBLES ARANGIZ FUNDAZIOA (2020): *Osasunbidearen eta Osakidetzaren arazo estrukturalak pandemia baino lehenagokoak dira*. Azterketak 41, 2020ko abendua.

<https://www.ela.eus/eu/gizalan/osakidetza-osasunbidea/albisteak/osasunbidearen-eta-osakidetzak-pandemia-baino-lehen-zituzten-arazo-estrukturalak-iraultzeko-neurri-sorta-aurkeztu-du/osasungintza-1.pdf>

OSALDE (2021): Análisis de los presupuestos del departamento de salud de la CAPV y del ente público Osakidetza SVS para 2021.

<https://osalde.org/analisis-de-los-presupuestos-del-departamento-de-salud-de-la-capv-y-del-ente-publico-osakidetza-svs-para-2021>

FELIU MARTINEZ, Ricardo: Los procesos de entrada y salida en las élites de poder: el caso de la élite política navarra (1999-2004). VII Congreso español de Ciencia Política y de la administración: democracia y buen gobierno, 52-73.

IDIS (2019): *Sanidad privada, aportando valor. Análisis de situación 2019*. Instituto para el Desarrollo e Integración de la Sanidad, Fundación IDIS.

05

Eliteak: unibertsitatea eta ikerkuntza Hego Euskal Herrian

Ane Larrinaga Renteria

UPV-EHUko irakasle agregatua, *Parte Hartuz* ikerketa taldeko kidea

1. Goi mailako hezkuntzaren hedapena Hego Euskal Herrian, elite akademikoak berregituratzeko oinarria.

Unibertsitateetan eskainitako goi mailako hezkuntza gizarteko era guztietako eliteen (bir)sorkuntzarako tresnetako bat da –elite ekonomikoak, politikoak nahiz kulturalak (Quaresma eta Villalobos, 2018); aldi berean, unibertsitateak elite akademikoen berezko gunea osatzen du. Eliteen existentzia gizarteko taldeen eta pertsonen arteko botere asimetrian oinarritzen da. Botere asimetria horrek mota askotako baliabideen jabetzan dauka bere jatorria. Eliteen azpitalde diren elite akademikoek baliabide sinbolikoak metatzen dituzte, hau da, modu orokorrean kulturari, eta modu zehatzagoan, ezagutza zientifikoari lotutako aktiboen jabe izan ohi dira (Bourdieu, 2011; Denord, Palme eta Réau, 2020). Baliabide horien jabetzak eta kudeaketak ahalbidetzen die ez soilik gizartean posizio nagusia izatea, baita gainerako eliteen izaera inbestitzeko edo egiaztatzeko ahalmena ere edukitzea, goi mailako hezkuntzaren bitartez. Bestela adierazita, baliabideok “kapital” gisa erabiltzen dituzte bizitza sozialean, gizartean balioa eransten zaielako (Bourdieu, 2011). Aipatu bitarteko horien erabilera ezinbestekoa da dominazio soziala gauza dadin. Elite akademikoen instituzio nagusia unibertsitatea da; bertan garatzen dira desberdintasun sozialak zilegizatzeko selekzio sistemak eta bertan ematen dira horretarako beharrezkoak diren egiaztagiria. Elite akademikoen pribilegioa beraien eginkizunetik eta eginkizun hori ahalbidetzen duen instituziotik eratortzen da: mundu modernoan ezinbestekoa den ezagutza zientifikoa sortu eta transmititzen dute unibertsitatearen esparruan dauden akademikoek, hain zuzen ere. Bada, ikertzaile eta irakasle dira elite akademikoak, zeregin biak ala biak lanbide berean bilduta baitaude.

Azken mende erdian egiturazko bi eraldaketa bizi izan ditu Mendebaldeko unibertsitateak; lehenengoa, goi mailako hezkuntzaren demokratizazioak eragindakoa

(Quaresma eta Villalobos, 2018); bigarrena, globalizazio ekonomikoak sortutakoa (Mangset, Maxwell eta van Zanten, 2017).

Goi mailako hezkuntzaren demokratizazioa batik bat unibertsitate publikoen sorreraren bitartez gauzatu zen Hego Euskal Herrian. Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU) 1980an sortu zen, nahiz eta lehenagotik ere sakabanaturiko Fakultate batzuk zeuden, eta Universidad Pública de Navarra-Nafarroako Unibertsitate Publikoa (UPNA) 1987an. Sorrera horiek Euskal Autonomi Erkidegoaren (EAE) nahiz Nafarroako Foru Erkidegoaren administrazio-esparruen instituzionalizazio autonomikoaren parte izan ziren. Unibertsitate publikoen sorrerarekin batera, zabaldu egin zen ordura arte lurralde horietako eliteak prestatzeaz arduratzen ziren prestigiozko unibertsitate pribatuetako eskaintza, alegia, Nafarroako Universidad de Navarra (1952) eta Bizkaiko Universidad de Deusto (UD) (1886) deritzetenen goi mailako hezkuntzan ematen zituzten aukerak. Geroago sortu zen Mondragon Unibertsitatea (MU), 1997an, gizarte-ekimeneko unibertsitate pribatua, Mondragon Korporazioan integratua.

Goi mailako irakaskuntza publikoaren hedapen horrek eragin itzelak izan ditu Hego Euskal Herriko gizartearen osaeran; beste gizarte batzuetan gertatu bezala, populazioaren lan kualifikazioan, zenbait talderen higikortasun sozialean eta estratifikazio sisteman islatu da astindu horren ondorioa (Baker, 2018). Ildo horretan, unibertsitate publikoak berdintasun- eta gizarte-kohesio eragile izan dira. Izan ere, unibertsitate publikoak -eta nagusiki UPV-EHU, bere tamaina dela medio- masa unibertsitateak dira, gizarteko populazioaren maila guztiei irekiak eta bokazio orokorra dutenak, hau da, jakintza arlo gehienetako ikasketak eskaintzen dituztenak (Madinabeitia, Larrinaga, Martínez-Palacios, Amezaga, Saratxo eta Odriozola, 2018). Ezaugarri horiek langile klaseko nahiz klase ertain apaletako gazteak unibertsitatara iristea ahalbidetu dute XX. mendearen azken herenean, baita lehenbiziko emakumekopuru esanguratsuek ere goi mailako hezkuntzan sarbidea izatea (Madinabeitia, Larrinaga, Martínez-Palacios, Amezaga, Saratxo eta Odriozola, 2018). Bestalde, arian-arian, eta sarritan erritmo motelean izan bada ere, euskara goi-mailako hezkuntzako komunikazio-hezkuntza bilakatzen joan da eta, horrenbestez, euskal hiztunak ere publikotasunaren onuradun izan dira EAEn -ez Nafarroan, ordea-. Oro har, UPV-EHUK soilik euskal gizartean sortutako giza-kapitalaren neurriaren norainokoaz ohartzeko, esan dezagun hirurehun mila graduatu baino gehiago sortu dituela bere sorrera unetik hona.

Berdintasunezko eragin horren ondorioz EAeko 25-65 urte bitarteko pertsonen artean % 50 baino gehiago dira goi-mailako ikasketadunak gaur egun (Ikerbasque, 2020b). Kopuru horrek oinarri potentzialak jarri ditu ikertzaile eta kudeatzaile teknologiko berrien harrobiak sortzeko, eta, horrela, elite eraberrituak sortzeko ere esparru akademikoan nahiz zientifikoan. Bada, berdintasunaren aldeko bultzadak gertatzen direnean, bereizketarako nahiz bestelako mailaketetarako prozedura

sotilak ere birsortzen dira gizartean, Bourdieuk gogorazten zuen bezala. Aipatu den oinarri sozial kualifikatu horretan sustraiturik, azken hamarkadetan EAEko "komunitate zientifikoa handitu egin da guztizko kopuruetan nahiz 'Dedikazio Osoko Baliokidetasunean' (DOBY) (DOB izeneko adierazleak I+G arloko jardueretan egindako lanaldi osoak nahiz zatikako lanaldien denbora barne hartzen ditu). 2017an EAEn ikerketa lanetan aritutako biztanleria aktiboaren portzentaia Danimarka, Suedia, Finlandia eta Norvegia bezalako Europako Iparraldeko herrialdeen atzean kokatzen zen, baina Europar Batasuneko batezbestekoa baino 40 puntu gehiago zituen (Ikerbasque, 2017). Kopuru absolutuetan, EAEk 20.000 ikertzaile baino gehiago izan zituen 2018an. Horrek esan nahi du biztanleria aktiboaren % 1,84ak, lanaldi osoz edo partzialez, ikertzaile-lanak egin zituela urte horretan (Ikerbasque, 2020b).

Euskal gizartearen mailaketa sozialean eragiteaz gain, unibertsitate publiko berriek talde akademiko eraberrituak sortzeko bideak ere ireki dituzte azken berrogei urteotan. Hala, unibertsitate pribatuetan prestaturiko irakasle-ikertzaileei, unibertsitate publikoetan bertan prestakuntza jasotako akademikoen belaunaldiak gehitu zaizkie, tartean aldez aurretik esparru akademikotik kanpo zeudenak, hala nola, langile jatorrikoak, etorkinen seme-akabak, emakumeak, diziplina berrietako adituak eta euskal hiztunak. Beraz, unibertsitate publikoek ekarritako irekiera-une horrek urte batzuetan aktore sozial berrien integrazioa ekarri du pribilegiozko gune batera. Halaz ere, horrek ez du esan nahi garai historiko jakin batean gauzatu den berdintasunerako bultzadak atzetik ekarri ez duenik bereizketarik eta estratifikazio eredu eraberriturik. Izan ere, elite akademikoetan behin eta berriro sortzen dira barne-estratifikazio irizpideak, besteak beste, estatus- eta kargu-bereizketak, eta kategoria dikotomiko batzuen inguruko bereizketak: gazte/adineko, emakume/gizon, diziplina "bigunak"/"gogorak", euskara/erdarak, eta abar.

2. Globalizazioak elite akademikoetan eragindako estratifikazio aldaketak

Gizartean elite aitortza izanagatik, eliteek ez dute inoiz talde homogeneoa osatzen. Aitzitik, harremanezko botere-esparru bakoitzean gertatzen diren lehiak, eta esparrutik kanpoko baldintza aldakorretara egokitu beharrak faktore erabakigarriak izan ohi dira elite horien estratifikazio- edo mailaketa-patroi eraberrituak ezartzeko. Azken hiru hamarkadetan bai globalizazio ekonomikoak bai ondorengo unibertsitateen nazioartekotzeak astindu egin dituzte, baita erabat astindu ere, goi mailako irakaskuntza- eta ikerkuntza-eliteen behinolako estratifikazio ereduak. Izan ere, gaur egungo eliteen pribilegioak eta bikaintasuna hezkuntza instituzioek izandako birdefinizio globalaren baitan ulertu behar dira, gero eta gehiago (van Zanten, Ball eta Darchy-Koechlin, 2015).

Bigarren Modernitateko gizarteek hartu duten norabide berean eraldatzen ari da gaur egungo unibertsitateko elite akademikoen esparrua. Ildo horretan, XXI. mendeko unibertsitateak nazioartekotze prozesu bizian sartuta daude. Gobernuak eta, gure gaiari dagokionez, unibertsitateek abian jarritako prozesua dugu nazioartekotzea, globalizazioari eta goi mailako hezkuntzaren masifikazioari egoki erantzuteko programa- eta politika-multzoa biltzen dituen (Altbach, Reisberg eta Rumbley, 2009). Zalantza barik, globalizazio ekonomikoaren eskakizunek eta ezagutzan oinarrituriko ekonomiaren aginduek (Burton-Jones, 2001; Schleider, 2006) eragina izan dute goi-mailako hezkuntzaren Europako esparruan, munduan ezagutza-ekonomia lehiakor bihurtzeko helburu estrategikoa baitauka Europar Batasunak. Hartara, ezagutza bera kapital globalaren oinarri den une honetan, unibertsitateen funtzioen aldaketa gauzatzen ari da (Canaan eta Shumar, 2008). Hain zuzen ere, nazioartekotzea unibertsitateek duten estrategia argia da garapen ekonomikorako, enplegurako eta inbertsiorako gero eta lehiakorragoa den unibertsitate-esparru globalizatuan.

Hego Euskal Herriko unibertsitateak ez daude dinamika horretatik at. Adibidez, unibertsitate publikoen plangintza estrategikoetan frankotan aipatzen dira nazioartekotzearen eta ezagutzaren ekonomian oinarritutako garapenaren ildo estrategikoak (Eusko Jaurlaritzak, 2019; UPNA, 2020b). Nazioartekotzeak mutazio instituzionalak, antolakuntzazkoak eta kulturalak eragin ditu unibertsitate-instituzioan, baita hainbat tentsio eta gatazka ere, egiturazko aldaketa guztietan gertatzen den bezala, (Ninnes eta Hellstén, 2011). Gizarteko beste instituzio sozial asko legez, esan dezakegu unibertsitatea desinstituzionalizatzeko prozesu batean dagoela gaur egun. Eraldaketa prozesu konplexu horrek dauzkan ertz askoren artean, elite akademikoen, alegia, irakasle-ikertzaileen rol, nortasun eta hierarkietan gertatutakoak azpimarratuko ditugu hemen (Barnett eta Di Napoli, 2008; Gordon eta Withchurch, 2010; Kehm eta Teichler, 2013). Horrela, aldaketa garai honetan, elite akademikoek askotariko funtzionamendu-logikatan birkokatu behar izan dute beren burua, besteak beste, logika kulturalan eta gerentzian, tokikoan eta globalean, irakaskuntzan eta ikerkuntzan, ohiko balio akademikoetan (unibertsitatea, kokatuta dagoeneko gizarteari buruzko erantzukizun etikoak dituen instituzio gisa, gizarte horren garapena eta ongizatea xede dituen) eta balio instrumentaletan... Dubet-ek iradokitako ildoan, unibertsitate-instituzioaren legitimitatea zena lekuz aldatzen ari da, nora eta, legitimitate arrazional batera. Legitimitate berri hori egindako lanaren eraginkortasunean eta etengabeko ziurtapenean oinarritzen da, burututako lanaren balioa frogatzeko ebaluazioak eta kontrol-prozedurak abian jartzen dituen (Dubet, 2006). Gero eta gehiago, esparru akademikoaren kanpoaldetik datozen eskakizunek, bereziki, merkatu ekonomiko globaletatik zuzendutakoek, ezartzen dituzte elite akademikoen zereginak eta beraien arteko estratifikazio irizpideak.

Horrela, logika ekonomikoa sakon barneratu da gaur egungo unibertsitatean. Ondorioz, sektore pribatuan berezkoak ziren metodo gerentzialistak nagusitu dira

haren kudeaketan (Marginson eta Considine, 2000), hala nola, helburuen araberako plangintzak ezartzea, giza baliabideak kudeatzea eta emaitzen kontua hartzea (*accountability*). Kontu-ikuskaritzaren kulturak eta *ethos* neoliberalak tentsioak sortu dituzte kudeaketa korporatibistaren eta ohiko balio akademikoaren artean (Smith eta Rattray, 2016). Baina, sortutako ezinegoak gorabehera, akademiako irakasle-ikertzaileen artean barneratzen joan da auto-erregulazioa, halako moldez non, akademikoaren lanbide-identitate lehiakor eta malguetan lehentasuna hartu duten modu positiboan sarituak diren eginkizunak, hau da, karrera akademikoaren sustapenerako baliagarriak direnak: balio instrumentalak, ikerkuntza lehiakorra eta produktibitatearen aldeko jarrerak. Horrenbestez, hierarkia sinboliko berriak ezarri dira gero eta merkantilizatuago dagoen mundu akademikoan. Hiru hierarkia aldaketa aipatuko ditugu hemen. Hirurak gauzatzen ari dira Hego Euskal Herrian (Larrinaga eta Amurrio, 2015; Larrinaga, 2016).

Labur adierazita, hierarkia aldaketaren alderdietako bat irakaskuntzak ikerkuntzaren aurreran jasotako debaluazioa izan da (Sancho, Creus eta Padilla, 2010; Faure, Soulié eta Millet, 2011; Larrinaga eta Amurrio, 2015; Larrinaga, 2016). Bada, eskakizun instituzionalen ondorioz, irakasle-ikertzaileen -bereziki belaunaldi gazteenen- lanbide-identitatea materialki nahiz sinbolikoki saritua den ikerkuntza-jardunera orientatzen da, gero eta gehiago. Hierarkia aldaketaren bigarren alderdi bat diziplinen arteko hierarkizazioa izan da; bigarren estratifikazio-mota hori zientzia esperimentalen eta teknologien aldekoa da, eta giza- eta gizarte-zientzien kaltetan gauzatu da. Izan ere, ezagutzaren ekonomiaren balioen eraginez, zientzia esperimentalen eta teknologien logika zientifiko-positibista nagusitu da unibertsitatean eta barneratu egin da irakasle-ikertzaileen identitatearen gunean, halako moldez barneratu ere, non, "ez-produktibo" jotako diziplinek (zientzia sozialak eta humanitateak) beren balio sinbolikoa galtzen ari diren zientziaren esparruan. Ikuspegi kognitibotik, aipatu diziplinen nagusitasuna ezagutza pragmatiko, estandarizatu eta unibertsalgarria produzitzeko asmoetan hezurramitzen da, motibazio sozial eta humanoetatik eta beren produkzio testuingurutik bereizitako ezagutza gisa. Ikuspegi linguistikotik, nagusitasun hori ingelesaren monopolioan islatzen da komunikazio zientifikoan, *lingua francari* tresna neutro eta instrumentalaren izatasuna egozten baitzaio.

Hain zuzen ere, aipatzen ari garen hierarkia aldaketaren hirugarren alderdia linguistikoa dugu. Nazioartekotze hegemonikoak errendimenduaren kudeaketarako ezarritako irizpideek ikerkuntza jarduna lehenesten dute -irizpide horiek inplizituki daukaten pizgarri ekonomiko nahiz sinbolikoak tarte direla- eta, horrekin batera, aniztasun linguistikoaren kaltetan birmoldatu dute hierarkia zientifikoaren esparrua. Ikerketan inpaktu faktoreak ematen dituzten datu baseek eta nazioartean indarrean jarri diren adierazle bibliometrikoek ingelesaren nagusitasuna finkatu dute beste hizkuntza batzuen aurretik, eta herrialde anglofonoen gorentasuna -AEBak buru direla- produkzio zientifikoaren rankingetan (Truchot, 2010). Ondorioz, hizkuntzen

banaketa asimetrikoa dago argitalpen indexatuetan, eta komunikazio zientifikorako erabilitako hizkuntza bera estratifikazio iturri bilakatu da (Gazzola, 2012; Ammon, 2012; Hamel, 2013). Hizkuntza-arau horrek ondorio kaltegarriak izan ditu ingelesa ez diren beste hizkuntza guztientzat, eta, zer esanik ez, gutxitutako hizkuntzentzat, esparru akademikoan nahiz komunikazio zientifikoaren esparruan (Larrinaga eta Amurrio, 2015; Larrinaga, 2016).

Ildo horretan, orain hamarkada bat Artetxek (2011) iragarri zuen bezala, euskarazko produkzio zientifikoa oso arin heldu da bere hazkundearen mugara, eta gaur egungo baldintzak aldatu ezean, ematen du hazkundera gero eta txikiagoa izango dela. Izan ere, 2011 urterarte egindako neurketen arabera, euskalgintzak produzitu du euskarazko produkzio jasoaren gehiena, eta haren atzetik dago unibertsitateek nahiz beste entitate publiko batzuek sortutakoa. Bestalde, euskarazko ekoizpen zientifikoak dituen finantza-sostenguak ahulak dira, esparru zientifikoan euskarazko produkzioa ebaluatzen zailtasunak daude, eta errekonozimendu eza handia da. Azkenik, euskaraz sortutako lanen multzoan giza- eta gizarte-zientzietakoak dira nagusi (Artetxe, 2011).

Nazioartekotzearen ondorioek aurreko hierarkiak alderantzikatu badituzte ere, badaude egon, lehenagotik aldagaitz jarraitzen duten estratifikazio-motak ere. Horietako bat zeharkakoa da eta aurrekoei gaineratu behar zaie: hain zuzen ere, sexu-genero sistema dugu. Hala da. Sexu-genero sistemak, klase sozialarekin batera, globalizazioaren eraginaren aurretik ere jarduten zuen esparru akademikoan, eta gaur egun ere hortxe dirau, maila batzuetan modu apalagoan bada ere. UPV-EHUko datuei erreparatzen badiegu, esaterako, ikusi ahal dugu 2019an zeuden 870 ikertzaile nagusien artean, 344 baino ez zirela emakumeak izan (% 39,54) eta gizonezkoak, berriz, 526 izan zirela (% 60,46) (UPV-EHU, 2019a). Kontuan hartuta ikertzaile nagusi izateak elite akademikoen birsorkuntzarako duen garrantzia, zifra horiek ez dira hutsalak. Izan ere, ikerketa baten buru direnek ahalmen batzuk dituzte, ikergaiak hautatzeko eta ezartzeko, ikerketarako diru-funtsak erakartzeko eta kudeatzeko, taldeen lanak koordinatzeko, ikertzaile gazteak ildo jakin batean prestatzeko, lanbide ibilbidean aitzina egiteko, harremanezko ikerketa-sareak ehuntzeko eta prestigioa metatzeko, besteak beste.

Halaz ere, aldaketaren aldeko joera apala ere ikus daiteke azken urteetako bilakaeran, emakume gazte gehiagoren integrazioarekin batera (UPV-EHU, 2019a).


3. Elite akademikoetatik bikaintasuneko ikertzaileen eliteetara

Arestian esan bezala, estatu-esparruei lotutako XX. mendeko unibertsitateek funtzio sozial bikoitza izan dute: goi mailako irakaskuntza eta, hartara, ezagutzaren transmisioa, alde batetik, eta ezagutza zientifikoaren produkzioa, beste aldetik. Azken ildo horretan, unibertsitateek ikerketa-jardueraren kuasi-monopolioa izan dute, luzez. Gaur egun ere,

hantxe biltzen dira Hego Euskal Herriko ikerketa-talde finko gehienak (besteak beste, 106 ikerketa talde daude UPNAn eta 280 ikerketa talde finkatu UPV-EHUn) eta hantxe gauzatzen da Hego Euskal Herriko produkzio zientifikoaren zatirik handiena (UPNA, 2020a; 2020c; UPV-EHU, 2019c). Eusko Jaurlaritzak 2018an argitaratutako datuen arabera, EAEko Unibertsitate Sistemako unibertsitateek 6.783 irakasle-ikertzaile zeuzkaten 2017an, horietatik 5.594 UPV-EHUn, SCOPUSen indexaturiko 3.679 argitalpen sortu zituztenak eta, urte berean, EAEko ekoizpen zientifikoan % 61ko partaidetza izan zutenak. Ildo horretan, UPV-EHU EAEko agente ikertzaile nagusizat agertzen da txostenean (Eusko Jaurlaritza, 2019).

1. Irudia:

Irakaskuntza eta Ikerketako Pertsonala EAEko unibertsitateetan.



Iturria: Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa (Ikerbasque, 2020b).

Ildo beretik, Ikerbasquek adierazten du 2007-2016 denbora tartean, EAEn 37.966 dokumentu zientifiko argitaratu zirela. Sektore bakoitzaren ekarria ehunekotan neurtuta, unibertsitate sektoreak EAEko zientzia sistemaren % 59,79ko ekarpena egin zuen produkzio zientifikoan, sektore bio-sanitarioak % 19,27, BERC sektoreak % 12,27, sektore teknologikoak % 12,4 eta, azkenik, CIC sektoreak % 6,09 (Ikerbasque, 2017).

Gaur egungo ezagutzaren ekonomia globalak bere helburu-ildoetara lerrokatutako ikerkuntza eta garapena behar ditu, azkar eta modu intentsiboan jorratutakoa, etengabeko aldaketa bizi-tara malgutasunez egokitzeko gauza dena eta lehiakortasunaren logikan kokatua. Arestian ikusi dugunez, irakasle-ikertzaile osaturiko unibertsitateko elite akademikoak azken urteotan eskakizun horietara makurtu dira, nabarmen handitu da beren produktibitatea ikerkuntzan eta transferentzian, eta, ondorioz, hautsi egin da, hein batean, unibertsitatean zegoen irakaskuntza/ikerkuntza bikoiztasunaren oreka, ikerketa-lanaren alde. Baina, gaur

egun unibertsitateek ikerkuntza jardueraren zati handi bat egiten jarraitzen duten arren, arian-arian, merkatu kapitalisten beharizan berrien eraginpean, lan zientifikoak nazioz gaindiko dimentsioa hartu du eta lanaren alderdi berriak urratu egin ditu esparru zientifiko-unibertsitarioan lehenago zeuden indar harremanak, jarduera arauak eta zilegitasun irizpideak. Prozesu hori modu nabarmenean behatu daiteke Hego Euskal Herriko bikaintasuneko ikertzaile-talde berrien eraikuntza prozesuan. Politika zientifiko jakin batzuen bidez, "bikaintasuneko ikerketa" izendatu dena unibertsitateetik aldentzen joan da antolakuntza instituzionalari nahiz jarraibide politikoei dagokienez. Ildo horretan, bikaintasuneko ikerkuntzarako fundazio- eta institutu-sorta handia eratu da, nazioartean saretua. Horrela, bestelako hegemonia ereduak ezarri da orain arteko elite ikertzaileen esparruan.

Gaur egun ikerkuntzan eta ez irakaskuntzan jardungo duten ikertzaileak behar dira, hau da, arduraldi osoz ikerketa lanetan modu intentsibo, lehiakor eta pizgarrian arituko diren adituen eliteak, konektaturiko nazioarteko sare malguetan antolatuak. Lanaren intentsifikazioaren emaitzak irizpide metrikoen bidez ebaluatzen dira eta gutxi batzuen lana biderkatu, metatu eta ikusarazi egiten da esparruko erdi- edo behe-mailako ikertzaileen lanaren aldean. Hala, ezagutza zientifiko desberdinen esparrua estratifikaturik agertzen zaigu eta zentro-periferia logikak zeharkatzen du haren dinamika -non, besteak beste, mendebaldar elite maskulinoak osatzen duen erdiguneko kokapen sinbolikoa- (Demeter, Toth, 2020).

Estratifikazio dinamika horretan, bikaintasuneko eliteak erreferentzialtasuna eta legitimitatea irabazten ditu beheagoko mailako posizioak edo posizio periferikoak dauzkatenen ondoan -azken horietako batzuk unibertsitateetan kokatuak-. Aldi berean, kokapen pribilegiatu horrek diru funtsa eta erraztasun material gero eta handiagoak erakartzen ditu, eta emaitzak areagotu, Mertonek aspaldi deskribatu zuen *Matthew effect* prozesuari hasiera emanez. Horrela, hasierako abantaila beste abantaila gehigarriak batzen zaizkie, metaketa prozesu baten bitartez (Münch, 2018; Kwiek, 2018). Ildo horretan, Europar egindako nazioarteko ikerketek modu sistematikoan adierazten dutenez, ikertzaile-multzo gutxi batzuk aritzen dira gaur egun bikaintasuneko ikerkuntzan eta, proportzionalki, argitalpen zientifiko gehien ekoizten duten ikertzaileak ditugu (Kwiek, 2018).

Europako beste herrialde batzuetan abian jarritako jarraibideen arrastoak nabarmenak dira Hego Euskal Herrian azken urteotan ezarritako politika zientifikoetan ere. Zehazki, neurri handi batean EAEn zientzia eta teknologiako estrategia definitzen duen erakundeari RIS3 deitu zaio; hortxe zehazten dira lehentasun estrategikotzat jotzen diren ikerketa- eta teknologia-arloak. Izenak argitzen duen bezala, Europar Batzordeak eskualdeen garapenerako duen estrategiatik eratorri da (Research and Innovation Strategie for Smart Specialisation). Era berean, Nafarroan ere abian da Nafarroa S3 Garapen Estrategia deritzona. Hego Euskal Herriko bi estrategia horiek

ezinbesteko baldintza dira Europako kohesio-funtsak eskuratzeko (Eusko Jaurlaritzak, 2020; SODENA, 2016).

Martxan jarritako politika horien artean, bai Eusko Jaurlaritzak EAEn bai Nafarroako Gobernuak Nafarroako Foru Erkidegoan, -azken horrek neurri apalagoan-, beharrezko jo dute bikaintasuneko ikerkuntza unibertsitateetatik externalizatzen duten programak bultzatzea (Eusko Jaurlaritzak, 2019; Nafarroako Gobernua, 2017). Modu horretan, areagotu egin dute unibertsitate publikoen desinstituzionalizazioa, baita ahuldu ere haien ikerketa-kapitala. Estrategia horrek arrakala berriak sortu ditu ikertzaileen eliteen barnean, zehatzago adierazita, unibertsitateko irakasle-ikertzaileen eta unibertsitateetik kanpoko bikaintasuneko ikerkuntza zentroetako ikertzaileen artean.

Externalizazio helburu horiek lortzeko, Eusko Jaurlaritzak erakunde mota desberdinak sortu eta bereizi ditu Euskal Zientzia Sistema deritzon egituran (Eusko Jaurlaritzak, 2019; Ikerbasque, 2020b). Sistema horretan, ezagutza zientifikoa sortzeko eta garatzeko lehen eragileak EAeko unibertsitateak dira eta bertan jarduten duten irakasle-ikertzaileak. Haatik, "unibertsitate ekosistemak" bikaintasuneko ikerkuntza garatzeko 2008tik aurrera sortutako bestelako guneak ere barnebiltzen ditu, unibertsitateekin harreman estuan dihardutenak (Eusko Jaurlaritzak, 2018) baina, *de facto*, unibertsitateen parte ez direnak. Ondoren aipatzen ditugu garrantzitsuenak, EAeko Hezkuntza Saileko Unibertsitate eta Ikerketa atalean jasota dauden hurrenkeran.

1. *BERC zentroak, Basque Excellence Research Centers*. BERC deritzeten zentroyen multzoan 9 ikerketa-gune daude. Unibertsitate Sistemaren Planean jasota dagoenez, "EAerako interes zientifikoa duten eremuetan ezagutza sortzeko egiturak dira, oinarritzko ikerketarako eta bikaintasun-ikerketarako zentroak". Beraz, ikerketaren bikaintasuna da haien ezaugarri nagusia. Zentro horiek guztiak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean (ZTBES) sartuta daude, eta helburu komun jakin batzuk dituzte denek, hala nola, honako hauexek: "zentroak Euskadin gauzaturiko ikerketa zientifikoko osoaren erreferente gisa sendotzea; zentro horiek mundu osoko ikerketa-zentroekin konektaturiko ezagutza-erakargune europar gisa kokatzea nazioartean; eta espezializazio zientifikoko arloetan -lurralderako estrategikotzat harturikoetan- mundu aintzatespena duten ikertzaileak eta talentua erakartzeko gune aurreratu gisa kokatzea Euskadi" (Eusko Jaurlaritzak, 2019). Honakoak dira BERC taldea osatzen duten zentroak: Achucarro Basque Center for Neuroscience, BC3 Basque Center for Climate Change, BCAM Basque Center for Applied Mathematics, BCBL Basque Center on Cognition, Brain and Language, BC Materials Basque Center for Materials, Applications and Nanostructures, DIPC Donostia International Physics Center, Fundación Biofísica Bizkaia, Polymat Basque Center for Macromolecular Design and Engineering eta MPC Materials Physics Center.

2. *CIC-IKZ zentroak* (*Centros de Investigación Cooperativa* edo *Ikerkuntza Kooperatiboko Zentroak* deritzetenak). Zentro horiek “EAEko garapen ekonomikoaren mesedeko esparru zientifiko-teknologiko estrategikoetako ikerketa espezializatua, oinarrizkoa eta aplikatua” egitea dute helburu, enpresen-sareei transferentzia egiteko (Ikerbasque, 2020b). Hauexek dira: CIC BioGUNE, CIC BiomaGUNE, CIC NanoGUNE eta CIC EnergiGUNE.
3. *Ikerketa Sanitarioko Zentroak*, hau da ikerketa biomedikua egiten dutenak: BioCruces Health Research Institute, BioDonostia Institute, Kronikgune, Bioef Biomedical Research eta CITA Alzheimer.
4. *Korporazio Teknologikoak*: TECNALIA eta IK4 Research Alliance.
5. *Bestelako ikerketa instituzioak*: ESS Bilbao eta Orkestra.
6. Horiez guztiez gain, Eusko Jaurlaritzak *Ikerbasque* izeneko egitura sortu zuen 2007an (Ikerbasque, 2020a), nazioarteko talentua erakartzeko eta, unibertsitate sistemako titulazioen, irakasleen eta zentroen kalitatea egiaztatzen laguntzeko eragile gisa (Eusko Jaurlaritzak, 2019).

Arestian esan bezala, zentro horien bitartez EAEko unibertsitateetatik kanpo atera da ikerkuntzaren zati bat, nahiz eta formalki guneotako ikertzaile asko UPV-EHUra atxikita dauden. Zentro gehienak fundazioaren izaera juridikoa dute; beste batzuk, institutu gisa sortu dira. Fundazioak irabazi-asmorik gabeko entitate juridikoak dira eta beraien patronatuetan agintari politikoek parte hartzen dute (Gobernuko Hezkuntza eta Garapen Ekonomikorako Kontseilariak, Unibertsitate eta Ikerketarako edo Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasunerako Kontseilari ordeak, Foru Aldundietako Ahaldun Nagusiak, eta abar agertzen dira fundazioetako patronatuetan). Horiekin batera, UPV-EHUren ordezkariak, Ikerbasque eta Innobasquerena eta CSIC-ena ere (Consejo Superior de Investigaciones Científicas) agertzen da maiz. Hainbat patronatutan enpresa handiek eta finantza erakundeek ere badute ordezkariak. Azken ordezkariak mota hori emaitza teknologiko argia duten zentroetan ez ezik (Tecnalian, adibidez), oinarrizko ikerkuntza xede duten zentroetan ere azaltzen da. Adibidez, BERC multzoko Donostia Physic Center-en patronatuan Kutxa, Telefónica eta CAF enpresetako ordezkariak daude.

Zentroek finantziario sistema propioa dute, unibertsitateetatik at. Hortaz, ez dituzte pairatu unibertsitate publikoak 2008tik aurrera izan dituen murrizketak finantzaketan eta inbertsioetan, Eusko Jaurlaritzaren ekarpenen gutxitzearen ondorioz. Adibide gisa, BERC egiturari onartutako aurrekontua 42 milioi eurokoa izan da 2014-2017 epean eta beste 40 milioiokoa 2018-2021 epean. Oro har, zentro horien ildoak eta kudeaketa ere guztiz bereizten dira unibertsitateetatik. Baita kontratazio politika ere. Ikertzaileen fitxaketak helmugako zentroetako zuzendariak eta Ikerbasque Fundazioak erabakitzen dituzte. Prozedura erreserbatua izaten da, ez baita oposizio publikoak

egiten, unibertsitate publikoan sartzeko egiten den bezala. Oro har, bikaintasuneko taldeak garatzeko sortutako gune berriak dira.

Nazioarteko ikerketa enpirikoek erakusten dutenez, ikerkuntza lanean izandako errendimendua ez da beti izaten estratifikazioaren eragile bakarra, ezta bikaintasunerako galbahea ere (Hamann, 2018). Aitzitik, behin baino gehiagotan, dinamika zirkularra sortzen da: dagoeneko ondo horniturik dauden ikerketa taldeek gero eta finantziario handiagoa jasotzen dute, giza baliabidez hobeto hornitzen dira, emaitza hobeak lortzen dituzte, lehiakorrago bilakatzen dira eta kanpo finantziario gehiago jasotzen dute..., eta beste taldeekiko arrakala handitzen joaten da; horrela, erdi mailako eta periferiako taldeetatik bereizten dira. Dinamika horretan, litekeena da esparru guztiaren kalitate estandarrak ezartzera ere iristea. Bereizketa hori unibertsitatean gertatzen denean, baliabide gutxi duten taldeetako kideek irakaskuntzan jarduten dute, eta beren ikerketa-ibilbiderako aukerak murriztu egiten dira. Beraz, gutxi batzuen eskuetan egon ohi diren ebaluazio irizpideen edo erabakien ezarrerek zentro-periferia desberdintasunak sortzen dituzte, eta kapital ekonomiko nahiz sinbolikoaren kontzentrazio gero eta handiagoa jartzen dute abian eliteko taldeetan. Eta, alderantziz ere, kapital horien desjabetzea areagotzen dute elitez kanpokoetan, neurri eta modu desberdinetan bada ere (Hamann, 2018).

Bereizitako ikerketa guneen sorrerari dagokionez, EAEn gauzatutako bide beretik jo da Nafarroako Foru Erkidegoan ere. Hala, Nafarroako Ikerketa, Garapen eta Berrikuntzarako Bikaintasun Sistemak (SINAI izendatutakoak), Nafarroako unibertsitateez gain (UPNA, Universidad de Navarra eta UNED) hainbat zentro teknologiko eta ikerketa gune hartu ditu barnean. Tartean daude Ain, Cener, Cemitec, Cima, CSIC, Lurederra eta NavarraBiomed, eta horiek enpresetako I+G+B sailekin koordinatzen dituzten Aditech eta Idisna erakundeak. Horiekin guztiekin batera, UPNAtik sortutako ikerkuntza institutuak daude: ISC-Institute of Smart Cities, INAMAT-Institute for Advanced Materials, INARBE-Institute for Advanced Research in Business and Economics eta ISFOOD-Research Institute for Innovation & Sustainable Development in Food Chain (Nafarroako Gobernua, 2019).

4. Bikaintasuneko Zentroetako zuzendaritzak

Goi mailako ikasketei dagokienez, zein hezkuntza aurrekari dute bikaintasuneko ikerkuntza zentro horietako zuzendaritza karguetan dauden pertsonek? Elitekotzat jotzen diren unibertsitate pribatuetan ikasitakoak al dira?


Galdera horiei erantzuteko, Hego Euskal Herriko 27 ikerketa zentrotako datuak jaso dira, eta 168 pertsonen curriculumak aztertu, barnean hartuta zentro horietako ikerketa zientifikoaren zuzendariak, lehendakariak, haien fundazioetako eta administrazioetako parte-hartzaileak nahiz kontseilariak, eta idazkariak. Datuen arabera, kargu horietan

dauden pertsonen erdia Hego Euskal Herriko unibertsitate publikoetan prestatuak dira (% 41,7 UPV-EHU eta % 8,3 UPNAn) eta ia beste erdia eliteko unibertsitate pribatuetan (% 35,2 Universidad de Navarra delakoan eta % 13,9 UDn). Horrek azaltzen digu, berandu sortutakoak badira ere, Hego Euskal Herriko unibertsitate publikoek izan dutela nolabaiteko eragin berdintzailea goi mailako prestakuntza duen kapital sozialaren sorrera prozesuan (besteak beste, kargu politikoetan) eta, hartara, talde batzuen goranzko higikortasun sozialean (klase higikortasunean). Nolanahi ere, datu absolutuetan zuzendaritza karguen erdia unibertsitate publikoetatik datorren arren, unibertsitate horien tamaina eta ikasle kopurua aintzat hartuta, argi dago unibertsitate pribatuek eliteon prestakuntzan izandako eraginaren nagusitasuna.

Hartara, datuek erakusten dute luzaroan goi mailako hezkuntzaren monopolioa izandako prestigiozko erakundeek (Universidad de Navarrak eta UDe) oraindik orain duten indarra eliteen (eta klaseen)(bir)sorkuntzan. Ildo horretan, edozein motatako hezkuntza abantailak, goi mailako hezkuntza elitistak ematen duenak barne, lanbide hobia lortzera eta gizartean pribilegiozko kokapena izatera eraman lezake (Sullivan, Parsons, Green, Wiggins eta Ploubidis, 2018). Jakina, Hego Euskal Herriko eliteko jo diren unibertsitate pribatuak (UD eta Universidad de Navarra) ez daude Britainia Handiko eta AEBetako eliteko unibertsitateen maila berean, eragindako desberdintasun sozialei dagokionez –Oxbridge eta Russell taldeko unibertsitateak, eta Ivy League-koak, Stanford, MIT eta beste batzuk egongo lirateke azken horien artean-. Izan ere, unibertsitate horiek guztiek, hein handi batean, elite globalak prestatzen eta osatzen laguntzen dute. Baina, Hego Euskal Herriko unibertsitate pribatuek badute eta izan dute tokiko eliteen –estatuko nahiz Euskal Herrikoen– hezkuntzako pribilegioan eraginik, gaur egun esparru sozial desberdinetako goi-karguetan daudenen aurrekariak horixe erakusten baitgute.

2. Irudia

Bikaintasuneko ikerketa-zentroetako zuzendaritza-karguen hezkuntza-aurrekariak goi-mailako hezkuntzari dagokionez.



Iturria: azterketa honen egileek egina.

Sexu-generoa aintzat hartuz gero, nabarmenak dira emakumeen eta gizonen arteko desorekak aztertutako ikerketa zentroetako zuzendaritza karguetan. Izan ere, gizonetzkoek karguen % 68,5 betetzen dituzte eta emakumezkoek % 32,5 besterik ez. Kopuru horiek oraindik gaur egun ere emakumeek politika- nahiz ikerkuntza-eliteetara iristeko dituzten eragozpenak erakusten dizkigute, "kristalezko sabai" gisa ezagaturiko ikusezinezko kooptazio- eta selekzio-mekanismoen multzoan biltzen direnak. Datuek erakusten digutenez, sabai hori eraginkorra da, oso, bikaintasunezko eliteen selekzioan, eta, hartara, gizonen elite horietan izan dezaketean boterearen birsorkuntzarako aukeretan.

5. Bikaintasuneko ikertzaileek osaturiko eliteen estratifikazio-irizpideak

Aurreko atalean ikusi dugunez, bikaintasuneko zentroen sorrerak eta garapenak elite akademikoak -nagusiki irakasle-ikertzailez osatuak- eta bikaintasuneko elite ikertzaileak bereizi ditu. Horrenbestez, elite akademikoen barne estratifikazioa ez da mugatu arestian aipatu ditugun unibertsitate barneko elite akademikoen bereizketa prozesuetara. Unibertsitateko elite akademikoek ikerketa-lanetan, indexatutako argitalpenetan eta transferentzian ikerkuntzarako orientazio sendoa eta produktibitate gero eta handiagoa erakutsi dituzte azken urteotan, nahiz eta finantziario murrizketa handiak izan dituzten. Baina, gobernuek beharrezko ikusi dute unibertsitateaz bestelako ikerketa guneak sortzea bikaintasuneko ikerkuntzaren mesedetan.

Horrela, bikaintasuneko ikertzaile eliteak bereizi egin dira gainerako goi-, erdi- eta behe-mailako elite akademikoetatik. Ondorioz, ikuspegi intersektional batetik abiatu, lehenagotik elite akademikoak hierarkizatze erabilitako hainbat irizpide birstatu eta indartu dira esparru zientifikoan, oraingoan bikaintasuneko marka desberdintzeko; besteak beste, sexu-genero sistema (emakumea/gizona), ikerkuntza/irakaskuntza, merkatua/gizartea, babes politikoa/babesik eza, diziplina "gogorak"/"bigunak", tokikotasuna/nazioartekotzea, eta antzeko kategoria binarioak atzeman daitezke irizpide horien artean. Oinarrizko informazio asko faltza zaigun arren hierarkia horiek bereizitako taldeen analisi zehatza egiteko, eskura dauzkagun datu kuantitatibo eta kualitatibo sekundarioak analizatuta, zilegi zaigu, batetik, sortzen ari diren bikaintasuneko ikertzaileen eliteen soslai zirriborratzea, elite horien bereizketarako zenbait irizpide xehetuz; eta, bestetik, ikertzaile elite horien kokapenen mapa moduko bat egiten hastea.

Hartara, eskura dugun argibideen multzoa aintzat harturik, ondoren aipatzen diren hierarkizazio-ezaugarriak identifikatu ditugu Hego Euskal Herriko bikaintasunezko ikertzaileen eliteen osaketan.

5.1. Nagusiki gizezkoek osaturiko eliteak

Segmentazio-eredu patriarkalak gizarteko elite eta botere esparru guztiak zeharkatzen ditu. Oraindik gaur egun, emakumeak politika zientifikoaren eta produkzio zientifikoaren gune gorenetatik –eta, hartara, erabakimen zientifikotik– at daude, prozedura ustez meritokratikoez ezkututzen dituzten era askotako bazterketak tartean direla (Pérez Sedeño, 2018). Halatan, nabari dira sexu-genero sistemak ezarritako eskusioak bikaintasuneko ikertzaileen multzoan ere. Abramok eta beren kideek erakusten dutenez, produktibitate handiko ikertzaile eta zientzialarien gailurrean dagoen soslai tipikoa gizezkoa da, bereziki Europako hegoaldean (Abramo, D’Angelo, eta Caprasecca, 2009). Halaz ere, zer gertatzen da emakumeak eliteko posizioetara ailegatzen direnean? Ikerketa-eliteetan egindako azterketek erakusten digutenez, goi-mailako ikerketan ere beste behin sortzen dira sexu-generoan oinarri duten eredu estratifikatuak. Tartean daude genero sozializazioaren eta hezkuntza zientifiko bereizlearen ondorioak, diziplina eta ikerketa-lan jakinek dituzten genero tipifikazioak –bereziki STEM ezagutza-arlokoek–, emakumezko ereduaren gabezia eta emakume eta gizonen familia-ibilbide bereziak (Howard Ecklund, Lincoln eta Tansey, 2012). Horrela, produktibitate- eta aitortza-eredu estratifikatuak atzematen dira eliteko zientzialarien artean; kargu gorenetara iritsi diren emakumeen nahiz gizonen publikazio-tasak berberak direnean ere, aintzatespena txikiagoa izan ohi da emakumeentzat (aipu gutxiago, adibidez), *Matilda Effect* delakoaren ondorioz (Sá, Cowley, Martínez, Kachynska eta Sabzalieva, (2020).


Sexu-generoaren sistemak eragindako asimetrien adierazle kuantitatiboak nonahi agertzen bazaizkigu ere, EAEko adibide batzuen bidez ikusarazteko, Ikerbasque fundazioko nahiz BERC eta CIC zentroetako datuei erreparatu ahal diegu.

Ikerbasque fundazioaren patronatuari dagokionez, ordezkari politikoez gain, beste 7 ordezkari daude, fundazioaren dokumentuetan adierazten denez, Euskal Herrian zientziari egindako ekarpenen ondorioz aintzatetsiak, eta patronatuak berak izendatuak. Horietatik 2 baino ez dira emakumeak. Ikertzaileei dagokienez, berriz, 2019ko memorian agertzen denez, Ikerbasquek 37 herrialdeetako 268 goi mailako ikertzaile ditu. Horietatik 163 ikertzaile senior-ak dira (27 emakume), 29 ikertzaile elkartu gazteak (5 emakume) eta 76 fellows ikertzaileak (30 emakume) (Ikerbasque, 2019a). Guztira, emakumeek Ikerbasqueko ikertzaileen % 23,1 osatzen dute eta gizezkoek, berriz, % 76,9.

BERC eta CIC-IKZ zentroen kasuan, berriz, datuek EAE osoko joera berbera egiaztatzen dute.

3. Irudia

Emakumeen eta gizonen banaketa BERC eta CIC-IKZ zentroetan, ikerketa-karrerako etapa desberdinetan.



Iturria: Ikerbasque (2020b).


Bestalde, genero etena gero eta handiagoa da ikerketa karreran gora egin ahala, BERC eta CIC-IKZ zentroi buruzko 3. irudian ikus daitekeenez. Horrela, BERC eta CIC-IKZ zentroetan dauden doktorego ikasleen kopuruak antzekoak diren arren, gutxiago dira doktoregoa lortu ondoren zientzian jarraitzen duten emakumeak, eta galerarik handiena zentro horietan lanpostu egonkorrak finkatu eta laborategi- edo ikerketa-taldeak lideratzekoan gertatzen da (Ikerbasque, 2020b).

5.2. Ikerkuntzan produkzio-modu intentsiboan aritzen diren eliteak

Munduko ekoizpen zientifikoa bikoiztu egin da azken 15 urteotan. 2015ean atzeraldi arina izan bazuen ere, hazkundea oso erregularra izan da urte guztietan (Ikerbasque, 2020b). Scopus datu-basearen arabera, EAEn 2009 urtean 3.219 dokumentu zientifiko argitaratu ziren, eta 2019an, berriz, 6.659 dokumentu. Horrek esan nahi du EAEko ekoizpen zientifikoa bikoiztu egin dela hamarkada batean (Ikerbasque 2020). Gaur gaurkoz, EAEn unibertsitate sektorea da argitalpen zientifiko gehien, sortzen duena (% 65) eta, unibertsitate sektorearen barruan, unibertsitate publikoa, hurrengo irudietan ikus daitekeenez.

4. Irudia

EAEko ekoizpen zientifikoaren bilakaera sektoreka 2009 eta 2019 bitartean.




Iturria: Scopus (Ikerbasque, 2020b).

Unibertsitate sektorearen barruan unibertsitate publikoa da sortzaile nagusia, hurrengo irudian ikus daitekeen bezala.

5. Irudia

EAEko unibertsitate sektorearen zentroetako ekoizpen zientifikoaren bilakaera.



Iturria: Scopus (Ikerbasque, 2020b).

Halaz ere, unibertsitatez kanpoko zentrozen produkzioa nabarmen hazi da 2009tik aurrera. Ildo horretan, ezagutzaren produkzioa handitu eta azkartu den garaiotan, politika instituzionalek errendimendu handiko ikerketa dute helburu. Ikerkuntza lanean ezarritako patroi globalek erakusten dutenaren arabera, produktibitate eta

prestigioaren ikuspegitik (aintzat hartuta indexaturiko argitalpenen eta aipuen kopurua, lortutako baliabideak, izandako emaitzak, jasotako sariak, eta abar) emaitzarik onenak dituzten ikertzaileek ikerkuntza-lanetan dihardute, eta ez irakaskuntzan, lan denboraren banaketari dagokionez. Ildo horretan, aztertutako literaturak iradokitzen duenez, produktibitate handia ikerkuntzarako orientazio handiarekin koerlazonaturik dago. Irakaskuntzak, ordea, lotura negatiboa du ikerketa transnazionalarekin, eta positiboa tokikotasunarekin. (Kwiek, 2016; 2018). Jakina, produktibitate intentsiboak denboran eta erabateko dedikazioan eskaturiko prestasunak lehen langa bat dakar bikaintasuneko elitean sartzeko, gizarteko kategoria batzuek nekez gaindi dezaketena; adibidez, emakumeek, gaur egun oraindik dituzten etxe- eta familia-ibilbideak tarteko; edo unibertsitateko maila apalenetan kokatutako irakasle-ikertzaileek, irakaskuntzaren ardura ere izan ohi dutelako.

Goi mailako ikertzaileak ikerketa-sistema estratifikatu oso baten mende daude, non maila desberdinak bereizten diren, bertan garatutako botere-harreman konplexuen ondorioz. Horiek horrela, bikaintasuneko ikertzaileek ere gainerako mailatan kokaturiko ikertzaileen premia dute, beren gailentasuna, aitortza nahiz erreferentzialtasuna harremanezko esparrua osatzen duten ikertzaile horiengandik baitatorkie Nolanahi ere, indarrean dauden eredu globalen arabera, bikaintasuneko ikertzaileen eliteetan sartzeko faktore iragarlea da nazioarteko esparruetan aritzea eta hartan oso produktibo izatea. Izan ere, errendimendu handiaren bermerik seguruena da nazioartekotzea, hau da, nazioarteko lankidetzan proiektuetan jardutea, finantzaketa lehiakorretan parte hartzea eta nazioartean kalitatezkotzat hartutako aldizkarietan argitaratzea, besteak beste (Kwiek, 2016; 2018).

Ildo horretan, "Zientzia Euskadin 2020" izeneko txostenean, EAEko kalitatezko ekoizpen zientifikoa aztertzeke erabilitako adierazle nagusiak aipatzen dira. Adierazle horiek kuantitatiboak dira batik bat, eta produktibitate maila neurtzen dute. Izan ere, "kalitate egiaztatua duten nazioarteko komunikabideetan argitaratutako dokumentu kopurua izan ohi da ikertzaile, talde, erakunde nahiz sistema zientifikoen jarduera neurtzeko erabiltzen diren adierazle nagusietako bat. Adierazle hau da jarduera zientifikoaren emaitza nagusietako bat, aztertutako unitateak ezagutzaren aurrerakuntzari egindako ekarpena neurtzea ahalbidetzen duena" (Ikerbasque 2020:28). Txostenean bereziki bi datu basetan indexatutako dokumentu zientifikoen kopurua erabiltzen da (Scopus eta Web of Science). Horrez gain, dokumentu horien zitazio kopurua ere hartzen da aintzat, komunitate zientifikoan izan duten eraginaren neurgarri (Ikerbasque, 2020b). Modu horretan, dokumentuon inpaktua, ikusgaitasuna eta nazioartekotzea ere neur daitezke eta, hein batean, bikaintasuneko erakundeak, taldeak nahiz zientzialariak identifikatu eta bereizi hemen nahiz munduan.

5.3. Merkatu ekonomikoaren beharretara bideratutako eliteak

2019-2022 epealdirako abian jarritako EAEko Unibertsitate Sistemaren Planearn argi iragartzeko da gaur egun ezagutzaren sorrera-lana enpresen eta merkatuen premiekin lotzeko dagoen beharra. Ildo horretan, Planaren oinarri estrategikoetako batean 5 garapen-ardatz identifikatzen dira, "Goi-mailako Hezkuntzako Erakundeekin lotuta planteatzen daitezkeen esparru guztiak barne hartzen dituzte [ardatz] horien orientazioak eta irismenak: Bikaintasun-ikerketa, Unibertsitatea+Enpresa, Irakaskuntza metodologia eta eredu berritzaileetan prestatzea, Nazioartekotzea, eta Unibertsitate-komunitatea". Aurrerago ere hauxe azpimarratzen da dokumentuan: "Egitura aldaketarako Plan bat da eta, horregatik, Bikaintasun-ikerketa Ardatza eta Unibertsitatea+Enpresa Ardatza lehenesten ditu" (Eusko Jaurlaritzak, 2019: 25, 26).

Hari horri jarraiki, esan daiteke gaur egun edozein elite motaren azterketak daukan desafioetako bat gutxiengo pribilegiatuen taldeek kapitalismoaren askotariko adierazpenekin ehundutako harremanak analizatzea izaten dela (Cousin, Khan eta Mears, 2018). Ildo horretan, goi mailako hezkuntzak nahiz ikerkuntzak ezagutza zientifikoz hornitzen dute ezagutzaren ekonomia. Hain zuzen ere, eginkizun horietan aritzen diren goi mailako adituen lanak merkaturagarri diren ondasun multzo bihur litezke, ezagutzaren transferentziaren bitartez. Askotan, ikerkuntza-jarduera jakin bat enpresen mesedetarako izan ohi da, zuzenean. Behin baino gehiagotan, egoera horrek enpresek ikerketa lanak finantzatzea dakar. Halaz ere, beste batzuetan, ikerkuntzarako diru funtsak iturri publikoetatik irteten dira eta iragazki instituzionalen nahiz akademikoaren bitartez iristen dira enpresetara. Horrela, ustiatu egiten dira gizarteko aktibo intelektualak eta zientifikoak jabetze pribatuaren alde.

Azken urteetan ezagutza eta ezagutza-sortzaileak kodifikatzeko sortutako teknologia sozial guztiek (ebaluazioak, produktibitate helburuak, lanaren betetze-adierazleak, goi mailako hezkuntzaren eta ikerkuntzaren ranking-ak, eta abar) kapitakismo kredentzialistaren barruan ezagutzaren jabetze pribatua errazteko bidea ireki dute (Reitz, 2017). Ildo beretik, esan daiteke unibertsitate bertatik hasita "kapitalismo akademikoa" sustatzen duten logika korporatiboak eta kontuhartze erregimenak (Tuchman, 2016; Cantwell, 2016) daudela gaur egungo ikertzaileen *habitu*sean hezurmamiturik. Bada, goi mailako instituzioek gero eta gehiago inkulkatzen dituzte nazioartekotzearen, industriaren eta garapen ekonomikoaren aldeko jarrerak eta ezagutzak, eta orientazio horietan gaitzen dituzte beren kideak (Schippling, 2018).

Horiek horrela, merkatu logikarekin barruan, euskal administrazioetako gobernuek ere funts publikoaren zati bat I+G arloko inbertsiora bideratzen dute. Aurrerago ikusiko dugunez, EAEko eta Nafarroako Gobernuen I+G inbertsio publikoak ikerkuntza- eta diziplina-arlo jakin batzuetara bideratzen dira nagusiki, hain zuzen ere, jabetza pribatuko enpresen garapenerako ezinbestekoak diren horietara. Arestian aipatu den Unibertsitate Sistemaren Planak argiro azaltzen duenez, "2017tik indarrean


I. Unibertsitate eta Enpresaren arteko 2022rako Euskal estrategiak bi helburu nagusiren bidez zehazten ditu Eusko Jaurlaritzak ardatz horretan duen ikuspegia: batetik, bikaintasun zientifikoarekin eta hark enpresa-sarean duen aplikazioarekin lotutako ezagutza sortzea eta transferitzea; eta, bestetik, goi-mailako gaitasunak eta enpresa-esparruko premietara aplikatutako eta egokitutako osagai bat duen giza kapitala prestatzea” (Eusko Jaurlaritzak, 2019: 27). Ildo horretatik, EAEko gobernuak baliabide ekonomikorik gehienak Bikaintasuneko Ikerketaren ardatzean mobilizatzea aurreikusten du 2019-2022 epealdian, 277,6 milioi euro –hau da, mobilizatutako funtsen % 37- (Eusko Jaurlaritzak, 2019: 33).

Bestalde, 2019-2022 Unibertsitate Planaren barruan jasotzen denez, unibertsitatea eta enpresak lotzeko berriazko egiturak sortu dira gidaritza politikopean; 4Gune Klusterra da horren adibide. Hain zuzen ere, 2017an sortutako “4Gune Ingeniaritza, Zientzia eta Teknologia Unibertsitate Hezkuntzako Klusterrak Euskadiko Unibertsitatea+Enpresa lankidetzak sendotzen laguntzeko helburua du” (Eusko Jaurlaritzak, 2019). Klusterra, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila buru dela, EAEn finkatuta dauden Ingeniaritza, Zientzia eta Teknologia Eskola eta Fakultateek eta IMH Makina Erremintaren Institutuak osatzen dute. Horiez gain, Confebask Euskadiko Enpresaren Konfederazioa eta Basque Industry 4.0 Gidaritza Taldea ere klusterrean sartuta daude, unibertsitateko ikerketa-eragileen eta lurraldeko enpresen artean aliantza egonkorra lantzeko, eta horien arteko elkarlan eta atzeraelikadura ziurtatzeko (Eusko Jaurlaritzak, 2019).

Politika horien guztien ondorioak lankidetzak akademiko-korporatibotik sortutako argitalpenen, patenteen edo Spin-Off enpresen hazkundean islatzen dira, besteak beste. Hain zuzen ere, EAEko ekoizpen zientifikoaren % 9an entitate korporatibo edo sektore industrialeko entitateek parte hartu dute 2019ko urtean.

6. Irudia

Lankidetzak akademiko-korporatiboa EAEn eta Espainian 2009 eta 2019 bitartean.



Iturria: SciVal (Ikerbasque, 2020b)

Hari beretik, Nafarroako Gobernuak bere Zientzia, Teknologia eta Berrkikuntza Planean zehaztutako helburuak garatzeko, 7 ardatz estrategiko zehazten ditu, nabarmen garapen ekonomikora eta enpresarialera bideratuak. Horietako bat Zientzia eta Teknologiaren legea garatzea da. Honako hauek dira gainerakoak: (1) I+G+Brako inbertsioa, publikoa zein enpresariala (2) Bokazio berritzailea (3) Nazioartekotzea (4) Espezializazioa, S3 (5) Transferentzia: laborategitik merkatura, eta (6) Bikaintasuna: Nafarroako I+G+B-ko sistema -SINAI-. (Nafarroako Gobernuak, 2017).

5.4. Politika zientifiko globalekin lerrokatutako elite lehiakorrak

Bikaintasuneko ikertzaileen eliteak babes politikopean gauzatzen dute beren jarduera, tokian, estatuan zein nazioartean. Hego Euskal Herriko bikaintasuneko elite ikertzaileen jarduerak, batetik, Europar Batasunak politika zientifikoan ezarritako jarraibideekin bat egiten du eta, bestetik, Europako markoaren barruan, estatu- nahiz autonomi-gobernuek finkatutako ildoekin. Kokapen horrek eragin handia dauka jasotzen dituzten funts eta baliabide material nahiz giza baliabideetan eta, ondorioz, burut dezakeen lanaren emaitzetan -ikerketarako jasotako funtsak, azpiegiturak, ikerketa taldeen kopurua, nazioarteko taldeekin lankidetzarako aukerak, eta abar. Hartara, hein handi batean, politika zientifikoekin gauzatzen den lerrokatze hori finantzaketa lehiakorren bidez burutzen da.

Hain zuzen ere, ezarritako politika zientifikoaren ildoak gara daitezten Europar Batasunean finantzaketa lehiakorreko programak garatu dira azken urteotan. Finantzaketa lortu nahi duten proiektuek ebaluaketa prozesu bat izaten dute, horien artean proiektu bikainenak aukeratzeko. Hori dela eta, askotan finantzaketa kompetitiboen emaitzak adierazle moduan erabiltzen dira lurralde baten hazkunde teknologikoa eta zientifikoa neurtzeko. Ildo horretan, Horizon 2020 Esparru Programa (H2020) giltzarriko tresna bilakatu da Europar Batasuneko ikerketa eta berrikuntza jarduetarako, eta horien finantzaketa-iturri nagusienetakoa da. Programa horrek hiru ardatz ditu: (1) "Bikaintasuneko zientzia" deritzona, Europar Batasunaren kokapen zientifikoa munduan indartzera bideratuta dago (oinarrizko zientzia, etorkizuneko teknologiak, ikertzaileen prestakuntza eta mugikortasuna, ikerketa-azpiegiturak...), (2) "Lidergo industrial" deritzona, teknologien garapena eta haien aplikazioa garatzeko, europar lehiakortasuna indartzera zuzentzen da (informazio eta komunikazioaren teknologiak, nanoteknologiak, materialen fabrikazioa, bioteknologia...) eta, azkenik (3) "Desafio sozialak" deritzona, identifikaturiko lehentasun politikoei aurre egitera bideratzen da (besteak beste, osasuna, elikadura eta nekazaritza, energia, garraioa, klima eta ingurumena eta baliabideen erabilera, gizarte inklusiboa...)(European Union, 2020).


Centro para el Desarrollo Tecnológico Industrial izeneko erakundeak (CDTI) H2020 programaren lehenengo lau urteei buruz 2020an argitaratutako txostenaren arabera,

Espainia laugarren postuan dago H2020 proiektuetan lortutako finantzaketari dagokionez. Autonomia Erkidegoen artean, berriz, EAE, 690 milioi euro lortuta, Katalunia eta Madrilen atzetik, hirugarren tokian kokatzen da, eta Nafarroa, alde handiarekin, bederatzigarren tokian. Halaz ere, erakarritako funtsak biztanleriarekin erkatuz gero, EAE lehenengo postuan kokatzen da (eta Espainiako batezbestekoa hirukoizten du), eta Nafarroa laugarren tokian (Ikerbasque, 2020b).

Ondoren ikus daiteke kokapen horiek islatzen dituen irudia:

7. Irudia

H2020ko finantzaketa milioi biztanleko 2014tik 2019ra bitartean, autonomia erkidegoka.



Iturria: CDTI eta INE (Ikerbasque, 2020b).

Bestalde, H2020ko European Research Council (ERC) deritzon programaren azterketa zehaztuagoa eginez, Espainia seigarren postuan dago onartutako ERC Grant-en kopuruaren arabera. EAE, berriz, laugarren tokian dago erkidego autonomoen artean, oso urrun lehen mailan kokaturiko Kataluniatik, eta Nafarroa, zortzigarren tokian. EAEk lortutako 31 ERC Grant proiektuetatik 21 Ikerbasqueko ikertzaileek lortu dituzte. Bada, ikusten denez, eliteko ikertzaileek elitera zuzendutako funtsak erakartzen dituzte.

5.5. Diziplina-arlo jakin batzuetan bildutako eliteak

Bikaintasuneko ikertzaileek osatutako eliteek ez dute edozein jakintza-arlotan burutzen beren ikerketa lana. Hego Euskal Herriko unibertsitateen esparruan jakintza-arlo eta diziplina guztietan ikertzen bada ere, dagoeneko aipatu dugunez, bikaintasuneko ikertzaileen eliteak ikuspegi ekonomikotik eta politikotik estrategikotzat hartutako arloetan aritzen dira, eta horietan batez ere. Arlo horietatik kanpo geratu dira


gizarte- eta giza-zientziak. Horrela, BERC zentroek, CIC zentroek, Korporazio teknologikoen eta Osasun zentroek ez dute jasotzen azken jakintza esparruotako talderik.

Oro har, giza- eta gizarte-zientziak globalizazio ekonomikoak ezarritako premietatik at geratu dira, ez baitira ekonomikoki errentagarri jotzen. Beraz, zientzia “legitimotik” eta haren emaitzak neurtzeko ezarritako irizpide kuantitatiboetatik kanpo daude. Nahiz eta EAEn, adibidez, % 330 gehitu den Gizarte Zientzietako urteko argitalpen kopurua azken hamar urteotan (Ikerbasque, 2020b), gainerako zientzietan eta teknologietan ez bezala, humanitateetan eta zientzia sozialetan egindako argitalpenen zati bat liburu formatuan gauzatzen da (Larivière, Macaluso, Archambault eta Gingras, 2010) –edo egunkari eta dibulgazio aldizkarietan–, zientzia horien berezitasunak tarteko (Kwiek, 2018). Horrela, nazioartean “zientzia nagusientzat” egokitutako eta estandarizaturiko *paper* eta metriketatik at geratu dira, hein batean, eta, ondorioz, neurketa horietatik eratortzen diren elite zientifikoen prestigio nahiz aintzatespenetik ere. Gainera, sarri askotan, giza- eta gizarte-zientzien ikergaiak gizarte unibertsalaren azterketari bezainbeste loturik egon ohi dira tokiko gizartearen analisiari. Azkenik, euren “inpaktua” ezin da beti argitu neurgailu kuantitatiboen, ekonomikoen edo patenteen bitartez, nahiz eta, berrikuntza sozialean, mugimendu sozialean eta politika publikoetan egindako azterketek erakutsi dutenez, eraldaketa eta berrikuntza sozialean eragin franko izan ohi duten, gizartera bideraturiko ezagutzaren transferentziaren bitartez. Gaur gaurkoz, egitate bat da ikertzaile sozialak ez daudela bikaintasuneko eliteen artean.

Ildo horretan, oso argigarriak dira gobernuak I+Gan egindako gastu publikoak, diziplina zientifikoen arabera banaturik islatzen dituzten irudiak.

8. Irudia

EAEko I+G arloko gastuaren bilakaera diziplina zientifikoaren arabera 2008 eta 2018 bitartean.



Iturria: EUSTAT (Ikerbasque, 2020b).

EAEko inbertsioei erreparatuz gero, nabarmentzen da I+G inbertsioa batez ere Ingeniaritza eta Teknologian kontzentratuta dagoela –gutzizko gastuaren % 70 biltzen du sektore horrek, hain zuzen ere-. Bigarren tokian, baina maila askoz ere apalagoan, geratzen dira Medikuntza Zientziak, eta, ondoren, gainerakoak (Ikerbasque, 2020b).

EAEen bezala, Nafarroako Foru Erkidegoko datuek ere orientazio bera erakusten dute. Horrela, 2020ko Nafarroako Aurrekontuetan 57 milioi euro baino gehiago aurreikusten dira “Ikerketa, Garapena eta Berrikuntza” atalean; horietatik 45 milioi baino gehiago “Ikerkuntza eta Garapen Teknologiko-industrialera” bideratuta daude (hau da, % 78 baino gehiago). Bigarren lekuan Osasun Ikerketa dago, lehenengo partidatik oso urruti (% 9,6) (Nafarroako Gobernua, 2020). Oro har, bada, garapen teknologikoa gailentzen da Hego Euskal Herriko gaur egungo ikerkuntzaren eta politika zientifikoaren helburuetan.

5.6. Nazioartekotzera bideratutako eliteak

Honako hau dio 2020ko Zientzia Euskadin txostenak: “Ezagutzaren sorkuntza da ikerketa-jardueraren helburua, eta nazioarteko komunitate zientifiko-teknologikoak partekatu behar du ezagutza hori” (Ikerbasque, 2020b:28).

Azken hamarkadetan, era guztietako eliteen nazioartekotzea gertatu da, eta ikertzaileen elitea ez da salbuespena izan. Geldi-geldi, tokiko elite nagusiak nazioarteko sareetan ehundu dira (van Zanten, 2016). Era guztietako eliteak globalizazio estrategiaren aktore nagusiak izan dira prozesuaren hasieratik, eta badira egun ere. Ikertzaileen eliteak ezagutza globalaren gunegunean daude, ezagutzaren produkzioa

enpresa globala baita gaur egun (Kwiek, 2018). Estrategia horren barruan ezagutzaren nazioarteko higikortasuna eta, hartara, ikertzaileen arteko trukea eta lehia ezinbesteko bilaktu dira (Bühlmann, 2020) baliabideak lortzeko. Ondorioz, ikerkuntzaren nazioartekotzeak eragin estratifikatzailea izan du ikertzaileen artean. Europako herrialdeetan egindako ikerketa kuantitatiboek adierazten dutenez, “tokiko joera” eta “nazioarteko joera” dutenen arteko bereizketak dira nabarmenetakoak. Aztertutako talde eta jakintza arlo guztietan, nazioarteko lankidetzak eta orientazio kosmopolita ikerkuntza-produkzio maila handiagoekin koerlazonaturik daude: produkzio handiagoa, argitalpen tasa handiagok, baliabide gehiago eta prestigio handiagok biltzen dute nazioartera bideratutako ikertzaileek. Ostera, gaur egungo agertoki lehiakorrean tokiko jarduna dutenek desabantaila metagarriaren ondorioak jasaten dituzte baliabideetan, prestigioan eta baliabideak lortzeko lehian (Kwiek, 2015)

Nazioartekotasuna estratifikazio eragilea da –baliabideen eta prestigioaren banaketa tartean baitaude– eta, horrenbestez, talde batzuen pribilegioa da eta ez ikertzaile ororen eskura dagoen aukera. Ildo horretan, “nazioarteko kapitala” edo “kapital kosmopolita” deritzona ezinbesteko baliabide bilakatu da oraingo elite kosmopolitentzat. Baliabide hori gaur egungo kapital kulturalaren eta kapital sozialaren osagai garrantzitsuenetakoa dela esa daiteke (Bühlmann, 2020). Kapital kosmopolita jatorri sozialari lotuta egoten da eta barnean hartzen ditu eleaniztasun-gaitasunak –ingelesearen ezagutza, batik bat–, herrialde desberdinen ezagutza, bidaiatzeko ahalmena eta, oro har, atzerriar jendearekin harremanak izateko eta sareak sortzeko ahalmena (Wagner, 2020). Nazioarteko kapital hori instituzionalizatu egin da eta eliteen trebakuntzaren barruan integratu da (nazioarteko eskolak eta unibertsitateak, aldaketa curricularrak, atzerrian egonaldia eta abar). Ondorioz, baliabide hori lortzeko aukera hezkuntzazko pribilegio sozialari loturik ere badago.

Ikerkuntza nazioartekotzean, ikertzaileen karrerak –eta, bereziki, bikaintasuneko ikertzaileenak– mugikortasun geografikoa eskatzen du gaur egun, nazioarteko sareetan integratzea eta jatorrizko gizartetik harago doan markoan jardutea. Hartara, pentsa liteke kapital kosmopolita metatzen duten ikertzaileek aukera gehiago dutela unibertsitateek eta bestelako instituzio zientifikoek ikerkuntza lanerako dituzten eskakizunetara egokitzeko eta bertan jarduteko, lehiatzeko den esparru batean. Bestela adierazita, eliteko ikerkuntzak eskatzen duen nazioartekotze-maila bikaintasunaren esparruetan sarbidea izateko langa bat izan daiteke klase sozial apaleko ikertzaileentzat, familia-erantzukizunak dituzten hainbat emakumerentzat, tokiko gizartera bideratutako ikerkuntza soziala egin nahi duten ikertzaileentzat, ingelesa ez den hizkuntza batean argitaratzen dutenentzat, eta, oro har, nazioartekotze hegemonikoa onartu ez eta ikerkuntzan nahiz unibertsitate-jarduera orokorrean beste helburu eta balio batzuk bilatzen dituzten ikertzaileentzat.


Aurreko ataletan ikusi dugunez, Hego Euskal Herriko ikerkuntzaren testuinguruan, nazioartekotze prozesua, ez soilik baina bereziki, Europar Batasunaren esparruan

ulertzen da, bertan diseinatzen baitira politika zientifikoaren erreferentziazko ildoak eta hantxe banatzen baitira modu lehiakorrean ildo horiek garatzeko funtsak. 2020 urteko Zientzia Euskadin Txostenak dioenez, EAEn ikertzaileek lankidetzan dihardute munduko eragile zientifiko nagusiek; Estatu Batuak, Alemania, Erresuma Batua, Frantzia, eta Italia dira, hurrenez hurren, lankidetzaz horretan parte hartzen duten herrialdeak (Ikerbasque, 2020b).

Ildo horretan, EAEko ikerkuntza taldeen nazioarteko lankidetzaz nabarmen hazi da azken urteetan.

9. Irudia

Nazioarteko lankidetzaz tarteko duen EAEko eta Espainiako ekoizpen zientifikoaren bilakaera 2006 eta 2019 bitartean.




Iturria: Scopus (Ikerbasque, 2020b).

Aurreko irudian ikus daitekeenez, nazioarteko lankidetzaz landutako euskal argitalpenak 2008 urtean % 35 ziren eta 2019 urtean % 54 izatera iritsi dira. Bestalde, EAEko ikertzaileek, nagusitasunezko posizioa dute eta, kasu askotan, argitalpenen egile nagusiak dira.

Oro har, askotariko adierazleek erakusten digute egindako ikerketaren nazioartekotze prozesua gorantz doala, indar handiz eta etenik gabe. Azken adibide bat. EAEko erakundeek Europako esparru-programetan koordinatutako proiektuen portzentajea % 10 baino gehiago hazi da azken 5 urteotan. Horixe ikus daiteke ondorengo irudian.

10. Irudia

EAEk eta Espainiak koordinatutako H2020 jardueren ehunekoa, guztizko jarduera kopuruarekin erkatuta.



Iturria: CDTI (Ikerbasque, 2020b).

Laburpen modura

- Azken mende erdian egiturazko bi eraldaketa bizi izan ditu Mendebaldeko unibertsitateak. Lehenengoa, goi mailako hezkuntzaren hedapenak eragindakoa; bigarrena, globalizazio ekonomikoak sortutakoa.
- Goi mailako irakaskuntza publikoaren hedapenak eragin berdintzailea izan zuen, eta elite akademikoen estratifikazio eredua eraberritzeko aukera zabaldu zuen 1980ko hamarkadatik aurrera. Ondorioz, alde aurretik esparru akademikotik kanpo zeuden talde sozialak irakasle-ikertzaileen belaunaldi berrietan integratu ziren: langile jatorrikoak, emakumeak, etorkinen seme-alabak, eta euskal hiztunak, besteak beste.
- XXI. mendean indartutako globalizazio ekonomikoak, aldiz, eragin berezitzailea izan du unibertsitatean nahiz ikerkuntza jardueran. Izan ere, ezagutza zientifikoa kapital globalaren oinarri da gaur egun, eta munduan ezagutza-ekonomia lehiakor bihurtzeko helburu estrategikoa daukate Europar Batasunak eta haren barnean dauden herrialdeek. Unibertsitatea eta ikertzaileen lana marko horretan ulertu behar dira gaur egun.
- Oran gutxira arte ikerkuntzaren kuasi-monopolioa zuen unibertsitatea desinstituzionalizatze prozesuan dago. Hego Euskal Herriko administrazioiek beharrezko jo dute bikaintasuneko ikerkuntza unibertsitateetatik externalizatzen duten programak bultzatzea. Sortutako bikaintasuneko ikerkuntza erakundeek unibertsitate publikoen deskapitalizazioa areagotu dute eta joera pribatistak indartu dituzte ikerkuntzaren jardueran.

- Hego Euskal Herriko unibertsitate publikoek eta pribatuek duten tamaina desberdina aintzat hartuta, azterketa honetan neurtu diren bikaintasuneko ikerkuntza zentroen zuzendaritza karguetako pertsonen artean, gehiago dira unibertsitate pribatuetan ikasitakoak, publikoetan ikasitakoak baino.
- Bikaintasuneko ikertzaile izendatutako ikertzaileen multzoak beste bereizketa bat ezarri du ikertzaileen estratifikazio sisteman. Honako hierarkizazio ezaugarriak identifikatu ditugu bikaintasuneko ikertzaileen eliteen osaketan:
 - Nagusiki gizonek osaturiko eliteak dira.
 - Ikerkuntzan produkzio-modu intentsiboan aritzen diren eliteak dira.
 - Merkatu ekonomikoen beharretara bideratutako eliteak dira.
 - Politika zientifiko globalekin lerrokatutako elite lehiakorak dira.
 - Diziplina-arlo jakin batzuetan bildutako eliteak dira.
 - Nazioartekotze-eredu hegemonikora bideratutako eliteak dira.

Erreferentzia bibliografikoak

- ABRAMO, Giovanni; D'ANGELO, Ciriaco Andrea eta CAPRASECCA, Alessandro (2009): Gender differences in research productivity: A bibliometric analysis of the Italian academic system, *Scientometrics* 79, 517-539.
- ALTBACH, Philip G.; REISBERG, Liz eta RUMBLEY, Laura E. (2009): *Trends in Global Higher Education: Tracking an Academic Revolution*, Paris, UNESCO.
- AMMON, Ulrich (2012): Linguistic inequality and its effects on participation in scientific discourse and on global knowledge accumulation. *Applied Linguistics Review*, 3 (2), 333-335.
- ARTETXE, Karmele (2011): *Euskararen aurrerabidea zientzia eta goi mailako esparruan. Azterketa bibliometrikoa*, Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritzza.
- BAKER, David P. (2018): Where Have All the Elites Gone? Cultural Transformation of elitism in the Schooled Society. In Claire Maxwell, Ulrike Deppe, Heinz-Hermann Krüger eta Werner Helsper (ed.), *Elite Education and Internationalization. From the Early Years to Higher Education*. Switserland, Palgrave Macmillan, Springer, 25-40.
- BARNETT, Ronald eta DI NAPOLI, Roberto (2008): *Changing Identities in Higher Education*, London, Routledge.
- BOURDIEU, Pierre (2011): Champ du Pouvoir et Division du Travail de Domination. (Texte manuscrit inédit ayant servi de support de cours au Collège de France 1985-1986). *Actes de la Recherche en Sciences Sociales* 2011/5, n° 190, 126-139.
- BÜHLMANN, Felix (2020): How to Study Elites' "International Capital"? Some Methodological Reflections. In François Denord, Mikael Palme eta Bertrand Réau (ed.), *Researching Elites and Power. Theory, Methods, Analyses*, Springer, 241-251.
- BURTON-JONES, Alan (2001): *Knowledge Capitalism: Business, Work and Learning in the New Economy*, Oxford, Oxford University Press.
- CANTWELL, Brendan (2016): The New Prudent Man: Financial-Academic Capitalism and Inequality in Higher Education. In Sheila Slaughter eta Barrett Jay Taylor (ed.), *Higher Education, Stratification and Workforce Development: Competitive Advantage in Europe, the US, and Canada*, Heidelberg, New York, Dordrecht, London, Springer, 173-192.
- COUSIN, Bruno; KHAN, Shamus eta Mears, ASHLEY (2018): Theoretical and methodological pathways for research elites. *Socio-Economic Review* 16 (2), 225-249.
- DEMETER, Marton eta Toth, TAMAS (2020): The world-systemic network of global elite sociology: the western male monoculture at faculties of the top one-hundred departments of the world. *Scientometrics* 124 (3), 2469-2495.
- DENORD, François; PALME, Mikael eta RÉAU, Bertrand (2020): Introduction. In François Denord, Mikael Palme eta Bertrand Réau (ed.), *Researching Elites and Power. Theory, Methods. Analyses*, Springer, 1-14.
- DUBET, François (2006): *El declive de la institución. Profesiones, sujetos e individuos en la Modernidad*, Barcelona, Gedisa.
- EUROPEAN UNION: Horizon 2020. <https://ec.europa.eu/programmes/horizon2020/h2020-sections>
- EUSKO JAURLARITZA (2019): *2019-2022 Unibertsitate Sistemaren Plana*, Hezkuntza Saila, Eusko Jaurlaritzza.

- <https://www.euskadi.eus/eusko-jauriaritza/-/plan-gubernamental/10-unibertsitate-plana-2019-2022/>
(2020): RIS3 2020.
<http://ris3euskadi.eus/ris-3-euskadi/>
- FAURE, Sylvia; MILLET, Mathias eta SOULIE, Charles (2011): *Enquête exploratoire sur le travail des enseignants-chercheurs*. <http://www2.univparis8.fr/sociologie/fichiers/soulie2005a.pdf>
- GAZZOLA, Michele (2012): The linguistic implications of academic performance indicators, *International Journal of the Sociology of Language*, 216, 131-165.
- GORDON, George eta WHITCHURCH, Celia (ed.) (2010): *Academic and Professional Identities in Higher Education: The Challenges of a Diversifying Workforce*, New York, Routledge.
- HAMANN, Julian (2018): The Production of Research Elites: Research Performance Assessment in the United Kingdom, In Roland Bloch, Alexander Mitterle, Catherine Paradeise eta Tobias Peter (ed.), *Universities and the Production of Elites. Discourses, Policies, and Strategies of Excellence and Stratification in Higher Education*, Palgrave, Macmillan, 175-200.
- HAMEL, Rainer Enrique (2013): El campo de las ciencias y la educación superior entre el monopolio del inglés y el plurilingüismo, *Trabalhos em Lingüística Aplicada*, 52 (2), 1-31.
- HOWARD ECKLUND, Elaine; Lincoln, Anne E. eta Tansey, Cassandra (2012): Gender Segregation in Elite Academic Science, *Gender & Society*, 26, 693-717.
- IKERBASQUE (2017): *Zientzia Euskadin Txostena 2017*, Ikerbasque, Basque Foundation for Science.
<https://www.ikerbasque.net/eu/berriak/zientzia-euskadin-2017-txostena>
(2019): *Memoria 2019*. https://www.ikerbasque.net/sites/default/files/files/memoria_ikerbasque_2019.pdf
(2020a). <https://www.ikerbasque.net/>
(2020b): *Zientzia Euskadin Txostena 2020*, Ikerbasque, Basque Foundation for Science.
<https://www.ikerbasque.net/eu/berriak/zientzia-euskadin-txostena-2020>
- KEHM, Barbara eta TEICHLER, Ulrich (ed.) (2013): *The Academic Profession in Europe: New Tasks and New Challenges*, Netherlands, Springer.
- KWIEK, Marek (2015): The Internationalization of Research in Europe: A Quantitative Study of 11 National Systems from a Micro-level Perspective. *Journals of Studies in International Education* 19 (4), 341-359.
- (2016): The European Research Elite: a Cross-National Study of Highly Productive Academics in 11 Countries, *High Educ* 71, 379-397.
- (2018): High research productivity in vertically undifferentiated higher education systems: Who are the top performers? *Scientometrics* 115, 415-462.
- LARIVIÈRE, Vincent; MACALUSO, Benoit; ARCHAMBAULT, Éric eta GINGRAS, Yves (2010): Which Scientific Elites? On the Concentration of Research Funds, Publications and Citations, *Research Evaluation* 19 (1), 45-53.
- LARRINAGA, Ane eta Amurrio, Mila (2015): Internationalization in higher education and its impact in multilingual contexts: redefining identities of Basque-speaking academics. *Language, Culture and Curriculum* 28 (2), 158-169.
- LARRINAGA, Ane (2016): Identidades académicas en cambio en el seno de la universidad multilingüe. *PAPELES del CEIC, International Journal on Collective Identity*, 16 (2), 1-32.

- MADINABEITIA, Alba; LARRINAGA, Ane; MARTÍNEZ-PALACIOS, Jone; AMEZAGA, Josu; SARATXO, Mikel eta ODRIOZOLA, Onintza (2018): *Unibertsitate Sistemak euskal gizartearen eraldaketari egindako ekarpena*, Agirre Lehendakaria Center, UPV-EHU, Euskampus.
- MANGSET, Marte; MAXWELL, Claire eta VAN ZANTEN, Agnès (2017): Knowledge, skills and dispositions: the socialization and “training” of elites. *Journal of Education and Work* 30 (2), 123-128.
- MARGINSON, Simon eta CONSIDINE, Mark (2000): *The Entrepreneurial University*, Victoria-Oakleigh, Cambridge University Press.
- MÜNCH, Richard (2018): Elite Formation in the Educational System: Between Meritocracy and Cumulative Advantage. In Claire Maxwell, Ulrike Deppe, Heinz-Hermann Krüger eta Werner Helsper (ed.), *Elite Education and Internationalization. From the Early Years to Higher Education*, Switzerland, Palgrave Macmillan, Springer, 41-73.
- NAFARROAKO FORU GOBERNUA (2017): Nafarroako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana 2017-2020. Nafarroako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana/Nafarroako Gobernu Irekia (navarra.es)
- (2019): SINAI. Sistema Navarro de I+D+i. <https://administracionelectronica.navarra.es/RegistroSinai.Internet/RegistroSINAI>
- (2020): Presupuestos Generales 2020. Investigación, Desarrollo e Innovación. <https://presupuesto.navarra.es/es/politicas/46/investigacion-desarrollo-e-innovacion#view=funcional&year=2020>
- NINNES, Peter eta HELLESTÉN, Meeri (ed.) (2011): *Internationalizing Higher Education: Critical Explorations of Pedagogy and Policy*, Dordrecht: Springer.
- PÉREZ SEDEÑO, Eulalia (2018): Conocimiento y Educación Superior desde la Perspectiva de Género: sociología, políticas públicas y epistemología. *ArtefaCToS. Revista de Estudios de la Ciencia y la Tecnología* 7 (1), 121-142.
- QUARESMA, María Luisa eta VILLALOBOS, Cristóbal (2018): La (re)producción de las élites en tiempos de democratización del sistema universitario. Análisis conceptual a partir de las experiencias latinoamericanas, *Ciencias Sociales y Educación* 7 (13), 65-87.
- REITZ, Tilman (2017): Academic hierarchies in neo-feudal capitalism: how status competition processes trust and facilitates the appropriation of knowledge, *High Educ* 73, 871-886.
- SÁ, Creso; COWLEY, Summer; MARTÍNEZ, Magdalena; KACHYNSKA, Nadia eta SABZALIEVA, Emma (2020): Gender gaps in research productivity and recognition among elite scientists in the U.S., Canada and South Africa. *PLoS ONE*, 15 (10): e024093.
- SANCHO, Juana M^a; CREUS, Amalia eta PADILLA, Paulo (2010): Docencia, investigación y gestión en la Universidad: una profesión, tres mundos. *PRAXIS Educativa*, XVI (14), 17-34.
- SCHIPPLING, Anne (2018): The System of Elite Education in France: Traditionally Anchored and Facing New Challenges. In Claire Maxwell, Ulrike Deppe, Heinz-Hermann Krüger eta Werner Helsper (ed.), *Elite Education and Internationalization. From the Early Years to Higher Education*. Switzerland, Palgrave Macmillan, Springer, 274-291.
- SCHLEICHER, Andreas (2006): *The Economics of Knowledge. Why Education is key for Europe's success*, Brussels, OECD, The Lisbon Council Policy Brief.
- SMITH, Jan eta RATTRAY, Julie (2016): Preface. Mapping the Terrain of Identity Work Research. In Jan Smith, Julie Rattray, Tai Peseta eta Daphne Loads (ed.), *Identity Work in the Contemporary University. Exploring an Uneasy Profession*, Rotterdam, Boston, Taipei, Sense Publishers, 7-13.

- SULLIVAN, Alice; PARSONS, Samantha; GREEN, Francis; WIGGINS, Richard D. eta PLOUBIDIS, George (2018): The path from social origins to top jobs: social reproduction via education, *The British Journal of Sociology* 69 (3), 776-798.
- SODENA Desarrollo de Navarra-Nafarroako Garapena (2016): *Nafarroa S3*. NavarraS3 (sodena.com)
- TRUCHOT, Claude (2010): Questions de langues dans l'internationalisation de l'enseignement supérieur en Europe, *Éducation et Sociétés Plurilingues*, 29, 85-97.
- TUCHMAN, Gaye (2016): Accountability Regimes in Flagship Universities: How Strategic Planning Encourages Academic Capitalism. In Sheila Slaughter eta Barrett Jay Taylor (ed.), *Higher Education, Stratification and Workforce Development: Competitive Advantage in Europe, the US, and Canada*, Heidelberg, New York, Dordrecht, London, Springer, 193-211.
- UPNA-Nafarroako Unibertsitate Publikoa (2020a): *Datos y cifras*, UPNA-NUP. <http://www.unavarra.es/conocerlauniversidad/datos-basicos>
- UPNA-Nafarroako Unibertsitate Publikoa (2020b): *V Plan Estratégico 2020-2023. Bases estratégicas. Plan de Actuación*, UPNA-NUP. <https://www2.unavarra.es/gesadj/sede/consejodegobierno/ConsejodeGobierno29-6-2020/53planestrategicoc.pdf>
- UPNA-Nafarroako Unibertsitate Publikoa (2020c): Grupos de investigación registrados. <https://www.unav.edu/web/investigacion/investigadores/grupos-de-investigacion>
- UPV-EHU (2019a): *Berdintasuna zifratan*. Bilakaera. https://www.ehu.es/documents/2007376/11324702/EHU_bilakaera.pdf/bf1f8b37-1e10-0378-29d2-6c76ead92daa?t=1608548353788
- UPV-EHU (2019b): *Berdintasuna zifratan*. <https://www.ehu.es/documents/2007376/11324702/EHU-zifratan-2019.pdf/107ecf29-46e3-93d5-d047-15a0d5df98c2?t=1606995071554>
- UPV-EHU (2019c): UPV-EHUko aitortutako ikerketa taldeak. https://www.ehu.es/documents/2921104/12556710/Listado_GruposInvestigacion_2019_es.pdf/7905324a-1a23-0f83-f5cc-381154074595
- VAN ZANTEN, Agnès; BALL, Stephen eta DARCHY-KOECHLIN, Brigitte (ed.) (2015): *Elites, Privilege and Excellence. The National and Global Redefinition of Educational Advantage*. London, New York, Routledge.
- VAN ZANTEN, Agnès (2016): Introduction. La Formation des Élités: pour une Approche Généraliste, Compréhensive et Comparative. Presses Universitaires de France. *L'Année Sociologique* 2016/1, 66, 73-80.
- WAGNER, Anne Catherine (2020a): The Internationalization of Elite Education. Merging Angles of Analysis and Building a Research Objects. In François Denord, Mikael Palme eta Bertrand Réau (ed.), *Researching Elites and Power. Theory, Methods. Analyses*. Springer, 196-213.
- (2020b): *La mondialisation des classes sociales*, Paris, La Découverte.

06

Euskal kulturgintza eta liburugintzaren egoera 2010eko hamarkadan

Paulo Iztueta Armendariz
Jon Diaz Egurbide

Sarrerako mugaketa batzuk eginez hasiko gara. Kulturgintza eta euskalgintza bateraturik eta elkarri eraginik doazen gizarte-prozesu baten bi aurpegi badira ere, bi alderdi osagarri, aurkeztera goazen saio honetan euskalgintzaren arlora soilik mugatuko gara. Euskarazko liburugintzaren egungo egoera izango dugu aztergai. Jadanik 1990eko hamarkadatik abiatua zen lan sistematiko baten jarraipena baino ez da gure hau. Joan Mari Torrealdaik 1187 orrialdeko bolumen potolo batean bildu zituen gaika sailkatuta 1900-1992 epealdiko euskal liburuak¹. Oinarrizko lehen saioa izan zen berea, geroago, urtez urte osatu eta gehitzen joan zena urte-bukaeran *Jakin* aldizkarian. Handik bi urtera, Ramon Zallok EHUko ikertzaileekin lankidetzan egindako *Industrias y políticas culturales en España y País Vasco* liburuan², gai honi 8 orrialde eskaintzen dizkio, beti ere euskalgintzarena beste eremu geografiko eta kultural zabalago batean kokatuz eta industria-ikuspegitik aztertuz. Trantsizioarekin abiatzen den aroan sekulako abiada hartzen du liburuen ekoizpenak: 1992an mila liburu baino gehiago argitaratu ziren. Paulo Iztuetak ere, *Intelligentsia kimatuaren orbekak* liburuan (1996) gai hau bera arakatu nuen, abiapuntutzat G. Sorrarainen *Catálogo de Obras Euskaras*³ eta J. Vinson-en *Bibliographie de la langue basque. Complement et Supplément*⁴ zituela, baina euskal kulturgintza eta liburugintzaren bilakabidea zentzu zabalago batean hartuta eta hiru arotan sailkatuta. Abiada XVI. mende-hasieran finkatzen da. Azken aroko (1976-1995) emaitzak liburuaren azken partean ematen dira⁵.

1 XX. Mendeko euskal liburuen katalogoa (1990-1992), Gipuzkoako Foru Aldundia, 1993.

2 Koegileak hauek dira: Jose Ignacio Aranes, Patxi Azpillaga, Iñaki Dominguez, Fernando Golvano, Jose Vicente Idoyaga eta Karmelo Garitaonandia. Ikus: "La estructura industrial cultural: rasgos y límites", 189-197 orr.

3 Caja de Ahorros Vizcaína, Bilbao, 1984.

4 Vinson, I-II, 1891-98, Paris.

5 Ikus "Liburugintzaren emaitzak sorburuen arabera eta urteka", 409-428 orr.

Karmele Artetxek, *Euskararen aurrerabidea zientzia eta goi mailako esparruan. Azterketa bibliometrikoa* lanean⁶, izenburu berean adierazia datorrenez, eredu bibliometrikoa erabiltzen du, oinarritzat hartuz, batetik, erdaldunek egindako ekoizpena eta, bestetik, euskaldunek egindakoa, egileak egiaztatzen duenez, euskarazko ekoizpenari buruzko datuak ez baitira beti fidagarriak izaten. Karmele bere lan honetarako datuak jasotzeko orduan Inguma datu basean oinarritzen da, zeina baita UEUk 2000. urtean sortutako tresna. Guk beste iturri batzuk ere erabili ditugu, bidean aipatuz joango garenak, eta gerta liteke zenbait puntutan bat ez etortzea. Bestalde, normala dena.

Ibai Iztueta Azurmendiren *Euskal kultura eta hizkuntzak: diskurtsoak eta Hego Euskal Herriko liburu-ekoizpena eusal/espainol ardatzaren argitan* doktore-tesiak (2014) gai bera harrotzen du, baina oraingoan liburugintzaren zein kulturagintzaren ekoizpenean euskal eta erdal erroak bereiziz. Bien arteko muga –eta hori errotikoa–, hizkuntza da. Euskalgintzarena ikuspuntu horretatik begiratuta, bi hamarkadetako (1990-2009) euskal liburuen emana aztertzen du, erdaraz eta euskaraz zenbat ekoizten den azalduz.

Aurre-urrats horiek emanda daudenez, mugatua dago egitekoa, zeina baita azken hamarkada honetako euskal liburugintzaren inguruko datuak jasotzea eta bilakaera nondik doan azaltzea, ekoizpenean zein liburu-mota lehenesten den, zein gutxiago, zehaztea. Hizkuntza minorizatuak erakutsiko digu zein neurritan den euskal pentsamendua kanpotik datorkigunaren morroi, botereak zein eragin erabakigarria duen hizkuntza-politikan, eliteek nola bultzatzen duten estatu-hizkuntza hegemonikoa. Eta besterik.

Iturriak? Erakunde publikoek argitaratutako txostenak eta katalogoak dira, funtsean, hauek: *Comercio interior del libro en España*, 2018; *XIV Informe de la Edición en Euskera* 2018; *La edición universitaria española*, 2019; *Eusko Jaurlaritzaren argitalpenen zerrenda*, 2016. Gehi euskal liburugintzaz idatzi duten adituen lanak, bibliografian aipatzen direnak..

Xedea iturri horietatik jasotako datuak azaldu eta iruzkintzea izango da, hots, azalpen kuantitatiboa ematea: euskal liburugintzak aurrera egin duen ala ez, egoera egonkortuan dagoen ala ez, etorkizunean zer itxaron daitekeen. Beste ezer baino gehiago, galderak dira, hurbilketa soziologikoaren ikuspegitik begiratuta argitzen saiatzen garenak. Aldi berean, testuinguruak hala eskatzen duenean, barnehistoriaren baranoan sartu eta irtenaldi batzuk ere egingo ditugu.

6 Soziologiako Euskal Koadernoak/Cuadernos Sociológicos Vascos, Eusko Jaurlaritz, 2011, 60 or.

I. Euskarazko liburugintzaren eboluzioa azken hiru hamarkadetan.

Sarreran esan bezala, azkenaldion honen inguruan agertu diren datu estatistikoak eta egin diren azterketak oinarritzat hartuta, urratsez urrats joango gara argitzen epealdi honetan euskal liburugintzak erakusten dituen alderdi desberdinak.

Taula 1

Hego Euskal Herriko liburugintzaren bilakaera hizkuntzen arabera (1990-2016)⁷

	Euskaraz		Gaztelaniaz		Elebitan		Besterik		Guztira
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	
1990	119	21,59	337	61,16	2	0,36	93	16,87	551
2010	1.249	38,65	1.657	51,28	206	6,37	119	3,68	3.231
2016	1.312	39,91	1.975	60,08	-	-	-	-	3.287

Iturria: 1990 eta 2010. urteei buruzkoak, in Ibai Iztueta Azurmendi, *Euskal kultura eta hizkuntzak: diskurtsoak eta Hego Euskal Herriko liburu-ekoizpena euskal/espainol ardatzaren argitan*, Doktore tesia, EHU, 2014, 358 or.; 2016. urteari dagozkionak, *XXII Informe de la Edición en la Comunidad Autónoma Vasca. Comercio interior 2016*, Eusko Jaurlaritz, 13-21 orr. Norberak moldatua. Iturri desberdinen arabera, eskaintzen diren datuak ez datoz beti ados, nahiz hurbilekoak diren.

Elebitasunaren hizkuntza-politika EAEn finkatu zenez geroztik, euskarazko argitalpenen tituluek 2010. urtetik aurrera gora egin badute ere nabarmenki kopuru absolutuetan zein portzentajeetan, esan behar da oraindik ere gaztelaniazkoak nagusitzen direla 1.975eko kopuruarekin, euskarazkoen 1.312koaren aurkez, nahiz portzentajeetan beherakada nabaria ezagutzen duten. Honela, euskarazkoak 18 puntu hazten diren bitartean 1990-2016 epealdian, gaztelaniazkoek 1,08 puntu galtzen dituzte.

Kontuan hartzen bada Estatu espainoleko hizkuntza desberdinetan 2018an argitaratutako liburuen kopurua⁸, hor ageri da, euskara datorrela hirugarren lekuan 1.842ko kopuruarekin eta % 2,4ko portzentajearekin, gaztelania eta katalan/valenzieraren oso atzetik, hauek, hurrenez hurren, % 75,6 eta % 13,4 portzentajeak

7 1990 eta 2010. urteei buruzkoak, in Ibai Iztueta Azurmendi, *Euskal kultura eta hizkuntzak: diskurtsoak eta Hego Euskal Herriko liburu-ekoizpena euskal/espainol ardatzaren argitan*, Doktore tesia, EHU, 2014, 358 or.; 2016. urteari dagozkionak, *XXII Informe de la Edición en la Comunidad Autónoma Vasca. Comercio interior 2016*, Eusko Jaurlaritz, 13-21 orr. Norberak moldatua. Iturri desberdinen arabera, eskaintzen diren datuak ez datoz beti ados, nahiz hurbilekoak diren.

8 Eusko Jaurlaritz con la colaboración de Gremios de Editores de Euskadi y Federación de Gremios de Editores de España: *Comercio interior del libro 2018*, Madrid, 47 or.

beretzen dituztelarik. Euskarak bere ekoizpenaren % 86,8koa Euskal Herrian gauzatu du, eta Katalunian % 8,1koa.

Taula 2

Euskarazko argitalpen-tituluak gaien arabera 2018an. Argitaletxe pribatuetan

			EAE-NKA-Iparraldea		Beste KA	
Guztira	1.274	100	1067	83,75	207	% 16,24
Helduen fikzioa	168	13,18	159	12,48	9	0,70
Nobela	105	8,24	100	7,84	5	0,39
Poesia, antzerkia	29	2,27	26	2,04	3	0,23
Saioak, kritika, beste	34	2,66	33	2,59	1	
Haur eta gazteak	348	27,31	302	23,70	46	3,61
Testu ez-unibertsitarioa	517	40,58	413	32,41	104	8,16
Haur Hezkuntza	74	5,80	66	5,18	8	0,62
Lehen Hezkuntza	194	15,22	166	13,02	28	2,19
ESO/DBH	173	13,57	127	9,96	46	3,61
Batxilergoa	19	1,49	12	1,52	7	0,54
Lanbide Hezkuntza	0		0		0	
Liburu eta materialak	57	4,47	42	3,29	15	1,17
Ez-fikzioa	192	15,07	151	11,83	41	3,21
Zientifikoak, Gizarte-Zientziak, Zuzenbidea, Erijiioa	132	10,36	115	9,02	17	1,33
Dibulgazioa, Hiztegiak, Praktikoak	60	4,70	36	2,82	24	1,88
Beste gaiak	49	3,84	42	3,29	7	0,54

Iturria: XIV Informe de la Edición en Euskera 2018, Eusko Jaurlaritzak, 17 or. Norberak moldatua.

Taula horretan datorrena laburbilduz esan dezakeguna da, lehenik, argitaletxe pribatuek euskaraz eta paperez argitaratutako tituluetatik % 83,75 Euskal Herrian dutela beren jatorria; bigarrenik, ekoizpena modu nabarmen batez Testu ez-unibertsitarioan metatzen dela % 40,58ko portzentajearekin, eta horren barruan, batez ere, Haur eta Gazteentzat egindakoetan, % 27,31ko portzentajearekin; hirugarrenik, Ez-fikzioaren sailak gain hartzen diola Helduen fikziokoari % 15,07ko portzentajearekin %

13,18koaren aurkez⁹; laugarrenik, batez besteko aleen botaldia 2.216koa dela orotarra, handiena Testu ez-unibertsitarioan ematen delarik 2.045ekoarekin.

Datuak horrela, merkatu-esparru hau izango da kanpoko zein bertako argitaletxeek bereziki gutziziatuko dutena, erosle gatibua ere hortxe kausitzen baita. Kontrakarrean Ez-fikzioaren saila, non lantzen baita pentsamenduaren mundua, apala da % 15,07ko portzentajea baino ez baitu lortzen. Berrito itzuliko gara arazo honetara.

Euskarazko liburu-ekoizpenean diharduten enpresa pribatuak 102 dira eta 302 lanpostu sortzen dituzte, enpresako 3,0 enplegatu, eta horietatik % 69,9 enplegu EAEko enpresek sortzen dituzte. Argitaletxe horietatik 82 baino ez dira euskarazko gutzizkoaren % 72,5a merkaturatu zutenak 2015ean¹⁰.

1. Merkatuko lehia

Aurreko taulan ikusi da zenbat titulu argitaratu diren euskaraz 2018ko ekitaldian. Hurrengoan zein diren ekoizleak ikusiko da.

Taula 3

Ekoizleen jatorria: Argitaletxe bertokoak eta kanpokoak (2017)

Ekoizleak	Bertakoak		Kanpokoak		Gainerakoak		Guztira
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	
	986	43,5	749	33,0	532	23,5	2.267
HI	258	34,8	436	58,7	48	6,5	742
GH	368	54,1	271	39,9	41	6,0	680
GG	73	22,3	9	2,8	245	74,9	327
HL	233	80,5	12	4,3	56	15,2	268
ZT	13	24,1	25	9,0	42	66,9	277
AL	25	26,3	9	9,5	61	64,2	95
Besterik	7	53,8	0	-	6	46,2	13

Iturra: Joan Mari Torrealdai, "Euskal liburugintza 2017". Norberak moldatua.

9 Beste iturri baten arabera, ordea, Helduen fikzioa da Ez-fikzioari gain hartzen diona, 170 titularekin 139koaren aurkez. Ikus: *Comercio interior del libro 2018*, op. cit., 119 or.

10 *Panorámica de la edición española de libros 2015*, op. cit., 32 or.

Taula horretan jasotzen diren 2017ko emaitzak interpretatzeko balio du Joan Mari Torrealdai¹¹ urte-bukaerako lanetan datorren bertako, kanpoko eta gainerako argialetxeen arteko bereizketak, agerian jartzen baitu zeinek zein sailetan ekoizten duen modu berezi batez eta zeinetan ez hainbeste. Taulako emaitzak horizontalean irakurtzen badira, orokorrean bertakoak dira gehien ekoizten dutenak % 45,5ekin, ondoren datoz kanpokoak eta gainerakoak % 33,0 eta % 23,5eko portzentajeekin. Aldiz, emaitzak bertikalean irakurtzen badira, kanpokoek Hezkuntza-Irakaskuntza sailean bereganatzen dute kopururik handiena % 58,7ko portzentajearekin, bertakoek % 26,2koa baino lortzen ez duten bitartean, bien arteko alde nabarmena 32 puntukoa delarik. Taula horretan ez datoz zein diren merkatu berean lehiatzen diren argialetxe horiek. Esan beharrik ez dago bertakoak Euskal Herrian sortutako enpresa pribatuak direla eta bertako merkaturako ekoizten dutenak. Kanpoko argialetxeak, aldiz, beren zuzendaritza nagusia Estatu espainolean dute eta euskal lurraldean finkatuta dauden edizio-talde filialak, euskarazko testugintzan bertako merkaturan lehiatzeko xedearekin kokatuta daudenak.

Baina zein dira zehazki testugintzan ari diren bertoko eta kanpoko argialetxe horiek, ez baitira tauletan agertzen?

Historia pixka bat egitea eskatzen du galdera horrek. Begoña Bilbao, Karmele Perez Urraza eta Gurutze Ezkurdiak, bakoitzak bere aldetik, doktore-tesi sendoak burutu zituzten eta emaitzen azalpen laburtua, hurrenez hurren, *Curriculum eta kultura Euskal Herrian* (2003), *Curriculum eta testuliburua Euskal Herrian* (2004) eta *Curriculum eta ingurunea Euskal Herrian* (2004) eman zuten Utriusque Vasconiae argialetxean. Euskal curriculumaren edukiaz eztabaidatzen zen garaia ziren haiek, hiruko berak *Euskal curriculum ala euskal dimentsioa curriculumean?* (2004) izeneko argitalpen bateratu batean planteatzen zuten bezala, Paulo Iztueta tesi-zuzendariaren "Sarrera" batekin. Eusko Jaurlaritzan bezala Ikastolen Elkarteak, 2000ko hamarkada-hasieran, artean "Euskal dimentsioa curriculumean" zen izenburu nagusia. Curriculum espainolaren eranskin bat, edo antzeko zerbait.

Euskarazko testugintza hiru arotan banatzen dute. Gerra aurretik frankismo-bukaera arte luzatzen den lehen aroan (1876-1974) Lopez Mendizabalen *Xabiartxo* (1925) eta *Umearen laguna* (1931), Iturriotzen *Txomin ikasle* (1931) eta *Lutelestia* (1932), Jauregiren *Pisia* (1935) eta *Kimia* (1936), Goikoetxearen *Giza-Soiña* (1970), Eusko Argitaldariak eta Euskual Herria-k argitara emandako *Sabin euskalduna* (1931) eta *Batitta eta Mariano* (1952) datoz. Gaztelaniazkoetan Minón-en *Enciclopedia Alvarez* (1957) zen ezagunena. Auzo-Eskolak eta Ikastolak bideratu zireneko aroa da, batez ere Eusko Ikaskuntzaren eraginez. Ageri denez, testu-liburugintzan urria da, baina edukari dagokionez, paisaiari baino garrantzi handiagoa ematen zaie euskal kulturaren

11 "Euskal liburugintza 2017", *Jakin*, 235, 2019, 107-130 orr.

ezaugarriei. Euskarazko liburuetan Euskal Herria da edukien iturria, Euskal Herria eta euskara dira oinarria.

Bigarren aroa (1975-1992) frankismo osteko lehen bi hamarkadak besarkatzen dituena da, Hegoaldean trantsizio-garaia denekoa. Gobernu autonomikoen sorrerak eta lkastolen gorakadak testugintzaren gorakada bultzatuko duten garaia. Bertoko Saioka, Erein eta Elkar izango dira hasieratik bertatik euskarazko testugintzan murgilduko direnak, edukiak zehazteko orduan Euskal Herria oinarritzat hartzen dutenak. Baina ez dira bakarrik izango euskarazko testugintzan buru-belarri sartuko direnak, merkatu berean lehiakide agertzen baitira 1990eko hamarkadatik aurrera, Edelvives, SM, Santillana eta Grupo Edebé argitaletxe indartsuak ere. Aro honetako 1984-1986 urteetan Erein eta Ibaizabal bateratuta agertzen dira.

Hirugarren aroa (1992-2000) euskal liburugintzak zabalkunde handia ezagutzen duena da. Aro honetan kanpoko argitaletxeek euskal bikotea aurkituko dute, eskumeneko enpresa bezala funtzionatuko dutenak, bere ikuspegi pedagogiko akademikoarekin. Honelakoak dira Anaya-Haritz, Bruño-Haritz, Santillana-Zubia, SM-Ikasmia, Edebé-Giltza, Edebé, Edelvives-Ibaizabal, eta Vicens-Vives. Aro honetako testuliburuek, bertako Elkar eta Erein-ez gain, kanpokoek ere badakarte zerbait euskal kulturari buruz. Edukietan paisaia da gailentzen dena % 73,74ko portzentajearekin, euskal kulturarekin lotura zuzena duten ezaugarriek % 26,15 baino lortzen ez duten bitartean.

Laburtuz esan dezakeguna da, aroetan aurrera goazen heinean edukietan apalduz doazela euskal kultura eta euskarari buruzko ezaugarriak. Honela, lehen aroan gainontzeko ezaugarriak ziren nagusi % 57,23ko portzentajearekin, hara nola jaiak, gastronomia, pertsonaiak, kirolak, ohiturak, mitologia eta musika/dantza; bigarren aroan paisaia nagusitzen da % 61,65eko portzentajearekin, non sartzen baitira paisaiarekin lotutako ezaugarriak, hala nola mendi/ibaiak, kostaldea/itsasoa, herriak/hiriak, landaretza/klima, baserria. Paisaia hauek Gipuzkoa eta Bizkaikoak dira gehienak; hirugarren aroan, azkenik, areagotu egiten da paisaiak hartzen duen lekua % 73,74ko portzentajearekin. Azken bi aro hauetan, bada, apalduz etorri da euskal kulturari buruzko ezaugarrien erreferentzia. Honela, lehen aroan hizkuntzarekiko maitasun-ezaugarria % 2,26koa zena, bigarrenengoan 0,64koa izango da eta hirugarrenengoan, berriz, % 0,44koa. Denboran aurrera egin ahala, euskal kulturaren eta euskararen ikurrak ahulduz doaz. Jakitekoa izango litzateke azken bi hamarkada hauetan zernolako bilakabidea izan duten euskal nortasunaren bi ikur nagusi diren ezaugarri horiek. Aipatutako hirukote ikertzaileak baluke hor lanari segida emateko gai osagarria, euskalgintzaren esparruan -zehazkiago hezkuntzarenean-, zertan garen eta norantz goazen jakin dezagun. Eskaintzen diren datu hauek salatzaileak dira.

Datu horiek ikusita, ikus dezagun zer esan dezakegun.

Lehenik, euskarazko testugintzan bertoko argitaletxeen ekoizpena gailentzen bada ere, Hezkuntza/Irakaskuntzaren sailean kanpokoak dira nagusi. Merkatu-lehiaketan

sail horretan aurkitu dute beren harrobia. Normala, joko horretan errentagarritasuna da neurria. Eta kanpoko argialetxe horiek euskal merkatuan sartzeko bidea, berriz, euskal itzultzaileak bereganatzean aurkitzen dute. Hauek izango dira jatorrizko testu espainola euskal testuingurura moldatuko dutenak, azaleko euskal jantzia emango diotenak. Itzulpen-lanetan, bada, morroi zintzoak izan dira zenbait euskal itzultzaile.

Bigarrenik, euskal curriculuma izan beharko lukeena, funtsean eta juridikoki, curriculum espainolaren eranskin bat besterik ez da. LOGSE (1990) eta LOCE (2002) legeetan edukien % 55a Estatu zentralistaren esku geratzen dela aldarrikatzen da. PPren LOMCErekin (2013), Jose Ignacio Wert hezkuntza-ministroak % 75eraino areagotuko du estatu-zentralismoa eta, horiek horrela, euskal curriculumaren edukiak oinarrian bertan murriztuta geratzen dira. Botere autonomikoaren eta estatalaren arteko lehia honetan jokoan daude, ez bakarrik interes garbiki ekonomikoak, baita ideologikoak ere. Euskal gizartean bideratzen den curriculuma, gertatzez, Estatu espainolak finkatutakoa da eta lekuan lekuko botere autonomikoa arduratzen da legeriak dakarrena betetzeaz. Azken batean, curriculumarena botere-arazoa da, Estatuak erabakitzen duena. Euskal Herria zer da, bada? Hizkuntza minorizatu bat ozta-ozta bizitzen deneko lurralde zatitu bat, jatorri eta kultura desberdinetako immigrazio indartsu baten helmuga iraunkorra, bertako gizarte-komunitatean hiritartasun eta herritartasunaren xedeak bateratzen ahalegintzen den jendartea, politikaren zelai demokratikoan jokatu beharrekoa. EAJk alderdi estatalekin adostutako paktismoak zaildu baino ez du egiten estatu-zentralismotik urrundu eta euskal politika eduki subiranoz janzteko ahaleginetan jartzea. Politikan zer lehenetsi, alderdiaren interesak ala herriarenak, horretan datza arazoa.

Hirugarrenik, bertako eta kanpoko argialetxeek euskarazko testugintzaren merkatuan nor jabetuko erakusten duten lehian, arestian aipatutako asmo ideologiko garbiez haratago, interes garbiki ekonomikoak ere badirela ziurta daiteke, ez bakarrik kanpoko argialetxeetan, baita -eta ez gutxiago-, bertakoetan ere. Orokorrean, bezeria gatibua, batez ere, Hezkuntza eta Irakaskuntzaren sailean aurkitzen da eta kanpokoek, ikusi bezala, sail hori ustiatzen dute. Bertakoek beren bezeria gatibua, fidela, Ikastoletan eta Ikastola publikatueta aurkitzen dute. Elkar-ek, batez ere, hor aurkituko du bere merkatu hautatua; Ibaizabalek Bizkaiko partean, gehienbat.

Laugarrenik, kanpoko argialetxeek badute beste berezitasun bat, euskal merkatuan arrakasta izateko arrazoibidea luzatzen dutenak, eta da estatu-aparatuak izaki, irakaskuntzako testugintzan espezializatuak direla eta diziplina akademiko desberdinez osatutako taldeak dituztela bere inguruan. Euskal testugintzako aroez jardutean ikusi bezala, garbi ageri da horrelako tradizioz ez duela izan euskarazko irakaskuntzak. Hauek, kasurik gehienetan, esperientzia gutxiko eta prestakuntza pedagogiko apaleko testu-prestatzaileak izan dira. Hori bai, borondate onenez beteak. Bestalde, kanpokoan alde doan beste berezitasun bat da kopuruaren aldetik bertakoak

baino dezente gehiago direla. Testuinguru honetan, bada, ez da harritzekoa bezero erosleak, merkatu irekian, testu jantzienak hautatzera jotzea.

2. Merkaturatzea eta bezeria gatibua

Merkaturatzearen norakoak argialetxe-entresaren inbertsioa zertan egin den adierazten du, etekinik handienak zein ekintza-motak ematen duen.

Fakturazioaren sailera iristeko, lehenik liburugintzak duen prozesua aztertu beharra dago, zeinetan sartzen baitira argitaratutako titulu eta aleen botaldia, katalogoan datozenak, saldutako tituluak eta fakturazioa. Salmenta eta fakturazioa emaitzen kontuan antzeko kontzeptuak direnez, askotan bateraturik etortzen dira, baina hemen taula desberdinetan emango ditugu, beti gogoan izanda salmentek produktu edo zerbitzu baten zifra absolutua adierazten dutela, fakturazioak, aldiz, kontu baten guztizkoa. Argitasunaren amorez ematen ditugu bi tauletan bi kontzeptu horiei buruzko datuak. Lehenik, salduena eta segidan fakturazioarena.

Taula 4

Lortutako balioen banaketa argialetxe-moten arabera 2018an

	Tituluak paperean		Aleak		Katalogoak		Salduak	
EAE-NKA-IPARRALDEA	1.067	83,75	2.658.558	93,1	13.556	75,11	2.489.339	9,43
Beste K.A.	207	16,24	164.369	5,8	175	10,4	113.676	4,3
Pribatuak	1.274	95,93	2.822.927	98,9	15.430	85,51	2.603.016	99,4
Publikoak	54	4,05	32.822	1,1	2.617	14,5	15.298	0,6
Guztira	1.328	%	2.855.749	%	31.778	%	5.221.329	%

Iturria: Eusko Jaurlaritza Euskadiko Editoreen Gremioarekin eta Espainiako Editoreen Gremioen Federazioarekin lankidetzan: *XIV Informe de la edición en euskara 2018*, 51 or. Norberak moldatua

Orotara 2018ko ekitaldian 2.855.749 ale argitaratu ziren eta horietatik 2.618.313 saldu. Honek esan nahi du 237.436 ale geratu zirela saltzeke gordailuan, % 9,4, eta Katalogoan 18.047 titulu agertzen direla. Paperean argitaratutako tituluetan argialetxe publikoak dira portzentaje handienak dauzkatenak % 95,93rekin, argialetxe publikoena % 4,06koa baino ez denean. Azken hauek portzentaje garaiena Katalogoko Tituluetan lortzen dute guztizkoaren % 14,5ekin.

3. Pentsamendu akademikoaren ahulezia hizkuntza minorizatueta

Salmentaren ondoren dator fakturazioa, salmenten neurriari lotua, gehienbat argitaletxe pribatuen bidez bideratzen dena. Arestian esan bezala, hizkuntza minorizatuak ez-unibertsitarioko irakaskuntzaren sailean aurkitu dute beren bezeria hautatua, aldi berean, Helduen fikzioari ere bere tartetxoa utziz, ondoko taulek erakusten duten bezala.

Taula 5

Argitaletxe pribatuen fakturazioa euskarazko gaien arabera (2018)

	Guztira		EAE-NKA-Iparraldea		Beste KA	
Guztira (Milioika eurotan)	39.407.080€	%	36.963	% 93,79	2.444	% 6,20
Helduen fikzioa	1.988	% 4,86	1.985	% 5,03	4	% 0,01
Haurrak eta Gazteak	6.349	% 16,11	6.028	% 15,29	322	% 0,81
Testu ez-unibertsitarioa	29.961	% 76,02	27.948	% 70,92	2.013	% 5,10
Ez-fikzioa	869	% 2,20	809	% 2,05	60	% 0,15
Beste gaiak	239	% 0,60	194	% 0,49	46	% 0,11

Iturria: Eusko Jaurlaritzak Euskadiko Editoreen Gremioarekin eta Espainiako Editoreen Gremioen Federaziarekin lankidetzan: *XIV Informe de la edición en euskara 2018*, 29 or. Norberak moldatua.

Hasteko, zehaztasun batzuk. Taula horretan bateraturik ematen dira Euskal Herriari buruzko datuak, hor sartuz EAE, NKA eta Iparraldekoak, lurralde zatitu baten aurrean aurki ez gaitzen. Kontuan izan behar da, halere, liburuen salmentatik lortutako guztizko fakturaziorik handiena nabarmenki EAEn ematen dela % 93,79ko portzentajearekin. Fakturazio honetan argitaratu eta saldutako aleak zenbatzen dira. Bestalde, Testu ez-unibertsitarioaren gaian % 40,6 dira paperez argitaratuak.

Fakturazioa, gaiak orotara hartuta, 39.407.080 milioikoa da eta kapital horren zatirik handiena, Testu ez-unibertsitarioan kokatzen da, % 76,02ko portzentajearekin, eta segidan datoz, hurrenez hurren, Haur eta Gazteentzako gaiak % 16,11rekin, eta modu aski apalean Helduen fikzioa % 5,0ekin eta Ez-fikzioarena % 2,20rekin. Espainiako beste Komunitate Autonomikoetan euskaraz argitaratzen diren euskarazko liburuekin lortutako fakturaziorik garaiena Testu ez-unibertsitarioan ematen da % 5,10 portzentajearekin.

Argitalpenen hizkuntzen portzentajeei dagokienez, 2015eko ekitaldian, liburuen % 92,9 gaztelaniaz argitaratu ziren eta, hurrenez hurren, katalanez % 10,0, galizieraz % 1,9, euskaraz eta valentzieraz, azkenik, bakoitzak % 1,7rekin. Antzeko joera erakusten

du 2018an ere, gaztelaniak % 82,79rekin, katalanak % 13,52rekin, euskarak % 2,22rekin eta galizierak % 1,45ekin. Euskara lehen bietatik urrun dago, baina euskarak galizierari 0,77 puntuko aldea ateratzen dio.

Estatu-mailan itzulpenek % 16,2ko ekoizpena izan zuten, hizkuntzarik itzuliena ingelesa izan zelarik % 51,7rekin¹². Ondorengo taulan 2018ko egoera zein den ikusiko da.

Taula 6

Hizkuntza desberdinetan argitaraturako tituluak gaien arabera (2018)

			Gaztelaniaz		Katalanez		Euskaraz		Galizieraz	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Guztira	56.966		47.164	82,79	7.706	13,52	1.265	2,22	831	1,45
Helduen Fikzioa	10.928	19,2	8.972	19,0	1.474	19,1	170	13,5	312	37,5
Haur eta Gazteak	8.963	15,7	6.323	13,4	2.032	26,4	317	25,1	291	35,0
Testu ez-unibertsitarioa	11.88	20,9	9.029	19,1	2.097	27,2	584	46,2	174	20,9
Ez-fikzioa	22.501	39,5	1.931	43,1	1.994	25,9	139	11,0	29	3,5
Besteak	2.690	4,7	2.511	5,3	109	1,5	35	4,3	25	2,9

Iturria: Federación de Gremios de Editores de España: *Comercio interior del libro en España, 2018*, 119-120 orr. Norberak moldatua.

Hizkuntzen arabera sailkatutako taulako emaitzak bertikalean irakurtzen badira, daukaguna da Ez-fikzioaren saila nagusitzen dela % 39,5eko portzentajearekin Estatu espainolean eta segidan datoz Testu ez-unibertsitarioa eta Helduen fikzioa, hurrenez hurren, % 20,9 eta % 19,2koarekin. Gaztelaniaz argitaratutakoetan, Ez-fikzioak du lehentasun nabaria % 43,1eko portzentajearekin. Katalanez egindakoetan, Testu ez-unibertsitarioa dator buruan % 27,2rekin eta ia parean Haur eta Gazteak eta Ez-fikzioa % 26,4 eta % 25,9rekin. Galizieraz Helduen fikzioa eta Haur eta Gazteentzako saila dira hornituenak alde handiz % 37,5 eta % 35ekin. Euskarak markatzen du beste hizkuntza guztiekiko desberdintasunik nabarmenena, bere liburugintzako sailik hornituenak, hain zuzen, Testu ez-unibertsitario eta Haur eta Gazteentzako sailetan metatzen baitira -testugintzan, alegia-, % 46,2 eta % 15,1eko portzentajeekin. Kontrakarrean, Ez-fikzioaren sailean gaztelaniazkoek eta katalaneko argitalpenek erakusten dituzte

¹² *Panorámica de la edición española de libros 2015. Análisis sectorial del libro*, Ministerio de educación, cultura y deporte, 3 or.

portzentajerik garaienak % 43,1 eta % 25,9ko portzentajeekin, euskarazkoek % 11ko portzentaje apala erakusten duten bitartean. Bestalde, Helduen fikzio-sailean, literatura-saioek, kritikek eta antzeko ekarpenek sorkuntza hertsiki literarioen aldean portzentaje apala dute hizkuntza guztietan. Nobelagintza da nagusi.

Irakurketa honetatik ateratzen den ondorio nagusia, ez bakarra, hau da: euskarazko argitalpenek bere lehentasuna, batez ere, merkatu-lehian aurkitzen duten bitartean, estatu-atxikipena duten gaztelaniazkoek pentsamendu landuaren saila zaintzen dutela guztien gainetik. Ez maila berean baina, baita katalanezkoek ere % 25,9ko portzentajearekin. Maila honetan koska handia kentzen dio katalan intelektualitateak euskaldunari. Honek adierazten du pentsamenduaren esparruan ere menpekotasun-egoeran jarraitzen dugula, estatu-arrazoiari menpekotasuna adieraziz. Egungo ikerketan nabari den transbertsalitate-ikuspegiari ematen zaion garrantziak agerian jartzen du eztabaida akademikoetan estatu-arrazoiaren esaneko intelektualitateak betetzen duen leku hegemonikoa eta eliteek ekoizten dituzten gizarte-ordenaren bizi-arauak. Hemen aurreratzen dugun ohar honek jarraipena izango du argitalpen publikoen saila aztertzerakoan. Transbertsalitateak ez du esan nahi, besterik gabe, gizarte-arazo guztiak -klasearenak, nazioarenak, generoarenak, immigrazioarenak, ekologiarenak, eta besterik-, izaera berekoak direnik, ezta garrantzi berekoak ere. Esan behar da, hautsak harrotuko badira ere, unibertsitateetan eta beste zentro pribatuetan egiten diren ikerketa gehienetan, abiapuntua -Frantziako Iraultzarekin hasten den ilustrazioa -arrazoi argituarena-, Estatu-nazioek eraikitako hezkuntza-sistema nazionalaren baitatik abiatu izan dela, hori dela neurria, eta menpetasunera kondenatutako arrazoi askatzaileak ez duela lekurik eztabaida akademikoen mahaian. Onartu zen -eta horretan segitzen dugu-, Estatuak bakarrik daukala bortxaren monopolioa, epailetzak duela azken hitza, demokraziak babesten dituela gizakion eskubide kolektiboak eta subjektiboak, eta gezur antolatu horretan sinesten ez dugun menperatuok obeditzen segitzen dugu, gerra handiak eta txikiak isiltzen, eskandalu finantzario eta politiko itsusienak estaltzen, zuzentasun-aldarriari hegoak mozten.

II. Ez-fikziozko euskal argitalpen akademikoak

Zehaztu beharrean gaude zer ulertzen dugun izenburuan datorren “argitalpen akademikoak” terminoaren bidez. Izan ere, ez-fikziozko liburugintzaren esparruan, denetarik sartzan baitira, noiz ikerketakoak, noiz erudiziokoak, noiz dibulgaziokoak, noiz saio literarioak. Denak mugakideak diren kontzeptuak, baina ez eduki berekoak. Lanaren aurreko zatian, ez-fikzioari buruzko datuak eman dira, 2018ko iturrien arabera, 132 titulutan zehazten zena. Guk atal honetan beste sailkapen bat egin dugu, unibertsitate-argitalpenak, Administrazio Autonomikoenak eta euskal kulturako erakunde pribatuak bereiziz.

Tauletan argitaletxeek argitaratutako liburuak zenbatu dira, nahiz kasu jakin batzuetan, aldizkarietan egindako ekarria ere aztertzen den. Honela, UEUren liburu-ekoizpena osatze aldera *Uztaro* aldizkariak bere ibilaldian egindako ekarpena ere azalduko da. Zergatik aipatzen den hemen *Uztaro*? Aldizkari asko izan dira euskal komunitate zientifikoaren eta euskalgintzaren alorrean aritu izan diren historikoak eta jarraitzen duten berriagoak. Euskara hutsean jardun izan duten aipagarrienak *Euzko-Gogoa* eta *Egan* 1950eko hamarkadan sortuak gerrate aurreko aitzindariekin eta *Jakin* (1956) eta *Zabal* (1973) segidan gerrate osteko oldearekin. Bi belaunaldi, bi pentsamendu-unibertso, garaian garaiko bizigiro anitzaren erakusle garbi. Horien berri zehatza ematen dugu iturri desberdinetan¹³. Geroztik aurrera-pauso biziak eman dira hainbat diziplinatan espezializatutako aldizkarien kopurua ugaltzarekin batera. Soziolinguistika, literatura, itzulpengintza edo filologian dihardutenek non argitaratua izango dute euskara hutsezko *Bat* Soziolinguistika Aldizkaria, *Zutabe*, edo *Senezen*, hainbat hizkuntza darabiltzaten *Euskera*, *Fontes Linguae Vasconum*, *Oihenart*, edo *ASJU*ren antzekoen ondoan.

Aurre-zehaztapen horiek eginez gero, Euskal Herriko unibertsitate publiko zein pribatuek eta komunitate zientifikoek ekoizten dituzten diziplinetan lehentasuna ematen zaienak zein diren ikusiko da. Zein ote dira ez-fikziozko euskal letretan gehien lantzen diren sail eta gaiak?

Galdera horri erantzun aurretik, Espainiako estatu-mailan zein den egoera akademikoa jakiteko begirada zabal bat emango diogu, handik gure lurraldeko egoerara hurbiltzeko. Horretarako Elea Giménez Toledo-k *La edición universitaria española. Análisis de la producción editorial de libros* liburuan¹⁴ erabiltzen dituen

13 Ikus, besteak beste, Paulo Iztueta: “Euskararen adierazpen soziala gerra-ondoan (1973-1984), in Joseba Intxausti (zuz.), *Euskal Herria. Errealitate eta egitasmo. Realidad y proyecto*, Lan Kide Aurrezkia, 392-403 orr.; *Erbesteko euskal pentsamendua*, Utriusque Vasconiae, 2001; *Euskal pentsamendu berritzaillearen sorrerak. Zabal. Testu hautatuak*, Utriusque Vasconiae, 2015. *Zabal-en isuria (1973-1976). Ezker abertzalea paradigma berrien aurrean*, Utriusque Vasconiae, 2015.

14 Elea Giménez Toledo (ed.): *La edición universitaria española. Análisis de la producción editorial de libros*, Gobierno de España, Ministerio de cultura y deporte, 2019.

adigaiak erabiliko ditugu. Haren UNE/EAUB (Unión de Editoriales Universitarias Españolas/Espainiako Argitaletxe Unibertsitarioen Batasuna) erakundeari atxikitako unibertsitate-argitaletxe guztien eta zigilu akademikoa duten argitaletxe-taldeen ekoizpena identifikatu eta ezaugarritzea da haren asmoa, horren barruan sartuz argitaletxe nagusiak zein zigilu akademikoa duten argitaletxe-taldeak oro. Bestalde, informazio-iturri gisa, DILVE (Distribución de Información del Libro Español) baliatzen da, non datu identifikagarriak -ISBN, Argitaletxea, Titulua, eta abar-, jasotzen baitira eta 20 esparrutan sailkatuta hautatzen. Mugaketa horren barruan, bere egitekoa da UNEko argitaletxeen espezializazio-maila aztertzea, oinarritzat hartuz bere argitalpen hondoak zein argitalpen-ekoizpen nazionala bere osotasunean, zeinak, hurrenez hurren, *barne-share (esparrua)* eta *kanpo-share (esparrua)* adierazleen bidez izendatzen baitira. *Barne-esparruak* diziplina bakoitzean, argitaletxeak argitaratutako titulu guztiak guztira hartuta, gai jakin bati -adibidez Ekonomiari-, eskainitako ISBNen portzentajea zenbatekoa den adierazten du. *Kanpo-esparruak*, aldiz, argitaletxe jakin bateko ISBNek gai batean ordezkatzen duten portzentajea erreferentziatza hartuta, DILVEN gai horretan argitaletxe guztiek argitaraturako titulu guztien berri ematen du. Lehen kasuan azaltzen da, argitaletxe batek, katalogo edo bilduma bere osotasunean hartuta, zein den gai edo diziplina jakin bati eskaintzen dion lekua portzentajeetan emanda; bigarrean, aldiz, argitaletxe guztien emaitzak batera hartuta, diziplina bakoitzean ematen den ekoizpen nazionala zenbatekoa den. Bi adierazle horiek informazio desberdina eta osagarria ematen dute. Erakusten dute zein diren argitaletxe bakoitzaren xede nagusiak, zein diziplina diren lehenesten direnak nola maila nazionalean hala partikularrean.

Espanian UNEko taldea osatzen duten 69 unibertsitate-argitaletxeren ekoizpena sail zientifiko handien arabera sailkatuta, honela banatzen dira: % 44,94 Humanitate- eta Gizarte-Zientziei dagozkienak dira, % 16,23 Zientzia, Teknologia eta Medikuntzari dagozkionak, eta % 39, literatura sorkuntzari eta irakaskuntzarako materialari buruzkoak. Diziplinen arabera argitaletxe-ekoizpenean nabarmentzen direnak, berriz, hauek ditugu: Historia % 17rekin, Zuzenbidea % 14rekin, Hezkuntza % 12rekin eta Hizkuntzalaritza, Literatura eta Filologia % 11rekin. Beste diziplinek -hala nola Ekonomia, Soziologia, Arte Ederrak, Filosofia, Zientzia Politikoak, Arkeologia eta Historiaurrea, Psikologia, Geografia, Komunikazioa eta abarrek-, % 9tik beherako portzentajea dute¹⁵. Garbi dago Estatu espainolean Humanitateak eta Gizarte-Zientziak nabarmen gailentzen direla Zientzia Aplikatuak gainetik, lehenak bigarrenari 28 puntuko aldea kenduz.

Zertan ote gara Euskal Herrian? Hurrengo taulak emango digu erantzuna.

15 Elena Giménez, op. cit., 11-14 orr.

Taula 7

UNEko argialetxeen espezializazioa Hego Euskal Herriko Unibertsitateetan diziplinen arabera (2018). Ehunekotan.

Sailak	EHU/UPV		NUP/UPNA		UD		UNAV/EUNSA	
	Kanpo share	Barne share	Kanpo share	Barne share	Kanpo share	Barne share	Kanpo share	Barne share
Arkeologia Historiurrea	0,28	0,73	0,00	0,00	0,50	1,20	0,53	0,71
Biblioteka Dokumentazioa	0,26	3	0,03	1,91	0,07	0,73	0,22	1,31
Zientzia Politikoak	0,29	0,22	0,00	0,00	0,29	0,2	0,00	0,00
Komunikazioa	0,63	1,54	0,00	0,00	0,09	0,20	0,3	0,38
Zuzenbidea	0,19	5,7	0,01	1,53	0,66	18,47	0,49	7,7
Ekonomia	0,35	5,19	0,00	0,00	0,76	10,47	0,61	4,69
Hezkuntza	0,21	4,02	0,02	1,53	0,47	8,27	0,58	5,74
Ikerketa arabiar eta hebrearrak	-	-	-	-	0,73	0,27	0,18	0,04
Filosofia	0,52	4,82	0,03	1,53	0,83	7,00	4,64	22,02
Geografia	0,11	0,37	0,00	0,00	0,18	0,53	0,09	0,15
Historia	0,98	20,03	0,05	5,34	0,11	2,07	0,54	5,71
Hizkuntzalaritza Filologia Literatura	0,65	7,24	0,01	0,38	0,22	2,27	0,73	4,17
Psikologia	0,42	2,85	0,00	0,00	0,4	2,47	0,28	0,98
Soziologia	0,69	4,31	0,08	2,67	1,11	6,38	1,00	3,28
Zientziak	0,64	8,48	0,05	3,44	0,10	1,20	0,31	2,14
Ingeniaritza	0,49	1,68	0,08	1,53	0,04	0,13	0,57	1,01
Teknologia	0,87	2,78	0,00	0,00	0,11	0,33	0,18	0,3
Medikuntza	0,17	3,29	0,00	0,00	0,17	2,87	0,41	3,38
Informatika	0,45	1,24	0,00	0,00	0,43	1,02	0,28	0,11
Nekazaritza	0,00	0,00	0,09	0,76	0,00	0,00	0,14	0,11

Iturria: Elea Giménez Toledo-ren *La edición universitaria española. Análisis de la producción editorial de libros*, Norberak moldatua.

Orotara 20 sailetan banaturik datorren taula honetan UNE/EAUBeko argialetxeen ekoizpena portzentajeetan ematen da diziplina desberdinetan sailkatuta, desberdinduz

kanpo- eta barne-esparruei dagozkienak. Euskal Herriko Unibertsitate publikoek zein pribatuek beren barne- eta kanpo-esparruetan egindako diziplinarteko ekarpenak UNEko 69 argitaletxe-multzoko zerrendan lehen hamabosten artean sailkatzen dira diziplina gehienetan.

Lehen hamabosten arteko zerrenda horretan Euskal Herriko unibertsitate pribatu zein publikoek sail jakin batzuetan erakusten duten lehentasun-maila aldatu egiten da. Honela, diziplina batzuetan, adibidez Arkeologia eta Historiaurrearen gaia hain bertakoa izanik, ia oharkabean pasatzen da. Garrantzirik gehien Deustuko unibertsitateak ematen dio bere kanpo-esparruan 0,50, EHUk 0,28rekin, UNAV/EUNSAk % 0,53rekin, NUPek deus ez. UNEkoak ez diren argitaletxeetan, Generalitat de Catalunya doa buruan % 4,46rekin Arte Ederretan, Granadakoak % 1,29rekin eta Valentiakoak % 1,08rekin; EHU % 0,26rekin; Bibliotekonomia eta Dokumentazioan EUNSA bakarrik sartzen da lehen hamabosten artean % 1,06rekin.

Beste sail batzuk, gai bakoitzari ematen zaion garrantziaren arabera datoz lehentasunez markatuak. Honela, Zientzia Politikoetan Deustuko Unibertsitatea 13. lekuan dator; Komunikazioan EHU 3.enean % 0,63rekin eta EUNSA 11.enean % 0,3rekin; Zuzenbidean Deustu eta EUNSA 3. eta 4.enean % 0,66 eta 0,49ko portzentajeekin, eta EHU 13.enean % 0,19koarekin; Ekonomian, Deustukoa hirugarrenean % 0,76rekin, bosgarrenean EUNSA % 0,61ekin, EHU hamaikagarrenean % 0,35ekin; Hezkuntzan, EUNSA eta Deustu zazpi eta zortzigarren mailan, % 0,58 eta 0,47rekin; Ikasketa arabiar eta hebrearretan, Deustu 5.enean % 0,73rekin; Filosofian, EUNSA buruan % 4,64rekin, 4.enean Deustu % 0,83rekin eta EHU 8.enean % 0,52rekin; Historian, EHU 4.enean % 0,98rekin eta EUNSA 12.enean % 0,54rekin; Literatura, Linguistika eta Filologian, EUNSA 12.enean % 0,73rekin eta EHU 13.enean % 0,65ekin; Psikologian, EHU 7.enean % 0,42rekin eta Deustu 8.enean % 0,4rekin eta EUNSA 15.enean % 0,28rekin; Soziologian, Deustu 7.enean % 1,1ekin, EUNSA 8.enean % 1ekin eta EHU 12.enean % 0,69; Zientzietan, EHU 14.enean % 0,64rekin, Teknologian, EHU 5.enean % 0,87rekin; Medikuntzan, EUNSA 4.enean % 0,42rekin, Deustu 14.enean % 0,17rekin eta EHU 15.enean % 0,17rekin; Informatikan, EHU 14.enean % 0,45ekin eta Deustu 14.enean % 0,43rekin. Nekazaritzan, ez da agertzen Euskal Herrikorik, ezta Ingeniaritzan ere.

Hego Euskal Herriko unibertsitate-argitaletxeek, orotara hartuta, beren barne-esparruan zein sail lantzen duten begiratzen bada, emaitzak adierazgarriak dira, hasteko unibertsitate pribatu eta publikoen artean. Deustuko Unibertsitateak gehien lantzen dituen sailak, hurrenez hurren, Zuzenbidea eta Ekonomia dira % 18,47 eta % 10,47ko portzentaje adierazgarriekin, gizarte-ordenantza juridiko-politikoarekin zerikusi zuzena dutenak, hain zuzen; ondoren datoz Hezkuntza, Historia eta Soziologia sailak % 8,27, % 7,00 eta % 6,38koekin, hauek ere Gizarte-Zientzien sailean sarrera handia dutenak garaian garaiko gizarte-arazoan azalpenenetan eta eliteen prestakuntzan duten oinarritzko eraginengatik. UNAV/EUNSAk, bere aldetik, sarrera nagusia Filosofiaren sailari ematen dio % 22,02ko portzentaje garaiarekin,

gero Zuzenbidea, Hezkuntza eta Historia datoz % 7,7, % 5,74 eta % 5,71rekin. Euskal lurraldean tradizioz luzeena duten bi unibertsitate hauek zein jakintza saili ematen dieten lehentasuna garbi ageri da, baita gizarteko hariak gidatuko dituzten eliteak zein erakundetan eta zein sailetan prestatzen diren ere. Historia laburragoa duen azken orduko EHU publikoak, aldiz, beste sailkapen-mota bat erakusten du lehenesten dituen sailetan. Hemen askogatik buruan doan saila Historia da % 20,03ko portzentajearekin, eta segidan Zientziak % 8,48rekin, Literatura % 7,24rekin eta Ekonomia eta Zuzenbidea % 5,19rekin. NUPk, berriz, Historia eta Soziologia lehenesten ditu % 5,34 eta % 3,44ko portzentajearekin.

Kanpo-esparruko sailen irakurketak beste ikuspegi bat emango digu. Bertikalean irakurritako zutabeen bat bakarra da % 1,11ko portzentajera heltzen dena, Deustun erakusten den Soziologia sailarena.

Azalpen orokor honen ondotik, gatozen ondorio batzuk ateratzera.

Bat: Unibertsitate-argitaletxeen ekoizpenean Humanitate eta Gizarte-Zientzietako liburuak nagusitzen dira. Zientzia eta Teknologiarenean sailean argitaratzen den liburu bakoitzeko hiru argitaratzen dira Humanitate- eta Gizarte-Zientzietan.

Bi: UNEko argitaletxeek diziplina akademiko guztietan argitaratzen dute. Unibertsitate-argitalpenek merkataritza-izaerako argitaletxe pribatuekin partekatzen dituzte Historia, Zuzenbidea, Hezkuntza eta Ekonomia bezalako diziplina nagusiak. Halere, merkataritza-sektorearekiko erlatiboki interes gutxiago duten tituluak ere merkaturatzen dituzte, hala nola Arkeologia eta Historiaurrean, Linguistikan, Filologian eta Literaturan, eta Soziologian. Aipatzekoa da UNAVk Filosofiari, adibidez, ematen dion garrantzia.

Hiru: Bestalde, UNEren barruan zigilu akademikoak daukaten argitaletxe-talde handiak aurkitzen dira. Anaya-ren kasuan Alianza Editorial, Ediciones Cátedra, Ediciones Pirámide eta Tecnos aurkitzen dira; Planeta-ren kasuan, berriz, Editorial Cátedra, Ediciones Paidós eta Deusto. Plataforma hauek dira gizarte-eliteak gidatzen dituztenak eta gizarteko hariak unean uneko interesen arabera erabiltzen dituztenak.

Lau: Diziplina desberdinen arteko lehen hamabost argitaletxe-ekoizle emankorren araberrako sailkapenean buruan doazenak unibertsitate pribatuak izan dira, Deustukoa eta UNAV, biak Euskal Herrian historia luzea dutenak. Arkeologia, Historiaurrea, Geografia eta Nekazaritzan izan ezik, beste guztietan lehen hamabosten artean, bi argitaletxe pribatu horiekin batera, EHU publikoa ere presente dago, pribatuen aldean bizitza laburragoa duena. Agertzen ez dena NUPa da, geroago sortua 1987an.

Bost: Garbi dago Hego Euskal Herrian unibertsitate pribatuek eragin handia izan dutela. Ondo asko zaintzen dituzte gizarte-bizitzan eragin apartekoa duten sail jakin batzuk, hala nola Zientzia Politikoak, Zuzenbidea, Ekonomia, Soziologia. EHUk ere diziplina gehientsuenak landu ditu eta gehien landuen artean, hamabosteko zerrenda horretan agertzen denez, Komunikazioa, Zuzenbidea, Ekonomia, Filosofia, Historia,

Literatura, Linguistika eta Filologia, Psikologia, Soziologia, Zientziak, Teknologia, Medikuntza, Informatika aurkitzen dira. Ohargarria da, bestalde, euskarazko argitalpenetan UEUren aipamena egiten dela UNEkoak ez diren argitaletxeen zerrendan. Ohargarria den bezala, ez datorrela Mondragon Unibertsitatearen aipamenik. Agian 1997an sortua delako?

Sei: Hamabosteko zerrenda horretan Euskal Herriko unibertsitate-argitaletxeen izenik ez dator, ez pribatuenik ez publikoenik, zehazki Arkeologia eta Historiaurrea, Geografia, Ingeniaritza eta Nekazaritzaren sailetan. Orobat, behin baino ez dira agertzen EUNSA, Deustu eta EHUren izenak, zehazki Bibliotekonomia eta Dokumentazioan, Zientzia Politikoetan, Ikasketa arabiar eta hebrearretan eta Teknologian. Nolanahi ere, gai mimatuenak Zuzenbidea eta Ekonomia dira, batez ere, eta hauen ondoan Psikologia, Soziologia eta Medikuntza. Kontrakarrean, bitxia gertatzen da Geografia, Ingeniaritza eta Nekazaritzaren sailetan Euskal Herriko unibertsitateen ekarpenik ez agertzea.

Sailez saileko azalpen xehatu honek, bere idorrean, gure unibertsitate-egoera zientifikoaren erradiografia bere luze-zabalean egiteko balio du, gure aukerak nondik nora doazen ikusteko. Begirada orokor honen ondoren, Euskal Herriko argitalpen akademikoak aztertuko dira, hiru multzotan sailkatuta. Euskal Herriko Unibertsitate publiko zein pribatuek, Autonomia-Administrazioetako Erakunde nagusiek eta Erakunde pribatuek zenbat ekoiztu eta zein hizkuntzatan argitaratu duten ikusiko da.

1. Euskal Herriko Unibertsitateen ekarpena

Azalpen honetan, gaien trataerak beste azalpen berezi bat eskatzen duelako, hizkuntzari buruzko datuak jasotzen ditugu. Hizkuntzarena, euskal kulturaren esparruaren barruan, zerbait muinekoa zaio pentsamenduaren zolari eta horregatik lehenesten dugu hizkuntzaren alderdi hau, hari berarekin lotuz euskalgintza eta kulturagintza.

Taula 8

Euskal argitalpen akademikoak (2011-2019)

Euskal Herriko Unibertsitateak	Urtea	Izaera	Tituluak euskaraz	Tituluak gaztelaniaz	Titulu elebidunak	Guztira	%
EHU/UPV	1980	Publikoa	170	262	61	493	35,11
NUP/UPNA	1987	Publikoa	2	44	4	50	3,56
Deustu	1881	Pribatua	21	170	3	194	13,82
UNAV	1952	Pribatua	0	648	0	648	46,15
Mondragon Unibertsitatea	1977	Pribatua	8	11	0	19	1,35
		Guztira	201	1.136	68	1.404	
			% 14,32	% 80,84	% 4,84		%

Iturria: Norberak moldatua¹⁶

Taula horretan hiru unibertsitate pribatu dauzkagu, eta horietatik bi, Deustukoa eta EUNSA historikoak, hirugarrena, Mondragon Unibertsitatea, berriagoa. Beste bi publikoak, EAEko eta Nafarroako NUP, berriz, Euskal Komunitate Autonomikoaren aroan sortuak dira. Horietako bakoitzaren sorrerak izan duen testuinguru soziopolitiko eta historikoa kontuan eduki beharreko aldagaia da bere ondorengo garapena ulertu ahal izateko.

Goiko taula bertikalean irakurtzen bada, ikastetxe pribatuak zein publikoak batera hartuta, ageri da 1.404ko kopuru orokorretik, askoz, % 80ko portzentajearekin, gaztelaniazko tituluak nagusitzen direla, euskarazkoak % 14,32koak diren bitartean. Eta euskarazkoetan buruan doana, % 84,57ko portzentajearekin, EHU da, eta pribatuetan

16 Unibertsitate bakoitzaren liburuen zerrenda aztertzeko EHUko Argitalpen Zerbitzu Nagusira jo dugu. Erakunde honek emandako datuen arabera, 2011 eta 2019ko epealdian guztira 712 argitalpen aitortzen ditu, 219 formatu digitalean eginak: 359 gaztelaniaz, 214 euskaraz, 16 ingelesez eta liburu elebidunak 123. Zenbaki hauek liburuak eta ePub formatuak jasotzen ditu eta dendetarako bidea hartu ez dutenak ere bai. Zerrenda honetatik baztertu ditugu izen berdina eta formatu batean baino gehiagotan argitaratu direnak. Beraz, izenburu bakarra zenbatu da eta beti paperezkoa hobetsi da formatu digitalaren aurrean. Horrela egin dugu gainontzeko Unibertsitateek argitaratutako liburu guztiekin.

% 10,44rekin Deustukoa. EUNSAk bere titulu guztiak gaztelaniaz ditu, honekin esan gabe, ordea, geroago zehaztuko denez, euskara eta euskal kulturatik erabat urrunduta egon dela. Mondragon Unibertsitateak bere argitalpenetan, orokorrean, besteen aldean oso kopuru txikia erakusten du, % 19koa baino ez, buruan doazenak EHU eta EUNSA direlarik, hurrenez hurren, % 35,11 eta % 46,15eko portzentajeekin.

Baina datu egiaztagarri horiei gorputza eman behar zaie, azalduz zein testuinguru sozio-politikotan eta noiztik garatuz datozen unibertsitate horiek, tartean mende bateko aldea baitago eta bitartean gizarte-egoerak aldatuz joaten baitira. Datu estatistikoei zentzu logikoa emateko, errepaso historiko labur bat egingo dugu unibertsitate bakoitzaren inguruan, kasu batzuetan, beste datu batzuk gehituz.

Deustuko unibertsitatea da zaharrena, Jesusen Lagundiak oligarkiaren laguntzarekin 1881ean sortua, Bilboko industrialdea garapen bizkor batean sartua zegoenean. Izen bereko auzoan kokatua jarraitzen du. Industrializazioak bere garapenerako goi-ikasketetan gaitutako talentuak eskatzen zituen eta, hain zuzen ere, hutsune horixe betetzera zetorren pedagogia jesuitikoaren ukitu nabaria zeukan unibertsitate hori. Euskal Herriko goi-mailako intelligentsia -batez ere enpresa-mundukoa eta ez gutxi politikoa-, gune pribilegiatu horretan eskolatuko da. Eliteak trebatzeko xedearekin, hain zuzen, sortu zen Merkataritzako Unibertsitatea 1916an, gerrate-garaian beste eginkizun batzuetarako erabili zuten, 1962an lortu zuen bere onarpen juridikoa Espainiako gobernuaren aldetik. Geroztik, ikasturtez ikasturte, ikasleriaren kopurua handituz joan da 500dik 14.000 ikasletara pasatuz. Deustuko Unibertsitateari loturik, Donostiako campusa dago, eta hor, hasieran, EUTGn, Enpresa Teknika, Zuzenbidea, Ekonomia-Zientziak eta Ingeniaritzako prestaketa-ikastaro bat ematen zen; gero, 1969an, Filosofia eta Letren Fakultatea sortu zen; 1979an Ekonomia-eta Enpresa-Zientzien Fakultatea. Gaur egun Ekonomia-Zientzietako Fakultatea, Giza Zientzien Fakultatea, Turismoko Unibertsitate-Eskola eta Gizarte-Laneko Unibertsitate-Eskola ditu. Guztira zazpi Fakultate: Zuzenbidea, Teologia, Ingeniaritza, Ekonomia eta Enpresa-Zientziak, Psikologia eta Hezkuntza, Giza eta Gizarte-Zientziak eta Irakasle-Eskola.

Deustuko Unibertsitateak nolako trataera eman dion euskarazko irakaskuntzari? Andres Urrutiak azaldu du zein den euskararen egoera 1996-1997 ikasturtean Deustuko Unibertsitatean¹⁷. Bertan Euskara Batzordea eraiki zen euskalgintza bultzatzeko xedearekin, kontuan hartuz hiru esparru hauek: irakaskuntza, ikerketa eta zerbitzuak. Bi campusetan, Bilbo eta Donostian, euskararen egoera zein den azaltzen da, aditzera emanez gizarte-egoera desberdinak ematen direla campus desberdin horietan. Emaitzak hauek dira: 1996-97 ikasturtean, ikasten ari den ikasleria 17.511koa da, eta horietatik euskaraz ikasten ari direnak, Bilbon 15.994tik 1.236 (% 8) eta Donostian 2.117tik 537 (% 25). Ekonomia eta Enpresa-Fakultatean 756ko ikasle-kopurutik euskaraz

17 Ikus "Euskara Deustuko Unibertsitatean", *Jakin*, 100., 1997, 47-54 orr.

ikasten ari denik ez da. Bitxia. Bestalde, Unibertsitateak argitaratzen dituen aldizkarien artean, hainbat agertzen dira, batzuk nazioarteko aldizkari-argitalpenetan ere ezagunak direnak, besteak beste, *Estudios de Deusto*, *Boletín de Estudios Económicos*, *Cuadernos Europeos de Deusto*, *Boletín de la Asociación Internacional de Derecho Corporativo*, *Anuario de Acción Humanitaria y Derechos Humanos*, *Deusto Journal of Human Rights*, *Turing Journal for Higher Education*, eta gune mugatuagoa duten beste batzuk, hara nola *Revista Noticias UD Berriak*, *Letras de Deusto*, *Estudios Empresariales*, *Estudios de Deusto*, *Mundaiz* eta beste. Nolanahi ere, guztiak izen eta oihartzun handikoak dira, baina horietan euskarak ez du lekurik. Osorik euskaraz argitaratzen den bakarra *Enseiukarrean* izango da, Deustun Euskal Kultur Mintegia/EKMren eskutik, Dionisio Aranzadi errektorearen zuzendaritzapean 1986an argitaratzen hasia. Juan Otaegi eta Nerea Zuloaga zuzendaritzakoak zirela, 1992-1993 epealdian 8. eta 9. zenbakiak argitaratu ziren eta 10.a bideratua geratu zen. Helburu bikoitza zuen aldizkari honek: bata, Deustuko Unibertsitateko ikasleen kultura-ekintza bideratzea eta bestea, "euskararen kultura gaindituz, benetako euskal kultura lantzea, Unibertsitate mailako jakintzabide guztiak jorratuz..."¹⁸. Erdarazko aldizkari sonatu horien itsasoan ur tanta bat baino ez da izango aldizkari hori.

Interesgarria da zein sail hautatu eta zaintzen dituen jakitea, horrek erakusten baitu zer-nolako gizarte-eredua irudikatzen duen eta horretako zein pedagogia-mota aplikatzen den. Ondoren doan taulak erakutsiko digu hori.

Taula 9

Deustu Unibertsitatearen argitalpen-katalogo digitala gaien arabera sailkatua (2019).

Bildumak	Sailak	Tituluak	%
Granatea	Zuzenbidea	67	9,01
Horia	Ekonomia	87	11,70
Berdea	Filosofia	96	12,92
Urdina	Etika	231	31,09
Beste serie batzuk	Humanitateak	154	20,72
Euskaraz	-	112	15,07
Gaztelaniaz	-	631	84,92
Guztira		743	

Iturria: *Deusto, Universidad de Deusto: Catálogo de Publicaciones 2019, Deusto Digital.*
Norberak moldatua.

18 Juan Otaegi: "Enseiukarrean aldizkaria", *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 15 zk., 1996ko uztaila, 65-68 orr.

Hasteko, katalogo honetan ez baita esaten noiztik noizkora arteko tituluak jasotzen diren, gu bertan datozenak zenbatzera mugatu gara. Nolanahi ere, aipatuz gatozen beste datuekin hurbiltasuna ematen dela egiaztatzen da.

Guztizko 743 titulu-kopuruaren barruan, bildumarik hornituena % 31,09rekin Urdina seriean datozen gaiak osatzen dute, zeinetan sartzen baitira Etikarekin zerikusia duten gai hauek: Deustuko Teologia-Kaierak, Droga-mendekotasuna, Giza Eskubideak, Lan Soziala, Giza laguntza eta garapena, Giza eskubideen Deustuko Kaierak, ICEko Kaier Monografikoak. Hurrengo serieak % 20,72koarekin izaera desberdineko tituluak bateratzen ditu, zeinetan baitatoz nahas-mahas Humanitatearekin zerikusia duten gai hauek: Aisia ikasketak, Nazioarteko Migrazioak, Giza Genoma, Euskaraz ikasteko liburuak eta beste argitalpen batzuk. Serie berde, hori eta granatean datozen tituluak ere badute beren garrantzia, zeinetan, serie berdean % 12,92ko portzentajearekin, gizarte- eta humanitate-gaiak lantzen baitira, hara nola Filosofia, Psikologia, Pedagogia, Historia, Letrak, Euskal Herriari buruzkoak, Arkeologia, Letrak, eta serie horian % 11,70eko portzentajearekin, Ekonomia, Enpresa eta Ingeniaritzari buruzkoak, eta serie granatean, % 9,01eko portzentajearekin, Zuzenbidea eta Gizarte-Zientziak. Katalogo hau pentsamendu jesuitikoaren obra izaki, Teologiak ere bere erdiguneko lekua hartzen du.

Euskarazko argitalpenek katalogo honetan duten % 15,07ko portzentajea, erdarazkoen aldean, aski apala da, eta honek aditzera ematen du bertakoa ez den hizkuntzan –erdarazkoan-, garatzen dela pentsamenduaren mundua maila akademikoan. Guztira 112 titulu dira argitara emanak, horietatik hainbat itzulpen-lanak, bereziki Zuzenbideari buruzkoak. Euskal egile ezagunen artean aurkitzen dira, Andres Urrutia, Mikel Navarro, Nekane Aranburu, Luis Aranberri, Elixabete Perez, Esther Zulaika, Itziar Basterretxea, Roman Garate, Joxe Arregi, Xabier Larrañaga, Dionisio Amundarain, Rosa Miren Pagola, Juan M. Etxebarria, Josu Penades, eta gehiago, non nahasten baitira gai erlijiosoak, linguistikoak, ekonomikoak, juridikoak eta beste batzuk. Ikustekoa izango da EHuko argitalpenetan, adibidez, zenbateko portzentajea osatzen duten euskarazko argitalpenek. Hizkuntzaren erabilerari dagokionez, bada, euskaraz eta gaztelaniaz argitaratutakoen artean, joera nagusi gisa egiaztatuz gatozen portzentajea ematen da gaztelaniaren alde 68,85eko punturen aldearekin.

Katalogo honetan gontz-zeregina betetzen dute Gizarte-Zientziekin zerikusia duten gai juridiko, ekonomiko eta enpresakoek. Eta, nola ez, baita giza bizitzari zentzua ematen dioten gai etiko-teologikoek ere. Horixe da, hain zuzen, pentsamendu jesuitikoari bere nondik norakoaren zentzua ematen dion ipar ideologikoa. Deustu izan da –eta hein batean orain ere bai-, elite politikoak eta enpresaburuak eskolatzen direneko hezkuntza-gune historikoa.

Bigarren unibertsitate zaharrena Nafarroako UNAV da, Opus Dei-ren Prelatutzari atxikia eta José María Escrivá Balaguer-ek Iruñean sortua 1952an. William J.

Callaham-ek dakarrenez¹⁹, Espainiako gobernu frankistak Nafarroako Unibertsitateari egindako oparia ez bide zen nolana hiko eta nazional-katolizismoan oinarritutako eliza hierarkikoak inaugurazio-zeremoniara hogeita hamar gotzain bidaliz eskertu zion. Uste izan den baino eragin handiagoa izan zuen Opus Dei-k Franco-ren Espainian, eta geroztikoan, baita Espainiatik harago ere, eta hori hala izanen da Institutu honek Eliza katolikoaren barruan izaera sekularreko araudia duen aldi berean izaera erlijiosoko alderdiak eta apostolutza laikoari dagozkionak nahasten dituelako. Franco-k bere gobernurako Opus Dei-ko hiru ministro izendatzean 1970ean, bazekien neurri handi batean landa-ekonomia atzerakoian ainguratuta zegoen gizarte espainola, eredu teknokratikoa aplikatuz gero, modernizatze bidean jarriko zuela. Nafarroa, hain zuzen, hasi berria zen nekazaritzatik industriarako bidea egiten 1950eko hamarkadan eta Opus Dei-ren enpresa-gidaritzak eta bankarenak garrantzi handia izango dute bertako gizartearen eraldaketan. Industrializazio horrek zerikusi zuzena izango du garai hartan Arabak eta Nafarroak zuten foru-erregimen bereziarekin.

UNAVen irakaskuntza-sarea bost campusetan zabaldua aurkitzen da, Iruñea, Donostia, Madril, New York eta Bartzelonan, eta 35 gradu eskaintzen ditu.

Zuzenbideko Fakultatea 1952an ireki zen, Medikuntzako 1954an, Filosofia eta Letretakoa 1955ean, Kazetaritza, Biologia eta Donostiako Fisika 1956an, Zuzenbide Kanonikoa 1959an, geroago Nafarroako Unibertsitate Klinikoa eta Donostiako Ingeniarien Goi-Eskola 1961ean, Arkitekturako Goi-Eskola Teknikoa 1963an eta urte berean ISSA (Instituto Superior de Secretariado y Administración), Farmazia eta Arkitektura 1964an, Teologia 1967an eta Teologiako Institutua 1969an, Informazio-Zientzien Fakultatea 1971n, Donostian Gipuzkoako Ikasketa eta Ikerketa Teknikoen Ikastetxea 1982an, Institutu Zientifiko eta Teknologikoa, Enpresa eta Humanismo Institutua eta Teknologia Informatikoaren Zentroa 1986an, Ekonomia eta Enpresa 1987an. Bost campusetan banatua dago, nagusia Iruñean aurkitzen delarik. Guztira 11.180 ikasle ditu, eta hauetatik 1.758 nazioartekoak dira.

Opus Dei-ren jabetzakoa da, halaber, Nafarroako Unibertsitate Klinikoa ere, non 2.045 langilek 100.000 gaixo artatzen baitituzte. Lau espezialitate ditu: Onkologia, Neurozientziak, Zientzia kardiobaskularrak eta Hepatologia. Opus Dei arduratzen da bere egitekoak, irakaskuntzakoak zein Osasunekoak, kristau pedagogiaren bidetik gidatzeaz, horrela J.M. Escrivá fundatzailearen nahia betez: "Queremos que aquí se formen hombres doctos, con sentido cristiano de la vida" (Escrivá, 1960).

Zalantzarik ez da, Bilboko Deusturen antzera, EUNSAren azpiegitura zimendu sendo bezain zabaletan oinarritua dagoela nola kokapen geografikoaren aldetik hala jakintza-sailen aldetik. Laizismo erlijiosoz kutsatutako bere eredu pedagogikoak eragin erabakigarria izango du gizartean jarrera teknokrata finkatzeko orduan, sakoneko nazional-katolizismoa neoliberalismoaren soinekoarekin jantziz. Liburu Zuriaren (1969)

19 *La Iglesia Católica en España (1875-2002)*, Crítica, 2002, 323-330 or.

eta Hezkuntzaren Lege Orokorren (1970) aldarrikapenarekin abiatzen den hezkuntza-berrikuntzan pedagogia-eredu teknokratikoa ezartzen da eta 1970eko hamarkada inguru horretan hasten dira guraso langileen seme-alaben eskolatzeari inbertsio bezala ikusten eta hortik aterako dira esku-langile kualifikatuak.

Euskara eta euskal kulturaren lehen urratsak 1960ko hamarkadan eman ziren. Koldo Mitxelena bidez Antonio Fontan-ek deituta, Joxemiel Barandiaran 1963an hasi zen Euskal Herriko Historiaurrea eta Etnologia ematen. Hurrengo urtean, 1964an, Ana Etxaide euskarako eskolak ematen hasi zen eta honi jarraipena Jose Basterretxeak eman zion. Ana Etxaide Santiagotik itzultzean 1975ean, Euskal Linguistika ematen hasi zen, gaztelaniaz, baina gerora, 1996-1997 epealdian, euskaraz emango da. Alabaina, 1976-1977 ikasturtetik aurrera, Euskara ikasgaia hautazkoa izango da Filologiako Fakultatean. Euskal Ikasketen Diploma (EID) ere bideratutako da euskara eta euskal kultura bultzatzeko asmoarekin, Ana Etxaideren eraginez eta arrakasta handiarekin. Dena euskaraz. Donostiako campusean klase batzuk euskaraz ematen dira. ISSA 1963an sortutako ekimena da, Zuzendaritzako Laguntzaileen prestakuntzan espezializatutako eskola, eta hor, nahiz eta ikasleriaren zati bat euskalduna den, ikasgai guztiak gaztelaniaz ematen dira. Euskara, hautagai bezala, bost mailatan ematen da. Etorkizunari begira, Roldan Jimenok²⁰ esatera, "euskarak NUan bizi duen egoera egoerarik hoberena" da, nahiz beste pasarte batean zehazten duen irakasleen artean gutxi direla klaseak euskaraz eman ditzaketenak, batez ere Iruñeko campusean. Iritzi baikorra agertuz bukatzen du: "Hala ere, euskarak eta euskal kulturak NUan etorkizun oparoa izango dutela espero dugu"²¹.

Mondragon Unibertsitateak izen bereko herrian sortu eta garatuz doan kooperatibismo-ekimenean du bere jatorria. Irabazi asmorik gabeko erakundea da, aurreko beste biak bezala pribatua, 1997an sortua. Unibertsitate hau hezkuntza-arloan ibilbide eta esperientzia luzea duten hiru hezkuntza-kooperatibaren elkartzetik sortzen da, non bateratuak aurkitzen baitira "Jose Maria Arizmendiarieta" S. Kooperatiba, ETEO S. Kooperatiba eta Irakasle Eskola S. Kooperatiba. Gaur egun 5.890 ikasle ditu, graduak, unibertsitate-masterrak eta doktorego-programak egiten ari direnak. Gaur hiru Fakultate ditu: Goi-Eskola Politeknikoa, Enpresagintzaren Fakultatea, Humanitate- eta Hezkuntza-Zientzien Fakultatea eta Gastronomia-Zientzien Fakultatea.

Mondragon Goi Eskola Politeknikoa 1963an sortu zen eta bere egoitza Arrasaten dago finkatua. Fakultate honek hiru campus ditu Arrasate, Orona Ideon eta Goierriin. Jarduera honen eragilea Jose Maria Arizmendiarieta bera izan zen, Mondragon kooperatiba esperientziaren sortzailea. Enpresa-esperientzia berritzailea sortzen lagundu du, eta geroztik, eskola horretan jasotako prestakuntza teknikoari esker, katean bezala etorriko dira kooperatiba berriak ugaltzen eta lkerketa-Zentroak

20 "Euskara eta euskal kultura Nafarroako Unibertsitatean", *Jakin*, 100 zk., 1997, 60-61 or.

21 *Ibid.*, 61 or.

sortu eta zabaltzen, horien artean ULGOR 1956an, IKERLAN 1974an, Mondragon Unibertsitatea 1997an, Mondragon Goi Eskola Politeknikoaren bidetik.

EHUri atxikita dagoen Mondragon unibertsitatea hiru Unibertsitate-Eskola hauek osatzen dute: Mondragon Eskola Politeknikoak (MEP), Oñatiko ETEOk eta Eskoriatzako Irakasle-Eskolak (HUHEZIK). Lehenengo biak Franco-ren garaikoak dira: MEP 1943an jaio zen "Escuela Profesional" modura eta ETEO 1960an "Escuela Técnica Profesional" izenez. Irakasle-Eskola, aldiz, 1976an sortu zen gaur egun duen egitura berberarekin.

Euskarari dagokionez, Jesus Garmendiak²² dakarrenez, euskararen erabilera oso modu desberdinetan bizi izan da zentro horietako bakoitzean. Izan ere, frankismo-garaiko eskola horiek legez erdaldunak izan beharrekoak ziren, nahiz bertaraten ziren ikasleak euskaldunak izan. Azken urte hauetan ahalegin handiak egin dira, batez ere MEPn, karrera guztietako atal garrantzitsuenak euskaraz ematen, baina bide horretan ez da nahi adina aurreratu, enpresen aldetik eskari handirik egon ez delako. MUri salatu izan zaiona da, eta ez arrazoirik gabe, hezkuntzarena "ikuspegi produktibista hutsaren" aldetik begiratuta ikusten dela euskararen kontua. Azken batean, alternatiba hau planteatzen da kasu honetan: "gizarteari profesional hutsak eskaintzeari edo beren ezagutza teknikoak gizartearen esanetara jarriko duten gizartean errotutako pertsonak prestatzeari" lehentasuna eman, hor datza gakoa²³. Pertsonak lan-mundurako prestatu, gizarte berria egin, bai, oso ondo, baina Jose Maria Arizmendiarrietak zer zuen gogoan, enpresa lehenestea ala hizkuntza zaintzea? Ala biak, baina nola? MUrrentzat baliabide teknikoak martxan jartzea eta zentro bakoitzeko euskara batzordeak bideratzea lehentasun-maila berean doazen egitekoak direla esango da. Hori bai, ikasgaietan euskara erabiliko da, baina gaztelania eta frantsesa edo ingelesa ere etxeko hizkuntzak izango dira. Familia eleaniztunak gehiengo erdalduna elebakarra den herrialdean?

Iruzkinduz etorri garen hiru unibertsitate pribatu horien ekarria euskal gizarteak bizi izan duen testuinguru soziopolitiko eta kulturean kokatu beharra dago, beraien eragina euskal geografia osoan arras zabaldua baitago. Deustukoak pedagogia jesuitikoari darion espiritu ilustratu eta modernoa islatu eta zabaltzen du, eta bere eragin soziokulturalaren kokapena XIX. mende bukaeraz geroztik abiada bizian industrializatuz doan Bilbo inguruan egongo da, bertako goi-klaseari lotua doana. Iruñeko UNAVk, aldiz, nagusiki landatarra den eta nazional-katolizismoari lotua dagoen gizarte klerikalari modernismo aristokratikoaren txertoa emango dio. Mondragon Unibertsitateak atzean Jose Maria Arizmendieta apaizak Gasteizko Seminario Nagusian jasotako hezkuntza erlijioso-humanista du oinarri, aldi berean apostolutzara eta gizarte-arlorra irekita egongo dena. Eliza katolikoari atxikitako kristau-mugimenduetatik, beti humanismo pertsonalistaren bidetik, kooperatibismoan bilatuko du ekintzarako bidea, bere egiteko nagusia herrigintzaren alderdi nazional eta

22 "Mondragon Unibertsitatea eta euskara", *Jakin*, 100, 1997, 82 or.

23 *Ibid.*, 83 or.

linguistikoan baino gehiago ekintza sozialean jarriz. Hiru unibertsitate mota hauetan, bistan da, erabatekoa da Elizaren eragina. Karlheinz Deschner-ek (1990.9) bere *Opus Diaboli* lan sonatuko sarreraren -seguru asko Escrivá-ren *Opus Dei* gogoan duela-, Elizaren historian espainolek izan duten eragina ukaezina dela dio: "Que España ha dado mucho a la Iglesia parece algo históricamente incuestionable. Baste recordar que órdenes religiosas como la de dominicos y la de los jesuitas, pilares de la Iglesia en tiempos difíciles, fueron fundadas por españoles. Como lo ha sido también el Opus Dei que hoy goza de gran predicamento en el Vaticano".

Gipuzkoan Azpeitiko Loiolako basilika jesuitismoaren ikurra da, Nafarroan Hueskako Secastilla-n kokatzen den Opus Dei-ren Torreciudad-eko santutegia, 1975ean eraikia, aktibismo erlijioso-sekularraren epizentroa, eta laikoetan, azkenik, Arrasateko Unibertsitatea, bere erroak mundu osora zabalduak dituen kooperatibismoaren meka. Lehen biak tradizio katolikoaren baitan Euskal Herriko Vatikanoko txikiak izango dira.

Euskal Herriko hiru Unibertsitate pribatu horien azalpen laburra eman ondoen, gauza bera egingo dugu Aro Autonomikoan sortuak diren EHU eta NUP publikoekin. Sarrera gisa esan dezagun bi unibertsitate publiko hauek frankismo ondoko Aro Autonomikoan sartzeko direla Hego Euskal Herriko historiaren harian.

Valladolid-eko Unibertsitate barrutikoak izateari utzi eta, 1980an lortuko da EHUren sorrerarekin Hego Euskal Herriak bere lehen unibertsitate-barruti bakarra izatea, hiru campusetan -Bizkaia, Gipuzkoa eta Araban-, banatuko dena. Lehendik indarrean zeuden hiru probintzietako unibertsitate nagusiak eta hauei atxikitako zentro desberdinak bertan txertatuko dira. Denbora luzez erbesteratuta zegoen euskal intelligentsia orain etxeratuko da eta bere lurraldean -beti ere, Espainiako hezkuntza-sistema juridikoari atxikita-, bere emaitzak emanaz dator, beheko taulan ikus daitekeenez.

Taula 10

EHUren euskarazko liburuak sailen arabera sailkatuta (2011-2019)

Sailak	Euskaraz	Gaztelaniaz	Elebidunak	Guztira	%
Giza Zientziak	73	150	33	256	51,9
Filologia	22	18	12	52	
Filosofia	16	2	0	18	
Literatura	13	4	1	18	
Historia	14	105	11	130	
Artea	8	21	9	38	
Gizarte-Zientziak	42	71	19	132	26,8
Zuzenbidea	5	17	7	29	
Ekonomia	4	15	0	19	
Pedagogia	17	10	5	32	
Psikologia	5	4	1	10	
Soziologia	7	15	2	24	
Komunikazio zientziak	4	10	4	18	
Bizitzaren Zientziak	13	16	2	31	6,3
Osasun Zientziak	13	16	2	31	

Sailak	Euskaraz	Gaztelaniaz	Elebidunak	Guztira	%
Zientzia Zehatzak eta Materiarenak	22	9	0	32	6,5
Biologia	6	3	1	10	
Geologia eta Geografia	5	4	0	9	
Fisika, Kimika, Matematika	11	2	0	13	
Zientzia eta Teknologia	20	16	6	42	8,5
Ingeniaritza	12	10	2	24	
Arkitektura	4	6	4	14	
Informatika	4	0	0	4	
Liburu bildumak					
Euskal Literatura	11				
Limes	7				
ZIO	6				
Legeak	10				
Guztiak	170	262	61	493	

Iturria: Euskal Herriko Unibertsitatea/EHU: *Euskaraz argitaratutako liburuak, 2011-2019*, Argitalpen Zerbitzua, www.ehu.eus. Norberak moldatua.

EHUk bere lau hamarkadako historia laburrean bertako unibertsitate pribatu guztien gainetik jartzea lortu du bertan eskolatzen den ikasleria-kopuruari dagokionez. Unibertsitate pribatuetan dabilzan ikasleak % 27,9 diren bitartean, publikoetakoak % 36 dira. Erakunde eta zerbitzu publikoetan enplegatzen diren elite-taldeak, orokorrean, unibertsitate publikoetan eskolatzen dira, bereziki EHU. Salbuespen-pare bat bada, halere. Horietako bat, hain zuzen, Kultura-Erakunde desberdinetan diharduten eta gizartearen norakoa markatzen duten eta ikerketa eta dibulgazioari emana dagoen intelektualen klaseari dagokiona da, non horietako % 37,2 unibertsitate pribatuetan eskolatuak baitira eta publikoetan, aldiz, % 28,8. Enpresa pribatuen kasuan ere

antzeko zerbait gertatzen da, nahiz parean doazen, baina beti pribatuetan eskolatuak % 30,9ko portzentajearekin publikoen % 29,8koaren aurretik. Azpimarratuz gatoz Deustuko Unibertsitatea eta UNAV direla elitismoaren ildo beren eredu pedagogikoan markatzen dutenak.

Esparru pribatutik harago, sektore publikoan *Ttantak*, *Ekaia* eta *Gogoa* unibertsitate aldizkariak dauzkagu, lehen biak 1989an sortuak, Hezkuntza eta Zientzia eta Teknologiarenean sailetan, eta hirugarrena, *Gogoa*, 2001ean, Filosofiaren sailean. Hirurak euskara hutsean idatziak.

Tantakek ibilbide luzea du egina. Sei hilabetez behin zenbaki bat argitaratuz etorri da. EHU/Gipuzkoako Irakasle Eskolako Pedagogiako sail desberdinetan espezializatutako aldizkaria da, Lantinder katalogoan ebaluatua dagoena. *Gogoak* ere egoitza bera du, baina Filosofiako sailean. Logika, Kognizio, Hizkuntza eta Informazioaren Institutuak (ILCLIk) egindako aldizkaria da eta Jesus Mari Larrazabal eta Kepa Kortak gidatzen dute. Orain arteko 18 urteko bidean 20 zenbaki jarri ditu kalean, urteko bi zenbaki. Diziplinarteko izaera du. *Uztarok* ere, UEUren babesean, unibertsitate-ikurra darama, baina, aurrekoak ez bezala, izaera pribatua du.

Nafarroak, Zaragozako unibertsitate-barrutiatik askatuta, 1987an lortuko du unibertsitate publikoa izatea NUP izenarekin. Irakasleak 600 inguru dira eta lehen eta bigarren zikloetan matrikulatutako irakasleak, berriz, 10.000tik gora, horietatik gehienak (% 92) Nafarroatik datozenak eta besteak Errioxa eta EAEtik, batez ere. Gaur egun 6 Fakultate ditu eta horietan 23 gradu desberdin eskaintzen dira.

Euskarazko argitalpenei dagokienez, alde oraindik berria delako eta alde hango lurraldean euskararen aldeko sustapen publikoa ahula delako, lehen taulan adierazi bezala, euskarak oso presentzia txikia du, euskarazkoak eta elebidunak zenbatuta, % 0,12 baino ez. Gaur egun ikasleen % 33a baino gehiago euskalduna da, baina karreraren % 10a baino gutxiago ikas daiteke euskaraz. Ikasle Abertzaleak-ek salatzen duen jokabidea.

2. Administrazio Publikoetako erakundeak

Atal honetan euskal gizartea gidatzen duten administrazio publikoetako hizkuntza-politikaren barruan ekoizten diren argitalpenak aztertzen dira, gehienak izaera juridikoa dutenak eta, kasu gutxi batzuetan izan ezik, merkaturatze-maila oso mugatua edo ez-deusa dutenak. Eta hala dira, hain zuzen ere, Administrazioko mundu mugatura zuzenduta eginak direlako. Hala erakusten du Administrazioko argitalpenen titulu gehienak elebidunak, hots, gaztelaniazkoak eta elebidunak izateak, hurrenez hurren, % 47,97 eta % 38,98ko portzentajeekin, euskarazkoek ehuneko % 13,03koa baino ez duten bitartean. Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Diputazioa dira euskara hutsean titulu gehien argitaratzen dutenak % 55,33 eta % 40,77rekin.

Taula 11

Administrazio Autonomikoetako argitalpen akademikoak (2011-2019)

Administrazio Autonomikoak	Urtea	Izaera	Tituluak euskaraz	Tituluak gaztelaniaz	Titulu elebidunak	Guztira	%
Eusko Jaurlaritza	1980	Publikoa	57	50	98	205	22,93
IVAP	1983	Publikoa	7	75	8	90	10,07
Gipuzkoako Foru Aldundia	1979	Publikoa	42	23	82	147	16,44
Bizkaiko Foru Aldundia	1979	Publikoa	21	54	75	150	16,78
Arabako Foru Aldundia	1979	Publikoa	14	75	8	97	10,85
Nafarroako Foru Aldundia	1982	Publikoa	19	159	27	205	22,93
		Guztira	160	436	298	894	
			% 17,90	% 48,77	% 33,33		

Iturria: Norberak moldatua.

Taula honen aurrean zenbait ohar egin beharrea gaude, arestian emandako datuak areago zehaztuz.

Lehenik, zerrenda honetan paperez argitaratu diren liburuak bakarrik zenbatu dira, ISBN duten liburuak. Gainera, liburu hauek argitaratu direnean gutxienezko argitalpen baldintzak betetzen direla aztertu da. Hau da, ale-kopurua 500 baino gehiagokoa osatzen dutenak eta dendetan saltzeko prestatu direnak zenbatu dira. Salmenta-merkatuetara begira egin diren liburuak dira guztira eta gutxienez 70 orrialde dituztenak. Ohar hauek garbi azaldu behar dira, Eusko Jaurlaritzaren argitalpen-zerbitzuak argitalpen-aukera desberdinak erabiltzen baititu argitalpen-politikan, hain zuzen ere, barneko eta kanpoko produktu bezala berdinduta ematen dituelako. Ondorioz, argitaratzen dituen gehienak, nahiz eta ISBN erregistroa daramaten, erakunde barrurako egiten dira. Gehienak 50 eta 100 ale bitarteko botaldiak diren arren, barneko produktu hauek 70 orrialdez azpiko dibulgazioa duten liburuak izaten dira. Osakidetza, Osteba, Osalan eta Eusko Jaurlaritzako sailtako memoria, gida eta txostenek osatzen dituzte liburu txiki horiek. Merkaturako bidea jarraitzen duten liburuen artean, oraindik Argitalpen-Zerbitzu digitaleko erosketa zerbitzuan prezioa ezarrita dutenak bakarrik zenbatu dira taula honetan, honela 2.400 libururen zerrendatik taulak azaltzen duen 205eko kopurura mugatuz. Hor sartzen al da IVAP ere? Erraz jabetu daitekeenez, Argitalpen Zerbitzuak ematen dituen datuekin ez dator bat taula honetakoa. Izan ere, 2019ko EAEko Herri-Administrazioaren Argitalpen-Zerbitzu Nagusiaren memoriak azaltzen duen moduan, 107 izan baitira 2019an argitaratu diren

liburuak, 2018an aldiz 54, 2017an 71, 2016an 82 eta 2015ean 56. Gainera, azterketa estatistiko hau burutzeko datu askorik ematen ez duenez, ezin da irakurketa zuzenik egin. Hizkuntzaren trataeraren azterketa ere ez du egiten zerbitzu honek, eta kopuru absolutu horiek euskarazko, gaztelaniazko eta eleaniztuneko liburuen kopurua azaltzen dute. Gure datuek, aldiz, bestelako erregistro-kopurua erakusten dute, hizkuntza-bereizketa eginez gero, buruan eman bezala, emaitza hauek ateratzen zaizkigu: 57 liburu euskaraz, 50 gaztelaniaz eta 98 eleaniztunak.

Bigarrenik, Eusko Jaurlaritzaren argitalpenen inguruan barneko azterketa egiteko orduan, Lehendakartzatik eta Kultura-sailetik bideratzen dira euskarazko liburu gehienak. ISBN duten argitalpenetan, Euskal Herriko Unibertsitatean gertatzen den moduan, bi aro nabarmendu behar dira. Paperezko argitalpenen gutxitzearekin batera 2013tik aurrera argitalpen digitalaren bidea indartzen baita, hainbatetan paperezko argitalpenari digitala gehituko zaio, baina erakunde publikoetan digitalak paperezkoa ordezkatu du. Datua da Eusko Jaurlaritzak 2011 eta 2012 urteetan argitara emandako txosten eta memoria guztiek beren ISBN zeramatela eta horietako asko merkatura zuzentzen zirela, gehienak bi hizkuntzatan burutuak. Baina 2013tik aurrera Eusko Jaurlaritzaren argitalpenek beherakada nabarmena izango dute eta, ondorioz, argitalpenak askoz selektiboagoak izango dira eta paperean ez zeudenek beti izaten zuten PDF izaerako dokumentu digitala.

Nahiz eta taulan UZEI eta IVAPen erregistroek beren zenbaketa-kopurua azaltzen duten, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzuan argitalpena burutzen dela adierazi behar da. UZEIk 10 urteren buruan 42 hiztegi prestatu zituen. IVAPek argitaratu dituen liburu gehienak gaztelaniaz eginak dira, guztira 75, euskaraz 7 eta elebitan 8 baino ez.

Hirugarrenik, eskura dugun 2017. urteari dagokion *Eusko Jaurlaritzaren argitalpenen zerrenda*-n²⁴ oinarrituta, non urte-ekitaldi horretan argitaratzen diren tituluen zerrenda eskaintzen baita gaien arabera sailetan banatuta. Katalogoak urtez urte argitaratzen diren tituluak jasotzen ditu, kopuruaren aldetik asko aldatzen ez direnak. Honela, 2016an 103 titulu argitaratu ziren, 44 lankideren ekarpenekin. Hurrengo urtekoan, 2017koan, 107koa da 58 lankiderek. Lankide hauek sail desberdinetako adituak dira eta eskaintzen dituzten azalpenak ere gehienbat teknikoak dira. Tarteka, ordea, agertzen dira euskal kultura eta literaturgintzarekin zerikusi zuzena duten izen ezagun batzuk ere, Jesus Altuna eta Koro Mariezkurrena bikotearena edota Arantxa Urretabizkaiarena.

Iruzkinetan barneratzeko, 2017ko Katalogoa hartzen dugu oinarritzat. Argitalpenak 16 sail jakinetan banatzen dira, urtez urte eta aldaketa handirik gabe gai espezifiko hauek landuz: Lehendakartzita, Ekonomiaren garapena eta azpiegiturak, Enplegua eta Gizarte-Politikak, Osasuna eta Ekonomia, Hezkuntza, Segurtasuna, Osasuna, Ingurunea, Lurralde-Plangintza eta Etxebizitza, Kultura- eta Hizkuntza-Politika, Erakunde autonomo, baltzu publiko eta zuzenbide pribatuko erakundeen argitalpenak:

24 Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Nagusia, Gobernantza Publiko eta Argitalpenen Saila, Gasteiz 2017.

HHEE (Herri Arduralaritzaren euskal erakundea), Emakunde (Emakumearen euskal erakundea), IHOBE (Ingurumen Jaurlaritzarako sozietate publikoa), Gogora (Memoriaren, bizikidetzaren eta giza eskubideen institutua), Osakidetza (Euskal osasun zerbitzua) eta Osalan (Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea). Sail hornituenak HAAE (Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea), Osasuna, Lehendakaritza eta IHBE (Inguruaren jarduketarako sozietate publikoa) dira.

Tituluen zerrendaren barruan datozen argitalpenak oro ez dira liburuak, tartean aldizkariak ere aurkitzen baitira, 10en bat edo, hara nola: *Arrantza behatokia*, *Nekazaritza Elikagaien Behatokia*, *Sustrai*, *Gizarteratuz 56*, *Aurrera!* Berrikuntzaren eta teknologia berrien dibulgaziorako aldizkaria, *Ekonomiaz*, *Ibaialde 2017*, *Txingudi paduren albistegia*, *Administrazioa euskaraz*.

Titulu-zerrenda honetan nagusitzen den hizkuntza-politika elebitasunarena da: 110eko kopuru orokorretik, erdiak inguru -50 izenburu-, gaztelaniaz eta euskaraz emanda datoz, jakin gabe jatorrizko testua zein hizkuntzatan idatzia den, nahiz pentsatzekoa den horietako gehienak euskaratuak izango direla. Gaztelania hutsean egindakoak 43 dira eta euskaraz 17 baino ez. Eusko Jaurlaritza bere administrazio-funtzionamenduan gaztelaniaz ari da.

3. Hego Euskal Herriko erakunde pribatuak

Sail honetan kokatu ditugu argitalpenetan izaera akademikoa duten erakunde pribatuak. Zerrenda izan zitekeen bestelakoa. Nolanahi ere, adierazgarria izan daitekeelakoan gaude. Lehen begiradan ikus daitekeenez, izaera desberdineko erakundeak dira, neurri handiagoan ala txikiagoan euskara eta euskal kultura aintzat hartzen dutenak eta kasu batzuetan, hala nola Euskaltzaindia, Labayru, UEU, Elhuyar eta UZEIren kasuan bezala, euskalgintzaren alorra bere zeregin espezifikoetan lantzen dutenak. Euskarazko tituluen zutabeetan, Euskaltzaindiaren gaintetik, UEU gailentzen da 88ko kopuru absolutuarekin. Gaztelaniaz gehien argitaratu duena, aldiz, Eusko Ikaskuntza da 24 titulurekin. Eleaniztunetan, berriz, UZEI agertzen da 42ko kopuruarekin emanda, baina engainagarria da zifra hori, hiztegiak definizioz baitira elebidun eta eleaniztunak. UZEIk 1977-2019 epealdian zehar 204 hiztegitik gora burutu ditu, argitaletxe desberdinek zabaldu dituztenak.

Taula 12

Euskal kultura erakunde pribatuak (2011-2019)

Erakunde pribatu subentzionatuak	Urteak	Izaera	Tituluak euskaraz	Tituluak gaztelaniaz	Titulu elebidunak	Guztira	%
Euskaltzaindia	1919	Pribatua	65	13	7	85	23,42
Príncipe de Viana	1940	Pribatua	0	0	0	0	0,00
Eusko Ikaskuntza	1918	Pribatua	16	24	13	53	14,60
Aranzadi Zientzia Elkartea	1947	Pribatua	9	19	19	47	12,95
Labayru	1970	Pribatua	27	2	0	29	7,99
UEU/Uztaro	1973	Pribatua	88	0	0	88	24,24
Elhuyar	1974	Pribatua	13	0	6	0	5,23
UZEI	1977	Pribatua	0	0	42	42	11,57
		Guztira	218	58	87	363	
			% 60,06	% 15,98	% 23,97		

Iturria: Norberak moldatua.

Gatozen jalgitzen erakunde horietako bakoitzaren ekarria gainez gain.

Eusko Ikaskuntza Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Diputazioek 1918ko irailean Oñatin egindako Batzarrean sortutako erakunde zientifiko-kultural bat da, euskal kultura bere zentzurik zabalenean garatzeko asmoarekin bideratua. Erakunde honetako partaideak sail zientifiko desberdinetan banatuta aurkitzen dira. Berritasuna da maila ofizialean Euskal Herri osora, nola Iparraldera hala Hegoaldera, zabaltzen den erakunde bakarra dela. Erakundeko lehen lehendakaria Julian Elorza (1919-1936) izan zen. Egun, 2020ean, Ana Urkiza da, lehen emaztekoa. Erakundeak bere egoitza Donostiako Miramar jauregian du. Ikurtzat "Asmoz eta jakitez" darama. Bizitza luzea egin du, mende bat burutu berria, eta bere bidean zailtasunak ezagutu izan ditu, batez ere Primo de Rivera-ren diktadurapean eta gero frankismo-garaian, bere egitekoak Iparraldera aldatu behar izan zituenen. Eta Hegoaldean bezala Iparraldeko erbestean ere Batzar Nagusiak egiten jarraitu zuen. Protagonismo handia lortu zuen Bigarren Errepublikaren garaian Lizarrako Estatutua idazteko enkargua eman ziotenean eta Euskal Unibertsitatearen proiektua bideratu zuenean. Eusko Ikaskuntzaren sabeletik jaiotakoa da "Euskaltzaleak" elkartea Arrasaten 1927an I. Euskera Egunean. Hortik azkartuko da "Eusko Pizkundea" deitu izan zaion euskaltzaleen oldarra, besteak beste, Lizardi eta Aitzolek gidatu zutena gerrate arteko urrezko gorakadan, zeinetan,

herri-mugimenduetan oinarrituta, Euskararen Egunak eta Olerti- eta Bertsolari-Txapelketak ospatzen baitira distira handiz. Dinamika hori, ordea, gerrateak apurtzen du eta euskal kulturak ezinbestez erbeste-aldi luzerako bidea hartuko du, 1936tik 1975era arte luzatzen dena. Epealdi horretan, guztira, 149 aldizkari eman dira argitara, horietatik erdiak (% 50,68) gaztelaniaz eta euskaraz, gaztelaniaz % 37,16, beste hizkuntzetan % 8,11, eta euskaraz % 4,09 apurra baino ez²⁵. Euskal kultura nekezka bizi zen frankismoan, ez askoz airosoago erbestean, kultura-argitalpenak finantzatzeko zailtasunekin, gehienetan prekaritate-egoera ezin gaindituz.

RIEV aldizkaria (*Revista Internacional de los Estudios Vascos*) 1907an sortu bazen ere Julio Urkixoren eskutik, 1922an Eusko Ikaskuntzaren organo bilakatuko da eta 1936ko gerratea etorri arte, bera izango da aldizkariaren zuzendaria. Julio Caro Barojak hartu zion txanda 1983an. Euskara arrotza zaion Nicanor Ursua Lezaunek segitzen du zuzendaritzan 2015az geroztik. Erredakzio-Kontseiluan aurkitzen direnak, bakarren bat salbu, Euskal Herriko Unibertsitateetan ari direnak ditugu. Batzorde Zientifikoan daudenak, aldiz, bertoko batzuk salbu, kanpoko unibertsitate-ikertzaileak dira. RIEV aldizkariak bere orain arteko ibilbidean (1907-2019) 64 zenbaki argitaratu ditu. Euskaraz gutxi.

Esanez gatozenez, kultura-aldizkari gehienak erdarazkoak ziren, eta horien artean osperik gehien zutenak zeuden, *Gernika*, *Boletín de la R.S. Vascongada*, *Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos*, *Gure Herria*, *Alderdi*, *Euzko-Deya*, *Euzko-Jakintza* eta abar. Kultura-gaietan erdaraz jarduteko joera horren kontra egiten den lehen salaketa *Euzko-Gogoatik* dator Andima Ibinagabeitiaren lumatik, 1954an, Euzko Ikaskuntzaren VIII. ospakizunaren harira egindakoa: "Batzarre orietan, maizenik, gure izatearen erro eta gogo dan euskera, lotsagarriri baztertu oi izan dutelako. Eusko filologiaz, euskal-edestiaz, euskal-folkloreaz, gure erriaren agerkari guztietaz ekin diete, bañan beti erderaz"²⁶. Euskal jakintsuei euskaraz mintzatu eta idaztea eskatzen zien, "asmoz ta jakitez bai, baina euskeraz" jardunez. Euskal Ikaskuntzaren Batzarrak "antzuak" gertatzen ari zirela irizten zuen, hain zuzen ere, euskararik erabiltzen ez zelako. Aro Autonomiko honetan badu Eusko Ikaskuntzak Euskal Herriko Legelariak euskaraz argitaratzen duten aldizkaria, *Eleria* izenez 1996an sortua eta Josu Erkorekak zuzentzen duena.

Euskaltzaindia Eusko Ikaskuntzaren kumea da, 1919an sortua, eta helburutzat euskara zaindu, aztertu, batu eta hobetzea duen hizkuntza-akademia ofiziala eta, Eusko Ikaskuntzaren antzera, Euskal Herri osora zabaltzen dena. Hizkuntzaren corpusaz zein estatus sozialaz arduratzen da eta horretarako bi ildo ditu irekiak: lker eta Jagon sailak.

25 Iztueta, Paulo (2019): *Publicaciones periódicas del exilio vascos durante el franquismo (1936-1975)*, Utriusque Vasconiae, 55 or.

26 "Ataurrekoa, VIII. gn. Eusko-Ikaskuntza-Batzarraren inguruan, *Euzko-Gogoa*, 3-4, Epaila-Yorrailla, 1954, 49 or.

Lehen euskaltzainburua Resurreccion Maria Azkue (1919-1951) izan zen; 2005etik gaur arte, Andres Urrutia. Euskaltzain osoak 29 dira eta euskaltzain ohorezkoak, berriz, 33. Euskaltzaindiak bere egoitza nagusia Bilboko Plaza Barrian du.

Ezaguna denez, hasierako urteetan, gerrate aurrean bezala ondoan, ohiko batzarrak gaztelaniaz egiten ziren eta 1954an argitaratutako *Euskera* aldizkaria ere hizkuntza berean kaleratu zen. Eta hala jarraitu zuen. Andimak Eusko Ikaskuntzaren kontra egindako lehen salaketaren ondoren, U izenordearen azpian ezkututzen zen Jokin Zaitegik, oraingoan, ia osorik erdaraz idatzia zeterren 1956ko zenbakia salatzen zuen: "Zortzi idazlanetatik bi soilik euskeraz, Altube eta Lekuona euskaltzain iakuntsuenak, alegia (...) Bazterrean ugari ditugu ainitz ta agitz euskeraz dakitenek; euskeraz, ordea, urri itz egin eta idatzi oi dute (...) Euskalariak baino areago euskaldun eta euskaltzaleak behar ditugu, noski baino noskiago..."²⁷. Salaketa honi Koldo Mitxelena erantzun zion *Eganen* sei orrialdeko artikulua batean, argudiatuz ikerketa-lanetan erdara arrazoi praktikoengatik erabiltzen dela²⁸. Zaitegiren aldarrikapenari kixote-aireak hartzen zizkion²⁹. Alabaina, eztabaida honek beste norabide bat hartuko du gerra osteko belaunaldiarekin, euskara hutsean arituko diren argialetxeak nabarmen ugaltzen baitira 1960ko hamarkadan eta ondorengoaren hasieran: Gordailu, Lur eta Irakur Sail Donostian 1969an, Etor Donostian 1970ean, Elkar Baionan 1974an. Eta pentsamendu aldizkariaren artean, aipagarrienak hauek ditugu: *Euzko-Gogoa* eta *Zabal* erbestean, eta *Egan*, *Jakin* eta *Elhuyar* Hegoaldean³⁰.

Euskera aldizkaria 1920. urtetik argitaratzen da, lehen urteetan gaztelaniaz eta gero frankismoak euskarari buruzko jarrera pixka bat bigundu zuenean, 1956tik aurrera gaztelaniaz eta euskaraz, eta geroago euskara hutsean. Bertan Euskaltzaindiaren lana eta ekarpen akademikoak biltzen dira. Artikuluen kalitatea bermatzeko Idazketa Kontseiluak kanpoko ebaluatzaileen iritzia jasotzen du. Latindex katalogoan indexatu eta datu-base batzuetan (ISOC, DIALNET, INGUMA, ESCI) sartuta dago. Aitortzen zaizkion kalitate adierazleak, hauek dira: CIRC (2015): C maila; MIAR (2018): 8.0. ICDS. Aldizkariaren zuzendaria Euskaltzainburua da. Lan-taldea Adolfo Arejita, Jean-Baptiste Coyos, Joseba Lakarra, Andoni Sagarna, Patxi Salaberri eta Mikel Zalbidetik osatzen dute.

Principe de Viana gerrate-osteko lehen hamarkadan, 1940an, sortutako erakundea da. Frankismoak bere unerik gogorrena bizi izan zuen garaian argitaratu ziren bi

27 *Euskera*. Euskaltzaindiaren eta agiriak I, 1956, in *Euzko-Gogoa*, Ilbelta-Otsaila, 1956, 115 or.

28 "Euzko-Gogoa" eta "Euskera", *Egan*, 56 zk, 1956, 157-161 orr.

29 Esanez gatozenaren harira, Eusko Ikaskuntzarekin hasi eta Euskaltzaindiaren *Euskera* aldizkariarekin jarraitzen duen eztabaida honetaz gehiago sakondu nahi izanez gero, ikus Paulo Iztuetaren *Erbesteko euskal pentsamendua* (Utriusque Vasconiae, 2001, Donostia, 13-148 orr.), eta Jokin Zaitegiren lanaz Jon Diazen *Jokin Zaitegiren ekarpenak euskal curriculumean. Eginak eta asmoak* liburua, Utriusque Vasconiae, 2013, Donostia.

30 Iztueta, Paulo: "Euskararen adierazpen soziala gerraondoan (1937-1984)", in Joseba Intxausti (arg.); *Euskal Herria. Errealitate eta egitasmo*, II, 392-403 orr.

kultura aldizkari garrantzitsu, gaztelaniaz noski, *Príncipe de Viana* Nafarroan 1940an, eta *Aranzadi* Donostian 1947an. Lehena Nafarroako Foru-Diputazioaren babesean jaio zen Tomas Dominguez de Arévalo lehendakariordearen –Rodezno–ko kondearen–, eraginez, Nafarroako historia, kultura eta ondareari buruzko artikulua argitaratzeko helburuarekin: “Honra de nuestro pasado glorioso, conservación de los monumentos que nos le conmemoran, cultivo de nuevas Bellas Artes y convivencia con todo el tesoro espiritual y sentimental que pueblo como el nuestro ha de conservar y exaltar si quiera enfrentar designios nobles de perpetuidad en sus singulares características”³¹. Aldizkari honek, lehen agerpenean azaldu bezala, sail zabalak landuko ditu urteen joanean: historia, zuzenbidea, literatura, ohiturak, artisautza eta, oro har, kulturaren zabalkundea. Sail hauetan izen handiko espezialistek idatzi zuten, hauen artean Rafael Aizpun, Luis Arellano, Tomás Biurrun, José Ramon Castro, Miguel Etxebeste, Jose Maria Iribarren, Alfredo Irigaray, eta beste hainbatek. Kultura-ekintzen artean, 1953. urtetik aurrera, atzerriko eta Espainiako adituak gai desberdinez etengabeko hitzaldiak emanaz etorri ziren. Erakustaldi artistikoak ere egin zituzten. Arkeologian ere ikerketak bultzatu zituen, indusketak indartuz. Argitalpenen sailean, baditu 800 titulu burutuak eta 1.600 ikerketa zientifiko inguru bere aldizkarietan argitaratuak. Azkenaldian hainbat urtez hileroko gehigarri bat ere izan zuen, euskara sustatzeko asmoz egina. Apena nafar gizartean eraginik izan duen. Nahiz nafar erregeak euskara “lingua navarrorum” zela esan, Vianako Printzea erakundeak ez bide du aintzat hartu.

Donostiako Aranzadi Zientzia Elkartearen nondik norakoa zerbait desberdina da. Orokorrean Nafarroakoaren antzeko helburu zientifikoak ditu, baina Gipuzkoako gizarteari egokituak daudenak eta euskal kulturari hurbilagoak zaizkionak, nahiz bere hizkuntza nagusia, nafar aldizkariaren kasuan bezala, gaztelania izango den.

Aranzadi Zientzia Elkarteak irabazi asmorik gabeko elkarte zientifikoa da, Telesforo Aranzadi ikertzailearen omenez, izadi eta giza ingurunearen inguruan ikerketa zientifikoa bultzatzeko xedearekin 1947an sortua. Saileko komunitate zientifikoarentzat erreferente bat bilakatu da, Euskal Herriaz kanpo ere. Onura Publikoko Erakunde gisa onartua izan da 2001ean. Egun 1.700 bazkide ditu eta horietatik 150 diziplina zientifiko desberdinetako ikertzaileak dira. Ikertzen dituen sailen artean, hauek dira: a) Giza eta Gizarte-Zientzietan, Antropologia Fisikoa, Arkeologia, Etnografia; b) Natura-Zientzietan, Botanika, Entomologia, Herpetologia, Mikologia, Ornitologia; c) Lur eta Espazioaren Zientzietan, Astronomia, Espeleologia, Geodesia eta Geologia. Lankideen artean izen handiak datoz, historikoen artean Telesforo Aranzadi, Jose Migel Barandiaran, Jesus Elozegi, Eduardo Txillida, Manuel Laborde eta; urrezko intsignia jaso dutenen artean, Jesus Altuna, Fermin Leizaola, Pablo Areso, eta abar.

Taulan datorrenez, 47 titulutatik, gehienak gaztelaniazkoak eta elebidunak dira bederatzina titulurekin eta euskaraz 9 baino ez % 19,14ko portzentajearekin. Ezer gutxi da.

31 Ikus: <<http://www.enciclopedianavarra.com>>.

Aranzadi Zientzia Elkarateak bere argitalpenak, liburuak zein aldizkariak, lehen hamarkadetan osorik erdaraz argitaratzen zituen eta 1980. urtetik aurrera hasi ziren euskarazko lanen bat edo beste argitaratzen Antropologia eta Arkeologian espezializatutako *Munibe* aldizkarian. Zuzendaria Juan Luis Arsuaga da, eta argitaratzaile nagusia Alvaro Arrizabalaga. Batzorde Zientifikoa 29 kidek osatzen dute, horren barruan daudelarik, beste batzuen artean, Juan Maria Apellaniz, Pako Etxeberria, Alex Ibañez, Fermin Leizaola, Jose Antonio Mujika, Karlos Olaetxea, Xabier Peñalver... Deigarria egiten da Jesus Altuna baten izena hor ez agertzea. Urtero zenbaki bat argitaratzen du eta gai antropologikoetan interesatua dagoen komunitate zientifikoari zuzendua dago eta bere ekarpenak beste erakundeetakoekin elkar trukutzen ditu. Bere emaitzak sarean zintzilikatuta daude. Latindex katalogoan badator.

Egun Labayru Fundazioa dena, hasieran (1970) Labayru Ikastegia zen, babes juridikoa Bilboko elizbarrutiko fundazio kanonikoaren bidez lortu zuena. Hasierako helburua jadanik bideratua zegoen Euskalduntze eta Alfabetatzearen prozesuari abiada ematen parte hartzea izan zen. Jardun honetan parte hartu zuten Karmelo Etxenagusia, Ander Manterola eta Mikel Zarate eliza-gizonek. Aldi berean, 1971n, lagun talde batek "Elhuyar Patronatua" eratu zuen irakaskuntzaren sailean euskal kultura bultzatzeko asmoarekin. Hasiera honetan, bada, alfabetatzearen zein irakaskuntzaren arloan urrats berriak emateko bi jarduera hauek bat egiten dute Derioko Seminarioan. Geroago, 1977an, Ikastegia zena Fundazioa izatera pasatu zen.

Gaur arteko ibilbidean zuzendari hauek izan ditu: Gaspar Martinez (1977-1985), Ander Manterola (1986-2009), Adolfo Arejita (2009-), eta egun Jokin Gorozika. Hasieran langile gutxi batzuk baino ez zituenak, beharrianak handituz joan ahala, arlo desberdinetako irakasle eta ikerlariak sartuz joan dira eta egun 40 langile inguru ditu. Fundazioaren xede nagusia euskal kulturaren ondarea ikertu, bultzatu eta gizarteratzea da eta zeregin horretan arlo hauek bultzatu eta lantzen ditu: a) irakaskuntza, itzulpengintza, herri-ondarearen bilketa, euskararen normalizazio-plangintzak, etnografia, lexikografia, eta besterik. Etnografia sailaren barruan Etniker Bizkaia taldeak, Euskal Herriko beste taldeekin batera, Euskal Herriko Atlas Etnografikoa egiteko ardura darama. Bere esku dago Atlasaren idazkaritza. Derioko Euskal Bibliotekan jasotzen da Euskal Herriari eta hizkuntzari dagozkion gaien ondarea, hala nola, liburutegia, argazki-artxiboa, ikus-entzutezkoak, kartelak eta papergintza-mota guztiak. Biblioteka honek egun 60.000 liburu inguru ditu

Hizkuntzaren arloko bere ikerketa-emaitzak Labayruk jadanik 1992. urtetik argitaratzen duen eta 68 zenbakitik aurrera doan *Idatz \$ Mintz* aldizkarian eta 17 titulutik gora doan *Litterae Vasconiae* bilduman ematen ditu. Hauek dira guk, liburugintzari dagokionez, goiko taulan jaso ditugun emaitzak: guztira 29 titulu, eta hauetatik gaztelaniazko bi izan ezik, beste 27ak euskaraz. Ekoizpena, beraz, ia osotara euskarazkoa da. Taulan datorrenez, gaztelaniaz datozen 2 salbu, beste 27ak euskaraz

datoz, % 93,10eko portzentaje jasoarekin. Fundazioak bere lanerako Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Foru-Aldundiaren laguntza jasotzen du.

Arestian esan bezala, *Euzko-Gogoak* bere garaian euskara akademikoaren beharraz egindako aldarrikapenaren ondotik dator UEUren sorrera 1973an, non eta Donibane Lohizunen, eta Maurice Ravel Lizeoan egindako lehen ikastaroan nor egongo eta, berriro historiaren irri zoriontsua, euskararen erabilera akademikorako ikuspegi eszeptiko samarra erakusten zuten Jose Migel Barandiaran mahaian bere hitzaldia euskaraz ematen eta Koldo Mitxelena entzuten. Han ikusi genituen gerrate ondoko belaunaldiarekin nahaste, gerrate aurreko beste hainbat euskaltzale, Telesforo Monzon, Joan San Martin, Jean Haritxelar, Piarres Xarriton eta. UEU proiektuaren sortze eta bideratzea gerra osteko belaunaldiaren obra izan zen, zeinetan Ipar zein Hego Euskal Herriko euskaltzaleok parte hartu baikenuen, artean frankismoa azken ostikadak ematen ari zen une kritikoan. Trantsizio-garaia heltzean aldatuko du egoitzaz, Iparretik Hegora. Nola ez gogora ekarri Jean Goinetxe historialariak lehen idazkari gisa hastapenetako garai zail haietan egindako sustapen-lana?

Irabazi-asmorik gabeko erakunde bat da, egun bere egoitza Bilbon duena eta, euskarazko beste kultura-erakundeen antzera, Eusko Jaurlaritzatik jasotako diru-laguntzari esker bere proiektuari indartsu eusten diona. Izenburuak berak erakusten duenez, bere asmo betikoa Euskarazko Unibertsitatearen aldeko ekintzak eta azpiegiturak lantzen joatea da, izaera pribatuko egiazko unibertsitate erakunde bat, halabeharrez pribatua izanda, zeregin publikoa betetzen duena. Diziplinarteko hainbat esparrutara zabalitzen du bere ekintza. Urtean zehar ikastaroak ematen ditu, argitalpenen bidez liburuak eta artikulu zientifikoak merkaturatzen. Erakundea sortu eta handik lau urtera, 1977an hasi zen liburuak argitaratzen eta 1980ko hamarkadaren erdi aldetik aurrera unibertsitate batzuetarako argitalpen-zerbitzuek euskarazko liburuak atera zituzten. Bere presentzia euskal geografiako esparru akademikora mugatua baldin bada ere, sinbolikoa ez ezik, neurri batean erreala ere bada. Euskal Herria egungo erdarazkoaren pare inoiz euskarazko unibertsitate publiko bat izatera iritsiko balitz, zer nolakoa izango litzatekeen irudikatua geratuko litzateke.

EHUren liburugintza eta *Uztaro* aldizkariako artikulugintza besotik doazen bi ekintza osagarri dira eta Giza eta Gizarte-Zientzien zein Zientzia Zehatzen ikuspegi orokorra eskaintzen dute. Horregatik, bere lekuan taulak azaltzean, UEUren emaitzak jasoko ditugu, *Uztaro* aldizkariakoak ere aintzat hartuz, adierazgarriak baitira zer nolako sailak lantzen dituen jakiteko.

Euskararen alderako desplazamendua 1950eko urte-bukaeran abiatu zen 1956an, *Eusker*a eta *Yakin* plazaratu ziren garaian. Hurrengo hamarkadan goratuz joango da argitaletxe eta aldizkari berriekin. Gaur ez da eztabaidatzen, UEU 1973an bideratuz geroztik gutxiago, euskarazko unibertsitatea, bideragarria ez ezik, beharrezkoa ere badela, euskararen ezagutza eta erabilera euskal gizarte osoan ziurtatua gera

dadin. Horretarako, noski, botere politikoak lagundu behar gaituzte eta jendartearen borondate onak.

Ordorengo taula honetan 1900-2017ko epealdian argitara emandako emaitzak jasotzen dira:

Taula 13

UEUren euskal liburugintza (2013-2019)

Sailak	Urteak								Guztira	%
	2012-13	2014	2015	2016	2017	2018	2019			
Hezkuntza							1	1	2,63	
Ingurugiroa				1				1	2,63	
Soziologia				2	1	1	1	5	13,15	
Filosofia					1		2	3	7,89	
Psikologia	2							2	5,26	
Generoa			1				1	2	5,26	
Hizkuntza-larritza		1		1			1	3	7,89	
Soziolinguistika					1	1		2	5,26	
Matematika					1	1		2	5,26	
Medikuntza			1			2		3	7,89	
Ikus-entzutezkoak						2		2	5,26	
Komunikazioa										
Ekonomia			1		1	1		3	7,89	
Fisika						1		1	2,63	
Historia				1	1			2	5,26	
Literatura					1			1	2,63	
Arkitektura Ingeniaritza		1			1			2	5,26	
Artea				1				1	2,63	
Informatika				2				2	5,26	
	2	2	3	8	8	9	6	38	%	

Oharra: Norberak moldatua.

Soziologia da gailentzen den saila % 13,15eko portzentajearekin. Segidan multzo berean datoz Filosofia, Hizkuntzalaritza eta Medikuntza % 7,89koarekin, eta multzo handiago batean % 5,26koarekin, besteok: Generoa, Soziolinguistika, Matematika, Ikus-entzunezkoak/Komunikazioa, Historia, Arkitektura eta Informatika. Urtean laubost bat liburu ditu, Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzarekin. Salmenta Elkar-en kontu.

Ondorengo taula honetan 27 urteko epealdian (1900-2017) argitarata emankako emaitzak jasotzen dira. Taula honetako datuak osatzeko iturria *Uztaro* 0-100. zenbakien aurkibidean datorren artikuluzerrenda izan da, non sail bakoitzean argitaratutako artikulua eta editorialak zenbatzen baitira.

Taula 14

UEUren *Uztaro* aldizkariko emaitzak: 0-100 zenbakiak, 1972-2017

Sailak	Guztira	%	Sailak	Guztira	%
Antropologia	30	4,27	Hizkuntzalaritza	66	9,41
Arkeologia	1	0,14	Ikasketa Klasikoak	6	0,85
Artea	12	1,71	Informatika	2	0,28
Biologia eta Natur Zientziak	1	0,14	Komunikazioa eta Kazetaritza	96	13,69
Editorialak eta Uztarori buruzko gogoetak	34	4,85	Literatura	18	2,57
Ekonomia	89	12,69	Pedagogia	4	0,57
Eusko Kultur gaiak	2	0,28	Politika	18	2,56
Filologia	4	0,57	Psikologia	78	11,12
Filosofia	28	3,99	Soziolinguistika	6	0,85
Geografia	1	0,14	Soziologia	97	13,83
Glotodidaktika	1	0,14	Zinea	1	0,14
Hezkuntza	8	1,14	Zuzenbidea	26	3,70
Historia	72	10,27	Guztira	701	100

Iturria: *Uztaro*, 11, 2017. Norberak moldatua.

Eta bokazioz euskal pentsamendua lantzen den komunitate zientifikoan diziplinartekotasunaren zigiluarekin agertu da eta hor bilduko dira, belaunaldi helduagoen ondoan, zain berriko hainbat ikertzaile gazte.

Hitzaurrean "552 egile eta 601 artikulua bildu direla" esaten da. Guk 701 titulu bildu ditugu, horietatik 19 editorialak eta 682 artikulua dira. Ez gaude ziur titulu guztiak hor

ote datozen ere. Adibidez, "Ekonomia eta Enpresaren arloan 98 fruitu eman dituela orotara" esaten da³², baina guk 89 zenbatu ditugu.

Baliabide eskasiekin eta behin behinekotasunean jarduteko, inolako zalantzarik gabe, lan mardula. Eta bere ekarria aberasten duen bigarren ezaugarria da diziplina desberdinen arteko lotura organikoa egiten duela eta sailak elkarren artean elikatuz doazela. Bereizgarri hau ere bere alde du. Asko zaintzen du ekarpenen kalitatea ere. Xede horrekin sortua du aldizkariak bere Batzorde Zientifikoa, 15 adituk osatzen dutena. Gaien arabera, bi jakitunek *peer review* sistemaren bidez ebaluatzen dituzte aldizkarira heltzen diren artikuluak. Orotara, *Uztarok* Latindex-en 33 kalitate-irizpide betetzen ditu eta bere emaitzak ondorengo datu base hauetan aurki daitezke: Latindex, ENEP (B), CIRC (B), MAR (ICDS): 4,4), DICE C, ISOC-CSIC, RESH C, Inguma, Basque Databse, Aurkinet-Euskaldoc, Dialnet, Sudoc, Rebiun eta Linguistic Bibliography-n. Erredakzio-Kontseiluan 14 kide aurkitzen dira. Euskal komunitate zientifikoaren barruan ordezkariak aski zabala dagoela esan daiteke. Beste hirugarren ezaugarri bat da, hau ezin ahantzia, euskara esparru akademikoan normalizatuz joateko erabakia hartua dutela bertako ikertzaileek. Euskara da tresna, nahiz zientzien zabalkunderako beste hizkuntza batzuk ere baliagarriak diren.

Taulako emaitzak aurrean, buruan datorrena liburugintzan bezala artikulugintzan, Soziologiaren saila da eta parez pare Komunikazioa eta Kazetaritzarena, eta segidan, elkarrengandik aski hurbil, Ekonomia, Psikologia, Historia eta Hizkuntzalaritzarena, hurrenez hurren, % 12,69, % 11,12 eta % 10,27 eta % 9,41eko portzentajeekin. Bestalde, aztertuenak Giza eta Gizarte-Zientzien saillekoak dira, zeinek adierazten baitu gai horiek direla egungo euskal gizarteak bizi dituen arazo nagusiak. Horiekin alderatuta, beste gaiok portzentaje apalak dituzte, hemen sartuz Filologia, Geografia, Glotodidaktika, Informatika, Pedagogia, Politika, Soziolinguistika, Zinea eta Zuzenbidea. Aldeak alde, kontua da orokorrean gai asko harrotzen direla, 25etik gora, bere apalean diziplinartekotasunaren neurria erakusten duena.

Elhuyar 1973an sortu zuen Luis Mari Bandres, Juanjo Gabika, Jesus Mari Goñi, Andoni Sagarna eta Mikel Zalbidek osatutako taldeak. Donostiako Goi-Mailako Ingeniaritza Eskolan ibilitakoak ziren, beren gaiak euskaraz landu nahi zituzten euskaltzaleak. Bidean 29 urte egin eta gero, 2002an Fundazioaren izaera eman zitzaion. Elhuyar-en xedea da, hasieran bezala orain, euskararen normalizazioa garatuz joatea Zientzia eta Teknologiaren sailean. Hasieran zientzia eta teknikaren garapenean jardutea baldin bazen ere, egun gehiago ari dira dibulgazio-mailako zereginetan, uste baitute gizarte moderno eta aurreratu batek .baliabide modernoek berri izan behar duela aldatuz doan egoerari aurre egiteko. Horretarako zientzien dibulgazio-mailako komunikazio-lana oinarritzko gizarte-eremu batzuetara zabaltzea da, horretarako Euskadi irratian zein euskal telebistan parte hartuz eta lehen zenbakia

1974an abiatutako hileroko *Elhuyar. Zientzia eta Teknika* aldizkaria argitaratuz. Enpresa-mundua barrutik euskaldunduz joateko plangintzak ere bideratzen ari da.

Liburugintzari dagokionez, testuliburuak, material osagarriak, erreferentziakoak diren lanak burutu ditu -hauen artean atlasak, hiztegiak eta entziklopediak-, bideoak eta softwareak. Azkenaldion sektore honetan material osagarriak merkaturatuz baitatoz, argitalpen digitalari garrantzi handia ematen zaio. Azkenaldion, euskararen estandarizazioari dagokionez, ahalegin handia egiten ari da terminologia eta lexikologiaren eremuan. Esan daiteke Elhuyar Fundazioaren produktu nagusiak hiztegiak, dibulgazioko liburuak eta multimedia lanak direla. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza-Politikarako Sailburuordetzak emandako laguntzak baliatuz, euskal Wikipediaren edukia aberasteko bi proiektutan parte hartu zuen 2011 eta 2012 urteetan, eta 2012an proiektu berarekin aurrera segitzeko laguntza jaso zuen. Era berean, *Lur hiztegi entziklopedikoaren* eta *Lur entziklopedia tematikoaren* jabetza-eskubideak beretuta zeuzkan Eusko Jaurlaritzak 2011n lehiaketa publikora atera zuen lan hori, horko ekarria Wikipedian txertatzeko xedearekin, hain zuzen. Elhuyar Fundazioak irabazi zuenez, berak burutu zuen lan hori. Zenbait wikilarirekin batera Elhuyar-ek egindako lanari esker 11.915 sarrera landu ziren, eta horietatik % 80 berriak ziren. Honekin esan nahi da bai hiztegiak teknikoaren bai Wikipediaren atzean Elhuyar Fundazioa aurkitzen dela. Ez da ahaztu behar Mikel Zalbide eta Andoni Sagarna bere garaian UZEItik pasatakoak direla eta beren urratsak utzi zituztela. Elhuyar-en *Hiztegi Entziklopedikoak* eta *Harluxet Hiztegi Entziklopedikoak* UZEIrenetik jasotakotik hainbat dutela testuek berek salatzen dute.

Goiko taulan datorrenez, argitalpenetan, 13 titulu agertzen dira euskarazkoetan eta 6 elebidunetan. Ez al da oso gutxi? Eskura dugun "Elhuyar ezagutuz aldatzea, 2018 Katalogoa" lau zatitan banatzen da, honela sailkatuta: Hiztegiak, Zientzia, Irakaskuntza eta App-ak eta ePub-ak. Hiztegiak orotara hartuta, 12 kontatu ditugu: elebidunak 7, Eskola Hiztegiak 2, Euskara Hiztegiak 2, Hiztegi teknikoak 1. Unibertsitatean eta zientzia dibulgazioan, ISBN eta PDFn 37 titulu. Irakaskuntzaren sailean ez dira zenbatu irakaskuntza ez-unibertsitarioan argitaratutako tituluak, ezta, Zientzien sailean, umeentzat egindakoetan ere. Laburtuz: maila akademikoan egindakoak bakarrik zenbatu dira.

UZEI (Unibertsitate-Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxea) Donostian sortu zen 1977an Jakin taldearen eraginez eta Joseba Intxaustiren zuzendaritzapean. Hasierako taldean zientzia-alor desberdinetako adituak zeuden, horien artean Paulo Agirrebaltzategi, Fernando Mendizabal, Pello Huizi, Jose Antonio Aduriz, Paulo Iztueta, Mikel Zalbide, Martxel Aizpurua, Andoni Sagarna, Txillardeggi, Lore Azkarate, Ana Toledo, Xanti Iruretagoiena, Xabier Agirre eta geroztik etorritako belaunaldi berrikoak, teknologia berrietan trebatuak.

UZEIk bere aldamenean talde espezializatuak bildu eta elkarrekin lan egiten asmatu zuen. Irakasle-talde zabala zeukan bere inguruan euskara unibertsitatean

lehen urratsak ematen hasi zen garai hartan. Beharra zegoen eta, beste hoberik ezean, UZEIk bere behin-behinekotasunean erantzun ausarta eman zion gainera zetorkion parioari. Benetan aitzindari izan zen. Euskara gai akademikoetara moldatzeko xedearekin abiatu zen hiztegi tekniko-zientifikoak planifikatu eta lantzen, euskara gizarte-maila guztietan –bereziki maila zientifiko eta akademikoan–, erabilia izan zedin. Hasieran, denboraldi aski luzez, hiztegitintzan testu bikoitzak landu ziren, batean gai nagusi bati zegokiona artikuluen bidez landua eta bestean lexiko aniztuna. Bide paraleloak ziren biak, non hiztegian finkatutakoa testuan aplikatzen baitzen. Molde horren arabera landu ziren hasierako hiztegiak: Fisika, Kimika, Matematika, Politika, Hizkuntzalaritza, Kirolak, Ekonomia, Psikologia, Artea, Administrazioa/ Zirkulazioa, Filosofia, Enpresa, Finantzak, Biologia, Teknologia eta Zuzenbidea, besteak beste. Gerora, 1980. hamarkadaren azken aldera, hiztegiak soilik landu zituen, testuarena alde batera utzita. Egun, gai espezializatuen esparrua zabaltzen doan eran eta lanerako baliabide teknikoak aldatzen doazen neurrian, linean dauden tituluak ugaltzen doaz.

Lehen aroan, urte mugarria izan zen 1980ko hamarkada–hasiera, salaketak etorri baitziren hainbat euskaltzaleren aldetik. Erabakigarriena, hain zuzen, Koldo Mitxelena euskaltzainak *Muga* aldizkarian (1981-12-21) egindakoa izan zen, izenburutzat “Nuestra irresistible ascensión de la poesía a la ciencia” zeraman artikuluan, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza–Sailean Migel Etxenike kontseilari zela. Ordurako 450etik gorako lankidetza espezializatua zeukan bere inguruan bildua eta babes kolektibo horrek salbatu zuen trantze hartatik. Egun UZEI, 13 lankiderekin, Euskaltzaindiari atxikitako erakundea da 2019. urteaz geroztik eta bere lanaren onarpen soziala, bere isilean, goratuz doa. Bere lankidetako bat, Miren Urkia anderea, euskaltzaina da.

Argitaratu gabeko behin-behineko Katalogoan UZEIko Idazkaritzatik igorri dizkiguten datuen arabera, Zientzia sail desberdinei dagozkien gaietan landutako Hiztegi Espezializatuen zerranda 206koa da, eta horren barruan 12 BBB eta UBIrako prestatutako testu–liburuak ere aurkitzen ziren. Tituluen argitaratzaile nagusia Elkar SL izan da, eta kasu banaka batzuetan bakarrik, UZEI, UZEI/Habe, Habe eta Eusko Jaurlaritza. Paperean argitaratutako 206ko kopuru horretatik, 45 sare digitalean jarrita dauzka Eusko Jaurlaritzak linean eta beste 3 argitaratzeko bidean daude.

Taula 15

UZEIren hiztegiak arloka sailkatuta

UZEI	Sailak	Kopurua	UZEI	Sailak	Kopurua
Giza zientziak			Bizitzaren zientziak		
	Filologia	22		Biologia	11
	Filosofia	9		Osasun Zientziak	22
	Historia	3	Zientzia Zehatzak eta materiarenak		
	Artea	9		Geologia eta Geografia	5
Gizarte Zientziak				Fisika eta Kimika	6
	Zuzenbidea	31	Zientzia eta Teknologia		
	Ekonomia	42		Ingjinerutza	9
	Pedagogia	19		Arkitektura	1
	Psikologia	3		Informatika	4
	Soziologia	5		Besteak	4
	Komunikazio zientziak	1	Guztira		
					206

Iturria: UZEIko Idazkaritzatik jasotako datuak (2020). Norberak moldatua.

III. Espainia eta Euskal Herriko argitaletxe nagusien ranking-a

Azterketa hau burutzeko *El Economista Ranking de Empresas* eta *Infocif* atarietako informazioa erabili da. Datuak 2018ko urtekoak dira. *El Economista* atariak jarduera ekonomikoaren sailkapena CNA (Calificación Numérica Actividad Económica) kodigoekin burutzen du eta liburuen argitalpenari 5811 zenbakia dagokio. Taula betetzeko orduan CNAren kodifikazioa hartu da kontuan eta soilik argitaletxeak aztertu dira. *Infocif* atariak, berriz, salgai ipintzen ditu enpresen erregistro eta fakturazio-zenbakiak; gehienetan, halere, datuak publiko egiten ditu. Enpresen sailkapena egiteko garaian ez du CNAren kodifikaziorik erabiltzen, argitalpenen (*publicaciones*) jardueran sartzen diren enpresa guztiak biltzen baititu zerrenda berean, egunkariak, saltzaile txikiak eta banatzaileak ere bai. Akaso zuzenagoa da bigarren honek egiten duen irakurketa, gaur egungo enpresek taldeak osatu baitituzte liburuen sorkuntza eta salmentaren artean. Amaitzeko, esango dugu bigarren atari honetan ematen diren datu ekonomikoak enpresa bakoitzak ikuskatu dituen zenbakiak izaten direla eta auditorearen izena ere azaltzen dela.

Taulako argitaletxeen zerrenda luza zitekeen euskal euskalgintza eta kulturagintzan maila apalago batean murgildurik dabiltzan beste hainbat argitaletxe ere sartuz. Sail honetan sartzekoak dira *El Economista.es* atariak dakartzan hauek: Editorial Donostiarra SA 154. lekuan, Erein SA 184. lekuan, Zubia Editoriala 206. lekuan, Txalaparta argitaletxea SL 207. lekuan, eta Pamiela 509. lekuan. Hauek guztiak enpresa ertain eta txikitzat hartzen dira. Nolanahi ere, Hegoaldean aktiboan dauden argitaletxeak dezentze gehiago ere badira, ez gutxi nekez bizi direnak edota jarduerarik gabe lotan daudenak.

Ohar hau egin eta gero, gatozen euskal lurraldeko argitaletxe nagusi horietara, horien produkzio-sareetan mugitzen baitira elitismoaren hari luzeak, gizarte-harremanen nondik norakoan hain eragin handia dutenak.

Aranzadi argitaletxea 1998ko otsailaren 12an sortua da eta bere egoitza Nafarroako Zizur Txikia auzoan du. Enpresak 250 enplegatutik gora ditu eta 30 milioi eurotik gorako balantzea aurkezten du³³. Enpresako administratzaile eta zuzendariak 48 inguru dira. Lehendakaria Amalia Iraburu Alleque da, Lehendakariordea M. Maria Natalia, Zuzendari Orokorra C. Alejandro eta Finantza-Zuzendaria P. Jaime. Thomson Reuters (lehenago Lex Nova) da Aranzadi argitaletxearen jabea, baita liderra ere mundu juridiko eta ekonomiko profesionalen trebakuntzarako zerbitzuetan. Testu juridikoetan espezializatutako Argales-ko poligonoan finkatua zeukan enpresa Zizur Txikira aldatzeko erabakia hartu zuen 2016ko abenduaren 27an enpresako zuzendaritzak eta, aldaketa horren ondorioz, 77 langile kalean geratu ziren. Lanean segitzen dutenen kopurua 160 lagunetara jaitsi da. Nafarroako ranking-ean 88. postuan aurkitzen den enpresa hau finkatu berria da

33 Beste iturri batek zifra hau ematen du: "Mayor de 30 millones euros.

Taula 16

Argitaletxe handien fakturazioa (2018)

Postua	Enpresaren izena CNAE: (5811)	Herria	Fakturazioa 2018	Fakturazioa 2018 Infocif
1	Editorial Planeta	Bartzelona	176.616.000 €	205.290.000 € (2017)
2	Santillana Educación	Madril	146.465.000 €	106.558.000 €
3	Penguin Random House Grupo Edit.	Bartzelona	127.648.000 €	142.489.000 €
4	Comercial GrupoAnaya	Madril	123.776.000 €	125.320.000 €
5	Editorial Planeta Agostini	Bartzelona	92.261.000 €	100.076.000 €
6	Wolters Kluwer España	Madril	89.580.000 €	89.580.438 €
7	RBA Coleccionables	Bartzelona	66.312.000 €	61.924 (2017)
8	Editorial Salvat	Bartzelona	65.298.000 €	66.016.482 €
9	Oxford University Press España	Madril	58.737.000 €	ez da publikoa
10	Club Internacional del Libro Marketing Directo	Madril	58.124.000 €	58.926.000 €
11	Grupo Anaya SA	Madril	47.555.000 €	54.555.000 €
12	Editorial Aranzadi SA	Zizur Txikia	Expansión 46.337.000 €	69.942.000 €
39	Ediciones Deusto SA (Planeta Agostini)	Bilbo	>2.500.000 €* ¹	7.563.742 €
47	Ediciones Saldaña SA	Oiartzun	>2.500.000 €* ¹	5.656.725 €
56	Euskal Herriko Ikastolak Sociedad Cooperativa Europea	Donostia	>2.500.000 €* ¹	6.108.992 €
65	Grupo de Comunicación Loyola SL	Bilbo	>2.500.000 €* ¹	4.241.631€ (2017)
73	Elkar Argitaletxeak SL	Donostia	>2.500.000 €* ¹	ez da publikoa
75	Elkar Ikastolak Zerbitzuak SL	Donostia	>2.500.000 €* ¹	3.334.198 €
83	Editorial Desclee de Brouwer SA	Bilbo	>2.500.000 €* ¹	ez da publikoa
138	Editorial Ibaizabal SA	Durango	*1.000.000 - 2.500.000 € artean	ez da publikoa

Iturria: Norberak moldatua

1 Expansión ataritik hartutako datuak.

Nafarroan. Argitaletxe honek ez du batere euskal kulturaren tradizioz Euskal Herrian. Testu juridikoen argitalpen espezializatua izateak, ordea, baluke eraginik euskal gizarteko enpresarien eta eliteko zuzendarien prestakuntzan.

Saldaña argitaletxea Adolfo Saldaña Ortegak 1956an sortutako enpresa da, bere egoitza soziala Oiartzunen duena. Haur eta 10 urte bitarteko umeentzako liburuetan espezializatua dago.

Desclée de Brouwer enpresa Jose Maria Gogeaskoetxeak sortu zuen 1944an eta zazpi hamarkadatik gorako esperientzia du liburugintzan. Bilbon kokatzen da bere egoitza soziala eta 11 sukurtsal ditu. Argitaletxea Jesusen Lagundiarena izaki, bere egiteko nagusia kristau-humanismoa zabaltzea da eta gai erlijiosoetan espezializatua dago, baina era berean beste gai hauek ere argitaratzen ditu, hala nola psikologiako liburuak, hezkuntzakoak, etikakoak, enpresa-kudeaketakoak, eta euskaraz haur eta gazteentzako literaturakoak. Taulan fakturazioaren kutxatila hutsik badator ere, 3 eta 6 milioi euro ingurukoa dela esaten da. Gaztelania egiten den lurralde guztietara zabaltzen da bere lana eta horietan argitaletxe erreferente izatera iritsi da.

Deusto argitaletxea bi hamarkada geroago sortu zen 1960ko apirilaren 1ean. Honek ere Bilbon du bere egoitza soziala, baina bere eskumeneko enpresak euskal lurraldetik at ere baditu Bartzelona eta Valentzian. Bere egitekoa liburu-ekoizpenen jardueran sailkatzen da, eta hor, zehazki, agenda eta paperezko eraldakuntzen fabrikatze eta merkaturatzean, eta oparien sustapenean espezializatua dago.

Azkenik, Grupo de Comunicación Loyola izeneko taldea Jesusen Lagundikoek kudeatzen duten *Sal Terrae* eta *Mensajero* argitaletxeak elkartearen ondorioz sortzen da 2011n, azken hauetako bakoitzak beren argitalpen-lerroa segituko duelarik. Literatura-zuzendaritzakoek eta merkataritza-sailekoek batera lan egin dute bateratze-prozesuaren hasieratik bertatik eta elkarrekin hainbat argitalpen egin dituzte. XXI. mendeko gizarte-egoerara eta hizkuntzara moldatzeko talde berriak eraginda sortzen da talde hau, aldi berean, paperezkoaren ondoan argitalpen digitala ere sartuz. Taldearen buru Antonio Allende, kontseilaria, eta Jose Manuel Díaz, zuzendari orokorra, aurkitzen dira. Talde honen argitalpen-lana Santander, Valladolid eta Bilbora zabaltzen da. Bilbo handiaren ingurumari garatzen den jesuiten argitaletxe-enpresa hauek eta, bide batez, Deustuko Unibertsitateak garatzen duen pedagogia elitista eragin-gune erabakigarriak bilakatuko dira euskal lurraldetik haratago ere. Intelligentsiaren prestakuntzan pedagogia jesuitikoak Euskal Herrian jokatzeko duen protagonismoa uka ezina da, bere garaian, Emile Durkheim-ek³⁴ adierazi bezala, Frantzian izan zuenaren antzekoa. Fakturazioari dagokionez, Deusto argitaletxeak, 7.563 milioikoarekin ia bikoiztu egiten du Grupo de Comunicación Loyola-ren 4.241lekoa. Dena den, Nafarroako Aranzadi argitaletxeak bere 69.942ko fakturazioarekin erraz

34 *Historia de la Educación y de las doctrinas pedagógicas. La evolución pedagógica en Francia*, La Piqueta, Madrid, 1982.

gainditzen ditu Hego Euskal Herriko beste guztienak bateraturik ere, geroago ikusiko denez, Elkar Fundazioarena izan ezik, noski.

Izan ere, aipatuz etorri garen eta beren egoitza soziala Hego Euskal Herrian duten argitaletxe horien ondoan, Euskal Herriko Ikastolak/Sociedad Cooperativa Europea, Elkar argitaletxea eta Elkar Ikastolak Zerbitzuak zerrendatzen dira, hiru hauek Elkar Fundazioa matrizean datozenak, zeinetan orotara 14 enpresa aurkitzen baitira barneratuak. Horregatik, fakturazioaz zifra zehatzak emateko orduan zailtasunak sortzen dira. Izan ere, taulako ranking hauek osatzeko orduan enpresa-sektorea eta fakturazioa hartu dira kontuan. Baina enpresa hauen errealitatea bestelakoa da, argitalpenetan aritzen diren enpresa handi hauek enpresa-taldeak baitira. Enpresa handi hauen barnean sartzten dira, hain zuzen ere, inprimategiak, banatzaileak, liburu-dendak, handizkako saltzaileak eta saltzaile txikiak. Adibidez, Elkar Fundazioaren datuek 2018. urtean 120.062.000€ fakturatu zituela erakusten dute. Bertan sartzten dira Elkar Fundazioaren barruan biltzen diren enpresa txiki guztiak, argitalpenekin eta banaketa edo salmentekin zuzeneko harremana dutenak. Beharbada enpresa hauen irakurketa osatzeko hiru ataletan burutu beharko litzateke datu ekonomikoen irakurketa, banatzaileak eta saltzaileak argitalpen-enpresetatik bereziturik emanaz.

Taulako zenbakiek erakusten duten moduan, Elkar Fundazioak argitalpenen sektorean biltzen ditu bere enpresa txiki guztien datuak, baina hauek ez dira jasotzen CNAE 5811 argitaletxeak edo CNAE 4649 banatzaileen ranking-ean. Atal digitalak erabiliz gero, honako datuekin osatzen da Elkar Fundazioari buruzko jarduera ekonomikoa: Almacen Central de Libreria banatzaileak 17.824.142 € fakturatu zituen 2018. urtean; Arabako Elkar Kulturak 4.785.484 € eta Bizkaiko Elkar-ek 5.676.739 €; Distribuciones Pedagógicas 2006 banatzaile-enpresak 42.571.171 €; Elkar-Ikastolak Zerbitzuak SL 3.334.198 €; Emankor-ek 1.030.296€; Euskal Kulturgintza handizkako saltzaileak 66.308.485 € 2018an baina 68.246.027€ 2019an; Gipuzkoako Elkar XXI saltzaileak 5.848.532 €; Leitzaran Grafikak 3.858.439€; Nafarroako Elkar saltzaileak 2.689.962 €; UPPALI Educatio i Cultura SL.ko datuak ez daude ikusgai.

Datuen azterketa burutzeko orduan, beraz, jabetzen gara Elkar Fundazioa matrizearen eta taldea osatzen duten enpresa guztien arteko zenbakiak ez datozela bat. Enpresen ranking-a osatzeko orduan fakturazioa erabiltzen den arren, makina bat aukera eskaintzen ditu kontabilitate-ingeniaritzak halako egitura-multzo handietan, aktiboak, enpresen ondarea eta duten zorra kontuan hartuta, zifrak batera etor daitezten. Elkar Fundazioaren enpresa guztien fakturazioak 155 milioi eurotako kopurua ematen du, baina Elkar Fundazioaren zenbakiek atari ofizialetan 120 miloi baino ez dute ematen. Elkar Fundazioaren barruan fakturazio garaiena dutenak Euskal Kulturgintza eta Distribuciones Pedagógicas sozietate banatzaileak (CNAE: 4649) dira eta, hain zuzen ere, bi enpresa horietan ematen dira aktibo eta ondare-kopuruaren aldaketa nagusiak.

Taula 17

Elkar Fundazioa, Euskal Kulturgintza eta Distribuciones Pedagógicas-en fakturazioa (2017-2018)

	Elkar Fundazioa		Euskal Kulturgintza		Distribuciones pedagógicas
	2018	2017	2018	2017	2018
Fakturazioa	120.062.665 €	121.905.802 €	66.246.027 €	66.308.485 €	43.514.646 €
Aktiboak guztira	69.633.465 €	77.553.321 €	46.583.332 €	36.545.481 €	21.858.434 €
Ondarea	18.584.950 €	17.255.886 €	13.189.344 €	4.508.079 €	6.010.831 €
Zorra	22.775.629 €	27.154.761 €	14.605.707 €	13.938.560 €	3.546.439 €

Iturria: Norberak moldatua.

Bada oraindik zer argiturik merkatuan txikizkako eta handizkako saltzaile gisa ari den Uppali³⁵ enpresari buruzko xehetasunez (CNAE 4762). Uppali Abacus kooperatibaren txikizkako saltzaile-kate bat da, frankizia moduan egituratzen den 46 dendetako kate horietako bat. Uppali-k Bartzelona, Valentzia eta Balear Uharteetan osatu du bere sarea. Abacus kooperatiba da enpresa-sare honen matrizea, CNAE (4649) zenbakiaren arabera banatzailea da. *Infocif* atariaren arabera, 2017. urtean 91.219.408 eurotako fakturazioa izan zuen eta banatzailearen ranking-ean Estatuko seigarren lekuan da. Euskal Kulturgintza banatzailea, berriz, 10. lekuan da; Abacus enpresaren aktiboa 73.431.179 eurotako da; 35.893.247 eurotako ondarea du eta 19.865.195 eurotako zorra. Zaila da Elkar-ek Kooperatiba honekiko duen harremana nolako den ulertzea. Txikizkako banatzailearen sozietatearen % 50 erosi badu ere ez dugu informazio ekonomikorik aurkitu. Uppali-ren administrazio-kontseilua Maria Capilla Gallardo lehendakariak, Miguel Esnal Zalakain idazkariak, Iker Aramburu Aramendi eta Marta Rodriguez Martin kontseilariak eta ApodMancom Goncal Ruiz Perpinya-k osatzen dute.

Elkar SA. Baionan sortu zen 1974an, Iparraldeko euskaltzale batzuk 1972az geroztik bideratu zuten Elkar eta Zabal-eko Hegoaldeko euskaltzale errefuxiatu batzuk proiektu berean elkartzearen ondorioz. Donostiako Elkar-ek 1977an abiatu zuen bere joana eta ibilbide luzea du egina. Eta, ikusi bezala, bere sektoreko enpresa handien artean

35 Banaketa-enpresan Web ataritik hartua: "Uppali nace en 2013 de la mano de Abacus cooperativa, de trayectoria reconocida desde 1968 en el sector del ocio y la educación. Abacus apuesta por dinamizar el territorio y transformar la experiencia y el consumo cultural, educativo y de ocio de forma colaborativa, responsable y sostenible. Actualmente cuenta con 46 establecimientos en Cataluña, Valencia y Baleares. En 2015, el Grupo Elkar (fundado en 1972), líder en distribución de libros a nivel nacional, entra en el capital de Uppali al adquirir el 50% de la sociedad. Elkar posee, además, una cadena de 18 establecimientos propios y otras 20 librerías adheridas, así como su propio grupo editorial".

kokatua jarraitzen du. Liburugintzako zirkuitu osoa besarkatzen du eta gure artean badira diotenak monopolioa etxekoa denean ona dela. Alabaina, azken hamarkada honetan Penintsulako lurralde zabaletan dabil merkatu bila. Diogunaren lekuko, Elkar Fundazioak bere matrizekoak ditu Almacén Central de Librería SL. eta Uppali Educació i Cultura SL. Osasun onaren seinale ote da hori ala, ezinari ezin eutsiz, makulu bila dabilen batena? Berrikitan jakin dugu Baionako Elkar liburu-denda lekuz aldatu dela St. André plazatik Katedral ondoko Gouverneurs kalera pasatuz (*Enbata*, 05-11-2010). Aldaketa adierazgarria.

IV. Ohar zenbait gogoeta gisa

1. Komunitate zientifikoan esan izan da ikertzaileari ez dagokiola aterabideak ematea, proposamenak egitea baizik. Agintaritza politikoari legokioko, bada, bere eskumeneko gizarte-harremanak gidatu eta jendartearen beharrak zaintzea. Gu, behin honetara ezkerro, gogoeta batzuk egitearekin konformatuko gara. Idazleak dira, fikziozko esparruan zein ez-fikziozkoan, pentsamenduaren mundua lantzen dutenak, egiazko eliteak.

Gure lana gehienbat euskarazko liburugintzaren gizarteratze-prozesua aztertzea mugatu gara zer sail eta zer gai landu diren neurtuz. Jakingarria gertatu da egiaztatzea gaztelaniak eta katalanak garrantzi handiagoa ematen diotela Ez-fikzioari Helduen fikzioari baino, lehen kasuan 14,1eko aldearekin eta bigarrenean 6,8koarekin, 6. taulan egiazta daitekeen bezala. Alderantziz gertatzen da euskara eta galizieraren kasuan, hauetan Helduen fikzioa lehenesten baita, oso nabarmen galizierazko ekoizpenetan 34ko aldearekin; euskarazkoetan paretsuan dator 2,5eko aldearekin. Datu horiek erakusten dute, batetik, Estatu baten babesa duten hizkuntza nazionalak oso ondo zaintzen dutela ekoizpen zientifiko-akademikoaren esparru zabala osatzen duten Ez-fikzioaren saila, hor eskolatzen baitira gizarte-egiturak kontrolatzen dituzten intelektual elitistak -bistaratzen ez direnak-, eta mota bateko zein besteko goi-agintari publikoak; eta bestetik, Estaturik gabeko hizkuntza minorizatuak dauzkagu, kasurik onenean ere, nahiz koofizialtasunaren onarpena izan, elebitasun desorekatuan bizitzera kondenatuak daudenak. Eta hauxe da euskara eta galizierarekin gertatzen dena, eta baita katalanarekin ere, nahiz ez maila edo testuinguru soziolinguistiko berean. Salbuespen-moduko honek nabardura bat edo beste egitera garamatza, gaztelaniarekin batera beren Komunitate Autonomikoetan hiru hizkuntza koofizial horien egoera soziolinguistikoa ez baita berdina. Hiruak dira gaztelaniarekin batera koofizialak, baina horietako bakoitzak bere historia berezia du eta hori azpimarratzea beharrezkoa da horietako bakoitza zein egoera diglosikotan aurkitzen den jakiteko.

Katalana hamar milioi biztanlek mintzatzen duten hizkuntza da, Katalunian bertan ez ezik, Balear Uharteetan eta Andorran, Aragoiko ekialdean, Italiako Alguer hirian eta Frantziako Rosellon eskualdean ere egiten dena. Erabiltzen duten horietatik erdia inguru bertakoak dira. Baina Katalunian ere gaztelania da gehien erabiltzen den hizkuntza, baita bertako gehienen ama-hizkuntza ere. Katalana mintzatzen dakitenak biztanleriaren % 84,7 dira, irakurtzen dakitenak % 90,5 eta ulertzen dutenak, berriz, % 97,4. Bestalde, Idescat-ek emandako datuen arabera, 2008an beren buruak gaztelaniarekin identifikatzen zituztenak % 55,30 ziren, katalana bere hizkuntza bezala zeukatenak, berriz, % 49,3. Hizkuntzaren arabera identifikazio-faktore horrek izan lezake bere eragina katalan nazionalismoaren baitan. Nolanahi ere, katalana hizkuntza ilustratua da, gaztelaniaren parekoa edo, agian, areagokoa ez-fikziozko argitalpenen esparruan. Kontuan izan behar da Valentziako Komunitateak ere berea duela katalana eta, ondorioz, bere erabileraren esparru geografikoa zabaldu egiten dela.

Galizieraren bilakaera soziohistorikoa guztiz da bestelakoa. Gehienbat landa-eremuetan garatu da eta neurri txikiagoan hirietan, hemen gaztelaniaren eraginez. Hiririari baino gehiago lurrari lotua egon da. Galiziera da hizkuntza koofizialen artean proportzioan gehien erabiltzen den hizkuntza eta, aldi berean, gizarte-onarpen apalena duena. Berezitasun honen arrazoia da, Katalunia eta Euskal Herri industrializatuetan gertatzen zenaren alderantziz, Galizian ez zela gaztelaniazko hiztunen immigrazioa gertatu eta gaztelaniarekiko ukipen-gunea mugatua izan dela. Fenomeno honek eragin erabakigarria izango du egungo hizkuntzen egoera soziolinguistikoan. Biztanle gehienek (% 91,04k) dakite eta % 80k erabiltzen dute, baina gizarte-harremanetan sarbiderik ez du. Aro autonomikoan galizierazko alfabetatze-saioak bideratu diren arren, asko dira oraindik galizieraz irakurtzen eta idazten ez dakitenak. Gaienera, hiriburu handietan, hiztunen kopurua murriztu egin da.

Euskal Herria, Galiziaren antzera, hedadura apaleko lurraldea da, Hegoaldean bi Komunitate Autonomikoetan zatituta daude lau eskualde dituen eta Iparraldean hiru, departamentu autonomikorik gabe eta bertako hizkuntzaren onarpen ofizialik gabe jarraitzen dutenak. Administrazioaren aldetik zatitua daude, baina Zazpiak Bat izanez segitzen dute, non, Katalunian bezala hemen ere, indartsua baita mugimendu nazionalista. Lurraldez txikia da gurea, biztanlez antzeko. Bere osotasunean, Euskal Herriak 2.887.463 biztanle ditu, honela banatuta: EAEn 2.641.805 lagun, Nafarroako Komunitatean 509.002 eta Iparraldean 236.652. Hizkuntzari dagokionez, XX. mendearen azken alditik aurrera, autonomia-aroan sartuta, euskararen ezagutza goratuz joan da. EAEn, 2011ko datuen arabera³⁶, euskaldunak % 36,4 ziren, euskaldun pasiboak -ulertu bai baina hitz egiteko gaitasunik ez dutenak-, % 19 eta, azkenik,

erdaldunak % 44,3. Hasierako 1981-2011 epealdi horretan, euskaldunen kopuruak gora egin zuen, 1981ean % 21,9koa zena 30 urteren buruan, 2011n, % 36,4ra iritsiz. Geroztik, ordea, euskarak behera egin du nola ezagutzen hala erabileran. Egun, % 34koa da euskara dakiena eta askoz apalagoa, % 13 ingurukoa baino ez erabiltzen duena. Biztanleriaren % 77,1ek etxean erabiltzen duen hizkuntza gaztelania da.

Erakunde publikoetatik erronka moduan esaten da EAEn euskaldunen kopuruaren igoera eman dela eta fenomeno hori hezkuntza-sistemari zor zaiola. Datua da irakaskuntza ez-unibertsitarioan 1994/95 ikasturtean D ereduan matrikulatutako ikasleak % 26,28 zirela eta 2017/18koan, berriz, % 65³⁷. Gorakada honek ekarri bide zuen, bereziki 16 eta 34 urte-bitarteko gazteen artean beren buruak euskalduntzat duten herritarren kopurua % 25etik % 71ra eta euskara gaztelania adina edo gehiago erabiltzen dutenena % 12tik % 30era pasatzea 1991/2016 epealdian. Azalpen honetan datu estatistikoak nola azaltzen diren da kontua.

EUSTATEk dakarrenez³⁸, 2020-2021 ikasturteko datuetan oinarrituta, ageri da EAeko irakaskuntza ez-unibertsitarioko ikasleria 380.697koa dela, eta horietatik gehienak (% 67,19) D ereduan eskolatzen direla eta antzeko portzentajea dutela (% 66,16) Batxilergoa eredu berean egiten ari direnak. Lerro horretatik elikatzen da, hain zuzen, unibertsitate-ikasketak euskaraz egiteko ikasle berriek egiten duten eskea. Behar beste azpimarratzen ez den datua da, ordea, Lanbide Hezkuntzako ikasle gehienek gaztelaniaz burutzen dituztela beren ikasketa-urteak, % 18,15koa baino ez baita D ereduan eskolatzen den sail honetako ikasleria. Bestalde, ikasleak zein saretan eskolatzen diren oinarritzat hartzen bada, daukagu % 52,09 publikoan dabilzala eta % 47,90 pribatuan. Bien artean ez dago halako alde handirik. Baina galdetzen bada zein serek eskolatzen duen gehien D ereduan, hemen bai areagotu egiten da aldea, hezkuntza publikoak ikasle-kopuru gehiago eskolatzen baitu D ereduan % 63,91ko portzentajearekin pribatuak % 37,09rekin baino. Datu adierazgarriak aurrerantzean nondik jo antzemateko.

Aurrerapausoak eman diren arren, aitortu behar da hezkuntza-sistemak euskalduntzen duen ikasleen kopurua mugatua dela, ez inola ere legerian aurreikusia dagoenaren neurrikoa, esaten baita ikasle guztiek beren eskolatzeepea bukatzean euskaraz jakinda irten behar dutela. Eleaniztasunaren ezarpenak lurra jan dio euskarari edo, zuzenago esanda, lan-mundura zuzendutako gazteria-sektore zabal bat euskararen unibertsotik at utzi da. Adibide honek agerian uzten du

37 Iradi Arrieta, Josu: *Hezkuntzaren panorama*, 2019, Eustat, Gasteiz, 76 or.

38 EUSTAT, Datu-basea, 2020-2021. Ikus: Hilario Murua (coord.), Jon Altuna, Pauli Dávila, Ana Eizagirre eta Iñaki Zabaleta: *El modelo vasco de Formación Profesional. Claves de su reciente evolución*, EHU/UPV, 2020, 549.559 orr.

gizarte-desberdintasunak gainditzeko meritokraziaren ezina. Hizkuntza-defizitaren aldetik kaltetuena Lanbide-Eskola da, horko ikasleria.

Euskarak galiziera ea katalanarekiko badu beste berezitasun bat ere, eta da, azken bi hauek latinetik datozenak izaki, oso hurbilekoak direla eta itxura batean ikasteko errazagoak edo, beste modu batera esanda, beste albo-hizkuntzekiko ezein kidetasunik ez duen hizkuntza baten ikasketak zailtasun bikoiztuen aurrean jartzen gaituela. Eta hau, noski, desenkusa polita izan liteke ikasten ez ahalegintzeko edota desinteresa ezkutatzeko, batez ere, nahiz eta legez hizkuntza biak koofizialak direla aitortzen den aldi berean, gaztelaniak beharrezkotasunaren zigilua daramanean eta bertakoa norberaren hautuaren arabera denean. Hizkuntza-eskubideak ez bide du berdin funtzionatzen estatu-hizkuntza hegemonikoen eta Komunitate Autonomikoetako hizkuntzen kasuan. Ikusi bezala, koofizialtasuna ezarria den Komunitate Autonomikoetan, Euskal Herrian bezala Katalunian, gaztelania nagusitzen da eta elebakarrak izan, beren eguneroko zereginetan estatu-hizkuntza nazionala erabiltzen dutenak dira, hots, hizkuntza hori baizik ez dakitenak. Eliteko gutxiengo batek bakarrik erabiltzen du bigarren hizkuntzaren bat bere jardura profesionalan. Elebitasuna -are eleaniztasuna-, aplikatu, hizkuntza minorizatuetan aplikatzen da.

Azkenaldion, ordea, hizkuntza minorizatuen egoerak behera egin bide du. *Plataforma per la Llengua*-k emandako 2020ko datuek erakusten dutenez, katalanaren erabilerak beherakada orokor eta azkarra ezagutu bide du. Bartzelona hirian eta metropoli-eremuan % 35eko batek hitz egiten du katalana, Valentziako metropoli-eskualdean % 34,8k, eta Palman % 41,4k. Madrilen Diputatuen Batzarrean Celáa Legea onartua izan eta hurrengo egunean, Alba Domingo kazetariak *El Confidencial*-en 2020-11-20ko datarekin³⁹, portzentaje ezkor horiek ematen zituen eta bertan, Filologia Katalaneko Josep Murgades katedradunaren iritzia jasoz, esaten zuen katalana hizkuntza-egoera larrian aurkitzen zela eta gobernu independente batek ere ezingo zuela ziurtatu haren biziraupena. Hizkuntzalari katalanak hori badio, zer esan dezakegu katalanaren aldean egoera askoz okerragoan aurkitzen den euskarari buruz? Abisua emana dago. Kataluniatik dator. Irlandan gaelerarekin gertatzen den antzeko zerbait ari da gertatzen hemen ere. Berandu baino lehen mugi gaitezen. Euskararik gabeko erdaldun Estatu subirano batek zer balio lezake euskaldun sentitzen garenontzat?

2. Berrogei urte paseak dira hizkuntza minorizatuen koofizialtasuna aldarrikatu zenetik. Zenbait arlotan aurrerapauso nabarmenak eman direla aitortu ezinik ez da. Baina arazoa xedetzat Euskal Herri osoaren berreuskalduntzea duen hizkuntza-politikaren

39 "El catalán, en emergencia lingüística: "Ni siendo independientes sobreviviría", 20-11-2020.

hegitik begiratzen bada, bistan da oraindik oso urruti dagoela jomuga amestu hori. Esan berriak gara irakaskuntza ez-unibertsitarioan gehiengo handi bat gaztelaniaz eskolatzen dela eta, ondorioz, ez dela betetzen legeria ofizialak agintzen duena, obligaziozko eskola-urteak bukatzean ikasle guztiek euskaraz jakinda amaitzea, alegia. Bestalde, unibertsitate-ikasketak euskaraz egiteko ikasle berriek egiten duten eskeari administrazioaren aldetik ez zaio erantzuten bere osotasunean. Lan-mundua gaztelaniaz ari da gehienbat, zerbitzu publikoak berdin, administrazio publikoa zein pribatua ere euskaraz baino gehiago gaztelaniaz.

EHUn, errektore-aldaketa dela eta, Pako Sodupe *Garan* (2010-11-13) salatzen zuen aurkeztu den hautagai bakarrak, Eva Ferreirak, "gaitasun mugatua duela euskaraz".

Zer egin daitekeen galderari erantzutea ez da erraza. Ezin esango da herritarren aldetik bost ahalegin eta gehiago egin ez denik eta ahalegin horrek, alde edo moldez, jarraipenik ez duenik. EAEn EHErekin abiatu zen euskararen aldeko herri-mugimendua 1979an, segidan 1983an EKB etorri zen, 1997an egun ere indarrean jarraitzen duen Kontseilua, 2018an Euskaraldia, azken hau Eusko Jaurlaritzak hurbiletik sustatzen duen plataforma eta onarpen zabala duena. Nafarroan EAB (Euskararen Aldeko Batzarra) 1986an agertu zen, 1991n Oinarriak plataforma, 2018an Tuterako Euskaren Aldeko plataforma. Eskualde- eta herri-mailan sustatutako beste hainbat ekimen ere bideratu dira, baina jasotzen diren emaitzak ikusita, esan dezakeguna da euskararen berreskurapenean ez dela urrats kualitatiborik eman eta bai atzerapausorik, lehentxo azpimarratu dugun bezala. Sos bat da. Herri-mugimenduen loaldian ote gaude?

3. Euskal Autonomia-Estatutuak (1979) 6. artikuluan ezartzen du euskara, gaztelania bezala, ofiziala dela eta guztiek dutela hizkuntza biak ezagutu eta erabiltzeko eskubidea, baina ez *beharra*. Hizkuntzaren eskubidea bai, ez beharrezkotasuna. Hor datza gakoa. Hezkuntzaren Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legeak (1982) Euskal Autonomia-Estatutuak 6. artikuluan datorrena garatzen du eta, hezkuntza-sistemari dagokionez, 4 mailatako hizkuntza-ereduak finkatzen ditu: A, B, D eta X. Bistan da euskarazko irakaskuntza ziurtatzeko eredu bakarra D eredu dela, praxiak berak erakutsi duenez. Eskola-urteak amaitzean ikasle guztiak euskara jakinda gizarteratu behar direla aldarrikatzea, ordea, asmakizun juridiko hutsa da, guztien gaineratik alderdi politikoen interes jakinak nagusitzen baitira, elitekoek lehenesten dituztenak.

Ezarrirako legerian oinarrituta, Eusko Jaurlaritzak euskararen garapenari buruzko jardunaren segizioa egiteko Euskara Batzordea bideratua dauka, zeina Erakunde publikoetako Kultura- eta Hizkuntza-Politikako sailburuek izendatzen baitituzte Batzorde osoko kideak eta hauek izango baitira diru-laguntzak nola banatu eta zein proiektu hautatu erabakitzen dutenak. Zoritxarrez, ordea, Eusko Jaurlaritzako zein Foru-Diputazioetako elitekoek gehienbat gaztelaniaz funtzionatzen dute. Datuek

berresten dute goi-kargu publikoak dituzten erdiak ere ez direla euskara dakitenak. Indarrean dagoen hizkuntza-politikak aspalditxo egin zuen porrot edo, bederen, ez ditu eman espero izandako emaitzak.

Beste batzuen artean, batez ere, Hizkuntzaren Soziologian aitzindarietako bat den Joshue Fishman judua izan da Eusko Jaurlaritzarentzat aditu-lanetan aritu izan denetako bat, eta gehienbat berak markatutako irizpideari jarraituz egin du bere ibilbidea erakunde autonomikotik gidatu den politika soziolinguistikoak. Xabier Erizek (1999, 1-2) euskararen eta erdararen arteko botere-orekaz zer pentsatzen zuen galdetu zion, eta erantzuna hau izan zen: “Ongi da, zuk badakizu euskararen etorkizuna egoera egonkorrean soilik dela posible. Beraz, egoera egonkorrik ez baldin baduzu ez duzu diglosiarik, ez eta elebitasunik ere. Eta nik ez dut uste posible denik euskaldunentzat beren historiarekin, eta bere baldintza demografiko, kultural eta politikoeekin, ehuneko ehunean euskaldun bizitzea. Alta, ez dut uste bere buruari helburu hori jarri behar diotenik. Gaztelania euskaldunen bizitzatik kanpo uztea beste konponbide politiko bat da, egungo egoeran ezinezkoa dena. Beraz, borroka hori borrokatzea baino, izugarri garestia zatekeena eta ezinbestean galduko zena, esku artean duzuen beste arazoari heldu beharko zenioke, mendebalderatzearekin batera bizitzen ahalegintzean alegia (...) Beraz, kontua muga funtzionalak zehaztea da. Politika sozialak bi hizkuntzak onartzea behar luke izan. Nire ustez hori eztabaida baliotsua litzateke zeuen artean egiteko”.

Argi dago, adituak markatzen duen aterabidea posibilitismoarena da, botere autonomikoak eskaintzen duen aukerarekin bat datorrena. Hautu horrek eman ditzakeen emaitzak eman ditu, euskara mendeko egoerara makurtuz.

Euskal Herri euskaldun baten proiektu politiko batean sinesten den edota aintzat hartzen den heinean, duela berrogei urte finkatutako legeria-markoa gaingiduta dagoela eta herri-errebindikazioak beste maila politikoago batean kokatu behar direla uste dutenak ere badira, zeinetan euskal gizarteko herritar zein hiritar guztientzat berdintasunez aplikatu beharko litzateke beharrezkotasunaren legea. Gizarte-bizitzan beharrezkoa ez den hizkuntzak ez du etorkizunik. Praxi politikoak hala erakusten du. Baina honek botere autonomikotik harago doan estatu-boterera garamatza eta nolabaiteko etena eskatzen du. Frantzia eta Espainiako estatu-nazioek -demokratikoak deituek-, legez zein bortxaz ezarri zituzten frantsesa eta gaztelania, eta horretarako -ez bakarrik baina bai nagusiki-, hezkuntza-sistema baliatu zuten guztien gainetik beren hizkuntza nazionala ezartzeko. Guri zuzenean dagokigun adibide historiko honetaz xehetasunez jardunak gara *Hizkuntza-asimilazioa eta Hezkuntza-sistema Euskal Herrian* (Iztueta, 2016) eta interesatuak hor aurkituko du kasu bietan hizkuntza-asimilazioaren prozesua nolakoa izan den. Eta prozesu honek, bide batez, erakutsi lezake berreskurapenarena nolakoa izan litekeen ere. Prozesu honetan, abiapuntu demokratikoa lege-markoaren sakoneko aldarrikatzea izan liteke. Nolanahi ere, gabiltzan zuhur, Josep Murgades katalan

zuhurraren abisua hor geratzen baita: "... ni siquiera la independencia o un gobierno catalán con plenas competencias podrían llegar a asegurar la supervivencia del catalán"⁴⁰. Hori da gaztelaniaren hegemoniak ezartzen digun morrontza. Hori bada katalanaren patua, pentsa zer etorkizun letorkiokeen haren aldean bizi-osasuna ahulagoa duen euskarari.

4. Irakaskuntza-sistema, berdin beste erakunde guztiak, gizartearen barruan daude edo, zuzenago esanda, gizartea bera dira. Une jakin batean gizarte-talde eta klase ezberdinen artean ematen diren harremanen egitura hertsiki loturik dator irakaskuntza-sistemari. Egitura horretan oinarritzen da zein gizarte-eredu diseinatu, zein irakaskuntza-eredu aplikatu, gizartean dauden talde edo klaseen arteko desberdintasunak legezatzeko nolako eliteak irudikatu.

Historian zehar irakaskuntza-sistema bat baino gehiago eman dira. Carlos Lerenak⁴¹ eskolastikoa, liberala eta teknokratikoa aipatu zituen. Irakaskuntza-sistema Europan XIII. mendean eratzen da eta historian zehar hiru ezaugarri berezi hartzen ditu. Lehena eredu eskolastikoari dagokiona da, Estatu monarkikoaren babesean garatzen dena, zeina osatzen baitzuten eliza-aparatuan barneratuak zeuden kleriko intelektualek. Bigarrena liberala da, Frantziako Iraultza burgesarekin (1789) abiatzen dena, zeinetan estatu-burokrazia, gizarte zibila eta intelektualen aparatua nagusitzen baitira, azken honetan sartuz aparatu ideologikoen kudeaketa, irakaskuntza, komunikabideak, literatura, artea, zientzia eta lanbide profesionalak. Azken hauek osatzen dute intelligentsia liberala eta hauek daukate edozertaz hitz egiteko eskubidea, Raymond Aron-ek (1964, 300) zioenez, ez hainbeste gai jakin bati buruz duten ezagutzengatik, betetzen duten lanbideengatik datorkien autoritate moralarengatik baizik. Hirugarren fasea, teknokratikoa, Espainian, esanez daukagunez, Hezkuntzako Lege Orokorren aldarrikapenarekin abiatzen da 1970ean, zeinak islatzen baitu 1960ko hamarkadan gizarte espainola sarturik dagoela eraldakuntza-prozesu sakon batean, maila demografiko eta ekonomikoan, industrigintzak nekazaritzari gain hartzen dion garaian, sektore honetako langileak emigrazio-bidean jarriz. Gizarte-prozesu hau bideratuko dutenak, hain zuzen, gobernuan dauden Opus Dei-ko teknokratak izango dira. Laugarren fasea neoliberalismoaren besotik zabaldu den globalizazioaren fenomeno da, zeinetan hainbat gizarte-aldaketa bizitzen ari baikara: maila intelektualean individualismoaren gorespina eta diskurtso unibertsalen ukazioa, ekonomian deslokalizazioa, informazio-sare zabalaren mundu-hedapena, zientzia aplikatuetan era guztietako teknologia eta roboten iraultza, eta gehiago. Yuval Noah

40 Alba Domingo, op. cit.

41 *Escuela, ideología y clases sociales en España*, Ariel Sociología, Barcelona, 1986, 109-119 orr.; 224-225 orr.; 237-238 orr.

Harari-k (2018) esatera, adimen artifizialaren iraultzak *Sapiens* gizakia *Homo Deus* bilakatzeko bidean jarri gaitu. Etorkizunean algoritmoek aginduko dute, datuek esango digute zer egin, zer ez. Egun hainbeste aldarrikatzen den demokrazia bera ere politikagintzaren eremutik desagertzeko zorian legoke. Aipatu historialariak (Ill, 2018, 406) dixit: “Esto implica que, a medida que las condiciones de procesamiento de datos vuelvan a cambiar en el siglo XXI, la democracia podría decaer e incluso desaparecer. Puesto que tanto el volumen como la velocidad de los datos están aumentando, instituciones venerables tales como las elecciones, los partidos y los parlamentarios podrían quedar obsoletas, y no porque sean poco éticas, sino porque no procesan los datos con suficiente eficiencia”. Ekonomia-lari batzuk hasiak dira 2050eko hamarkada inguruan erabaki politikoak aditu-taldeek -elitekoek-, hartuko dituztela aurreratzen. Jakin beharko da bereizten gizarte-arazo baten alderdi teknikoa eta etikoa⁴².

Hezkuntza-sistemak prestatzen dituen elite profesionalak jarraituko ote dute etorkizunean ere gizarte-desberdintasunen erreprodukzioan parte hartu eta gidatzen, meritokraziaren graziak banatzen? Estatu Batuetan desberdintasun ekonomikoaren gaia puri-purian egon zen garaian, hirurogei eta hirurogeita hamarreko hamarkada-hasieran adituek zioten adimen-koizientearen irizpidean oinarritzen zen meritokraziaren aplikazioak behe-mailako ikasleriaren berdintasuna ekarriko zuela eskola-urteak bukatzean. Uste zen hezkuntzaren bidetik etorriko zela gizarteko desberdintasunak gaindituko zituen berdintasuna. Teoria honek, bere garaian Samuel Bowles eta Herbert Gintis-ek (1972, 103) salatzen zuten bezala, kritika zorrotzak jaso zituen eta soziologo funtzionalisten baieztapen meritokratikoez porrot egin zuten. Ez dirudi Erresuma Batuan ere arrakasta duenik, hango hezkuntza-sistema ere ez baita mota desberdinetako gizarte-gatazkak gainditzeko gauza izan. Hezkuntza-sistemak ez ditu ezabatzen, bai erreproduzitzen, gizarte-desberdintasunak. Euskal Herrian, ez bakarrik irakaskuntza ez-unibertsitarioan, baita unibertsitate pribatuetan ere erreproduzitzen da gizarte-klase hegemonikoen zerbitzura ari den eliteen kasta hori, iruzur-mota gehienetan sartuta dagoena eta familia-klanen loturak dituen. Hau esatean ez dugu ezer asmatzen, hor daude lekuko gisa hainbat argitalpen-gunetatik egindako salaketa-lanak, besteak beste, *Ardi Beltzakoak*, *Ahoztar Zelaietaren* liburuak, prentsakoak. Demokraziak beste ezer baino lehenago etikoa izatea eskatzen du.

Donostian, 2020ko azaroaren 22an

42 Sota, Ramon: “Politikariak, teknikariak, herritarrak (eta robotak”, *Gaur*8, 2010-11-14, 10 or.

Bibliografia

- AMEZAGA, Josu (2010): "EHUren pegatina", *Gara*, 2010-11-24.
- ARON, Raymond (1964): *La lutte des classes*, Gallimard, Paris.
- ARTETXE, Karmele (2011): *Euskararen aurrerabidea zientzia eta goi mailako esparruan*, Soziologiako Euskal Kuadernoak/Cuadernos Sociológicos Vascos, Eusko Jaurlaritza.
- BILBAO, Begona (2003): *Curriculuma eta kultura Euskal Herrian*, Utriusque Vasconiae, Donostia.
- BILBAO, Begoña; PEREZ URRAZA, Karmele eta EZKURDIA, Gurutze (2004): *Euskal curriculuma ala euskal dimentsioa curriculumean?*, Utriusque Vasconiae, Donostia.
- BOWLES, Samuel eta GINTIS, Herbert (1972): *La meritocracia y el "coeficiente de inteligencia": una nueva falacia del capitalismo*, Cuadernos Anagrama, Barcelona.
- CALLAHAM, William J. (2002): *La Iglesia Católica en España (1875-2002)*, Crítica, Barcelona.
- CONNECTA (2010): *Euskarazko argitalpenei buruzko VI. txostena*, Euskadiko Editoreen Elkarte, Eusko Jaurlaritza, Kultura Saila, Gasteiz.
- DESCHNER, Karlheinz (1990): *Opus diaboli. Catorce ensayos irreconciliables sobre el trabajo en la viña del Señor*, Yalde, Zaragoza.
- DEUSTO, Universidad de Deusto (2019): *Catálogo de Publicaciones 2019*, Deusto Digital, Bilbao.

- DIAZ EGURBIDE, Jon (2013): *Jokin Zaitegiren ekarpenak euskal curriculumeanm. Eginak eta asmoak, Utriusque Vasconiae*, Donostia.
- DOMINGO, Alba (2010): "El catalán, en emergencia lingüística: "Ni siendo independientes sobreviviría", *El Confidencial*, 20-11-2020.
- DURKHEIM, Emile (1982): *Historia de la Educación y de las doctrinas pedagógicas. La evolución pedagógica en Francia*, La Piqueta, Madrid.
- EREIN argitaletxea (2019): *Literatura. Katalogoa*, Donostia, <erein@erein, eus>
- ERIZE, Xabier (1999): "Joshue Fishamani elkarrizketa", *BAT Soziolinguistika Klusterra*, 32 zk., Donostia.
- EZKURDIA, Gurutze (2004): *Curriculum eta ingurunea Euskal Herrian*, Utriusque Vasconiae, Donostia.
- FEDERACION DE GREMIOS DE EDITORES DE ESPAÑA (2018): *Comercio interior del libro en España*, Ministerio de Cultura y Deporte, Madrid.
- GARMENDIA, Jesus (1997): "Mondragon unibertsitatea eta euskara", *Jakin*, 100 zk., 82-85 orr.
- GIMÉNEZ TOLEDO, Elea <ed.> (2018): *La edición universitaria española. Análisis de la producción editorial de libros*, Gobierno de España, Ministerio de Cultura y Deporte, Madrid.
- GREMIO DE EDITORES DE EUSKADI/FEDERACION DE GREMIOS DE EDITORES DE ESPAÑA (2018): *XIV Informe de la edición en euskera 2018*, Eusko Jaurlaritza, Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, Gasteiz.
- GREMIO DE EDITORES DE EUSKADI/FEDERACION DE GREMIOS DE EDITORES DE ESPAÑA (2017): *XIII Informe de la edición en Euskera 2017*, Eusko Jaurlaritza, Kultura eta Hizkuntza Politika Saila.
- GUENAGA, Galder eta ZURBANO, Mikel (2017): "Ekonomia eta Enpresaren arloko euskarazko produkzio zientifikoa *Uztaron*", *Uztaro*, 100 zk., 59-61 orr.
- HARARI, Yubal Noath (2018a): *Sapiens. De animales a dioses*, Debate, Barcelona.
(2018b): *21 lecciones para el siglo XXI*, Debate, Barcelona.
(2018c): *Homo Deus*, Debate, Barcelona.
- IBINAGABEITIA, Andima (1954): "Ataurrekoa, VIII. gn. Eusko-Ikaskuntza-Batzarraren inguruan", *Euzko-Gogoa*, 3-4 zk., Epailla-Yorrailla, 49 or.
- IKASELKAR (2018-2019): *Ikaselkar Ikasmateriala*, Donostia.
- IZTUETA ARMENDARIZ, Paulo (1985): "Euskararen adierazpen soziala gerra-ondoan", in Joseba Intxausti (zuz.): *Euskal Herria. Errealitate eta egitasmu. Realidad y proyecto*, II, Lan Kide Aurrezkia, 392-403 orr.
(1996) *Euskal intelligentsia kimatuaren orbelak*, Kutxa fundazioa, Donostia.
(2001) *Erbesteko euskal pentsamendua*, Utriusque Vasconiae, Donostia.
(2015) *Zabal-en isuria (1973-1976). Ezker abertzalea paradigma berrien aurrean*, Utriusque Vasconiae, Donostia.
(2016): *Hizkuntza-asimilazioa eta Hezkuntza-sistema Euskal Herrian*, Utriusque Vasconiae, Donostia.

- (2019) *Publicaciones periódicas del exilio vasco durante el franquismo (1936-1975)*, Utriusque Vasconiae, Donostia.
- IZTUETA ARMENDARIZ, Paulo eta Jokin APALATEGI (2015). *Euskal pentsamendu berritzailearen sorrerak. Zabal. Testu hautatuak*, Utriusque Vasconiae, Donostia.
- IZTUETA AZURMENDI, Ibai (2014): *Euskal kultura eta hizkuntzak: diskurtsoak eta Hego Euskal Herriko liburu-ekoizpena eta euskal/espainol ardatzaren argitan*, Doktore tesia, Cognitive Science and Humanities: Language, Communication and Organization, 1-458 orr. EHU, Donostia.
- JIMENO, Roldan (1997): "Euskara eta euskal kultura Nafarroako Unibertsitatean", *Jakin*, 100 zk., 60-61 orr.
- MITXELENA, Luis (1956): "Euzko-Gogoa" eta "Euskera", *Egan*, 56 zk., 157-161 orr.
- MURUA CARTÓN, Hilario (coord.). Pauli Dávila, Ana Eizagirre, Iñaki Zabaleta: *El modelo vasco de Formación Profesional. Claves de su reciente evolución*, EHU/UPV, 2020.
- OTAEGI, Juan (1996): "Enseiukarrean aldizkaria", *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 15 zk., 1996ko uztaila, 65-68 orr.
- PeEI (2015): *Panorámica de la edición española de libros 2015. Análisis sectorial del libro*, Ministerio de Educación, Cultura y Deporte, Madrid.
- PEREZ URRAZA, Karmele (2004): *Curriculuma eta testuliburu Euskal Herrian*, Utriusque Vasconiae, Donostia.
- SORRARAIN, Genaro (1984): *Catálogo de Obras Euskaras*, Caja de Ahorros Vizcaína, Bilbao.
- SOLA, Ramon: "Politikariak, teknikariak, herritarrak (eta robotak)", *GAUR8*, 2020-11-14.
- TORREALDAI, Joan Mari (1993): *XX. mendeko euskal liburuen katalogoa (1990-1992)*, Gipuzkoako Foru Aldundia.
- (2009) "Euskal liburugintza 2007", *Jakin* 170, 11-48 orr.
- (2017) "Euskal liburugintza 2017", *Jakin* 235, 107-130 orr.
- (2018) "Euskal liburugintza 2016", *Jakin* 226, 93-109 orr.
- URRUTIA, Andres (1997): "Euskara Deustuko Unibertsitatean", *Jakin*, 100 zk., 47-54 orr.
- UZTARO aldizkaria (2017): "Uztaro. 0-100 zenbakien aurkibidea", *Uztaro*, 100 zk., UEU, Bilbo, 111-167 orr..
- UZTARO aldizkaria (1990-2004). "Uztaro 0-50 zenbakien aurkibidea", UEU, Bilbo, 1-19 orr.
- VINSON, J. (1891-98): *Bibliographie de la langue basque. Complement et Supplément*, I-II, Paris.
- ZAITEGI, Jokin (1956): "Euskera. Euskaltzaindiaren lan eta agiriak", *Euzko-Gogoa*, Ilibeltza-Otsaila, 115 orr.
- ZALLO, Ramon <dir.>. (1995): *Industrias y Políticas culturales en España y País Vasco*, Servicio Editorial Universidad del País Vasco, Bilbao.

07

EITB Taldea

Josu Amezaga Albizu

Komunikabideek gizartean duten garrantzia inork gutxik jarriko du zalantzan. Ugariak dira XX. mendean zehar garrantzi hori aztertu eta aletzen saiatu diren teoria eta ekarpen zientifikoak. Haietan birsorkuntza kulturala zein akulturazioa, talde nortasunaren eraikuntza, boterearen legitimazioa zein demokraziak beharrezkoa duen eztabaida publikoa, ideologia eta alienazioa, hizkuntzaren ezarpen zein biziberritzea, gizaldi berrien sozializazioa, publizitatearen bidez ekonomiaren dinamizazioa, eta abar luzea aipa genitzake gehien aztertu diren arloen artean. Hortaz, justifikatua dirudi Euskal Herriko eliteen inguruko lan honetan EITB ere fokatzeak, bera baita gaur egun gure herrian finkatutako komunikazio talderik handiena.

Hala ere komunikazioaren panorama oso aldakorra dela ezin da ahaztu. Azken hiru hamarkadetan abiada handia hartu dute aldaketek, eta aipatu analisi gehienak egin ziren garaiko komunikazio ereduak eta gaur egungoak oso ezberdinak dira. Besteak beste, herrialde bateko komunikazio sistemak bertako gizartean eragiteko duen ahalmena aipa dezakegu. Izan ere sareak, telekomunikazioak eta globalizazioak kolokan jartzen ari dira sistema nazional horiek gizartean duten presentzia. Euskal Herrian errazago ulertuko dugu hori beste toki batzuetan baino, gure komunikazio sistema beti izan baita ahula. Ahulezia horretan, euskal komunikazio sistema propioa eraikitzen hasteko ahalmena izan dugunean ere (batik bat frankismoaren ostean) Euskal Herrian presentzia handiena zuten komunikazio sistemak Espainiatik eta Frantziatik etorritakoak ziren. Hau azaltzeko, hona datu bat: hamar euskal herritarretatik zortzik kontsumitzen du, egunero, Espainiako edo Frantziako komunikabideren bat; eta lau inguru dira Euskal Herriko komunikabideren bat kontsumitzen dutenak (Amezaga Albizu, 2017). Errealitate honi azken urteotan Internet eta komunikazioaren multinazionalak irabazten ari diren espazioak gehitzen badizkiogu, EITBk, bere bakarrean, euskal gizartean eduki dezakeen pisu erreala hobeto kokatuko dugu.

Bere baitan euskarri ezberdinetako komunikabideak hartzen dituen taldea izanik, EITB zuzentzen edota beren kokapenagatik EITBn erreferentzialak direnen formakuntza aztertzean arreta berezia jarri diogu komunikazioaren alorreko formakuntzari. Jakina, lanbide ezberdin ugari biltzen dira EITBn; baina komunikazio ikasketak dira nagusi, geroago ikusiko dugunez. Komunikazioa unibertsitate mailako formakuntza gisa noiz, nola eta zein asmorekin abiatu zen begiratzera eraman gaitu egitate horrek. Gure inguruan, Frantzia gizartearen aldaketarekin kezkatutako elite intelektual aurrerazaleak izan ziren kazetaritza akademiaren mailara eraman zutenak; Espainian aldiz Estatuak eta Elizak deliberatu zuten, *statu quo*-a mantentzearen, kazetariak beren ildoen barruan formatu beharra. Geroago, unibertsitate publikoen etorrerak (Euskal Herrian EHUrenak bereziki) monopilia kendu zien, eta komunikatzaileak formatzeko espazioa murriztu. Nabarmena da desplazamendu hori EITBn.

1. Irrati eta Telebistari buruzko historia apur bat

EITBren oraingo errealitatea ulertzeko, nola sortu zen eta zein testuingurutan garatu den ulertu beharra dago. Eta honek, erakundeak bere baitan hartzen dituen medioen historiari begiratu arin bat ematea ere badakar (telebista, irratia eta Internet).

Lehenik eta behin, gogora dezagun telebista komunikabide berri samarra dela. Espainian 1956an abiatu zen, frankismo betean. Frankismoak interes handia zuen tresna hartan, bere menderakuntzaren legitimaziorako zein bere menpeko lurraldea espainoltzeko baliabide izugarria izanik. Baina garai hartako Espainia ekonomia ahuleko eta autarkikoko herrialdea izanik, berandu eta astiro zabaldu zen. Horren ondorioz, 1960ko hamarkadaren amaieran, oraindik etxeetan % 40an baino ez zegoen telebista-gailurik. Frantzia aldiz jadanik Bigarren Gerraren aurretik hasiak ziren emanaldiak. Gerrak eten egin zuen tresna berriaren garapena ordea, eta Paris askatu arte ez ziren berriro emanaldiak hasi. Orduan lehen telebista konpainia sortu zen 1949an. Garapenak denbora behar izan zuen Pirinioetatik iparraldera ere jauzi egiteko, baina Espainian lehen gailuak zabaltzen hasi zirenerako, 1957an, Frantziako populazioaren % 50ak bazuen tresna berrirako sarbidea. Geroago, 1960ko hamarkadaren amaieran, jadanik Frantziako etxeetan % 90era iristen zen telebista.

Irratiaren garapena lehenagokoa da: XX. mendearen hastapenetik aurrera hasi zen garatzen, eta gizartean harrera handia izan zuen mendearen erdirako. Interneten historia, azkenik, berriagoa da: labor esanda, azken hiru hamarkadetako kontua.

Hala irratia nola telebistak ezaugarri bat partekatu dute European: biak ala biak jabetza publiko-estataleko tresnak izan dira denbora luzean zehar. Izan ere, Amerikako Estatu Batuetan ez bezala, Europako irratigintza lehenik eta telebistagintza geroago ez dira pribatuak izan azken hamarkadetara arte. Bistan da mundu osoan hartu dutela Estatuak bi tresna hauen gaineko eskuduntza (arauketaren zein emakiden bitartez),

argudio ezberdinetan oinarrituta: batetik, zerbitzu publikoaren izaera azpimarratzen da: irrati zein telebistak onura publikorako tresnak izan daitezke, gizartearen kultura, formakuntza eta parte-hartze politikorako ezinbestekoak; bestetik, nazioaren eraketarako (bereziki hizkuntza eta nortasunari lotua) tresna garrantzitsuak dira; azkenik, ondorio politiko zuzenak eragin ditzaketen baliabideak dira (eta, esan gabe badoa ere, eragiteko ahalmen hori hobe botere politikoaren esku egotea, beste inoren esku baino).

Irrati eta telebistaren izatearen zio hauei laugarren bat kontrajarri zitzaien, merkatutik, 1970eko hamarkadan, neoliberalismoaren hastapenetan, hain zuzen: negozio handirako aukera, publizitatearen erakusleho erraldoiak ziren neurrian. Honekin hasi zen, Europan, merkatuaren eta Estatuaren arteko lehia. Lehia horretatik, orobat, merkatua atera zen irabazle, irrati eta telebistaren pribatizazioarekin. Batetik, audientzia handienak eskuratu dituzte medio pribatuak; bestetik, merkatuko arauetara makurrarazi ditu medio publikoak (audientzien lehiera bereziki), zerbitzu publikoaren izaera erabat desitxuraturaz. Azken urteetan, bestalde, areago irauli da egoera: irrati eta telebista pribatuak Estatu-nazioaren mailakoak izan diren hamarkadetan zehar, Estatuak aukera izan du haien gainean nolako edo halako kontrol bat ezartzeko, legeria ezberdinen bitartez. Merkatua globalizatu delarik, ordea, ikus-entzunezko edukien merkatuak ere bide beretik jo du, eta gaur egun maila globalekoak diren eta Estatuaren kontrolpetik gero eta urrunago dauden eragileek pisu handia dute eduki horien kontsumoan: Netflix, Amazon Prime zein antzekoak ditugu horren adibide.

Interneten historia oso bestelakoa izan da. Hasieratik sortu zen Estatuaren kontroletik kanpo (Castells, 2001), eta horrek areagotu egin du Estatuak komunikazioaren eremuan boterea galtzea.

Esan dugun bezala, Espainian frankismo betean garatu zen telebista, baita irratiaren zati garrantzitsu bat ere. Horren ondorioz, demokraziaren tradizio handiagoa zuten beste herrialde batzuetan bi medio hauetan debate politikorako eginkizuna garatzen zen bitartean (horrek gobernuaren alderdikierarik erabat ekiditen ez zuelarik, hala ere), irrati eta telebista espainolak zuzen zuzenean izan ziren diktaduraren menpeko. Honek jite zehatz bat eman zion irrati-telebistagintza publikoari, diktadorea hil eta handik ia mende erdira oraindik ondorioak dituena. Adibide gisa, esan daiteke EiTb sortzeko legea, 1982an onartua, asko oinarritu zela garai hartan Espainian indarrean zegoen ereduan, zeinean irrati eta telebista publikoari oso autonomia txikia ematen baitzitzaien. Lege hori da oraindik, gogora dezagun, EiTbren jarduna arautzen duena, aldaketarik apenas izan baitu azken lau hamarkadetan. Horrela, gobernuaren kontrol politikoa errazten duen gobernantza sistema batek arautzen du.

2. EiT Bren sorreraren testuingurua

Esan dugun bezala, 1982an sortu zen EiT B. Batetik, irekidura garaia zen, eta frankismoaren ostean komunikazioaren eremuan ez eze gizarte osoan gertatzen ari ziren aldaketa handiak. Komunikabideei dagokienez, prentsa berria indartsu ari zen (aipagarrienak *Egin* eta *Deia* egunkariak izanik), diktadurari esker ia monopolioa izan zuten komunikabideei (*El Correo Español* eta *Diario Vasco* besteak beste) lehia eginez.

EiT B sortu zelarik, ez zegoen Euskal Herrian telebista egiteko tradizioirik, eta erakunde berriak leku ezberdinetatik ekarri zituen lehen profesionalak zein zuzendariak (Agirregomoskorta, 2020). Oso denbora gutxian, halaber, langile ugari kontratatu behar izan ziren; eta neurri batean urte gutxi lehenago sortutako EHU, eta beronen barruan Informazio Zientzien Fakultatea, hornitzaile garrantzitsu bihurtu ziren.

Aipamen berezia merezi du hemen EiT Bren zuzendaritzaren eta botere-gune politikoaren loturaren auziak. Lehen unetik, eredu gobernuzalea nagusitu da erakundearen Zuzendaritza Orokorrean¹. Lehen unetik eta 2009ra arte, izan diren Zuzendari Orokor guztiak Eusko Jaurlaritzari edota gobernuan egon den alderdi politikoari zuzen-zuzenean lotuta egon dira, kasu gehienetan komunikazioan alde aurretiko esperientziarik izan gabeak (Amezaga Albizu, 2013).

3. Komunikazio-ikasketak Euskal Herrian

Erakunde handia eta konplexua da EiT B. Bere mila langile inguru oso lanbide ezberdinetan banatzen dira: zuzendariak, administrariak, teknikariak, kazetariak, zerbitzu ezberdinetako langileak eta abar luzea. Haien formazioa, beraz, oso anitza da.

Egiturazko plantillari² erreparatzen badiogu (Eusko Jaurlaritza, 2020), ikusiko dugu EiT Bko lanpostuen ia erdiek (% 47) goi mailako formakuntza eskatzen dutela. Beste alde batetik, lanpostuen ia erdia ere (% 46) erredakzioetan kokatzen da (PKF-Attest, 2020), eta uste izatekoa da sail horietan komunikazioaren arloko formakuntza izango dela nagusi. Horregatik, egokia iruditzen zaigu komunikazioaren arloko formakuntza unibertsitarioaren izaerari pasarte batzuk eskaintzea.

Oso modu ezberdinetan heldu zaio European zehar komunikazioaren arloko formakuntzari. Herrialde batzuetan (Erresuma Batuan, adibidez) komunikazioa orokorrean eta kazetaritza zehazki propio lantzen dituen unibertsitate mailako formakuntza egituraturik ez da izan duela gutxira arte, eta komunikatzaileen

- 1 2020ko izendapenarekin, gobernuaren eta EiT Bren zuzendaritzaren arteko loturaren tradizioa berreskuratu egin dela pentsa daiteke.
- 2 "Plantilla" hitza modu generikoan erabiltzen dugu hemen, Administrazio Kontseilukideak ez diren gainerako pertsonak izendatzeko.

formakuntza lanbidearen praktikaren tradizioan garatu izan da. Beste herrialde batzuetan aldiz, kazetaritza lehenik eta ikus-entzunezko komunikazioa geroago unibertsitate mailako gradu izan dira, oso aspalditik (ANECA, 2005).

Honekin batera, beste bereizketa bat ere ezar daiteke unibertsitate mailako komunikazio ikasketetan, oro har unibertsitate ikasketetan ezar daitekeen berbera: unibertsitateko formakuntza elite batentzat gordetzen duten ereduak, batetik; eta formakuntza hori gizarteko ahalik eta sektore zabalengana hedatzea bilatzen duten ereduak, bestetik.

Euskal Herriari gagozkiolarik, unibertsitate mailako formazioaren tradizioa izan da, eta eredu elitista zein masa ereduak izan ditugu; mugaren alde bakoitzean eredu bana. Frantzia Dick Mayk, Karl Marxen bestengusu eta Emile Durkheimekin batera *Collège Libre des Sciences Sociales* ikastetxearen sortzaileak, kazetaritza eskola bat sortu zuen Parisen, 1899an: *École Supérieure de Journalisme*, maila honetako munduko lehena. Formazio laiko, sozial eta errepublikanoa eskaini asmoz, diziplina unibertsitario berria hasieratik agertu zen zientzia politikoari lotua (*ESJ Paris*, d. g.; Goulet, 2009). Orduetik hona mende bat baino gehiago igaro bada ere, oraindik orain komunikazio ikasketak, Frantzia, lehiakortasun handiko eta plaza eskaintza txikiko ikasketak dira, gehienbat *Haute École* izenekoetan ematen direnak.

Espanian aldiz, arras jatorri ezberdina dute komunikazio ikasketek. 1920 eta 1930eko hamarkadakoak dira lehen lanbide eskolak, eta oso izaera ezberdina zuten. Gerra garaiak bultzatuta, *Seminario Nacional-Sindicalista de Estudios de Periodismo de Gipúzcoa* (1937), *Escuela de Periodismo Mundo Obrero* (1938), eta *Escuela de Periodismo Juventudes Socialistas* (1938) sortu ziren (Hernández & Marañón, 2016). Gerra irabazita, Estatuaren eta Elizaren eskutik sortu ziren eskolak: Madrilgo *Escuela Oficial de Periodismo* (1941), Prentsaren Zuzendaritza Orokor frankistaren menpekoa. Geroago, Opus Dei izan zen komunikazio ikasketei akademian sarbidea eman zioena. 1952an Escrivá de Balaguer-rek 1952an Iruñean sortu zuen unibertsitatean (garai hartan *Estudio General de Navarra* izenekoan) zuzenbide ikasketak ezarri ziren lehenik; medikuntza eta erizaintza geroago (1954); ondoren filosofia (1955); eta kazetaitza laugarren postuan (1958), *Instituto de Periodismo* eskolarekin (Barrera, 2001). Handik atera ziren, beraz, Espainiako eta Euskal Herriko lehen kazetari tituluak. Handik gutxira Elizaren hierarkiak bere alea jarri zuen, eta *Escuela de Periodismo de la Iglesia* sortu zuen Espainiako Apezpiku-Batzarrarak (1960).

Ikusten denez, Espainiako elite politiko-erlijiosoak oso argi eduki zuten komunikatzaileen formakuntza beren esku hartzearen garrantzia. Gerora, unibertsitate ezberdinak hasi ziren komunikazio ikasketak (gehienbat kazetaritza) eskaintzen (Oliva Marañón, 2014). Une honetan Espainiako 46 unibertsitateetan eskaintzen dira kazetaritza ikasketak (Frantziako 14 zentrutatik oso urrun beraz).

Euskal Herrian, beraz, Opus Dei-ri lotutakoa izan zen komunikazio mailako formakuntza eskaintzen hasi zen lehen unibertsitatea. Handik ia hogeitaz urtera Bilboko

Unibertsitateko Informazio Zientzien Unitatea ireki zen, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoaren menpe. Unitate hura Fakultate oso bihurtu zen 1981ean, jadanik EHUren baitan. Hasiera hartan Informazio Zientzietako lizentziatura eskaintzen zen. 1996an bi adar bereiztu ziren: Kazetaritza batetik, eta Publizitatea eta Harreman Publikoak bestetik. Hauei Ikus-Entzunezko Komunikazioa gehitu zitzaien 1997an, eta izen horiek mantendu zituzten 2010ean lizentziaturak gradu bihurtu zirenean.

Hego Euskal Herriko beste unibertsitate batzuk ere komunikazio ikasketen arlora batu ziren: 2005ean, Mondragon Unibertsitatea (Eskoriatzan, Ikus-Entzunezko Komunikazioko lizentziaturarekin), eta 2009an Deustuko Unibertsitatea (Donostian, Komunikazioko graduarekin).

Honez gero beraz, komunikazio ikasketen eskaintza handia dago Hego Euskal Herrian (Iparraldean oso bestelakoa da egoera). Unibertsitateen pisuari dagokionez, ondoko taulan ikus daitezke unibertsitate bakoitzean graduatutako ikasle kopuruak:

Taula 1

Komunikazio Zientzietan graduatuak, 2018/2019 ikasturtean, Euskal Herriko unibertsitateetan

	Ikus-entzunezko Komunikazioa	Kazetaritza	Publizitatea eta Harreman Publikoak	Komunikazio Zientziak orotara	Ehunekoak
EHU	74	127	91	292	54
UD	38	-	-	38	7
MU	45	-	-	45	8
UNAV	39	72	55	166	31
Orotara	196	199	146	541	100

Iturria: Ministerio de Educación y Formación Profesional. Norberak moldatua

Ikus daitekeenez, unibertsitate publikotik ateratzen dira, gaur egun, komunikazio ikasketetan graduatzen diren gazteen erdia baino gehiago. Kontuan hartuta MUK eta DUK azken 10-15 urtean baino ez dituztela ikasketa hauek eskaini, esan daiteke gaur egungo Euskal Herrian formakuntza hau duten profesional gehienak, unibertsitate publikotik ateratakoak direla.

Unibertsitate publikoa (Bilboko Unibertsitatea lehenik eta EHU geroago) berebiziko eragile bihurtu zen, beraz, Hegoaldeko Euskal Herrian frankismoaren ostean sortu ziren komunikazio egitura berriak profesional bezala hornitzeko.

Hau, bestalde, fenomeno zabalago batean kokatu beharra dago. Santiago de Pablok azaltzen duenez (Pablo & Rubio Pobes, 2006), hasieratik bertatik izan zen EHU masa-unibertsitatea. Haren aburuz, 1960ko hamarkadatik aurrera Espainian izandako politikari jarraitu zion euskal unibertsitate publikoak. Politika hark ordura arte unibertsitateak elite politiko, ekonomiko eta kulturalak birsortzeari emandako lehentasunarekin hausten zuen. Haien ordeztu, garai hartan gertatutako hazkunde demografiko eta ekonomikoari erantzun nahi zioten unibertsitate publikoek, gizarteko mugikortasuna bultzatzearekin batera. Horren adibide gisa, honako datua ematen du de Pablok: 1956an 170.000 ikasle zeuden Espainiako unibertsitateetan; 1999an aldiz, 1.600.000 ikasle. Horrela, historiagile beraren arabera, Alemaniako eredura hurbiltzen zen Espainiako unibertsitate sistema, eredu elitistagoetatik aldentuz.

EHU testuinguru horretan jaio zen. Eta bere historiaren ebaluazioa egitean, hainbat dira lau hamarkadatan euskal gizartean utzi duen emaririk handiena, hain zuzen, populazioaren zati handi bati formakuntza jasoa eta gizarteko kohesioa eman izana dela nabarmentzen dutenak, genero berdintasunarekin eta euskarari emandako lekuarekin batera (Madinabeitia Ezkurra et al., 2018). Datu gisa, esan dezagun gaur egungo EAEko zein Nafarroako gazteen (25-34 urtekoen) % 56k eta % 51k, hurrenez hurren, unibertsitate mailako titulazioak dituztela. Portzentaje horiek Europako Batasunakoaren oso gaineratik daude (% 40), eta OECDko herrialdeekin alderatuz gero, Korea, Japonia eta Kanada baino ez daude kopuru horietatik gora (European Commission, d. g.; Ministerio de Educación y Formación Profesional, 2020). Formakuntzako ekarpen hori, neurri handi batean, unibertsitate publikoaren emaria izan da.

Unibertsitate mailako formakuntzaren zabalkuntza honek, bestalde, bat egin zuen frankismoaren osteko irekidura politikoarekin; eta, ondorioz, erakunde berrien sorrerarekin.

Testuinguru horretan kokatzen da, beraz, EiTbren sorrera. Neurri handi batean, EHUK formatu zituen EiTbn zein erregimen politiko berrian sortu eta garatu ziren komunikabide berrietan lanean jardungo zuten profesional ugari (*Egin, Euskaldunon Egunkaria, Deia* eta beste hainbat. EHUK eta gainerako euskal unibertsitateek euskarazko komunikazioari egin dioten ekarpena, beste nonbait aipatua dugu (Amezaga Albizu, 2020).

Ezin da ahaztu, bestalde, formakuntza horretan hizkuntzak izan duen lekua. EHUko komunikazio ikasketen lehen unetik euskara presentzia irabaziz joan zen unibertsitatea bera euskaldundu ahala. Nafarroako Unibertsitatean komunikazioko formakuntza gaztelania hutsez ematen da, Deustuko Unibertsitatean gehiena gaztelaniaz ematen da, eta Mondragon Unibertsitatean euskaraz. Gaur egun, EHUko komunikazioa ikasten ari diren ikasleek % 40 inguruk euskal lerroan ikasten du, eta % 60 erdal lerroan. Hegoaldeko unibertsitate guztiak hartzen baditugu, esan daiteke komunikazioa ikasten duten lau ikasletik bat euskara hutsez ari dela ikasten.

Hizkuntzaren datua garrantzitsua da EiTbko profesionalen formakuntzaren jatorria ulertzeko. Izan ere EiTbko medioetan lan egiteko euskara jakitea ezinbesteko baldintza izan da askotan, eta meritua beste hainbatetan. 2014tik aurrera, bestalde, euskara jakitearen eskakizuna zabaldu egin da, baita gaztelerazko medioetako plantilletan ere.

4. EiTb taldeko zuzendarien eta erreferenteen formakuntza

EiTb taldearen azterketa burutzeko EiTb barneko erakundeetako pertsonak erregistratu dira, hala Administrazio Kontseiluan ibilitakoak nola enpresa ezberdinetan lanean dabilzanak. Lehen multzoko 20 erregistro jaso dira gure datuetan, eta bigarreneko 57. Azken hauen artean, bestalde, bi maila bereizi ahal ditugu: batetik, nolabaiteko ardura karguren bat dutenak (atalen bateko zuzendaritza edo zuzendariordetza), 42 lagunekin; bestetik, korrespontsalak agertzen dira, 15 lagunekin.

Irakurketa zuzena egiteko, EiTbren egitura hartu behar da kontuan. Administrazio Kontseiluak ez du, zenbait gaitan modu ofizialean EiTbko arduradun nagusi izan arren, benetako botere eraginkorrik. Hilean behin bizpahiru orduz biltzen den erakundea da, neurri esanguratsuan Eusko Legebiltzarreko alderdien ordezkari gisa jarduten duten eta askotan medioaren ezagutza txikia eta informazio urria dituzten pertsonak osatua. Horrela, EiTbren politika eta ildo nagusiak ezarri beharrean, erakundeko Zuzendaritza Orokorretik ekartzen zaizkion planteamenduak berrestera mugatuta dago bere eginkizuna. Goi-karguak aldiz, erakundearen buru eta besoak dira, beraiek ezartzen dutelarik, zeinek bere mailan, EiTbren ildoak. Azkenik, ardura kargu berezirik gabeko langileak ditugu; gure kasuan korrespontsalak, erakundeari nolabaiteko aurpegi eta ahots pertsonalizatuak jartzen dizkietenak.

Datuen analisisira etorrira, genero banaketari begiratzen badiogu, aukeratutako laginaren % 44 emakumezkoak dira, eta % 56 gizonezkoak. Administrazio kontseilukideen artean % 50ean daude bi sexuak banatuta, baina plantillako pertsonen artean desoreka handiagoa da, emakumezkoen kaltetan.

Hizkuntzari dagokionez, 55ren kasutan badugu haien hizkuntza soslaiaren berri. Haietatik 46 (% 83) euskal hitzunak dira, gutxienez EGAREN pareko maila dutenak, alegia.

Daukaten formakuntzari erreparatuta, hamarretik zortzik gutxienez unibertsitate mailako titulazioa dute: 64k hain zuen (beste 4k bestelako formazioa dute, eta gainerako 9en daturik ez dugu). Unibertsitateko titulazioa dutenen artean, erdiak (% 53) komunikazio zientzietako lizentziatura edo gradua dute, gainerakoek arlo ezberdinetako tituluak dituztelarik. Administrazio Kontseilukideak albo batera uzten baditugu, komunikazioko formakuntza dutenak titulatuak % 60ra iristen dira. Portzentaje hau igo egiten da korrespontsalen kasuan (% 87), baina ardura kargua dutenen artean ere erdia dira (% 49).

Gehienek (% 81) Euskal Herrian egin dituzte unibertsitateko ikasketak. Azken datu hau lehenago esandakoarekin lotu behar da: EiTBr dagokionez bederen, elitea Euskal Herrian formatua da, neurri handi batean.

Formakuntza hori, nagusiki, unibertsitate publikoetan garatu da: % 60 dira unibertsitate publikoetan tituluak. Portzentajea igo egiten da komunikazio zientzietan tituluengana mugatzen bagara: kasu horretan % 77 dira unibertsitate publiko batean tituluak.

Unibertsitateen artean EHU nagusitzen da, jakina: titulatuak ia erdia formatu da bertan. Beste unibertsitate publiko batzuk ere agertzen dira datuetan, baina pisu txikiagoarekin: Madrilgo *Universidad Complutense*, Bartzelonako *UAB*, *UNED* eta beste batzuk.

Unibertsitate pribatuen artean nabarmena da Deustuko Unibertsitateak duen pisua: titulu guztien % 20 dator bertatik. Kontuan hartzen badugu EAEn gaur egun ikasten ari diren unibertsitarioen % 17 biltzen direla Deustuko Unibertsitatean (UNIBASQ, d. g.), esan liteke probabilitate matematiko hutsen arabera legokiokeenaren inguruan agertzen dela unibertsitate hau EiTBr; apur bat gorago, kontuan hartzen badugu EiTBrko unibertsitarioak ez direla EAEn soilik tituluak.

Deustuko Unibertsitatearen itzala, bereziki, Administrazio Kontseiluan ikusten da: 13 kide titulatuak 5 dira unibertsitate horretakoak. Plantillako langileen artean, aldiz, proportzioa asko jaisten da, % 16ra hain zuzen.

Nafarroako Unibertsitatean formatutako presentzia ere aipagarria da: 8 pertsona titulu dira bertan, denak ere plantillako kideen artean kokatzen direlarik. Deustuko kasuan ez bezala, pentsa daiteke Nafarroako Unibertsitatea komunikazio ikasketetan aitzindari izan izanak esplikatzeko duela, neurri handi batean, unibertsitate honetako titulatuak presentzia esanguratsua, profesionalen artean.

Nabaria da, bestalde, Mondragon Unibertsitatean titulatuak presentzia txikia. Beharbada hau bere gaztetasunak esplikatzeko du (1997an sortu zen, eta komunikazio ikasketak 2005ean abiatu zituen), bere txikitasunarekin batera (EAEko unibertsitate sistemako ikasleen % 8 hartzen ditu). Hala ere aztertutako erregistroen artean bakarria agertzen da MUn titulatuak.

5. Ondorioak

Ustekabea ez da EiTBrko goi arduradun eta erreferentziazko langileen artean unibertsitateko ikasketak dituzten pertsonak nagusi izatea; joera nagusia da hori gizarteko arlo ia guztietan. Euskal Herrian, gainera, dugun titulu maila altuak indartu egiten du joera hori.

EiTBr goiko ardura karguetan zein erreferentziazko lanpostuetan ari direnen formakuntza, neurri handi batean, unibertsitate publikoak emandakoa da. Horren

azpian faktore ezberdinak agertzen dira: batetik unibertsitate publikoaren (bereziki EHUren) tamaina eta izaera ditugu; hauek maila akademiko altuko formakuntza zabaltzera eraman dute EHU, lau hamarkadetan zehar, euskal gizartean. Komunikazio ikasketak EHUren sorreratik bertatik eskaini izanak lagundu egin du harekin batera sortu zen EiTren hezurdura osatzen eta egitura mamitzen. Ikasketa horiek euskaraz eskaini izana ere kontuan hartu beharrekoa dugu.

Ezin ahaztu da, bestalde, Deustuko Unibertitatean eta Nafarroako Unibertsitatean formatutakoen presentzia. Lehenak bereziki Administrazio Kontseilukideen artean agertzen dira; bigarrenak komunikazioko profesionalen artean. Unibertsitate hauen agerpena ulertzeko, alabaina, honakoa hartu behar da kontutan: EHU sortu arte, bi unibertsitate horiek ziren nagusi Euskal Herrian. Eta oraindik bada gizaldi bat beste aukerarik ezean bi unibertsitate horietan formatu zena, eta lanean diharduena. Interesgarria litzateke analisisa hemendik hamar urtera –gizaldi hori erretiratu denean– egitea: orduan ikusiko da argiago unibertsitate publikoak eta unibertsitate pribatuak zein pisu duten EiTren inguruko eliteen formakuntzan. Eskura ditugun datuak (graduazio urteak) urriegiak dira oraindik orain inolako hipotesirik aurreratzeko.

Bibliografia

- AGIRREGOMOSKORTA, Iñaki (2020): *Así nació la televisión del País Vasco*. Alberdania. <https://www.alberdania.net/eu/libro/asi-nacio-la-television-del-pais-vasco/>
- AMEZAGA ALBIZU, Josu (2013): Euskal Telebista 30 urteren ostean. *Jakin*, 194–195, 11–50.
- (2017). Komunikazio espazioaren garrantzia naziogintzaren erronkaren aurrean. In Ezkerraberri Fundazioa (Arg.), *Nola sortu espazio komunikatibo komuna Euskal Herrian?* (or. 14–49). Ezkerraberri Fundazioa. http://ezkerraberri.eus/eu/Argitalpenak/20180216/Nola_sortu_espazio_komunikatibo_komuna_Euskal_Herrian
- (2020). Euskarazko komunikazioa lau hamarkada eta gero: irakurketa kritikoa. *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 116(3), 27–50.
- ANECA (2005): *Libro Blanco de los Títulos de Grado en Comunicación*. <http://www.google.es/url?sa=t&rct=j&q=%22Libro+Blanco+de+los+T%C3%ADtulos+de+>

- Comunicaci% C3% B3n% 22&source=web&cd=1&ved=0CBwQFjAA&url=http% 3A% 2F% 2Fwww.aneca.es% 2Fmedia% 2F150336% 2Flibroblanco_comunicacion_def.pdf&ei=dUDzTt7RClbrObLeoacB&usq=AFQjCNFjSMhYHn6RkrP97FP1YhBNd9tn3w
- BARRERA, Carlos (2001): Una idea universitaria de la comunicación en los años 50 y 60: el Instituto de Periodismo de Navarra. *Las mil caras de la comunicación: homenaje al profesor Don Ángel Benito*, Vol. 2, 2001, ISBN 84-922275-9-1, págs. 1333-1368, 1333-1368. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=5435203>
- CASTELLS, Manuel (2001): *La Galaxia Internet*, Edit, Areté.
- ESJ PARIS. (d. g.). ESJ Paris - Ecole supérieure de journalisme. Berreskuratua 2021(e)ko otsailakaren 27a, -(e)tik <http://www.esj-paris.com/>
- EUROPEAN COMMISSION. (d. g.). Eurostat. Berreskuratua 2011(e)ko martxoakaren 3a, -(e)tik <http://epp.eurostat.ec.europa.eu/portal/page/portal/eurostat/home/>
- EUSKO JAURLARITZA (2020): *Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorrak*. <https://www.euskadi.eus/k28aVisWar/k28aldeES.jsp>
- GOULET, Vincent (2009): Dick May et la première école de journalisme en France. Entre réforme sociale et professionnalisation. *Questions de communication*, 16, 27-44. <https://doi.org/10.4000/questionsdecommunication.81>
- MADINABEITIA, A., LARRINAGA, ANE, MARTINEZ-PALACIOS, J., AMEZAGA, JOSU, SARATXO, M., eta ODRIOZOLA, O. (2018). *Unibertsitate Sistemak euskal gizartearen eraldaketari egindako ekarpena*. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. <https://web-argitalpena.adm.ehu.es/listaproductos.asp?IdProducts=USS00189585&titulo=Unibertsitate Sistemak euskal gizartearen eraldaketari egindako ekarpena>
- MINISTERIO DE EDUCACIÓN Y FORMACIÓN PROFESIONAL (2020): *EDUCA Base. Estadística de estudiantes*, Estadísticas de la Educación. <https://www.educacionyfp.gob.es/servicios-al-ciudadano/estadisticas.html>
- OLIVA MARAÑÓN, Carlos (2014). La formación jurídica del periodista en España: una necesidad para satisfacer el Derecho de la Información y el Derecho a la Información. *REDU. Revista de Docencia Universitaria*, 12(3), 201. <https://doi.org/10.4995/redu.2014.5497>
- PABLO, S. DE, eta RUBIO POBES, C. (2006). *Historia de la UPV-EHU 1980-2005: emantza zabal zazu*. Universidad del País Vasco.
- PKF-Attest. (2020). *EiTB eta mendeko sozietateak (EiTB Taldea), 2019. ekitaldiko urteko kontu bateratuak eta kudeaketa txosten bateratua, auditore independente batek egindako ikuskaritza txostenarekin batera* (or. 110). <https://www.eitb.eus/multimedia/corporativo/documentos/eitbnet-kontuen-auditoria-txostena-Informe-cuentas-anuales-auditadas-eitbnet-2019-consolidado.pdf>
- SANCHEZ, Maria F., eta OLIVA, Carlos (2016): *Formas de comunicación en el siglo XXI*, Dykinson.
- UNIBASQ. (d. g.). *UNIBASQ Behategia*. Berreskuratua 2021(e)ko otsailakaren 27a, -(e)tik <https://observatorio.unibasq.eus/eu/>

08

Komunikabideetako botere elitean unibertsitate publikoa liderra

Iñaki Zabaleta Urkiola

Atal honetan komunikabideen sektorea aztertu da, prentsa idatzia eta irratia batez ere, eta goi hezkuntza publiko-pribatuaren aldagaiari begiraturaz, emaitzek erakusten duten argazkia oso nabarmena da: Hego Euskal Herriko komunikabide eta komunikazio enpresetako (EITB sartu gabe) goi-kargudun gehienak, ia bi heren, unibertsitate publikoetan graduatu ziren. Beraz, edozein gizartetan hain garrantzitsua den komunikazioaren alorrean, unibertsitate publikoa da liderra goi-kargua dutenen artean eta, kazetarien alorrera jaitsiko balitz ikerketa, portzentajea oraindik handiagoa izango litzateke seguruenik. Honek ahalbidetzen duen interpretazioa da Hego Euskal Herrian -Nafarroa ere barrenean harturik, jakina- unibertsitate publikoek prestigio eta garrantzi handikoak direla, jarraian datuek erakutsiko duten modura.

Ikerketa honetan, Hego Euskal Herrian argitaratzen diren prentsa idatziko egunkari guztiak eta euren enpresak eta enpresa-taldeak arakatu dira: Grupo Vocento-ko *El Correo*, *El Diario Vasco*, *El Correo Alava*; Noticias Taldeko *Deia* (Iparragirre argitaldaria jabea), Nafarroako *Diario de Noticias*, *Noticias de Alava* eta *Noticias de Gipuzkoa*; Grupo Información-eko *Diario de Navarra*; Baigorri Argitaletxeko *Gara*; euskarazko *Berria*, *Berria* Taldekoa, eta Euskarazko Komunikazio Taldea.

Irratiei dagokienez, bi multzo egin daitezke: Hego Euskal Herrian sortu eta enpresa bertakoa dutena batetik, eta Espainiar Estatuko komunikazio enpresa baten irrati erregional/probintzial/lokalak bestetik.

Lehen multzoan daude (EITBko irratiak kenduta, beste atal batean aztertzen direlako) Iruñerriko *Euskalerría irratia*; Grupo Noticias-ko *Onda Vasca*; eta Bilboko Gotzaindegiaren *Radio Popular de Bilbao*. Bigarren multzoan, aldiz, Grupo Prisa izeneko

taldean dauden *Cadena Ser* irratiako *Radio San Sebastián* eta *Radio Bilbao*; Atresmedia taldeko *Onda Cero*; eta *Radio Nacional de España*-ren irratiak.

Gogoan izan behar da hemen aztertutako prentsa idatziko egunkariak jabetza pribatukoak direla eta berdin direla ere irrati guztiak, Euskal Herrian dagoen *Radio Nacional de España* irrati publikoa kenduta.

Unibertsitatearen jabetza aldagaiari begiratzuz (Taula 1), 109 pertsonako laginaz baliatuz, komunikabideetako goi-kargudunen % 60,6 unibertsitate publikoetan graduatu zen, eta % 39,4 unibertsitate pribatuetan.

Kontuan badugu, 2019-2020an, Hego Euskal Herriko unibertsitateetan (Nafarroa eta EAE harturik), Zientzia Sozial eta Juridikoen ikaskuntza esparruan –komunikazio enpresetan goi-kargua duten pertsona gehienen esparrua, hain zuzen–, ikasleen % 61,1 unibertsitate publikoetan zegoela matriculatuta eta % 38,9 pribatueta¹, argi ikusten da korrelazio handia dagoela komunikabideetako botere elitearen eta unibertsitate jabetzaren artean; alegia, goi-kargudunen ia bi heren unibertsitate publikoetan graduatu zirela eta, gaur egun, ikaskuntza esparru horretan, ikasleen portzentajea ere ia berdina dela unibertsitate publikoetan (bi heren inguru); eta heren bat pribatueta.

Lurralde edo kokapenaren aldagaiak adierazten du Hego Euskal Herriko unibertsitateetan ikasle izan zirela goi mailako karguen % 87,0; Espainiar Estatuko unibertsitateetan, % 10,2; eta atzerrikoetan % 2,8. Portzentaje berdintsuak agertzen dira unibertsitate pribatu eta publikoetan, diferentziak % 10 azpitik egonik, hau da, estatistikoki ez adierazgarriak.

Zehazkiago, Hego Euskal Herriko unibertsitate pribatu (% 92,8) eta publikoen (% 83,4) emaitzen arteko aldea % 9,4 da soilik; Espainiar Estatuko unibertsitate publiko (% 13,2) eta pribatuen (% 4,8) artekoa ere antzekoa da, % 8,8; eta atzerriko portzentajeetan, hain baxuak izanik, ia ez dago alderik pribatu (% 2,4) eta publikoen (% 3,0) artean.

Taula 1

Komunikabideetako goi-kargudunen unibertsitate publiko/pribatuko ikasketak

	Guztira	Hego Euskal Herrian	Espainiar Estatuan	Atzerrian	Guztira
Publikoa	60,6	83,4	13,6	3,0	100,0
Pribatua	39,4	92,8	4,8	2,4	100,0
Guztira	100,0	87,0	10,2	2,8	100,0

N = 109.

1 Ikus Espainiar Gobernuoko Hezkuntza eta Zientzia Ministerioko EDUCAbase webgunea (sarrera 2021-2-21): http://estadisticas.mecd.gob.es/EducaDynPx/educabase/index.htm?type=pcaxis&path=/Universitaria/Alumnado/Nueva_Estructura/GradoCiclo/Matriculados/&file=pcaxis

Begirada unibertsitate indibidualetan jartzen bada, UPV-EHUn graduatutako goi-kargudunen portzentajea % 57,3 da, erdia baino gehiago. Bigarren, Universidad de Navarra, Opus Dei-rena, % 22,9rekin; hirugarren, Deustuko unibertsitatea, % 17,7rekin; eta atzetik, oso portzentaje minimoekin daude Mondragon Unibertsitatea (% 1,1) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa (UPNA), % 1,0ekin.

1. Sexuaren aldagaia

Botere elitearen analisisian oso funtsezkoa da sexuaren aldagaia kontuan hartzea eta ikertzea. Gizartean gertatzen den modura, komunikazio enpresetako goi-karguetan ere sexu desberdintasuna, emakumeentzat negatiboa, nabarmena da. Hedabideetako goi-karguetan dauden pertsonen artean % 23,0 bakarrik dira emakumezkoak eta % 77,0 gizonezkoak; alegia, % 54ko aldea.

Emaitza hori are negatiboki deigarria da jakitean, 2019-2020an, Hego Euskal Herriko unibertsitateetan, Gizarte eta Zuzenbideko Zientzien ikaskuntza esparruan, % 58,7 direla emakumezko ikasleak eta % 41,3 gizonezkoak². Beraz, berdintasun mailara heltzeko edo hurbiltzeko, goi-kargudunen artean gizonezkoen portzentajea % 35,7 urritu beharko litzateke eta balio berean igo emakumezkoena. Baina ez dirudi aldaketa kualitatibo eta aurrerazale hau etorkizun hurbilean gertatuko denik.

2. Euskarazko komunikazio sistema

Komunikazio enpresetako botere elitearen analisi honetan, gaztelaniazko eta elebiko hedabideak izan dira ugarien, eta euskarazko hedabideen artean soilik Berria egunkariaren komunikazio taldea eta Iruñeko Euskalerrria Irratia sartu dira (EITB beste atal batean ikertu baita).

Baina uste dugu euskarazko hedabideen sistemak merezi duela presentzia nabarmenagoa, bere tamaina eta garrantzia uste baino handiagoa delako eta goi-kargudunen egitura eta funtzioak ere desberdinak izan daitezkeelako, kasu batzuetan behintzat.

Adibide bat *Argia* astekaria da, Euskal Herria osorik hartzen duena eta euskarazko hedabide garrantzitsuenetakoa. Hainbat komunikazio kanal, plataforma, eta komunikazio enpresa eta zerbitzu ditu bere inguruan. Bere empresa-filosofia horizontala da, hierarkia saihestailea, goi-karguetan txanda hartzailea, eta ekonomia sozial eraldatzailearen "OlatuKoop" sareko kidea.

Euskarazko hedabideen sisteman (Zabaleta et al., 2019; Zabaleta Urkiola, 2020)¹²³ komunikabide daude. Horietako 67 prentsa idatzikoak dira eta 28 irratiak. Jabetzari

2 *Ibid.* Espainiar Gobernuko Hezkuntza eta Zientzia Ministerioioko EDUCAbase webgunea (sarrera 2021-2-21).

dagokionez, % 38,2 pribatuak dira eta % 51,2 jabetza sozialekoak, hau da, irabazi asmorik gabekoak. Jabetza publikokoak % 10,6 dira soilik, baina handienak daude hemen, EITB taldea batez ere.

Euskarazko hedabideen sistema honetan, unibertsitateetan graduatutako goi-kargudunen artean, unibertsitate publikoetako ikasle izandakoak dira gehien-gehienak, % 80tik gora seguruenik. Baina unibertsitate gradurik ez duten goi-kargudunak ere egon badaude, eredu sozial eta parte-hartzaileko enpresetan batez ere.

Ondorio orokor modura, azterketa honetako hiru ardatzek adierazten dute unibertsitate publikoaren eragina eta lidergoa nagusi direla komunikazioaren alorreko goi-kargudunen artean. Nagusitasun hori UPV-EHUrena da batez ere, nazioarte mailan ere aitortzen dioten kalitate eta berrikuntzagatik, bai ikaskuntzan eta bai ikerkuntzan. Euskarazko komunikazio sisteman, ziurrenik, oraindik handiagoa da UPV-EHUn ikasitako goi-kargudunen kopurua.

Baina emakumezkoen presentzia komunikazio alorreko goi-kargudunen artean oso txikia da, unibertsitateko Gizarte eta Zuzenbide eremuan dauden ikasleen portzentajea baina askoz txikiagoa. Horrek kontratazioan eta karrera profesionaleko eskilaran eredu aldaketa pentsatzea eta ezartzea eskatzen du.

Bibliografia

ZABALETA, Iñaki; GUTIERREZ, Arantza; FERRÉ-PAVIA, Carme; FERNANDEZ, Itxaso eta XAMARDO, Nikolas (2019): Facts and Transformation in European minority language media systems amid digitalization and economic crisis. *International Communication Gazette*, 81(3), 235-258.

<https://doi.org/DOI:10.1177/1748048518754749>

ZABALETA URKIOLA, Iñaki (2020): Minoritatetasuna erraietan: Europako hizkuntz monoritateen hedabideak eta kazetaritza: errealitatea, garapena, funtzioak. In Mimenza Castillo, L. (Ed), *Euskal Hedabideen Urtekaria* 2019, 241-270 or. Behategia, Euskal Hedabideen Behatokia.

09

Euskal enpresa elitearen eraketa eta berorren formakuntza akademikoa

Baleren Bakaikoa Azurmendi

Sarrera

Azkenaldi honetan ekonomialari, soziologo eta zientzia politikako ikerlari ugari irakurtzen diegu nola jendartearen % 1ek aberastasunaren edo urteko sarreraren zati oso handia bereganatzen duela eta, gainera, zati hori, urtetik urtera, gorantza doala, populazioaren gehiengoaren kontra, hau da, % 99ren kaltetan. Fenomeno ekonomiko hori ez da bakarrik ematen mendebaldeko estatu kapitalista lar garatuetan, baita ere hain garatuak ez diren herrialdeetan, hala nola Indian edo Txinan bertan, nahiz azken herrialde honetan Alderdi Komunistak zuzentzen duen bertako gobernuak.

Baina, populazioa bi segmentu horietan bakarrik banatuta dago ala jendarteari koherentzia ematen dion loturak egon ba al daude? Izan ere, historiari gainbegirada bat ematen baldin badiogu, errege absolutua edo enperadorearen artean aristokrazia kokatzen zen eta klase honek paper aktiboa zeukan jendarte osoko harmonia, zentzu konfuzianoan, gordetzeko eta sistema sozio-politiko eta ekonomikoa legitimatze aldera.

Txinan bertan mendeetako agintaritzan mandarin klaseak protagonismo ukaezina gorde zuen, botere politikoa eta ekonomikoa, hein handi batean, bere esku egon zelako. Nolabait, mendebaldeko herrialdeetan aristokraziak burutu zuen funtzioa Txinan mandarinatoak burutu zuen eta Indian Brahmanak.

XIX. eta XX. mendeetako boterea, kapitalismoa garatzen, hedatzen eta indartzen ari zen bitartean, ez zegoen bakarrik zentratuta aberatsenen artean. Izan ere, boterea ez dago bakarrik aberatsen eskuetan, berorri euste aldera lagungarriak behar baititu: legegileak, legelariak, epaileak, politikariak, polizia eta Administrazio Publikoa osatzen dutenak oro.

Beraz, sistema kapitalista ez dago bakarrik osatuta kapitalista eta langileriarekin. Baizik, tartean, batik bat agintariak babesteko *intelektual* jendea dago, intelektual

terminoa zentzu zabalean hartuta. Hortaz, jende prestatua izango da, ikasketak burututakoak eta sistema kapitalista legitimatzeko izango da, eta estatu organizazioa funtzionaraziko du jende tekniko honek.

Halaber, zer gerta liteke sistema kapitalista gainditu eta sistema sozialistara igaroko bagina? Gai honen inguruan eztabaida aberatsak egon ziren XIX. mendean sozialisten eta anarkisten artean. Marxek estatu sozialistako administrazioa pertsona zientifikoek kudeatuta egon behar zuela defendatzen zuen eta Bakuninek, aldiz, aurreikusten zuen Marxek teoria gauzatzen baldin bazen, zientifikoek diktadura egikaritu zela langileriaren izenean. Beraz, kapitalaren mendetik irten eta zientzialarien mende egotera igaroko ginela.

Gaur egun, itxuraz bederen, demokrazia batean bizi gara eta noizbehinka bozka ematera deituak izaten gara agintari politikoak aukeratze aldera. Alabaina, agintari politiko horiek boto-emaileen nahiak betetzen dituzte ala beste indar batzuk daude azpiko hariak mugitzen? Arlo honetan agerikoa da politikako erabaki potoloenak elite batek hartu edo baldintzatzen dituela eta erabaki horien norakoak ezkutuan geratzen direla, hein handi batean bederen, nahiz beste batzuetan nabarmen azaleratu kanpo-indar batzuk dabiltzala erabaki horiek bultzatzen, legitimatzen edota aurrera eramaten. Esan duguna garbi geratu zen Greziako erreferendumean, non herriak boza norabide batean joateko agindu nahi izan zuen; alabaina, Alemaniako finantza ministroak (bertako gobernu eta botere ekonomikoak) alderantzizkoa erabaki zuen, eta Greziako gobernuak amore eman behar izan zuen, gerora nabarmendu zen bezala.

Laburbilduta, gaur egungo estatu administrazioa jakitunez (intelektualez) osatuta dago, zeinek txosten, dossier, aholku, estudio, azterketa eta hainbat lan intelektual burutzen dituzten, agintari politikoen erabakiak babeste aldera. Haatik, oraingo jakitun jende honek sistema kapitalista babesteko eta indartzeko dago, iraganean aristokraziak egiten zuen moduan.

Eta jakitun jende hau, hein handi batean bederen, unibertsitate ireketan da eta berauek sistemaren euskarri izango dira. Izan ere, unibertsitate ikasketen xedea sistema kapitalista betikotzeko lanabesa da, ideologia menperatzailearen zerbitzari baitago unibertsitatea. Horrela, administrazio publikoan lana burutzen duten goi-kargu gehienak, unibertsitate ikasketen jabe dira eta sistemaren mesedetan burutuko dute beraien betebeharra, kanpo txostenek edo lobby lanek betetzen duten bezala. Alabaina, administratzaile hauek, batik bat goi mailakoak direnean, titularrak izatea eskatzen zaie, nahiz gobernuburu edo kontseilari-ministro izateko eskakizun hori ez den beharrezko. Bestalde, unibertsitatean, ikasleek formakuntza jasotzeaz gain, etorkizunerako gizarte harremanak eskuratu ahal izateko erakundea ere bada, non ikasleen arteko harremanetarako erakundeak garatzen diren, hala nola *alumni* elkarteak, ikasle ohien geroan protagonismo erabakigarria izango duten elkarteak.

Herrialde bateko elitea osatzen duen beste populazio segmentu garrantzitsu bat herrialde horretako enpresa indartsuenen zuzendariak (CEO-Chief Executive Officer),

presidente, presidenteordeek, administrazio kontseiluetako kideek, e.a.) burutuko dute. Zuzendari orokor hauek sailkatzeko eta nondik norako ibilbidea gauzatu duten jakiteko, Hego Euskal Herriko enpresa pribatu esanguratsuenen zerrenda erabili dugu, 2018rako *Base de Datos de INFORMA D&B S.A.U.* tik argitaratuak, eta bertan azaltzen diren karguen *curriculumak* aztertu diren. Modu horretan elite hori non hezi den jakingo dugu, zein unibertsitatean egon diren, euskararekiko atxikimendurik baduten edo sexu berdintasuna noraino heltzen den. Hortik hurbilketa bat egingo dugu unibertsitateek jokatzten duten papera argitze aldera euskal elitearen eraketan.

Horrezaz gain, ez dugu alde batera utzi behar enpresa handietan eratuta dagoen talde menperatzailea edo, beste modu batean aipatuta, *teknoestruturak* osatzen duten agintari multzoa. Izan ere, multzo hau osatuta dago erabaki nagusiak hartzen dituzten pertsonen, hor sartuz: zuzendari komertziala, finantza arduraduna, giza baliabideen zuzendaria (pertsonal buruzagia), lege aholkularia eta beste hainbat enpresa arduradun. Enpresa termino hau, lehendabizikoz, J.K. Galbraithen erabili zuen enpresa handien erabaki arduradunak definitze aldera. Eta gure enpresen kasuan ere talde honen osaketa ematen ari da eta enpresa elitearen parte da; horregatik, aztertzeko gaia izan beharko luke hurrengo ikerketaren batean.

Ikerketa hau burutzeko Hego Euskal Herriko (HEH) bost unibertsitate aztertu ditugu, kokapen eta jarduera nagusia HEHn dutenak: Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU), Deustuko Unibertsitatea (DU), Nafarroako Unibertsitatea (NU), Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP) eta Mondragon Unibertsitatea (MU). Gainontzeko unibertsitateak, hala Estatu Espainiarrekoak zein atzerrikoak modu berezian aipatuko dira.

1. Euskal Herriko enpresa pribatu handienetako agintarien formakuntza

Atal hau osatze aldera Hego Euskal Herriko enpresa pribatu handien zerrenda erabili dugu, fakturazioaren arabera sailkatuta. Enpresa pribatuen zerrenda horretan kooperatibak, fundazio pribatuak eta elkarte pribatuak ere sartuta daude. Zerrendaburu Iberdrola eta Petronor dira 7.900 milioi eta 6.700 milioi euroko fakturazioarekin, hurrenez hurren, maila apalenetako enpresak 80-100 milioi euroko fakturaziora helduko diren bitartean. Horrela, 151 enpresa zenbakitu ditugu eta enpresa horien 456 goi-kargu lortu ditugu izen deituekin eta beraien ikasketak non osatu dituzten zehaztasunarekin.

Enpresa kargu horien artean ere goi mailan, gailurrean, CEOk daude, nolabait enpresarien elitea osatzen dutenak, eta 72 identifikatu ditugu, 69 gizonetako eta 3 emakume. Beraz, enpresa elitean ere lehen sexu arrakala begi-bistan geratzen da, gainera CEO emakumezkoek enpresa handienetan ez dute beren funtzioa burutzen, apalagoetan baizik.

CEO hauek unibertsitate ugarian burutu dituzte beraien ikasketak, batzuk Espainiar Estatuan eta hainbatek atzerrian ere. Horrela, azpimarratu behar da Deustuko

Unibertsitateetik 14 igaro direla eta EHUtik 13. Hortaz, unibertsitate pribatu batetik irtendako graduatuek Hego Euskal Herrian, badirudi, erraztasun handiago dutela enpresa pribatuen erpinera heltzeko, nahiz DUK hiru bider ikasle gutxiago eduki EHUk baino; beraz, hiru bider txikiagoa da aipatu unibertsitate hau EHU baino; halere, agintari kopuru handiagoa dauka.

Kargu orokor gehienek Hego Euskal Herriko bost unibertsitateetan (EHU, DU, MU, NU eta NUP) burutu dituzte beraien ikasketak. EHUn 56 karguk, DUn 58k, MUn 7k, NUn 20k eta NUPen 2k. Horiez gain, Estatuko unibertsitateetan 105 kidek gauzatu dituzte beraien ikasketak eta 24k atzerrian (Alemania, Mexiko, Uruguai, e.a.). Begi-bistakoa da, ikasketei dagokienez, euskal enpresa elitea talde mistoa edo nahasia dela, nahiz, gehienbat, Espainiar Estatuko unibertsitateetatik irtendakoak izan.

Zenbaki erlatiboetan ipinita, unibertsitate bakoitzaren ekarpen kopurua honako hau litzateke: DUK % 12,7, EHUk % 12,2, NUK % 4,4, MUK % 1,5, Comillaseko Universidad Pontificiak % 4,4, NUK bezalatsu, estatuko beste unibertsitateetatik irtendakoek % 23,0 eta, azkenik, atzerrian ikasitakoek % 5,2. Deigarria da jesuiten unibertsitateek daukaten erakargarritasuna enpresa karguak betetzeko; izan ere, Deustuko Unibertsitateak eta Comillaskoak, agintari ororen % 17,1 gainditzen baitute. Eta Opus Deiren Unibertsitateetik irtendako karguak eransten baditugu, kargu guztien % 21,5era heltzen gara. Beraz, enpresa kargudunen bostena baino gehiagok inguruan dauzkagun hiru unibertsitateetan burutu dituzte beraien ikasketak, gure Unibertsitate Publikotik irtendakoen ia bikoitza.

Bestalde, deigarria egiten da DUtik eta EHUtik ateratako kargudun kopuruak berdintsuak direla, nahiz EHUn hiru bider ikasle gehiago egon DUn baino. Beraz, proportzio handiagoa da DUK egiten dion ekarpena euskal eliteari; izan ere, betidanik aitortu da Deustuko Unibertsitateetik irten dela euskal enpresetako agintari andana, baita ere Espainiako kargu politiko eta enpresetako zuzendari ugari. Halaber, harrigarria dirudi Comillaseko Unibertsitate Pontifizeotik pasatako ikasleek zer nolako protagonismoa duten euskal enpresa handietan, gutxienez 20 kidek goi-karguak betetzen dituztelako, nahiz unibertsitate txikia izan, 13.500 bat ikasle besterik ez baititu, baina eliteko kideak prestatzeko jesuiten lanabes egokia da: Espainiako Estatuko 50 CEO garrantzietatik 10 Comillasen ikasitakoak ziren 2017an; beraz, Deustuko Unibertsitateak, alde batetik, eta Comillaskoak, bestetik, protagonismo berezia daukate euskal elitearen osaketan. Antzeko zerbait esan genezake Nafarroako Unibertsitateari buruz (Opus Dei), nondik beste 20 goi-kargudun irten diren Comillasetik bezain beste.

Kargudunen zerrrenda horretan badaude, egon ere, ikasketei buruz ezer gutxi esaten dutenak. Izan ere, 184k ez du azaltzen zein diren beren ikasketak. Zerrrendako ugarik ikasketarik gabeak direla azaltzen dute, eta gehienak eraikuntzarekin lotuta daude. Badirudi, beraien enpresa sortu eta autopromozionatutako enpresa kargudunak direla.

Gizon eta emakumeen arteko berdintasunari dagokionez, goi-kargu hauetan arrakala nabarmena atzematen da. Izan ere, 456 kargutatik 63 bakarrik dira emakumezkoak, eta horietatik 12 Deustuko Unibertsitatean ikasiak eta 7 EHU. Comillaseko Unibertsitate Pontifizen ikasitakoak ere pare bat, egon, badaude. Badirudi emakumeak enpresa handietan aginte karguak hartzen hasi direla, herrialde garatuetan ematen den moduan, jadanik ohikoa baita emakumeak enpresa erraldoien zuzendaritzetan ikustea.

Halere, emakume hauek ahalduntze prozesuaren ondorioz ez dira ari aginte karguetara iristen mugimendu feministak nahi lukeen bezala. Hau da, pentsamendu neoliberalarekin hautsi eta enpresen jarduera jendarteratze aldera, non zaintza ekonomiaren erdigunean ipiniko litzatekeen.

Azpmarratu behar da elitera heltzeko asmoarekin emakume mugimendua azaltzen ari dela zenbait herrialdetan, hala nola AEBetan edo Frantziako Estatuan bertan. Eginkizun horretan aipagarria da *Women's Forum for the Economy and Society* eta beronen inguruko emakume erakundeen protagonismoa da; emakumeak enpresen karguetara iristea da xede nagusia, zeinek enpresa multinazionaleri finantza ekarpenak egiten dizkieten. Halaber, egia da emakumeak aginte karguetara heldu diren enpresek emaitza hobetoak erdiesten dituztela, ez bakarrik produktibitatea hobetzen dutelako, baizik enpresaren irudiak ere irabazten duelako. Hori da, azken finean, enpresa neoliberalaren helburua, nola edo hala mozkinak egikaritzea eta benetako emakumeen mugimendu demokratiko eta alternatiboa hutsaren ordeko bihurtzea.

Bestalde, deigarria da Sociedad Informática del Gobierno Vasco (EJIE) enpresa pribatuen zerrendan agertzea, bere kapital sozialaren ehuneko ehuna Eusko Jaurlaritzarena denean eta horregatik uste dugu egokiago kokatuko litzatekeela Zuzenbide Pribatuko Ente Publikoen zerrendan bakarrik. Halaber, azpmarratu, enpresa horren agintaritzatza taldea 12 kidek osatzen dutela eta zuzendari nagusiak (CEO) DUn burutu zituela bere ikasketak, baita Lehendakariak eta Lehendakariordeak ere; alabaina, Zuzenbide Pribatuko ente Publikoen zerrendan, enpresa honen CEOren izena ez da azaltzen eta horregatik zuhertasunarekin irakurri behar dira datu horiek guztiak. Gainontzeko 9 kontseilarien artean 7k DUn ikasi zuten, batek EHU eta azkenekoak Madrileko Universidad Complutensen. Beraz, argi ikusten da zer nolako garrantzia eta konfiantza eman dizkion Euskal Administrazio Publikoak informatikako enpresa honi.

Azkenik, itxaron zitekeen bezala, euskara 456 kargudunetik 23k bakarrik dakite, gainontzekoek ez dakite edo ez dute erantzuten eskuartein daukagun informazioan bederen. Agerikoa da, bestalde, euskal eliteak inoiz ez duela interes azpmarragarririk azaldu euskararen alde, salbuespen batzuk kenduz gero, negoziotarako ez baita beharrezkoa, oztopo ez denean.

Kontuan hartu behar da, bestalde, unibertsitate pribatuek ikasle ohien jarraipena egiten dutela eta berauek antolatze politikak aurrera eramaten dutela. Normalean *alumni* edo ikasle ohi hauek eskuzabalak izaten dira eta zuzentzen dituzten enpresek unibertsitate proiektuetan parte hartzen dute, baita pertsonalki dohaintzak eman ere.

Horrela, *alumni* hauen hurrengo belaunaldiek erraztasunak izango dituzte unibertsitate horietako geletan onetsiak izateko. Haatik, AEBetan ematen den fenomenoaren antzeko gertatzeko arriskuan erortzen gara, non, "aukera berdinen" politika gezurtatzen den heinean, meritokrazia ere auzitan geratzen ari baita.

2. Enpresa publikoak eta enpresa elitearen eraketa

Atal hau lantzeko EAE eta Nafarroan enpresa publikoen sektorea osatzen duten antolakuntza ezberdinak hartuko ditugu kontuan eta datuak 2018rako *Base de Datos de INFORMA D&B S.A.U.*tik argitaratuak erabiliko ditugu. Lan honetan enpresa mota guztietako informazioa dator. Informazio ugari dago eta garbiketa egin behar izan dugu. Izan ere, eskuratutako zerrendan enpresa mota asko daude eta, lehenbizi, jakin behar da zein enpresa mota kontsidera ditzakegun sektore publikoaren parte eta zein ez. Gero, nortzu diren hautatutako enpresetako kargudunak, kontseilu-kide ugari azaltzen baita; hauek, gehienetan, Administrazio Publikoko arduradunak izaten dira eta enpresa publikoetan jarduera puntuala izaten dute, ez jarraitua; haatik, gure azterketatik kanpo utzi ditugu.

Beraz, gure lanaren helbururako, lehenik, Administrazio Publikoak enpresa mota bakoitzean zuzenean edo zeharka erlaziorik daukan ikusi behar da eta erlazioa dutenak bakarrik hautatu, nahiz zeharkakoa izan. Gero, enpresa horietan karguren bat duten pertsonak bakarrik hartuko ditugu kontuan, berauek direlako enpresaren jardueran parte dutenak; horrela, kontseilariak, lehendakariak, lehendakariordeak zein idazkariak kanpo utziko ditugu; ordea, CEO, gerente, kudeatzaile nagusi, administratzaile bakar edo zuzendari gisa azaltzen direnak.

Mota guztietako datuak kontuan hartuta, kargudunen kopuru osoa 1.633koa da, non kontseilari, lehendakari, lehendakariorde, gerente, zuzendari edo bokalak dauden. Gorago aipatu garbiketa egin ostean, 108 kargudun daude, EITBn lau aldiz biderkatzen den kargua zuzendu ondoren, pertsona bera 4 kargutan azaltzen baita.

Laburbilduz, Hego Euskal Herrirako 7 entitate mota sailkatuta ditugu eta hauexek dira: 1) Zuzenbide pribatuko ente publikoak; 2) Arlo publikoko fundazioak; 3) Independentek - Ez dira Administrazio Publikoaren parte, baina parte-hartze publikoa dute; 4) Beste elkarte batzuren partaidetza duten fundazioak; 5) Beste elkarte batzuk Administrazio Publikoaren parte-hartzearekin; 6) Fundazioak (Basque Culinary Center, Azti, Artium...); eta 7) Irabazi Asmorik Gabeko Entitateak Administrazio Publikoren partehartzearekin (EVE) eta Irabazi Asmorik Gabeko Entitateak, baita Nafarroa, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Foru Aldundien hainbat erakunde edo enpresa publiko. Kanpo utzi ditugu "Independentek, ez direlako Administrazio Publikoaren parte eta kontsorzioak", azken hauen lehendakaria, lehendakariordea eta kontseiluko kideak bakarrik azaltzen direlako, ez gainontzeko kargurik.

Taula 1

Administrazio publikoak eragina duen enpresa erakundeen kargudunak unibertsitate ikasketen arabera (2018)

	1	2	3	4	5	6	7	Kopurua orotara	Kopurua %	Ikasle kopurua	Ikasle kopurua %
Kargu kopurua	37	23	16	2	19	39	113	249	-	-	-
EHU	8	8	2	1	9	11	26	65	48,1	43.380	60,6
UD	9	7	3	-	1	5	16	41	30,3	14.174	19,8
UNAV	3	-	-	-	-	4	14	21	15,5	11.180	15,6
NUP	-	-	-	-	-	-	6	6	4,4	8.157	11,4
MU	2	-	-	-	-	-	-	2	1,5	5.890	8,2
U. Zaragoza	-	-	-	-	-	-	7	7	-	-	-
Besteak	15	8	11	1	9	19	44	107	-	-	-
Emakumeak	11	12	4	1	4	15	35	82	-	-	-
Euskara	11	9	3	-	3	5	29	60	-	-	-
Ikasleak orotara	-	-	-	-	-	-	-	-	100	71.601	100

Iturria: Base de Datos de INFORMA D&B S.A. Utik argitaratuak, 2018. Norberak landua.

Goiko taulan ikusten dugun bezala, orotara 249 goi-kargu identifikatu ditugu eta horietatik 135 Hego Euskal Herriko bost unibertsitateetatik irtendakoak dira; 7 kargu Zaragozako Unibertsitateetatik eta 107 estatuko eta atzerriko unibertsitateetatik. Beraz, kargu guztien % 54 etxean formatutakoak dira eta hemendik kanpo % 46.

Kargudun gehienak, orokorrean, EHUtik pasatakoak 65 dira (% 48,1), baldin eta bakarrik HEHko unibertsitateak kontuan hartzen baldin baditugu, nahiz bere ekarpen erlatiboak % 60,6 izan ikasle kopuruari dagokionez. Bigarrenik, DU dator 41 kargudunekin, % 30, baina unibertsitatearen tamaina hiru bider txikiagoarekin, hau da, % 19,8rekin. Ondoren NU 21 kiderekin, % 15,5ekin, erlatiboki orekatuta, unibertsitatearen pisu erlatiboaren parekoa baita, % 15 ingururekin. Gero, NUP eta MU datoz, 6 eta 2 kargudunekin, baina ez da ahaztu behar bi unibertsitate hauek oso berriak direla. Azkenik, aipatu behar da Zaragozako Unibertsitatea, zeina nafar askoren formakuntza-gunea izan baitzen eta kide hauek Nafarroako enpresa publikoetan beraien gribidea aurkitzen baitute.

Azkenik, 249 kargu horien artetik 76 emakume aurkitzen dira eta euskaldunak, horrela adierazita, 57. Beraz, berdintasun-politikak ez du aurrerapen handirik egin enpresa mundu honetan eta elebitasunak ere bere defizita nabarmen uzten du.

2.1. Zuzenbide pribatuko ente publikoak

Gaur egungo edozein Administrazio Publikok erraztasun handiak ditu enpresak sortzeko jarduera zehatzak burutze aldera. Modu horretan Administrazio Publikoak pertsonala edo ekoizpenerako lehen gaiak edo makineria eskuratu ahal izateko askatasuna du kontratu horiek egikaritze aldera. Alta, Administrazio Publikoak prozedimendu publikoa erabili beharko luke kontratu bakoitza bideratzeko eta horretarako, batik bat, pertsonala kontratatzeko eta edozein jarduera aurrera eramateko luze joango litzateke.

Era honetako 42 enpresa aurkitu ditugu eta Sozietate Anonimoak dira, non administrazio kontseilu bat dagoen enpresaren norabide estrategikoa zuzentzeko, zeina, batik bat, kargu publikoek osatzen duten. Sailburua izango da, gehienetan, sailari atxikitutako enpresaren lehendakaria; enpresetako erabaki estrategikoetan eragina eta ardura dute lehendakariak, alabaina, eguneroko erabakiak kudeatze aldera, kudeatzaile nagusiak edo zuzendariak hartuko ditu neurriak. Beraz, agintari exekutiboak kontuan hartuko ditugu lan honetan, enpresa publiko horretako profesional nagusiak direlako eta bere menpe egongo dira finantza, giza baliabide edo komertzial zuzendariak; azken kargu hauek ez ditugu kontuan hartu, enpresa publikoetako lehen mailako elitea kudeatzaile nagusiek osatuko dutelako eta beste hauek bigarren maila batekoak direlako. Eta kudeatzaile gorenek non burutu dituzten beraien unibertsitate ikasketak aztertuko ditugu, hori baita interesatzen zaiguna ikerketa honetan.

Orotara 37 kudeatzaile nagusi identifikatu ditugu enpresa publikoetan eta horietatik 8k ez dute esaten non burutu zituzten beraien unibertsitate ikasketak edo, agian, ikasketa maila horretara ez dira inoiz iritsi. Gainontzeko 29 kudeatzaile nagusiak modu honetan banatzen dira: Deustuko Unibertsitatean 9k burutu dituzte graduiko ikasketak, % 24,3k, EHU beste 8k, % 21,6k, Nafarroako Unibertsitatean (Opus Dei) 3k, % 8,1ek, Mondragon Unibertsitatean 4k (pertsona berak betetzen ditu EITBko lau zuzendaritzak), % 10,8k, eta gainontzeko 6k unibertsitate desberdinetan egin zituzten ikasketak, % 16,2k.

Enpresa mota honetako zuzendarien gehiengoa, berriro ere, Deustuko Unibertsitatetik irteerako profesionalek daukate protagonismo gehien, zenbaki absolutuetan, baita erlatiboetan ere. Izan ere, EHU, ikasle kopuruari dagokionez (% 60,6), Deustuko Unibertsitatea (% 19,8), baino hiru bider handiagoa da eta kudeatzaile kopuru apalagoa du. Aipatu Mondragon Unibertsitatea ere azaltzen zaigu, alabaina salbuespen gisa hartuko dugu EITB korporazioa tartean dagoelako eta pertsona

berak betetzen zuelako aginteko goren-kargua 2018an erakunde publiko hori osatzen zuten lau enpresen administrazioetan.

EMAKUNDE urtetan ari da emakume eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzen, batik bat sektore publikoan non kokatzen diren enpresa hauek. Halere, kudeatzaile nagusi karguetan 37tik 8 emakume bakarrik ikusten ditugu, % 30era ere ez da heltzen. Beraz, jauzi handia geratzen da emateko arrakala berdintze bidea burutzeko.

Azkenik, kudeatzaile nagusi edo euskal enpresako elitearen euskalduntasuna auzitan jarri beharra dago. Izan ere, 37 kudeatzaile horietatik 11k bakarrik aitortzen dute euskara dakitela, horietatik EITBko administrazioaile bakarrak, nahiz izendatutako agintari berriak ez duen menperatzen. Gainontzekoek edo ez dakitela aitortzen dute edo ez dute erantzuten, ziurrenik ez dakitelako. Beraz, azken urteetan eratuz joan den euskal enpresarien euskaltasuna nahiko hutsala izan da. Alabaina, enpresa publiko hauetako lehendakari, lehendakariorde edo bokalek, kargu publikoak direnez, gehienek, euskara dakitela aitortzen dute, baina izendapen politikoa dute, ez enpresako agintariena.

2.2. Arlo publikoko fundazioak

Administrazio Publikoak beste enpresa formula bat era erabiltzen du, hain zuzen, fundazio publikoena. Fundazio hauetan 58 agintari kargu daude 23 fundazioetan banatuta. Hauen arteko gehienak Administrazio Publikoko arduradunak dira eta, beraien postua dela eta, fundazio publiko horietako administrazio organoetan derrigor egon behar dute. Alabaina, ez dira betekizun horretara dedikatzen denbora osoz. Horrela, fundazio bakoitzeko kargudun bana identifikatu ditugu, 23, beraz.

Kargudun hauen unibertsitate ikasketak honela banatuta daude: Deustuko Unibertsitatean 7 kidek burutu dituzte ikasketak, EHU 8k eta gainontzeko 8k beste unibertsitate batzuetan. Arlo honetan, erlatiboki ere Deustuko Unibertsitatetik gehiago ateratzen dira, nahiz zenbaki absolututan EHUK kide gehiago ekarri.

Halaber, fundazio publiko hauetan 12 emakumek betetzen dituzte aginte postuak; beraz, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna agerikoa da enpresa mota honetan. Halere, kontuan hartu behar da Haurreskola Fundazio Publikoan 8 emakume daudela agintean eta horietatik 4 Deustuko Unibertsitatean ikasitakoak eta 2 EHU, hauen artean kudeatzaile nagusia; beste 2k ez dute unibertsitate ikasketarik edo, bederen, ez dute azaltzen.

2.3. Gainontzeko enpresa mota oro administrazio publikoarekin erlazionatuta

Lana sinplifikatze aldera gainontzeko 5 ataletan azaltzen diren enpresak erlazionatuta daude erakunde publikoekin, hauek zerikusia dutelako ente horien jardueretan. Hala, batu ditugu ondorengo enpresa mota hauek eta goiko taulan ordenamendu honetan

sailkatuak datoz: 3) Independentek-Ez dira Administrazio Publikoaren parte, baina partehartze publikoa dute; 4) Beste elkarte batzuren partaidetza duten fundazioak; 5) Beste elkarte batzuk Administrazio Publikoaren parte-hartzearekin; 6) Fundazioak (Basque Culinary Center, Azti, Artium...); eta 7) Irabazi Asmorik Gabeko Entitateak Administrazio publikoren partehartzearekin (EVE) eta Irabazi Asmorik Gabeko Entitateak, baita Nafarroa, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Foru Aldundien hainbat erakunde edo enpresa publiko.

Mota honetako enpresen artean entitate handienak 7. atalean daude sailkatuta eta horietan lau foru aldundiek parte hartzen dute eta beste batzuk finantza publikoaren bidez harremantzen dira. Atal honetan 189 agintari daude identifikatuta eta horietatik EHUtik irtendako kargudunak 49 dira, hau da, kargudun guztien % 26. DUtik irtendakoak 25 dira, guztien % 13. NUtik ateratakoak 18 dira, % 9,4; alabaina, kontuan izan behar da Nafarroko Foru Gobernuak era honetako enpresa asko dituela eta ondorioz kargu asko nafarrek betetzen dituztela. NUPk 6 ekartzen ditu eta MUK batere ez.

Azkenik, 59 emakume daude aginte-postu gorenak betetzen, % 31; benetako berdintasuna urrun samar dago, baina sektore pribatua baino aurreratuago sektore publiko zein erdi-publikoko enpresen munduan. Halaber, euskara dakiten kargudunak 40 dira, % 21; Bizkaia eta Gipuzkoan nabarmentzen da euskararen ezagutza, ez ordea Nafarroa edo Araban.

3. Ondorioak

Lan honetan Hego Euskal Herriko enpresa pribatu nagusienek eta Administrazio Publikoak eragin zuzena eta zeharkakoa duten enpresen goi-kargudunen formakuntza intelektualaren jatorria aztertzen da. Formakuntza hori, batik bat, Hego Euskal Herriko bost unibertsitateetan burutu da, alabaina hainbat goi-kargudunek edota CEOk Estatuko unibertsitateetan (Madrileko Unibertsitate Complutensen, Bartzelonan, Zaragozan, Salamancan edo Comillaskoan) egin dituzte beraien unibertsitate ikasketak, baita atzerrian ere (Bretainia Handia, Alemania, Uruguain, e.a.).

Bost unibertsitate horiek Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU), Deustuko Unibertsitatea (DU), Nafarroako Unibertsitatea (NU), Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP) eta Mondragon Unibertsitatea (MU) dira. Zaragozako Unibertsitatea ere kontuan hartu dugu, NUPa sortu aurretik Nafarroako hainbat fakultate eta unibertsitate eskola bere baitan zeudelako. Bestalde, unibertsitate bakoitzaren tamaina zehazterakoan ikasle kopurua hartu dugu kontuan, bai graduatuetakoa, baita ere graduondoetakoa.

Enpresa pribatuetako goi-kargu orokor gehienek, enpresa elitea osatuko duten enpresaburuek, Hego Euskal Herriko bost unibertsitateetan burutu dituzte beraien

ikasketak. Izan ere, EHUⁿ 56 karguk, DUⁿ 58k, MUⁿ 7k, NUⁿ 20k eta NUPⁿ 2k: orotara 145 agintari. Horiez gain, Estatuko unibertsitateetan 105 kidek gauzatu dituzte beraien ikasketak eta 24k atzerrian (Alemania, Mexiko, Uruguain, e.a.). Begi bistakoa da, ikasketei dagokienez, euskal enpresa elite-talde mistoa edo nahasia dela, nahiz, gehien bat, Espainiar Estatu osoko unibertsitateetatik irtendakoak izan, 250 kide, hain justu.

Enpresa publiko edo erdi-publikoak kontuan hartzen baldin baditugu, orotara, 249 goi-kargu identifikatu ditugu eta horietatik 135 Hego Euskal Herriko bost unibertsitateetatik irtendakoak dira; 7 kargu Zaragozako Unibertsitateetik eta 107 estatuko eta atzerriko unibertsitateetatik. Beraz, kargu guztien % 54 etxean formatutakoak dira eta hemendik kanpo % 46.

Kargudun gehien EHUⁿ ikasitakoak dira, 65, % 48,1, baldin eta bakarrik HEHko unibertsitateak kontuan hartzen baldin baditugu; halaber, aipatu behar da, EHUren ekarpen erlatiboa % 60,6koa dela. Bigarrenik, DU dator 41 kargudunekin, % 30ekin, baina unibertsitatearen tamaina hiru bider txikiagoarekin, hau da, % 19,8rekin. Ondoren NU 21 kiderekin, % 15,5ekin, Unibertsitate hau erlatiboki orekatuta, bere pisu erlatiboaren parekoa baita, % 15ekoarekin. Gero, NUP eta MU datoz, 6 eta 2 kargudunekin, hurrenez hurren, baina ez da ahaztu behar bi unibertsitate hauek oso berriak direla. Azkenik, aipatu behar da Zaragozako Unibertsitatea, zeina nafar askoren formakuntza-gune baita eta kide hauek Nafarroako enpresa publikoetan baitute beraien ogibidea.

Azkenik, 249 kargu horien artetik 76 emakume dira eta euskaldunak, horrela adierazita, 57. Beraz, berdintasun politikak ez du aurrerapen handirik egin enpresa mundu honetan eta elebitasunak ere bere defizita nabarmen uzten du.

Administrazio autonomikoen zuzenbide pribatuko ente publikoetan Deustuko Unibertsitateetik irtendako profesionalek daukate protagonismo gehien, zenbaki absolutuetan, baita erlatiboetan ere. Halaber, azpimarratu behar da EHU, ikasle kopuruari dagokionez (% 60,6), Deustuko Unibertsitatea (% 19,8) baino hiru bider handiagoa dela, alabaina goi kudeatzaileen kopurua apalagoa duela.

Arlo publikoko fundazioetako kargudunen unibertsitate ikasketak honela banatu ditugu: Deustuko Unibertsitatean 7 kidek, EHUⁿ 8k eta gainontzeko 8k beste unibertsitate batzuetan. Hainbat kargudunek ez dute azaltzen non burutu dituzten beraien ikasketak. Arlo honetan, erlatiboki ere Deustuko Unibertsitateetik gehiago ateratzen dira, nahiz zenbaki absolututan EHU^k kide gehiago ekarri. Begi-bistakoa denez, enpresa mota honetan ere DUtik irtendako profesionalek lehentasun handiagoa dute Unibertsitate Publikotik irtendakoak baino; hori horrela izango da prestakuntza intelektuala hobeagoa dutelako?

Laburbiltze aldera, 4 mota ezberdinetako enpresen zerrenda osatu dugu eta hori guztien arteko entitate handiena 7. atalean daude sailkatuta eta enpresa horietan lau foru aldundiek parte hartzen dute, zuzenean ez bada zeharka finantzazioaren

bidez. Atal honetan 189 agintari identifikatu ditugu eta horietatik EHUtik irtendako kargudunak 49 dira, hau da, guztien % 26. DUtik irtendako kargudunak 25 dira, guztien % 13. NUtik 18, % 9,4; alabaina kontutan izan behar da Nafarroako Foru Gobernuak era honetako enpresa asko dituela eta ondorioz kargu asko nafarrek betetzen dituztela, NUPk 6 ekartzen dituelarik.

Bibliografía

BASE DE DATOS de INFORMA D&B S.A.U.

GALBRAITH, John Kenneth (1967): *El Nuevo Estado Industrial* (The New Industrial State), Barcelona, Ed. Ariel

KEISER, Richard (2020): Miedos de Blancos en Estados Unidos, *Le Monde Diplomatique*, Septiembre, 2020.

RIMBERT, Pierre (2020): La Burguesía Intelectual, una Elite Hereditaria, *Le Monde Diplomatique*, Agosto, 2020.

10

Hego Euskal Herriko emakumezko elitearen heziketa

Gurutze Ezkurdia Arteaga
Itsaso Biota Piñeiro

Garaian Ikerketa taldea

Elitearen heziketaren azterketa honetan Hego Euskal Herriko elitearen prestakuntza akademikoa non burutu den aztertu da. Erregistro guztien artetik generoaren bereizketa eta irakurketa ere egin da. Guztira emakumezkoak 1.410 dira eta gizonezkoak 2.542. Azterketa honek ikerketarako landu diren 10 eremuetan gizonezkoen nagusitasuna erakusten du, emakumezkoen kopurua % 35,7koa den bitartean, gizonezkoena % 64,3koa da. Eremu batzuetan dagoen arrakala oraindik oso nabarmena dela adierazi behar da, eremuaren datu analisisian adierazi den moduan. Artikulu honetan, emakumezkoen taldea isolatu eta horri buruzko datu batzuk garatuko dira. Horien arabera eliteko emakumeek jaso duten heziketa arlo publikoan ala pribatuan jaso duten aztertu da. Gainera, zein maila akademikoko ikasketak egin dituzten ere aztertu da. Ondoren, elitea nola zehazten den, eta emakumezkoen eliteak nola hautatzen diren aipatzen da. Eta bukatzeko, Euskal Herriko emakumezkoen eliteak hautatzeko irizpideei buruzko zenbait iradokizun aurkezten dira.

Erabili den laginean, emakumezkoen erreferentziak islatzen dituzten erregistroak, guztira 1.986 dira, baina erregistro batzuetan informazioa osoa ez denez bildu, baliozkoak % 75,80a dira. Horietarik emakumeen % 55,8ko portzentajearen prestakuntza akademikoa unibertsitate publikoan jaso du, eta % 44,2ak pribatuan. Gehiengo batek, % 83,3k Hego Euskal Herriko unibertsitateetan ikasi du; Estatuko unibertsitateetan ikasiak askoz gutxiago dira, % 14,3a. Azkenik, atzerriko unibertsitateetan ikasitakoak oso gutxi dira, % 2,5a. Datuetatik ondoriozta genezake, unibertsitate prestakuntza Hego Euskal Herriko unibertsitate publikoetan jasotzea dela emakumezkoen lehen aukera.

1 taula

Emakumeak Hego Euskal Herriko Unibertsitateetan, ehunekotan.

Emakumeak Hego Euskal Herriko Unibertsitateetan	
Deusto Unibertsitatea	% 29,7
Unibersidad de Navarra	% 15,2
Mondragon Unibertsitatea	% 1,3
UPV-EHU	% 49,7
UPNA-NUP	% 4,1

Unibertsitate bakoitzaren kopuru erlatiboak aztertzerakoan, Hego Euskal Herriko unibertsitate publikoen artean, emakumeen kopururik handienak, % 49,7ko portzentajearekin UPV/EHU ikasi du eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan, berriz, % 4,1k. Unibertsitate pribatuen artean, goi mailako prestakuntza egiteko emakume kopuru gehienak Deustuko Unibertsitatea aukeratu du, % 29,7ak. Ondoren, emakumeen % 15,2ko portzentajearekin Universidad de Navarra aukeratu du. Eta azkenik, % 1,3ak unibertsitaterik gazteena, Mondragon Unibertsitatea.

1. Emakumezkoak elite politiko, ekonomiko eta kulturalen

Lan honetan elitearen barruan hiru azpitalde desberdinu dira: ekonomikoa, politikoa eta kulturala. Arlo bakoitzean agertzen diren emakumeen prestakuntza akademikoa tauletan aztertzen da. Ondorioak, ondoren.

2 taula

Esparru politikoan ari den eliteko emakumezkoen heziketa kopuru absolutu eta ehunekotan

Erregistro kopurua	%		Hego Euskal Herrian		Estatuan		Atzerrian	
Publikoa	318	52,1	270	% 49,1	45	% 80,3	2	% 40
Pribatua	292	47,8	279	% 50,8	11	% 19,6	3	% 60
Guztira	610	100	549	% 100	56	% 100	5	% 100

Politikarekin lotutako emakumezkoen datuen laginean aipatu ditugun 1.986 erregistroetatik, 610 agertzen zaizkigu elite politikoan. Elite ekonomiko eta kulturalarekin alderatuz emakume talderik handiena da, kopuru absolutuan 610

erregistroekin. Kopuruak adierazten dutenaren arabera, askoz emakume gehiago dagoela arlo politikoan lanean, besteetan baino. Paritate legeek behartuta lortzen da gizon-emakumezkoen ordezkotza kopuruak parekatzea eta gure datuen irakurketan argi islatzen da lege horien eragina.

Horietarik unibertsitatearen izaera kontuan hartuta publikoan ikasi dutenak % 52,1 dira, eta pribatuan % 47,8. Estatuan ikasitakoan artean ere, gehiengoak unibertsitate publikoan ikasi du, % 80,3ak; pribatuan aldiz, % 19,6ak. Baina, Hego Euskal Herriko unibertsitateetan ikasi dutenen artean, berriz, unibertsitate pribatuetan ikasitakoak dira gehiengoak, % 50,8ko portzentajearekin eta publikoetan % 49,1arekin. Atzerrian ikasitakoan artean, gehienek unibertsitate pribatuetan ikasi dute % 60ak, eta gutxien, publikoetan, % 40ak.

2. taula

Esparru ekonomikoan ari den eliteko emakumezkoen heziketa kopuru absolutu eta ehunekotan

Erregistro kopurua	%	Hego Euskal Herrian		Estatuan		Atzerrian	
Publikoa	28	52,8	18	% 41,8	10	% 100	-
Pribatua	25	47,1	25	% 58,1	-	-	-
Guztira	53	100	43	% 100	10	% 100	-

1.986ko laginatik, elite ekonomikoan diren emakumezkoak 53 dira. Kopuru absolutua askoz txikiagoa da elite politikoan ari dena baino. Horietatik % 52,8ak unibertsitate publikoan ikasi du, eta apur bat gutxiago da pribatuan ikasitakoak, % 47,1ak.

Lurraldearen arabera, Hego Euskal Herrian ikasi dutenak dira gehiengoak, batez ere unibertsitate pribatuetan % 58,1eko portzentajearekin, eta ondoren, unibertsitate publikoetan, % 41,8arekin.

Jarraian, kultura arloko elitean ari diren emakumezkoen azterketa egingo dugu. Eremu honetan esparru kulturean ari den eliteko emakumezkoen kopurua 56 erregistroz osatzen da.

3. taula

Esparru kulturealean ari den eliteko emakumezkoen heziketa kopuru absolutu eta ehunekotan

Emakumezkoak elite kulturealean							
Erregistro kopurua	%	Hego Euskal Herrian		Estatuan		Atzerrian	
Publikoa	31	55,3	26	% 53	5	% 71,4	-
Pribatua	25	44,6	23	% 46,9	2	% 28,5	-
Guztira	56	100	49	% 100	7	% 100	-

Kultura esparruan ari den emakumeen heziketa unibertsitarioa, jasotako datuen arabera, agerian uzten du emakumeen gehiengoak unibertsitate publikoetan ikasi duela, % 55,3ko portzentajearekin eta pribatuetan, % 44,6ak. Hego Euskal Herriko unibertsitate publikoetan emakumeen % 53ak ikasi du, eta pribatuetan % 46,9ak. Estatuan prestakuntza akademikoa unibertsitate publikoetan burutu duten emakumeak gehiengo dira, % 71,4ak, aldiz, unibertsitate pribatuetan ikasi dutenak % 28,5ak dira. Kultura arloan ari den eliteko emakumezkoen artean, inork ez du atzerriko unibertsitateetan ikasi.

Beraz, Kultura esparruko eliteko emakumeen Hego Euskal Herriko unibertsitate publikoetan ikasiak direla baieztatzen da, nahiz eta pribatuetan ikasi dutenak oso gertuko portzentajearen aurkitzen ditugun. Kultura arloan bezala, kasu honetan ere, arlo ekonomikoko elitean ari diren emakumezkoen gehiengoak unibertsitate publikoan ikasi dute, Hego Euskal Herriko unibertsitate zein Estatukoetan. Pribatuan ikasi dutenak aldiz, gehiengoak Hego Euskal Herriko unibertsitate pribatuetan ikasi du.

2. Emakumeen ikasketei buruzko ohar batzuk

Ondorengo lerroetan, Hego Euskal Herriko elitearen parte diren emakumezkoen hezkuntza akademikoa aztertzen da. Batzuk goi-tituludunak dira, beste batzuk lanbide hezkuntzan eta beste batzuk musika, dantza, hizkuntza eta beste ikasketa batzuetan ikasi dute. Emakumeen ikasketa maila aztertuko da ondorengo datuetan, goi doktoradutzako mailatik hasita, beste ikasketa batzuk duten mailataraino.

4. taula

Elitezko emakumezkoen ikasketa maila kopuru absolutu eta ehunekotan

Ikasketa maila	Guztira	%	Publikoa		Pribatua	
Doktoradutza	8	% 0,55	7	% 87,5	1	% 12,5
Gradua/Lizentziatura	1246	% 85,7	670	% 53,7	576	% 46,2
Diplomatura/Teknikoa	153	% 10,5	90	% 58,8	63	% 41,1
Lanbide Heziketa	19	% 1,3	0	% 0	19	% 100
Besteak	27	% 1,85	6	% 22,2	21	% 77,7
Guztira	1453	% 100	773	% 53	680	% 47

Eliteko emakumeek duten ikasketa maila neurtu da, oraingo honetan. Gehiengo batek, % 85,7ak Gradu edo Lizentziatura mailako ikasketak ditu. Hurrenez hurren, Tekniko-Diplomatuak dira, % 10,5arekin. Lanbide Heziketa % 1,3ak egin du, eta goi mailako ikasketak, Doktoretza, % 0,55ak. Badira, azkenik, bestelako ikasketak dituzten emakumeak, % 1,85ek musika, dantza, hizkuntzak edo ikasketa bukatu gabekoak dira.

Aurreko atalean ikasketarik gehien Graduatu-Lizentziatuen eta Tekniko-Diplomatuen atalean aurkitzen ditugu. Ondoren bi atal horietan dugun langina hartuta, egindako ikasketen sailkapena egin da, ezagutza arloei lotutako ikasketak multzotuz.

5. taula

Emakumezko elitearen ikasketak kopuru absolutu eta ehunekotan

Ikasketak	Guztira	%	Publikoa		Pribatua	
Hezkuntza Zientziak	97	% 6,8	81	% 83,5	16	% 16,4
Hezkuntza Teknikoak	118	% 8,3	59	% 50	59	% 50
Gizarte Zientziak	847	% 60,1	390	% 46	457	% 53,9
Giza Zientziak	139	% 9,8	56	% 40,2	83	% 59,7
Osasun Zientziak	79	% 5,6	60	% 75,9	19	% 24
Arte Ederrak	127	% 9,2	105	% 82,6	22	% 17,3
Guztira	1407	% 100	751	% 53,3	656	% 46,6

Datuek aditzera ematen dutenez, Gizarte Zientziak ikasi dituzte elitean dauden gehiengo emakumezkoek % 60,1ek. Gogoan hartu behar da, Gizarte Zientzien artean, Zuzenbidea eta Ekonomia-Enpresen ikasketak biltzen direla. Aurreko atalean aipatu

den bezala, elite politikoan ari diren emakumezkoen kopurua da handiena eta haien formakuntza ere, oso bideratua dago holako postuetara.

Ondoren Giza Zientziak ikasitakoak ditugu hurrenez hurren, % 9,8arekin eta hurbiletik jarraituta Arte Ederrak ikasi dituztenak, musika barne, % 9,2arekin. Ondoren ikasketa Teknikoak datoz, inginaritza, informatika eta abar ikasi dituztenak, % 8,3arekin. Elitezko taldeen artean, Osasun Zientziak ikasi dituztenak dira, % 5,6arekin presentzia txikiena dutenak.

Bestalde, unibertsitate publikoetan ikasi dutenak dira gehiengoa, % 53,3arekin, baina nahiko parekatuta unibertsitate pribatuetan ikasi dutenekin, % 46,6. Gizarte eta Giza Zientziak ikasi dituztenen artean aldiz, unibertsitate pribatuetan ikasi dutenak nagusi dira, % 53,9 eta % 59,7arekin. Teknikoetan parekotasuna agertzen da, eta bai Zientzietan, Teknikoetan eta Arte Ederretan ikasi dutenak gehiengoak unibertsitate publikoetan ikasi dute, portzentaje altuarekin gainera.

3. Ondorioak

Egindako azterketaren arabera honako ondorioak atera genitzake. Batetik, kultur eta ekonomia esparruko elitezko emakumeen gehiengoak unibertsitate publikoetan ikasi dutela ondorioztatzen dugu, gehiengo batek, gainera. Hego Euskal Herriko unibertsitate publikoetan eta pribatuetan ikasi dutenekin dagoen portzentajearen aldea txikia dela agerian dago.

Aldiz, elite politikoan ari diren emakumezkoen gehiengoa Hego Euskal Herriko unibertsitate pribatuetan ikasia da. Gaineratu behar dugu, arlo politikoan ari diren emakumeen erregistro kopurua (610), beste bietan (kulturan 53, eta ekonomian 56) baino hamar aldiz handiago dela. Datuok, Paritate Legeek izan duten eraginaren isla direla esan genezake, legeak behartu egiten baitu emakume eta gizonen arteko ordezkapen politikoa parekoa izatea. Beste bi arloetan agertzen diren erregistroekin konparatuz gero, arlo hauen artean dagoen arrakala irudikatzen dute. Hauxe da benetako argazkia.

Ikasketen mailari begiratzuz gero, emakumeen gehiengoak Gradu-Lizentziatura ikasketak ditu, % 85,7ak, eta hurrenez hurren, diferentzia handiarekin Tekniko-Diplomatura maila ikasi duten emakumezkoak ditugu, % 10,5arekin. Doktoretza, goi mailako ikasketetan goreneko maila, oso gutxik dute, % 0,55ek.

Datu hauen irakurketa osoa egiteko, Euskal Herriak bizi izan duen testuinguru sozio-historikotik abiatu beharra dago. Hego Euskal Herriak ez du unibertsitaterik izan oso berandura arte. Hasierako unibertsitateak ekimen pribatutik sortuak dira. Lehenik Deustuko Unibertsitatea sortu zuten Bilboko oligarkek, Casilda de Iturrizarren gidaritzapean, XIX. mendean, 1886an hain zuzen, Jesusen Lagundiaren ardura eta zuzendaritzapean. Bizkaiko, eta batez ere, Bilboko Iraultza industrialean behar ziren

eliteen hezkuntzarako sortua izan zen, beren-beregi. Hasieran, Deustura joan ziren ikasleak gizonezkoak ziren, eta frankismoko garaietara arte iraun zuen Hego Euskal Herrian unibertsitate bakar bezala. 1963an Gipuzkoako campusera zabaldu zen. Garai horretarako, Opus Deik sortua zuen Universidad de Navarra, Iruñean, 1952an, hain zuzen, eta Gipuzkoara 1961ean zabaldu zen.

Europako aire berriei erantzunez, eliteko unibertsitateari kritikak hedatu eta masa unibertsitate eredu berria indartzen hasi zen. Bizkaian, 1968an sortu zen Bilboko Unibertsitatea, beranduago, frankismoa bukatu eta berehala, 1980an, UPV/EHU izatera pasatu zena. Bertan bildu ziren hainbat Eskola, Goi Eskola eta Fakultate (Dávila, 2018), Euskal Herrian izan den lehen Unibertsitate publikoa sortuz. Denbora laburrean, bai premiak bai gizarteak baldintzatuta, hainbat Fakultate, Institutu eta iker-gune sortu dira, Unibertsitaterik handiena osatuz eta nazioarte mailan goi ranking-etan oso ondo kokatua dagoena. Arlo zientifiko-teknologikoan hartu du bere biziko indarra eta unibertsitate pribatuen parean, nazioarteko lidergoa ordezkatzeko du. Apur bat beranduago Nafarroak bere unibertsitate publikoa ere sortu zuen, UPNA, 1987an. Azkenik, Kooperatiben beharriari erantzuteko, eta kooperatibismoaren filosofiari erantzun nahian, Mondragon Unibertsitatea sortu zen, 1997an.

Historia honek guztiz baldintzatu du Euskal Herriko emakume gazteen goi hezkuntza. Garai bateko emakumeek, hasieran eliteko sendi aberatsen alabak, eta geroago, goi ikasketen zabalkundearen ondorioz, 1970. hamarkadan, klase ertainetako alabak, beste aukerarik ezean pribatuan ikasterik baino ez zuten, askotan etxeetan, neskei etxetik kanpo ikasteko oztopoak jartzen zizkietelako, edo baliabide ekonomiko aldetik, kanpoko beste edozein unibertsitate publikora ikasten joatea garestiago irteten zelako. Talde honetan sar daitezke, elitean dauden adineko emakumeak, 60 urtetik gorakoak.

1980ko hamarkadan, gazte ziren emakumeek, haietako asko gaur egun lidergoan daudenek, unibertsitate publikoan ikasteko aukera izan dute, eta hori nabarmen agertzen da aztertutako datuetan. Dena den, azpimarratzekoa da, garai bateko eliteko emakumeek, unibertsitate pribatuan ikasi dutela. Ondorengo belaunaldiek, batez ere ikasketa zientifikoetan ikasiak direnek, unibertsitate publikoan ikasi dutela ezin uka.

4. Azken hausnarketa

Lan honetan landu den emakumezko elitearen lagina, Espainiako Autonomi Erkidego biri lotutakoa da, eta bere ezaugarrietan Espainiako ezaugarri ekonomiko, politiko eta kulturalekin lotuta aurkitzen da. Elitea zer eta nor den ebaztea ez da arazo erraza, ideologikoa da, politikoa ere, ekonomikoa zer esanik ez, eta kulturala zentzu zabalenean ulertuta. Hurrengo lerroetan gehitzen dena hausnarketarako ideia batzuk baino ez dira, beste asko beharko direlarik, arloa sakon eta patxadaz aztertu ahal izateko.

Ez da erraza zehaztea zer den elitezko emakumea eta zer den eragin handiko emakumea. Lehen, *estatus quo*-rekin lotuago aurkitzen dugu; bestea, akaso gaur egun ikus-entzunezkoekin eta sare sozialekin lotuago. Are korapilatsuagoa emakumezko eliteak nola izendatzen diren aztertzen hastea. Orain arte nazioarte mailan egin diren sailkapenak, irizpide desberdinei erantzuten diete, *Forbes*-ek sailkapen batzuk egiten ditu, eztabaidagarriak oso, *Nobel* sariak ere, oso emakume gutxi ditu sarituak eta haien orde, haiekin ikerketan aritu izan diren gizonezkoak saritu dituzte. Polemikarako atea irekia dago. Honetan ere, irakurketa sozio historikoa egin beharra sumatzen da. Espainian Top 100 emakumeak sariekin lotzen dira... Baina badakigu sariak ematen direnean ideologiak, politikak eta hegemoniak eragin zuzena dutela. Emakundek ere ematen ditu sariak, hauek emakumeen alde lan egin duten emakumeak saritzen dituzte, baina hauek ez dute zertan elitearen parte izan behar.

Euskal Herriko emakumezkoen elitea zein den zehaztu beharko bagenu, zenbait arlo definitu beharko genituzke. Batetik, ez ikasiak ala ikasiak diren, eta kasu honetan non ikasiak diren, unibertsitate publiko edo pribatuan, lan honen haritik, eta bestetik, euskal elitea izateko Euskal Herriarekin zein lotura duten aztertu beharko litzateke, Euskal Herrian bizi, ala, bertakoa izan, ala euskalduna izan ala ez, azken finean euskal lurralde eta kulturarekin zein lotura duten finkatzea. Ondo legoke, hurrengo ikerketetarako ideia moduan, elite ekonomikoan ari diren emakumezkoen lotura nagusiak zeintzuk diren aztertzea, bai lurralde atxikipen aldetik bai ekonomi arlo aldetik, zein lidergo aldetik. Arlo politikoan ere, badira bazterrak garbitzeko, paritatea bai, baina zein mailatan, nortzuk dituzte goreneko ordezkariak eta horretan emakumezkoen tokia zein den aztertu beharko litzateke. Eta kultur arloan, euskal kultura zehaztea beharrezkoa da, ondoren emakumezkoen elitea nortzuk osatzen duten jakin ahal izateko.

Gure ustez, gutxienik bi ezaugarri lotutako ereduaz aztertu beharko litzateke. Horretarako gogoan hartu beharko lirateke, gaur, emakumezkoek bizi dituzten gutxienezko bi menpekotasun egoera: elitezko emakumeak emakume diren heinean, hau da, genero menpekotasunetik egindako azterketa, eta bestetik, euskaldun edo euskal hiritar diren heinean, kultura diglosiko baten kide izateagatik bizi duten menpekotasuna. Gure esperantza geratzen da, lan honen ekarpenei esker, etorkizuneko beste ikerketa sakon eta handiagoei atea irekita uztea.

11

Boterea, elitea eta kirola

Ekain Rojo Labaien

Nor Ikerketa Taldeko kidea

Sarrera

Kirolaren eta elitearen arteko uztartzea sortzekoa da. Batetik, estatu eliteek kirola erabili izan dute XIX. mendetik aurrera beren aginte politikoa indartzeko, gizartean ezarri nahi zituzten balioak hedatzeko eta ekonomia helburuetarako. Bestetik, kirolak hainbesteko garrantzia hartu zuen Estatuarentzat, ezen profesional bilakatu ziren kirolariak estatuko elitea bilakatu zirela, beren estatus berezia aintzat hartzen badugu. Izan ere, adibidez, XX. mendeko Europako sistema sozialistetan ere kirolariak pribilegiozko tokia zuten gizartean, estatuaren interesen zerbitzura (Drozda et al, 2020: 33). Bestelakoa da ezaugarri anitzak eta posizio ezberdina duten eliteko kirolariak, orotara, gizarteko elite boteredunen barnean sartu genitzakeen. Azterlan honetatik ikusiko dugu eztabaidagarria dela.

Ezagun da historian kirol disziplinen artean aldeak nabarmendu direla, eta masa kiroleratik aparte, bestelakoak amateurismoan edo hala nolako profesionalismo izaeran barneratu zirela. Hala, Olinpiar alorretako kirolariak eta gutxiengo disziplinetakoek oztopo nabarmenak izan dituzte bidea egiteko. Kirol sisteman emakumeen lekua are eta konplexuagoa izan da, mundu gizarteetan gizonek eduki duten hegemonia islatuta. Inondik ere, kirolak gizarte modernoan balioak adierazi izan ditu azken bi mendeetan (Jarvie eta Maguire: 1994), baita XXI. mendean genero ikuspegitik izandako gizarte garapenak sinbolikoki plazaratu ere. Askotariko gizartearen konplexutasunak, oztopoak eta mugak gardenki adierazten jarraitzen du kirolak, ispilua bailitzan, XXI. mendean. Horrela, kirola oro har hartuta, gaur egungo gizartearen norantza sakoneran aztertzeke eremu enpiriko funtsezkoa da.

Munduan zeharko kirolaren erakundetzea estatu-nazioen mailan ez ezik, izaeraz pribatuak diren estatuz gaindiko elkargoez antolatuta dago, Nazioarteko Olinpiar Batzordea, FIFA edo UCI kasu. Horiak halaber osatzen dituzte berariazko izaera pribatua duten estatu mailako federazioek. Estatu ekimen publikoaz hartueman ekonomikoa agerikoa izanda, gizartearen interes publikoen eta asmo pribatuen arteko

amarauna gertatzen da kirol sisteman. Estatu eta erregioek kirol politikak ezartzeko eskumen eta betebeharrak izanagatik, elite pribatuen interesak ere jokoan daude kirolean. Horrela, nazionalismoen interesak, enpresen gurari ekonomikoak, kirolarien beharrak eta gizartean praktika osasuntsuak ezartzeko ekimen sozialak elkartzen dira, besteak beste, gaur egungo kirolean.

Kirolaren testuinguratze hori aintzat hartuta, atal honek gogoeta sustatu asmo du eliteen nahi pribatuen eta ekimen publikoaren uztartzearen inguruan, eta unibertsiteate publikoek eremu horretan egin dezaketen ekarpenari buruz. Nolanahi ere, hausnarketa honek abiatzetik aitortzen du analisi oro hartzaila egiteko datu enpirikoen muga. Proiektu honek Hego Euskal Herriko kirolariez eta beren unibertsiteate ikasketez bildutako datuak soilki Basque Team elkargoak emandakoak dira, hau da, euskal elite kirola sustatzeko fundazioak emandakoak. Nekez atera daiteke horretatik ondorioztapen kuantitatibo handiegirik, talde eta enpresek kirolarien hezkuntza azaltzeko duten opakotasuna ez bada. Hori horrela, Leire Olaberria euskal txirrindulariari bere kirol ibilbideaz egindako sakoneko elkarrizketa gaineratuko da. Kasu azterketa horrekin, aipatutako ahulezia hori mugatuko da. Euskal eliteko kirolaren egoeraz informazioa emateaz gain, ikuspegi kualitatiboaz hornituko du analisia.

Hala, sarrera honen ondotik, beharrezko gogoeta teorikoa osatuko du kirolaren inguruko atal honek, kirolaren sorreraz, elitearen erabilpenaz eta gizartearen praktikaz. Horren ondoren, datuen analisia, Leire Olaberriaren kasu azterketa txertatuko duena. Azkenik, ondorioak kokatuko dira. Azterlanetik ateratako hausnarketa kritikoa egin ez ezik, etorkizunera begirako gogoeta egingo du.

1. Gogoeta teorikoa

Gaur egungo Euskal Herriko kirol aldaera nagusiak, futbola eta errugbia nagusiki, eta baita txirrindularitza eta saskibaloia ere –euskal pilotaren sorrera lehenagokoa da– industria iraultzaren ekoizkinak dira. Norbanako eraginkortasunean, elkartasunean eta talde plangintzan oinarritutakoak dira (Bromberger, 1998: 43), eta eredu kapitalistaren izaera arautuak eta lehiakorak Erdi Aroko jokoetatik bereizten dituenak (Darbon, 2008: 1). Orotara, kirol modernoen sorrera ahalbidetu zuten XVIII. mendean Erresuma Batuan gertatu zen Industria Iraultza aitzindariak, eredu politikoaren garapenak eta goi klaseen denbora pasak kirol bilakatzeko prozesuak (Elias, 1989: 211). Elias-ek eta Dunning-ek (1989: 213) kirol horien jaiotza kokatzen dute gizarte gatazkak konpontzeko indarkeria erdeinatzen hasi zen aroan, eta parlamentarismoak ezaugarritutako ekimen zibilizatzailearen baitan. Futbol eta errugbiaren iturburua Public School deritzonetan aurkitu behar dugu, deiturak bestela iradoki arren, guztiz pribatuak zirenak, eta goi eta klase ertainetako ikasleen heziketara zuzenduak.

Nolanahi ere, futbolak lehenik, eliteen esparrua izatetik, 1870eko eta 1880eko hamarkadetan herri klaseetarako ibilbidea burutu zuen Erresuma Batuan, ikusleen bertaratzeari uztartutako gizarte adierazpenezko tankera lortzeraino. Kirolak industria guneetan aingura gabeko norbanakoen artean komunitate berriak sortu zituen, eta identitate kolektiboak berreraikita, industria gizarte modernoak orekatzen lagundu zuen (Wahl, 1997: 51). Mundu merkatu sareen egituratzeak eta kolonia inperioen hedatzeak kirol globalizazioa bultzatu zuten (Darbon, 2008: 94). Futbolaren hedapenak Europan eta munduan, antzeko ardatzen bidetik jo zuen. Jardun aristokratikoa zena laster herri xehearen aisialdia bihurtu zen, eta lantegietako beharginentzat, industria auzune eta hiriguneentzat, identifikaziorako ardatza bihurtu zen (Bromberger, 1998: 44; Eisenberg, 2006: 13). Hego Euskal Herrian, langile britainiarrek futbola herri xehearen artean barreiatu zuten. Lapurdin, ostera, Erresuma Batuko goi klaseko udatiarrek ekarri zuten errugbia, eta horrela elite klaseen nortasunari luzaroagoan eutsi zion.

Kirola sortzetik gizartearen talde nortasunen adierazpen beharrari lotu zitzaion, nortasun kolektiboak haragitzeko eta aurkaritzak agertzeko lehenetsitako eremu bilakatuta. Lehen Mundu Gerra atariko nazionalismoen aroan nazioarteko kirol ekitaldiak estatu-nazioen erakusleihu bihurtu ziren, ereserki zeremoniez uztartuta (Dietschy, 2010: 111). Neurketan oinarritutako kultur formatzat gizartearen hedatu ahala, eliteen erabilpen politikorako eta manipulaziorako tresnak ere bihurtu ziren masa kirolak (Boyle eta Haynes, 2009: 147), estatu nazionalismoaren eta sistemaren mesedetara. Aitzitik, gizarte zibilak ere kirol ekitaldiak erabiliko zituen gerora eliteen goitik beherako kontrolari aurre egiteko, eta beren berezko balioak kontrajartzeko (MacClancy, 1996: 11). Masa kirolen izaera sinplifikatzea, bere adiera dagokion neurrian ez aintzestea da, herriaren opioa bailitzan jardun izan baitute kirolek, baina aldaketa edo iraultza politikorako bidelagun gisa ere bai (Auge, 1999: 59, 61).

Hastapenetik mundu gizarteetako hegemonia maskulinoa nabarmendu izan zuten kirolek XX. mendean. Nazioarteko erakustokian, kirola indarkeriarik gabeko gerra sinbolikotzat hartu izan zen askotan, eta gudetan bezala, estatu-nazioen loriaren alde borrokatzeko ardura gizonezkoengan ezarri zen osoki. Zentzu horretan, emakumeen kirolak oztopo handiak eduki zituen. Kirol politikak gizonen elite kirola eta nazioarteko ordezkartza sustatzera bideratu ziren, eta gainera emakumeen oinarrizko kirol praktikek ere ikuspegi ezkorra izan zuten agintarien ikuspegitik. Amatasunezko funtsezko betebeharrekin eta haurren zaintzarekin kontrajarria zela aldarrikatzen zuten emakumeen kirolaren aurkakoe (Wahl, 1997: 47). Horrez gain, Hego Euskal Herrian bereziki, Espainiaren eraginpean izanda, frankismoaren aginteak eta erlijio kristauaren ikuspegi hertsia emakumeen oinarrizko kirolaren aurrean izandako moralezko jarrerak garapena zinez mugatu zuten. Askotariko kirol praktikak erregimenak emakumeez eratutako irudiarekin bateraezinak ziren. Gainera, diktadura garaian errotutako pentsaerak luzaroan kirol esparruan, oinarrizkoan, eta elitezkoan, emakumeen parte-hartzea zapuztu zuen. Bestalde, XX. eta XXI. mendeen arteko aldaketa aroan,

feminismoaren balioen hedapenak kirolean ere hobekuntza geldoak, baina etengabeak eta sinbolikoak, eragin ditu.

Estatuentzat XX. mendean erdigunezko alorra bilakatu zen heinean, kirol politiken beharra azaleratu zen. Zentzu horretan, hastapeneko banaketa nabarmendu zen elite edo goi mailako kirol lehiaketan esparruaren, eta oinarrizko – ingelesez *grassroots* – kirolaren artean. Egiturazko zatitzea aurrerantzean indartu egin zen estatu bakoitzean kirol sistemak garatzean. Goi mailako kirola eliteek beren interes politiko eta ekonomikoen onurarako baliatuko zuten historikoki, eta oinarrizko kirola ere elitezko kirola garatzeko helburura beheratu zuten askotan. Oinarrizko kirolak ere estatu aginteak ezarri nahi zituen balio hegemonikoak gizarteratzeko funtzioa zuen (Jarvie eta Maguire, 1994, 9-10). XXI. mendean, kirola gizartearen garapenerako beharrezko bizimodu osasuntsuarekin uztartu denez, kirol politikek oinarrizko kirola indartu beharreko alderdi burujabetzat hartu dute. Azkenik, askotariko izaera eta egiturazko gobernuek nazioarteko kirol ekitaldien antolakuntza erabili dute nazio nortasuna hauspotu eta gizarte zibilaren babesa ziurtatzeko (Rensman, 2015: 119).

2. Análisis: Eliteko kirolariak eta unibertsitatea

Hego Euskal Herriko elite boterearen azterketa osoaren markoan barneratuta, kirol kapitulu honetan ere analisirako objektua izango da kirolarien ibilbide akademikoa. Eliteko kirolariak ere estatu eliteen barnean sar daitezkeen neurrian, interesekoa da aztertzea, unibertsitate ikasketak egin dituzten, eta burutu badituzte, publikoan edo pribatuan egin dituzten. Izan ere, horrek lagundu ahal du, bereziki anitza den eremu honetan ere, arlo publiko eta pribatuen eta elitearen uztarpena egiten.

Hego Euskal Herriko kirol profesionaleko talde ezagunenetara jo zuen datu bila proiektu honek. Futboleko Athletic Club, Real Sociedad, Eibar, Osasuna eta Alaves klubetako elite kirolarien ibilbide akademikoa ezagutu nahi izan zen, gizonen taldean eta baita emakumeenean ere. Horietatik Athletic Clubek soilki erantzun zuen, emakumezko taldeaz bakarrik informazioa emanda, eta bost futbolarik unibertsitate ikasketak amaituak dituztela jakinarazita. Gainontzekoek ez zieten mezu eta deiei erantzun. Antzerako jokabidea eduki zuten pilota profesionaleko Aspe eta Baiko enpresek ere. Eliteko kirolarien hezkuntzaren datuak eskuratzeko zailtasuna eta enpresen opakotasuna, hala nola, emaitzatzen ere har daitezke. Esan nahi baita, eliteko kirolarien hezkuntza ibilbidea argitara emateko prestutasunik ez edukitzeak aditzera eman dezakeela proiektu honek arlo konplexua jorratzen duela.

Azterlan honek lortutako datuak Basque Team fundazioak igorritakoak dira. “Goi mailako Euskal kirola babesteko eratu den fundazioa da”, webgunean aipatzen denez. Eusko Jaurlaritzak eta EITBk egindako ekarpenez sortu zen 2007an, eta zehaztutako helburua da profesionalak ez diren euskal kirolariei baliabideak ematea nazioarteko goi

mailako lehiaketetan parte hartzeko aukera izan dezaten. Nahiz eta enpresa pribatuak ere barne hartuta dauden, horien artean gaur egun Quiron osasun enpresa nagusiki, izaeraz publikoa da. Horren adierazgarri da Basque Team zuzentzen duen patronatuko lehendakaria Bingen Zupiria izatea, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko sailburua; lehendakariordea Andoni Aldekoa EITBko zuzendari orokorra, eta idazkaria Jon Redondo Eusko Jaurlaritzako kiroltako zuzendaria. Basque Team-ek 2020an 657.250 euro banatu zituen, 64 goi mailako kirolariren eta 12 teknikariren artean (BasqueTeam, 2021).

Horrela, Euskal Autonomia Erkidegoko goi mailako kirolari ez profesionalek, Espainiako ADO planak eskaintako diru laguntzen osagarriak eskuratu ditzakete Basque Team-en bitartez. Eliteko kirolaren ibilbide zaila laguntzeaz batera, EAE mailako euskal marka nazioartean sustatzen du euskal administrazioak, kirolariek txapelketetan Espainiar Estatuaren ordezkatu arren. ADO planaren egitasmoa parekatzen du Basque Team-ek. Espainiako Kirol Kontseilu nagusiak, hots, Espainiako Gobernuaren mendeko erakunde publikoak; Espainiako Olinpiar Batzordeak, nortasunez pribatua denak; eta RTVE hedabide talde publikoak osatzen dute Espainia mailan kirolari ez profesionalak laguntzeko ekimena, enpresa pribatu ezagunen babesaz, Caixa Bank eta Telefonica-rena, adibidez. Kirol politika antzerakoa da eliteko kirolari ez profesionalei zuzendutakoa, gidaritza publikoarekin eta maila ezberdinetako parte-hartze pribatuaz egindakoa. Kirolaz Espainiako Estatu marka eratzeke ahalegina askoz ahaltsuagoa da EAEEKoa baino, baina Eusko Jaurlaritzaren ahalegina ere nabaria da.

Lehenik eta behin, Basque Teamen datuetatik aipatu behar da sexuen parekotasuna dagoela laguntza eskuratzen duten kirolariren artean. Fundazioak aldarrikatzen duen alorra da parekotasuna, eta datuek berresten dute. Bigarrenik, orain Basque Teamek diruz babestutako goi mailako kirolari ez profesionalen % 35,4k ditu unibertsitate ikasketak eginda, 23 kirolarik hain justu, eta horien artean antzekotasuna dago ibilbide akademikoa unibertsitate publikoan eta pribatuan egin dutenen artean. Ezberdintasuna atzeman ezina da ia, % 20k publikoan eta % 15,4k pribatuan. Ikasketaren lurraldeari dagokionez ere ez da alde handirik nabaritzen. Hego Euskal Herrian 14 kirolarik ikasi dute, Espainiar Estatuan 8 kirolarik eta atzerrian batek. Hego Euskal Herrian ikasi duten 14 kirolari horien artean, 8 unibertsitate publikokoak dira, UPV/EHUkoak; eta 6 pribatukoak, 4 MUkoak eta 2 Deustukoak. Espainiako Estatuan ikasi duten 8 kirolariren artean, erabateko berdintasuna da ikasketa publikoa eta pribatuaren artean, hau da, lauk unibertsitate publikoan ikasi dute eta lauk pribatuan.

Hego Euskal Herriko eliteko kirolariren egoeraz eta jatorri akademikoaz emaitza orientagarriak eskaintzen dira hemen. Eliteko kirolaritzat hartuak dira oinarritzko kiroltiko gaitzak, estatu mailako edo nazioarteko txapelketan lehiatzen direnak. Ezina da kirolariren egoeraz azterketa sakonik egitea, ez eta indarrean dauden kirol politiken egokitasunaz analisia burutzea emaitza hauetatik abiatuta. Hori horrela, baieztatu daitekeena da eliteko kirolariren datu akademikoak eskaintzeko prestutasuna izan duen

fundazioaren zerrendaren barruan gutxiengoa direla unibertsitatean ikasi dutenak. Datuek ez dute zergatia ikertzeko biderik ematen, baina litekeena da kirolarien bizimoduaren eta ibilbide akademikoaren artean hainbat bateraezintasun egotea. Zentzu horretan, hurrengo atalean Leire Olaberria euskal txirrindulariaz eginiko kasu azterketan aztertuko dira kirolarien ibilbide akademiko eta profesionalaren baldintzapenak. Kirolari bizimodua eta goi mailako ikasketak uztartu ahal izan dituztenen hautuak kontuan hartuta, berriz, ezin da ondorioztatu, Basque Team-en datu soilak aintzat hartuta, eliteko kirolarientzat unibertsitate publikoak edo pribatuak egokiera hobea eskaintzen duen.

3. Leire Olaberria Olinpiar txirrindulariaren kasu azterketa

Beijin-go 2008ko Olinpiar Jokoetan brontzezko domina eskuratu zuen pista txirrindularitzan Leire Olaberriak. Berandu hasi zuen kirol ibilbidea, 27 urterekin alegia. Pistako txirrindulari batek gimnasioan trebatzen ikusi, eta kirol horretarako dohainak zituela antzeman ondoren, belodromoan proba egitera konbentzitu zuten, aurrez inoiz egin ez zuen kirolean. Orduz geroztik, Olaberriaren kirol ibilbidea etengabea izan zen, Olinpiar Jokoetako domina, eta Munduko eta Europako probetan lorpenak eskuratzeraino, 13 urteko nazioarteko kirol ibilbide emankorren. Alabaina, bizimodu hori orain ahaztua duela aditzera ematen du. Kirol bizitzaren amaiera mingarria azaltzen du Olaberriak, amatasuna eta eliteko kirola bateratzea ezinezko egiten duen sistema patriarkalak eraginda. Bere hitzetan, "egiturak amatasuna ez du aintzat hartzen inondik inora". Ama izan ondoren itzuli zenean, Espainiako txirrindularitza federazioak umearen zaintza eta kirol ibilbidea uztartzea galarazi zionez, auzitara jo zuen eta eliteko kirola utzi. Hainbat kirol epaitegitan babesgabe izan ostean, Auzitegi Nazionalaren epaiaren zain dago orain. Horrela, Leire Olaberriari eginiko sakoneko elkarrizketak bide ematen du eliteko kirola genero hurbiltzeaz aztertzeke, kirol sistemaren hertsitasunaz aritzeko, botereak kirolaz eginiko erabilpena antzemateko eta kirol politikaren mugei kritikoki erreparatzeko.

"Profesionaltasunik eza" eta "taldekide txarra" izatea leporatu zioten Espainiako federazioak eta kirol estamentuek bost asteke kanpo prestakuntza egonaldia 9 hilabeteko haur txikiaren zaintzaz kontrajarria zelako uko egin zuenean. Handik aurrera lehenengo aldiz bere kirol emaitzak ezbaian jarri zituzten, argudio teknikoetara eramanda auzia, eta nazioarteko lehiaketa nagusietatik alboratu: "Bizitzan zaugarriena une horretan sentitu naiz. Nik nire lana egin dut, baina zuk behartzen didazu bizikleta edo nire semearen artean hautatzera, eta horretan zalantzarik ez dut". Gizonek agindutako sisteman, generoa eta emakumearen izaera fisiologikoari dagokion errealitatea mahai gaineratu zuen lehen aldian kiroletik kanporatu zutela salatzen du. Diskriminazio kasutan aritutako abokatuek aurrera egiteko lege arrazoia zuela

ziurtatu zioten hasieratik. Nahiz eta txirrindularitza federazioa juridikoki pribatua izan, eskuordetutako funtzio publikoak dituela nabarmentzen dute, eta besteak beste, Espainiako Kirol Kontseilu Nagusiak eliteko kirolean berdintasuna bermatzeko "Emakumea eta Kirola" programarekin diruz lagunduta dagoela. Gizon taldekideen babesak eduki izan du hiru urteko auzibidean, Gipuzkoako Foru Aldundiarena eta Joan Llaneras txirrindulari olinpiar txapeldunaren sostengua ere epaiketean. Hala ere, kirolari emakumezkoen babesik ez sentitu izana deitoratzen du, kirol sistemak agindutako isiltasuna dela adierazita: "Ulertzen dut sistemaren parte dela. Hitz egiten dugun momentuan...". Orain arte emakumeek bidegabekeria salatzeak ahalmenik ez dute izan, bere hitzetan. Salaketa gogorra izanagatik, sistema bidegabea aldatzeko beharrezkoa dela dio Olaberriak.

Gizonei emandako aukera berdinak emakumeen eskura jarri behar direla aldarrikatzen du, eta bide horretan, berdintasuna, urratsak egin diren arren, urrun dagoela adierazi. Iberdrola moduko enpresa pribatu indartsuek eliteko kirola diruz babestean genero berdintasuna aldarrikatzen badute ere, Leire Olaberriaren auziaren ebazpenak sistemaren oinarriak ezbaian jar ditzake. Izan ere, Reuters Foundation-en "Emakume kirolarientzat tratu bidezkoa esku liburua"n jasotzen da Espainiako kirol legediak oraindik onartzen dituela haurdunaldiaren aurkako klausulak jartzea. Ildo horretan, kirol sistemak kirolaria zapaldu egiten duela azaltzen du, eta horiek nazioarteko lehiaketetara joateko onartu behar ez zituzketen baldintzei men egiteko prest direla. Gainera, kirol auzitegiek sistemaren iraunaldia bermatzeko funtzioa dutela argudiatzen du Olaberriak. Horrela, salaketa ohiko justiziara, Auzitegi Nazionalera, eramanda, auzibidea Espainiako Kirol Kontseilu Nagusiaren aurkakoa ere bihurtu zela nabarmentzen du. Sistema publikoaren berme izaera zalantzan jarria da horrenbestez, eta oro har Administrazioak eliteko kirolean ezarritako kirol politikaren eta sistemaren nolakotasuna.

Oro har sistema hertsia eta botere geruzek ezarritako joko arauekin lan egitera behartuta daude elite kirolariak: "Kirolaria ametsa lortzeko dena emateko prest dago, eta sistemaren barnean funtzionatzen du horrela". Elite publiko-pribatuek kirolarien bizimodua zaintzen ez dutela azaltzen du euskal txirrindulariak. Izan ere, adibidez, Espainiako ADO egitasmoaren aurrekontu osotik % 50 bakarrik erabiltzen da kirolarien beka ordaintzeko. Basque Team-ek ere EAEko mailan ekarpen handiagoa egin beharko zukeela zehazten du. Horrela, ustelkeria eta dopinaren alorra ere kirol sistemaren gaitzei leporatzen die: "Kirolariak kirol batengatik apustu egitean, bidean uzten du dena, ikasketak barne, eta orduan bidea ixten joaten da, eta askotan erabaki okerrak hartzen dituzte, eta egon da une bat erabaki okerrak hartzen laguntzen zietela". Gainera, elite kirolari ez profesionalek sistemarekiko eta boterearekiko duten menderakuntza kirol bizitza amaitzen dutenean are gehiago azaleratzen da. Kirola prestakuntza akademiko eta profesionalarekin ongi uztartu ezinak, bizimodu normalerako lur hartzerik gabe jartzen ditu, eta hori eliteko kirolari askok gerora duten arazo sakonen iturri nagusia

izan ohi da. Olaberriak zehazten du bere inguruan esperientzia gogorak ezagutu dituela, eta horregatik 13 urtetako eliteko kirol ibilbidean, bide ezegonkorra zela jakinda, etorkizuneko ibilbide profesionala prestatzeko ahalegin bizia egin duela. Jarrera hartze hori norbanakoaren ardura dela esanda ere, emakumeek bizimodu normalerako egokitzapena hobeto egiten dutela dio. Izan ere, bere hitzetan, emakume lorpenak gizartean gutxiago goraipatu izateak lagundu egiten die horretan.

Horrez gain, Hego Euskal Herriko elite boterearen azterketa proiektu honekin lotura zuzena duen gaia mahai gaineratzen du Olaberriaren bizipenak. UCAM Murcia-ko Unibertsitate Katolikoan Elikagaien Teknologia graduaren ikaslea da orainaldian. Ikasketa zentro pribatua aukeratzearen arrazoia bere beharretara egokitu izana dela argudiatzen du. Aurretiaz, unibertsitate publikoak eta pribatuak, kirola eta ikasketaren artean aukeratzera behartu zutela dakar gogora. Aipagarria da unibertsitate sisteman gabeziak azaleratzea eliteko kirolarien prestakuntza akademikoa ahalbidetzean. Eliteko kirolariek gizartean balio positiboak haragitzen dituzte beren ogibideaz, ereduak ere badira jendearentzat eta estatu eta nazioen nazioarteko ordezkariak egiten dute. Orotara, gizarte ekarpena edo ekarpen publikoa burutzen dute. Kirol egitura publikoek helburu horiek esleitzen dizkiete eliteko kirolariei eta horren truke ematen dizkiete diru laguntzak. XX. mendetik gaur egun arte herrialdeen nazioarteko lorpenak gizarte horren garapenaren islatzat eman izan dira, nazionalismoaren ikurrak izateaz gain. Hori horrela, Olaberriaren lekukotzatik ondoriozta daiteke ezartzen zaizkien xede horiek betetzeko adinako euskarririk ez dutela kirolariek. Kirol sistema horren interesen mendearen beren ametsak betetzeko ahalegin guztiak egiten dituzte, egonkortasun eta etorkizun argirik gabe.

Horrek guztiak kirol politikez eztabaidatzeko bidea ematen du. Olaberriak zehazten du, eliteko kirolaren egoerari egindako kritika, sistema osoari zuzendua dela, norbanako edo erakunde zehatzei baino gehiago. Bere hitzetan, munduan hazten ari dira jarraitu beharreko eredu baikorrak, elkarteen eta estatuen eskutik, txirrindularitzan adibidez. Aurretik aipatutako Reuters Foundation-en ekimenaz gain, Cycling Alliance taldeak nazioartean emakume txirrindulariei aholkularitza eta babesa ematen die. Estatuen kirol politikei dagokienez, nabarmentzen du Australian gogoeta publikoa egin dutela eliteko emakumeen ereduak emakumeentzat egokiak ez direnaz. Horrelako gogoeten eza deitoratzen du Espainiako Estatuan eta Euskal Herrian. Horrez gain, gizarteak kirolean berdintasuna galdegiten badu ere, hori errealtatean burutzeko zailtasunak azaleratzen dira. Administrazio publikoek, Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek talde eta klubei diru laguntzak emateko gizonetzko eta emakumeen arteko parekotasuna behartzen dute, baina enpresa pribatuek balioak guztiz barneratuak ez izateak sorkuntza eta diskurtso artifizialak ekartzen dituela azaltzen du Olaberriak. Gizon eta emakumeei betebeharrak eta baliabide berdinarak jarri ezean eboluziorik ez dela egongo aldarrikatzen du. Errealtate horren atzean da gogoeta teorikoan azaldu den

sortzezko kirolaren izaera maskulinoa. Kirola gizarte errealtate garaikidearen isla da, eta pixkanaka ari da aldatzen jatorrizko emakumeen beherakuntza.

Horrez gain, alderdi garrantzitsua da eliteko kirolaz eraikitako estatu eta nazio marka. Inondik ere, hasieratik eta gaur egun arte estatu-nazioetan oinarritzen da nazioarteko ordezkariak nagusia. Hartara, kirolaz nazioartean Espainia Estatu-nazioaren marka barreiatzen da. Bestalde, mugak muga, Olaberriaren ustez, Eusko Jaurlaritzak ez du euskal marka eraikitze erabat hausnartutako kirol politikarik. Alegia ez dago kirolarien ibilbide osoa laguntzeko eta horrela Euskal Herriaren nazio marka nazioartekotzeko egituratutako plangintzarik. Kirol ez profesionaletako kirolarien norbanako lorpen asko, zoriaren fruitu, edo batik bat kirolarien ekinaren ondorio direla zehazten du. Bestalde, Euskal Herriko enpresa pribatuak 13 urteko eliteko kirol ibilbidean baliabidez ongi babestu dutela gaineratu nahi du. Esan daiteke Eusko Jaurlaritzak masa kirolak lehenetsi dituela Euskal Herriaren nazioarteko ordezkariak egin ahal izateko. Hor kokatzen dira, futbola, eta futbol federazioarekin batera 2020ean UEFAn eta FIFAn Euskal Selektzioaren ofizialtasuna eskuratzeko urratsak bereziki. Krisialdiak txirrindularitzan Euskaltel Euskadi taldearen esperientzia erorarazi zuen, erakunde publikoen eta enpresa pribatuaren elkar-lanarekin egin zena. 2020an berriro berratu zen. Azkenik, ezin aipatzeke utzi azken urteetan Bilboko hirigunean nazioarteko ekitaldiak hartzeko hartutako erabakimena. Horren barnean txertatzen da 2021eko Europako Koparako Bilbo hiri egoitza izatea. Bilbok eta Bizkaiak marketing apustu sendoa egin dute, eta kirol politikak horretara bideratu dira.

4. Ondorioak

Eliteko kirola, oinarrizko kirolek ezberdinduta, aro garaikideko gizarte ekitaldi funtsezkoa da. Kirolak azken bi mendeetako gizarte modernoek zibilizazio balioak modu sinbolikoan adierazi ditu. Horren barnean kokatzen dira gizarte patriarkala, estatu-nazioaren zentralitatea eta merkatuaren eta kapital jabetzaren lehentasuna, besteak beste. Ildo horretan, gizarte boterea dutenek kirola erabiltzen dute beren nahieko balioak hedatzeko, egitura politikoaren legitimitatea ziurtatzeko eta helburu ekonomikoetarako. Bada, kirolariak kirol sistema horren barneko beharginak dira. Eliteko kirolariak gisara hartzen dira, estatu mailako eta nazioarteko lehiaketetan aritzeagatik, eta gizartearen aurrean jendaurreko posizio nabarmena izateagatik, baina gehienetan gizarteko botere erabakiguneen parte izan gabe. Kirol atal honetan aztertutakoak balio du ondorioztapen hori nabarmentzeko. Kirolariek botere ekonomiko eta politikoen mesedetan dihardute beren lanean, ezarritako sistemaren mendean.

Parte-hartze publiko eta pribatuaren arteko hartueman konplexuaren adierazgarria da kirola. Nazioarteko eta estatu mailako erakunde pribatu arau emaleak eragin pribatuaren adibide nabariak dira, eta estatuetoako kirol organismoek zuzendutako

kirol politikak interbentzio publikoaren isla. Halaber, eliteko kirolarientzako laguntza programak, Basque Team-en gisakoak, gidaritza publikoaz eta enpresa pribatuen ekarpenaz osatzen dira. Horrela, administrazio publikoko elite politikoaren eta enpresa pribatuen elite ekonomikoen arteko lotura azaltzen da kirol sisteman. Leire Olaberria euskal txirrindulariaren kasu azterketatik eratoritzen da elite kirolariak interes horiek ezarritako bizimodu arauetara makurtuta daudela askotan. Menderakuntzazko errealitate hori are hautemangarriagoa da emakumeen kasuan. Iraganean emakumezkoen kirolak bazterketa jasan zuen, eta gaur egun, artean, gizonen sistemak jarritako lege hertsietara makurtuta dago. Leire Olaberriak Espainiako Auzitegi Nazionaleraino eramandako auzibideak, alde batetik, ezbaian jarri du kirolari beharginen bizimodua azpiratzen duen kirol sistema, eta bestetik, emakumearen ezaugarriak egituran aitortzen ez dituen.

Horrez gain, gizartean kirolaren balioak zabaltzen dituzten kirolariak, eredugarri bihurtzen direnak, guztizko babesik gabe uzten ditu ekimen publikoak orokorrean. Arrakasta izatera behartuta daude, eta mugarriak eskuratzeko bidean ezintasunak dituzte ibilbide akademikoa eta etorkizuneko bizitzarako lan prestakuntza ziurtatzeko. Basque Team-ek eskainitako datu bakarrek adierazten dute kirolarietan eliteko kirol prestakuntza eta goi mailako heziketa akademikoa uztartzeko zailtasuna, bai ikasketa publikoan eta pribatuan. Gizarteko botere eliteetatik funtsean ezberdintzen ditu horrek, gizarteetan agintzen duten eliteak ikasketa gunen prestigiodunetatik egiten baitute bidea, proiektuan ikusi dugunez, bereziki esparru pribatuan egin ere. Etorkizuneko kirol politikek, azterlanean aipatu diren adibideei jarraiki, eliteko kirolarien beharizanak kontuan hartu beharko dituzte, esleitu zaien lehentasunezko gizarte funtzioa egin ahal izateko beharrezko babesa izan dezaten. Ekimen publiko horren barruan beharrezkoa izango da hezkuntza sistema publikoaren babesa, eta unibertsitatearena bereziki. Orotara, gobernuen politika publikoek gidaritza hartu beharko dute, kiroleko kudeaketan gizarte baloreak eskuordetu gabe, eta kirolariak erdigunean jarrita.

2021eko Urtarrila

Bibliografía

- AUGÉ, Marc (1999): "¿Un deporte o un ritual?" In *Fútbol y pasiones políticas* (Ed, Seguro, S.), Debate, Madrid. 55-66.
- BASQUE TEAM (2021) Basque Team Fundazioa. <http://basqueteam.eus/eu/quienes-somos/>
- BOYLE, Raymond (2009): *Power play: Sport, the Media and Popular Culture*, Edinburgh University Press, Londres.
- BROMBERGER, Christian (1998): *Football, bagatelle plus sérieuse du monde*, Bayard Éditions, Paris.
- DARBON, Sebastian (2008): *Diffusion des sports et impérialisme anglo-saxon: De l'histoire événementielle à l'anthropologie*, Éditions Maison des Sciences de l'Homme, Paris.
- DIETSCHY, Paul (2010): *Histoire du football*, Perrin, Paris.
- DROZDA, Jacek, JASKULOWSKI Krzysztof eta Piotr MAJEWSKI (2020): "The politics of sport in Poland after 1945. From socialist mass sports to market-oriented elite sports?", In *Sport, Statehood and Transition in Europe: Comparative Perspectives from post-Soviet and post-socialist societies* (Eds, Rojo-Labaien, E., Rodríguez-Díaz, A. eta Rookwood, J.), Routledge: Oxon eta New York. 27-43.
- EISENBERG, C. (2006): "Le football comme phénomène mondial", In *Football, sport mondial et sociétés locales* (Eds, Compagnon, O. eta Dietschy, P.), Alternatives Économiques: Paris. 8-23.
- ELIAS, Norbert (1989): "Un ensayo sobre el deporte y la violencia", In *Deporte y ocio en el proceso de la civilización* (Eds, Elias, N. eta Dunning, E.), Fondo de Cultura Económica, México. 185-212.
- ELIAS, Norbert eta Eric DUNNING (1989): "El fútbol popular en Gran Bretaña durante la Edad Media y a principios de la Edad Moderna", In *Deporte y ocio en el proceso de la civilización* (Eds, Elias, N. eta Dunning, E.), Fondo de la Cultura Económica: México. 213-230.
- JARVIE, Grant eta Joseph MAGUIRE (1994): *Sport and Leisure in Social Thought*, Routledge, Londres eta New York.
- MACCLANCY, Jeremy (1996a): "Nationalism at Play: The Basques of Vizcaya and Athletic Club de Bilbao", In *Sport, Identity and Ethnicity* (Ed, MacClancy, J.), Berg: Oxford. 181-199.
- RENSMAN, Lars (2015): "Sports, Global Politics and Social Value Change: A Research Agenda", *Other Modernities* 14: 114-133.
- WAHL, Alfred (1997): *Historia del fútbol, del juego al deporte*, Ediciones B, Barcelona.

12

Artea Hego Euskal Herrian: elitea eta boterearen azterketa

Arantza Lauzirika Morea
Igor Rezola Iztueta
Natxo Rodriguez Arkaute

Ikerketa Taldea: Akmea GIU 18/187)

Testu honen abiapuntua Hego Euskal Herriko Elite Boterearen Azterketarako hartutako datuetan oinarrituta egindako analisia da.

Beraren egitura hiru autoreen arteko elkarrizketa batetik abiatzen da, hots, honako gai hauek jorratzen dituen elkarrizketatik: artistak, praktika artistiko garaikideak, artearen elitea, artearen barneko zein kanpoko hegemonia-espazioak, merkatua, ekoizten diren eta artetik eratortzen diren kapital motak, unibertsitatearen rola, eta euskal unibertsitate publikoaren parte diren hiru artista, irakasle eta ikertzaileen artean konpartitutako hausnarketatik ondorioztatzen diren deriba guztiak.

0. Elitearen kontzeptuari buruz (orokorrean)

Unibertsitatearen zein artearen eta kulturaren arloan, gure aroan elitea zer den edo nork osatzen duen identifikatzen hasteak, lanketa konplexu bezain beharrezko batean murgiltzera garamatza.

Ikerketa honetan, abiapuntutzat hartu ditugu argitalpen honek proposatzen dituen eliteari buruzko definizio desberdinak. Honen arabera, elitea gutxiengo hautatua edo errektorea da, gizarteko gainerako pertsonak baino estatus handiagoa duten pertsonen talde minoritarioa. Eliteak talde hautatuak dira, pribilegiatuak, gizarteko talderik eraginkorrenak, ospea dutenak, aintzatespena zor zaienak, aberastasunaren jabe direnak. Azken finean, hainbat eremutan erabakiak hartzen dituztenak eta gizartearen norabidea, neurri handi batean, markatzen dutenak.

Elitea, tradizionaliki, ekonomia eta politikaren eremuei lotuta ulertu izan da. Baina badirudi beste eremu batzuetako figurek ere osatzen dutela egun talde hori. Enpresa eta politikaren munduko familia handiez aparte, elitearen parte bilakatu dira honako hauek ere: futbolariak, abeslariak, modelook, influencerrak, e.a. Elitea, beraz, gizarteko eremu desberdinetan lokaliza daiteke, ekonomian edo politikan, baina baita hortik kanpo ere, kirolean, kulturean, e.a.

0.1. Elitea eta artea

Sarreran aipatutako elitearen definizio orokorra abiapuntutzat hartuta, gure eremuari begira ondorengo galderak sortzen zaizkigu: ba al da eliterik artearen esparruan? Zer ulertzen da elitearen kontzeptuaz artearen eremuan? Balio ote digu elitearen definizio orokor horrek gurean?

Ezinbestekoa da, beraz, lehenik eta behin, artearen eremuan zer ulertzen den elite kontzeptuaz argitzea. Artearen eremua eta elitearen inguruko azterketa egiterakoan, Pierre Bourdieu soziologo frantziarraren lana izan dugu oinarri. Bourdieu-k ez du elitearen nozioa erabiltzen zehazki, edo ez du elitearen teoria bat proposatzen. Hala ere, eremu edo espazio sozial desberdinetan ematen diren harremanei, lehiari, dominazioari, legitimazioari, botereari edo kapitalaren jabetzari buruz hitz egiten du. Horrela, elitea zuzenean gaia izan ez arren, honekin zuzenki harremana daukaten bestelako kontzeptu batzuk lantzen dituzenez, eta gure eremuari erreferentzia zuzena egiten dietenak direnez askotan, bere ekarpenak guztiz baliagarriak izan daitezkeela iruditzen zaigu, artea eta elitearen arteko harremanean pentsatu eta sakontzeko.

Norbait boteretsua, eraginkorra, ospetsua, legitimatua,... izatera nola eta zergatik iritsi den jakiteko, ezinbestekoa da norbanakoaren figuran arreta jartzetik aldendu eta begirada zabalago bat botatzea gaiari; izan ere, agente edo talde batek ez du gizartean posizio pribilegiatu bat okupatzen, gainontzeko gizakiekin alderatuta, gaitasun bereziak dituelako bakarrik. Baizik eta horretarako badagoelako eremu bat, funtzionatzeko modu batekin, zeinak baldintzatzen duen azkenean nor iritsi daitekeen eta nor ez botere posizio horiek okupatzera, eta ondorioz, elitea izatera. Artearen eremuan posizionatzen diren agenteen eta taldeen arteko harremanak dira, azken batean, artearen eremua existitzera eramaten dutenak. Horregatik, ezinbestekoa suertatzen da, norbanakoaren kontzientzia eta borondatek haratago, maila erlazional batean pentsatzea gaia. Izan ere, eremuari buruz pentsatzea, harremanei buruz pentsatzea esan nahi du (Bourdieu eta Wacquant, 1995).

Eremu desberdinak daude: ekonomikoa, politikoa, zientifikoa, akademikoa, erlijiosoa, artistikoa, e.a. Eremu hauek guztiak, banandutako eremuak izan arren, euren artean harremanean daude, eta "boterearen eremua" bezala ezagutzen den eremu zabalago baten parte dira (Bourdieu, 1995). "Boterearen eremua", nagusitasun-posizioak hainbat eremutan okupatzeko beharrezkoa den kapitala izatea ezaugarri

komuntzat duten agente edo instituzioen arteko indar-harremanen esparrua da. Nozio hau, idazle eta artisten eremuan, hauen kanpoko eremuek zeukaten eraginaren berri emateko beharretik jaio zen.

Artearena eremu bat da, aparteko eremu bat, baina aldi berean beste eremuekin harremanean aurkitzen dena. Hau etengabeko tentsioan aurkitzen da heteronomiaren (eremu ekonomiko-politikoarekiko mendekotasunaren) eta autonomiaren (gustuaren izaera eta artearen printzipioei buruzko arau eta zehapenekiko mendekotasunaren) artean. Horrela, eremuari lotutako analisia egiterakoan, ezinbestekoak diren 3 pausu jarraitzea gomendatzen du Bourdieu-k (Bourdieu, 2002). Lehenik eta behin aztertu behar da zer posizio okupatzen duen eremuak "boterearen eremuari" begira. Horrela deskubritzen baita, esate baterako, literaturaren eremua "*boterearen eremuan*" sartuta dagoela, bertan posizio menderatu bat okupatzen duela, eta ondorioz artistak eta idazleak "*klase menderatzailearen frakzio menderatua*" bihurtzen direla. Aztertu beharreko bigarren puntua, kasuan kasuko eremuaren barruan lehiatzen diren agente edo instituzioek okupatzen dituzten posizioen arteko harremanen egitura da. Eta hirugarrenik, agenteen ohiturak aztertu behar dira, hots, baldintza sozial eta ekonomiko mota jakin bat barneratzearen bidez eskuratutako dispozizio-sistemak.

Horregatik, artearen eta kulturaren eremuan, elitearen nozioa hiru zentzutan aztertu beharko litzateke:

- Eremua (lan-esparrua eta artelanak kanpoarekiko)
- Langilea (arte eta kulturaren)
- Elite politikoa (kultur politikak erabakitzen dituztenek)

Horri guztiari, gure kasuan, unibertsitate publikoak jokatzeko duen paperaren azterketa gehitu beharko genioke.

1. Eremua. Lan-esparrua eta artelanak kanpoarekiko

Boris Groyes-ek (2016.) egun artea elitista den hala ez galderari erantzun nahirik, ondorengo dio:

"Benetan osatzen dute artistek elite bat? Garbi dago ez direla inola ere elitea, zeren izan ez baitira behar bezain aberats edo boteretsuak. Nolanahi ere, "elitista" hitza artistentzat ekoiztutako arteari lotuta erabiltzen duten pertsonek ez dute iradoki nahi artistek mundua menderatzen dutela. Aitzitik, esan nahi dutena da minoria baten partaide zarela, besterik ez".

Baina zer esan nahi da artista gutxiengoaren parte dela aipatzen denean?

Artea-artista izendatzen direnean elitista hitza gehitu ohi zaie sarritan, baina, artea elitista dela edo artistak elitista direla esaten denean, zer esan nahi da?

Oraindik ere, artistaren figura artista bohemioaren irudi mitifikatuarekin identifikatzen jarraitzen da. Artista bohemioaren irudi hori deseraikitze ahaleginek zerbait lortu badute ere, gizarte-mailan uste hedatua da oraindik (hedabideek eta zinemak proiektatzen duten irudiarengatik, besteak beste) artista mundura dohain, sentsibiltate, begirada eta gaitasun bereziekin jaio den ezohiko izakia dela. Gutxiengoa, gainerakoak baino koska bat goragoko mailan aurkitzen dena.

Norbaitek artista dela esaten duenean, askok pentsatzen dute lan egiteko beharrik ez duela, ondasun materialen jabe-edo dela, edo maila oneko familia bateko kidea. Artista lanik egin gabe bizitzeko aukera duen norbait delako ideia oso barneratuta dago. Garai batean gizonezko aristokrata eta burgesak izan ziren artea egiteko aukera izan zuten bakarrak; behar materialak asea izateak arte-praktikarako aukera ematen zien. Ikuspegi horrek, artista lanik egin gabe bizi den norbait dela uste izateak, badu loturarik garai hartako artista burges eta aristokrataren irudiarekin.

Artearen esparrua askatasunaren eta errerealizazioaren eremutzat hartzen da. Ez omen du, beste ogibideek bezala, alienazioa eta ondoeza eragiten. Itxuraz bederen, artistak bere lana maite du, eta jarduera horren bitartez errerealizatu sentitzen da. Ordutegi malguak, mugikortasuna, lanarekiko maitasun eta pasioa, ideia tartean eta kreatibitatearekin lan egitea eta abar, langile ororen ametsa izan daiteke. Gehiengoaren kasuan bezala, behartua, desatsegina eta alienatzailea gertatu ohi den lanaren aldean, pribilegio bat dirudi batek gustukoa duen lan batean jarduteko aukera izatea.

Esan daiteke, halaber, artista elitista izan daitekeela elite ekonomiko-politikoari jokia egiten diolako. Badelako artearen eremutik kanpo dagoen elite bat, "aliatu" moduan errekonozitzen duena. Batzuetan arrazoi ideologikoak izango dira tarteko, beste batzuetan, berriz, artistak elite horrentzat produzitzeko beharra izango du beste aukerarik ez duelako.

Aurreko puntuei erantzunez, argi utzi nahi da artista ez dela gehiago dohain bereziekin mundura datorren norbait. Orain, artistak, neurri handi batean, Arte Ederren Fakultateetatik ateratzen dira. "Edozeinek" dauka artearen eremura gerturatze, formazioa jasotzeko eta artista izateko aukera. Artearen eremua ez da, beraz, minoria bati bakarrik tokia egiten dion esparrua; alderantziz. Arte Ederren fakultateetik urtero zenbat "tituludun artista" ateratzen den begiratu besterik ez dago horretaz ohartzeko. Beste gauza bat da, nonbait, guzti horietatik zenbatek lortzen duten profesionalki artista bezala lan egitea, eta lortzen dutenek zein baldintzatan egiten duten.

Artista ez da inolaz ere lanik egin gabe bizitzeko aukera duen norbait, ez maila oneko familia batetako seme-alaba delako, ez eta alferra delako. Artista langile bat gehiago da. Dena den, artista gutxi du artetik bizitzeko aukera. Gehienetan bestelako lan batzuk egin behar izaten dituzte, ondoren artea egin ahal izateko¹. Egonkortasunik ezaren eta

1 Honi buruz INNOCRE2 ikerketa proiektuak egindako lana eskuragarri daukazu: <https://web-argitalpena.adm.ehu.es/listaproductos.asp?IdProducts=USWEB140155>

ziurgabetasunaren esparrua da artearena, gaizki ordaindua eta lanbide gisa eusten zaila gehienentzat. Prekarizatutako eta feminizatutako eremua da. Ordaintzeko modua sinbolikoa izan ohi da normalean. Esan nahi baita, batetik, lana bera dela ordainsari. Norberak zorioneko sentitu beharko lukeela maitatzen duen horretan lan egiteko aukera izate hutsarengatik. Pribilegiatua. Gustuko zerbaitetan aritzeko modua izatea badela nahikoa sari, nahiz eta diruz konpentsatua ez izan. Eta esan nahi da, bestetik, ordaintzeko modua aintzatespen eta ikusgaitasunaren bidetik datorrela. Artistarena esku-lan merkea da, doako lana gehienetan. Gustuko lana duen neurrian inola ere ez da langile alferraren isla. Justu kontrakoa da. Egunean 24 orduz eta astean 7 egunez aktibo dagoen langilea da, langile prekario eta autoesplotatua. Arte-langilea, autonomia, indibiduala, malgua, prekarioa, lana pasioz bizi duena, motibatua, kreatibitatea produktibo bihurtzen duena, lana eta bizitza uztartzen dituen da prezeski, merkatuari interesatzen zaion langile mota. Hain zuzen ere, ezaugarri horiengatik bilakatzen da artista neoliberalismoarentzat langile eredugarri.

Artistaren ekoizpenari (obrari) dagokionez, badirudi oraindik ere pentsatzen dela gutxiengo aberats batentzat bakarrik dela eskuragarria. Artelanez badute elitista izatearen sona. Artelanak enkanteetan ateratzen diren eta dirutza bat balio duten luxuzko objektuak direla dirudi. Artelanak ere elitistatzat hartzen dira, artistek beste artistentzat edo publiko aditu batentzat egiten dituzten lanak direlako. Berrito ere minoria batentzat. Aspaldiko eztabaidarekin lotura dauka honek, agian. Alegia, masa edo popularra bezalako nozioei kontrajarrita agertzen da artearen eremuak ekoizten dituen objektuak: ulergaitzak, bakarrak, auratikoak,... eta zentzu horretan elitistak.

Merkantzia moduan gerta daiteke zenbait artelan edozeinen eskura ez izatea, baina horrek ez du esan nahi artearen eremuko produkzio oro "luxuzko objektuak" fabrikatzera mugatzen denik. Produktu oso desberdinak ekoizteaz gain, bestelako zerbitzuak ere eskaintzen dituzte artistek. Gaur egun, gainera, arterako eskuragarritasuna praktika artistikoen aniztasuna bezainbeste dibertsifikatu da. Goi-kulturaren eta behe-kulturaren arteko mugak ere desegin dira. Eliteak arte bat izaten jarraitzen du, baina beste arte mota batzuk demokratizatu egin dira.

2. Langilea (Artea eta kulturean)

Aurreko atalean eliteari buruz hitz egin dugu, artea eta elitearen nozioaren arteko harremanari buruz. Elitearen nozioa, kapitalaren jabetzari lotuta ageri da. Baita artearen eremuan ere. Baina praktika artistikoetan, ekonomiaz harago, artista langileak beste kapital mota bat sortzen du, kapital sinbolikoa. Hori dela eta, hurrengo ataletan ez dugu elitearen nozioaz hitz egingo zehazki, ez dugu elitearen teoria bat proposatuko. Artearen eremuan ematen diren harremanak, lehia, dominazio, legitimazio, boterea edo kapitalaren metaketari buruz arituko gara. Horretarako, alde batetik, artearen

eremuaren barrua aztertuko dugu, eta bestetik kapital baten existentzia eta honetaz apropiatzeko borroka.

2.1. Eremuari buruz

Lehenago eremuari buruzko hainbat kontu komentatu ditugu, baina gehiago sakondu nahi izanez gero. Bourdieu-k (1995) ondorengo definizioa proposatzen digu:

“Eremu bat posizioen arteko harreman objektiboen sare edo konfigurazio gisa definitu liteke. Posizio horiek objektiboki definitzen dira euren existentzian eta bertan daudenei ezartzen dizkieten determinazioetan, agenteak zein instituzioak izanik, botere (edo kapital) moten banaketaren egituran orain duten (situs) eta etorkizunean izan lezaketen egoeragatik, kontuan hartuta botere mota horien jabetzak berekin dakarrela eremuaren barnean jokoan dauden irabazi espezikoetara iristeko bidea –eta, bidez batez, gainerako posizioekin dituzten harreman objektiboengatik ere definitzen dira (dominazioa, mendetasuna, homologia, eta abar)”.

Hau da, eremu guztietan bi elementu agertzen dira beti: kapital baten existentzia eta honetaz jabetzeko borroka. Eremuak, beraz, kapital baten izatea du oinarri. Kapital hau eskasa da, mugatua, eta hain zuzen ere urri izate horrek du eragina eremua okupatzen duten talde eta agenteen arteko harremanetan. Eremua, azken batean, eremu horretako kapitalaren baitan definitzen diren posizioen artean eraikitzen den harremanen espazioa da. Horrela, eremu bakoitza historikoki eraikitzen den esparrua da, bere instituzio, agente eta funtzionatzeko arau propioekin. Eremua, soziala den neurrian, harremanen espazioa da. Ez da harreman indibidualen espazio neutro bat bakarrik, baizik eta posizio desberdinak okupatzen dituzten agente, familia eta taldeen arteko kompetentzia ematen den tokia ere bai. Batetik kapitalaren jabe direnak aurkitzen dira, ondorioz boterea eta autoritatea dutenak, eta hori mantentzeko estrategiak erabiltzen dituztenak. Eta bestetik kapitalik ez dutenak, eta hori eskuratzeko saiakera egiten dutenak, kapital horren jabe izatera aspiratzen dutenak, posizioa hartzea xede dutenak, eta horretarako indarrak irauli eta eremuaren logika eraldatzea bilatzen dutenak. Beraz, kapitalaren jabe egiteko, eremua osatzen duten partaideen artean joko bat emango da, gatazka, borroka edo lehia bat. Gure kasuan, lehia hori artisten arteko borroka bat izango da, borroka sinbolikoa.

Burgesiaren etorreraren aurrean, artistak eta intelektualak eremu autonomo bat izatera iritsi ziren une batean. Beren esparru propioa eraikitzea lortu zuten, arau propioekin. Gizarte baten barruan sortutako beste gizarte bat izan zen. Baina autonomiaren garaia bere amaierara iritsi zen. Sasoi batean zehaztuta aurkitzen ziren eremuen arteko muga haiek urtu egin dira. Produkzio sinbolikoa, tradizionalki artearen eta kulturaren esparruko jarduera izan den hori, orain ekonomiaren eremuko faktore garrantzitsuetako bat bilakatu

da. Era berean, kulturak ekonomiaren ezaugarri eta egiteko moduak bereganatu ditu, eta industria kultural eta kreatiboen garapena dela tarteko, ekonomiaren hazkunderako esparru garrantzitsu bilakatu da (Brea, 2008). Artearena, baina, beste eremuen eraginpean dagoen arren (politiko-ekonomikoa), badu bere eremu partikularra, propioa. Autonomia erlatibo bat izaten jarraituko luke. Eremu guztiek zerbait komunean duten arren, bakoitzak bere berezitasunak ditu (Bourdieu, 1995).

Ikusi behar da nola gorpuzten den eremuaren definizio orokorra artearen eremuan. Edo, beste era batetan esanda, artearen eremua zer den azaltzea komeni da esku artean dugun gaia ondo ulertu nahi bada.

Artearen eremuan ezer ere ez da naturala, ezerezetik sortua, arbitrarioa. Hau da, lengoia, objektu, ekintza, praktika, agente, instituzio eta harremanen bitartez eraikitzen da. Kanpotik begiratuta erlatiboa eman dezakeen hori, subjektiboa, testuinguru historiko bati lotuta doa. Artearen eremua nola egituratzen den eta bere funtzionamendua nolakoa den ulertzeko, beraz, beharrezkoa da zeintzuk osatzen duten eremua ikustea, zein interes dituzten parte desberdinek, zein errekurtsio edo kapitalen jabe diren eta hauetaz nola baliatzen diren aztertzea. Analizatu behar da, halaber, agente eta talde bakoitzak zein posizio okupatzen duen, harremanak nolakoak diren, nork eta nola egiten duen eremua bere horretan mantentzeko edo eraldatzeko ahalegina. Eta begiratu behar da, nola ez, kapitalaren banaketa nolakoa den.

Artista baten figura modu isolatu batean begiratu ordez, eremuaren osotasuna aintzakotzat hartu behar da. Era horretan ulertu ahal izango da soilik nola, zergatik eta zein artista edo talde diren legitimatuak, errekonozituak, aintzatespena dutenak, boterearen jabe direnak, artearen eremuan eraginkorrek direnak, autoritatea daukatena, azken finean kapitalaren jabe direnak (kapitala ez dela bakarrik kapital ekonomikoa kontutan izanik). Harreman horiek aztertu eta analizatzea ezinbestekoa da, beraz, ikusteko nola ematen diren errekurtsio eta kapitalaren banaketa desberdinen ondorioz botere eta dominazio harremanak.

2.2. Artea eta kapitala

Eremua zer den eta bertan zeinek partzen hartzen duten azaldu ostean, eremu horretan jokoan dagoena zer den azaldu behar da. Bourdieuk dioenarekin jarraituz, arteak bere eremu espezifikoa duen heinean, bere kapital espezifikoarekin kontaktzen du. Horregatik, artearen eremuan, esparruko kapital espezifikoaren jabetza, kontserbazioa eta legitimazioa da lehian dagoena. Kapitala eremu jakin batean irabazi bat ateratzeko probabilitateak zehazten dituen boterea da. Kapitalaren jabetza bada zentzu horretan, daukana ez daukanarekin alderatuta, botere posizio batean ipintzen duena:

“Kapital bat edo kapital mota bat eremu jakin batean dagoen faktore efizientea da, arma gisa eta apustu gisa; bere jabeari ahalbidetzen dio botere bat erabiltzea,

eragin bat (...) kapital bat eremu bati lotuta soilik existitzen da eta berari lotuta soilik funtzionatzen du: eremuaren gaineko botere bat ematen du, ekoizpenaren edo erreprodukzioaren tresna materializatu edo txertatuen gaineko botere bat -tresna horien banaketa da, berez, eremuaren egitura-, eta baita eremuaren funtzionamendu arrunta definitzen duten erregulartasun eta arauen gaineko botore bat ere, eta, ondorioz, hor sortzen diren irabazien gainekoa (Bourdieu eta Wacquant, 1995)ʳ.

Goian aipatzen genuen eran, kapitala da eremu guztietan jokoan dagoena, eta horrela da artearen eremuan ere. Baina kapital hori ez da beste eremuetan jokatzeko denaren kapital bera. Artearen eremuan jokoan dagoen kapitala ezin daiteke, edo ez nagusiki behintzat, ekonomiaren parametroetan neurtu (Bourdieu eta Wacquant, 1995).

“Artea arteagatik” izenez ezagutzen zen joeraren garaian, kapital ekonomiko aldetik aberatsa izatea, kapital sinboliko aldetik behartsu izatearen pareko zen, eta alderantziz (Bourdieu, 2000). Artearenak ekonomiaren aurkako logikarekin funtzionatzen zuen, alderantzizko mundu baten moduan. Hau da, alor sinbolikoan irabazteko, artistak eremu ekonomikoan galdu behar zuen. Izan ere, eremu ekonomikoa “negozioak negoziok dira” zioen ideiarekin arabera funtzionatzen zuen unibertso gisa sortu bazen, eremu artistikoa, irabazi materialaren legea ukatzeari edo alderantzikatzeari esker sortu zen.

Eremuen arteko mugak diluitu diren arren, eta artistek egun euren jarduera lantzat aldarrikatzen duten arren (horrek esan nahi duena ahaztu gabe), artearen eremua produkzio sinbolikoaren eremua den neurrian, ideia honek oraindik ere bere zentzua izaten jarraitzen du. Horregatik, esan behar da, kapitalaren kontzeptuari buruz teoria ekonomikoak proposatzen duena motz gelditzen dela artearenak nola funtzionatzen duen ulertzeko; argi dago gure kasuan ez dela nahikoa. Izan ere, kapitala ez baita bakarrik ekonomiak dioen hori, horretaz gain beste kapital mota batzuk ere baitaude.

Artearen eremuko kapitalak legitimazioarekin dauka lotura, artearen barruan ematen denarekin, ez dagoena kanpoari begira, eremuaren barruari baizik. Hau da, “artea arteagatik” joeraren kasuan, autonomia zenbat eta handiago zen, orduan eta aldekoagoa zen indar-erlazio sinbolikoa eskaritik independenteagoak ziren ekoizleentzat, eta zehaztuago geratzen zen eremuaren bi poloen arteko banaketa. Bere lege nagusia zen kanpo-eskarrietatik independentea izatea. Bere praktiken ekonomiaren oinarria zen, boterearen eremuaren eta eremu ekonomikoaren funtsezko printzipioak alderantzikatzea, “galtzen duenak irabazten du” jokoan bezala (Bourdieu, 2000).

Orduan gertatzen zen moduan, egun ere, artistek, euren eremuarengandik legitimatuak izatea bilatzen dute, euren kideen, berdinen, parekoen aldetik. Beste artisten aintzatespena dute helburu nagusienetariko bat, nagusia ez bada. Euren praktika artistiko, diskurtso eta artelanen bitartez bilatzen dute artearen barruan errekonozimendua. Beraz, helburu nagusia ez da ekonomikoa kasu honetan, sinbolikoa baizik.

Kapital espezifikoki hori, kapital sinboliko bezala ezagutzen dena izango da. Kapital sinbolikoa da artearen eremuan jokoan dagoena, eta honek, legitimazio, dominazio, autoritate, influentzia, ospe, ikusgarritasun, erreputazio, aintzatespen, izen, distintzio edo legitimazioaren nozioekin dauka lotura. Prestigio sozialari lotuta, materialak ez diren kapital mota batzuen jabetza bezala definitzen da.

Kapital sinbolikoa, beste hiru kapital mota desberdinengandik dago baldintzatua: kapital kulturala, kapital soziala eta kapital ekonomikoa (Bourdieu, 2000). Beste modu batean esateko, azkenik artearen eremuan eta gizarte mailan artistari legitimazioa, autoritatea eta garrantzia emango dizkiona, eta besteengandik desberdinu ostean gizarte mailan toki pribilegiatu batean ipiniko duena, boterearen jabe egingo duena, hiru kapital hauek jokoan ipini eta joko horretatik ateratako errentagarritasunetik etorriko da. Zalantzarik ez da, kapital desberdin hauen bitartez, eremuan kokatzen diren talde eta agente guztiek ez dutela inola ere baldintza berdinetan jokatzeko, kapitalen jabetza ez dela denentzat berbera, egon badaudela diferentziak, eta diferentzia hauek noski, zuzenki lotuta daudela klasea, arraza eta generoa bezalako nozioei.

Kapital sinbolikoaren pareko izan daiteke errekonozimendua edo aintzatespena.

Arte modernoaren garaian aintzatespena lortzeko prozesuen inguruan lan egin du Alan Bowness-ek (Bowness, 1990), arte historialari, kritiko eta museo instituzio garrantzitsuen zuzendari izandakoak. Artearen eremuko partaide aktiboa den neurrian, oso ondo ezagutzen ditu artistek arrakasta izateko baliatzen dituzten mekanismoak.

Artista batek arrakasta izaterakoan ez da ezer arbitrario berarentzat. Posible da prozesu horretan jarraibide batzuk antzematea. Prozesu hauek ez daukate talentuarekin edo artearen praktika berarekin bakarrik harremana. Artista batek errekonozimendua lortzerakoan, barrutik kanpora doazen lau zirkuluen eraginpean suertatzen dela kontatzen du.

Pareen zirkulua da errekonozimendu horretarako lehen urratsa. Artista garaikideek osatzen dute. Euren artean errekonozitzen dira, berdina dira. Hasi berriak. Ibilbide artistikoa abian jartzeko talentuaren jabe dira. Artistak, eremu beraren parte direnen neurrian, euren artean lehiatu beharrean dira.

Bigarren zirkulua artean adituak diren kritikoek osatzen dute. Hauek arduratzen dira arteaz hitz egin ahal izateko eta kritika egiteko lengoia sortzeaz. Artea baloratzeko irizpidea sortzen dute. Artisten lanen inguruko testuak idazten dituzte, eta horretarako hedabide eta publikazioez baliatzen dira. Artisten lanetan baina baita erakusketen antolaketetan, edo lanen salmentetan ere eragina izango dute.

Kolekzionista eta martxanteek osatzen dute hirugarrena. Artistak kritikaren errekonozimendua lortzen duenean, posible da kolekzionista eta martxanteen arreta erakarri eta hauen babesarekin kontatzea. Museo publiko zein pribatuek erosketak gauzatzea. Adiskidetasun eta harreman sareak garrantzitsu bilakatzen dira hemen.

Azkeneko zirkulua publikoa da. Behin kontsentsu kritikoa ezarrita, artistaren lanak ondasun kulturalen merkatuan zirkulatzen du, kolekzionista, martxante eta museoen bitartez. Orduan, artistak, publikoaren errekonozimendura iristeko aukera du.

Esan daiteke, hortaz, artista baten arrakasta, ikusgarritasuna, aintzatespena, ez datorrela norbanakoaren meritu horretatik bakarrik, edo ez dela zoriaren edo kasualitatearen gauza bat. Hau posible egiten duena lotura dauka ibilbide pertsonalarekin, baina baita eremua osatzen duten bestelako figura eta instituzioekin ere.

3. Elite politikoa (kultura politikaz erabakitzen dutenak)

Nahitaez adierazi behar dugu artearen munduarekin lotutako pertsonen zerrendan (txosten honetan dagoen zerrendan) ez ditugula sartu instituzio publiko zein pribatuetakozuzendaritza edo ardura-karguetan dauden pertsonen izenak. Sartu ere ez dira sartu ez galeristak eta ezta arte eta/edo kultura zentroetako arduradunak ere. Hitz egiten ari gara bai aplikatu beharreko politika kulturalen inguruko erabakiak hartzen dituen jendeaz eta bai ekipamenduak, diru-laguntzak, sariak edo ekoizpenerako laguntzen beste formatu batzuk baldintzatu eta determinatzen dituen jendeaz. Hau da, artisten belaunaldi berrien hazkundea ahalbidetzen duten baldintzak elikatzekeo edo sortzekeo aukerez erabakitzen duen jendeaz.

Artista eta sortzaile gehienek Arte Ederren fakultateetan (unibertsitate publikoan) egindako ikasketak dituzte, eta kasu batzuetan (gutxi badira ere) Artearen Historiako ikasketak. Azterlan honetarako, artistaren profileen soilik zentratu gara, sortzailearen profileen. Hala eta guztiz ere, testuinguru hurbilenaren azterketa egitean ikus daitekeenez, artista emergente gehienek ekonomia eta ekoizpen-aukerak euren mende dituzten politika kulturalen arduradunek ez dute, kasu gehienetan, Arte edo Artearen Historiarekin lotutako prestakuntzarik. Normalean, kudeaketaren eta ekonomiaren alorretik etortzen dira, baita, batzuetan, zuzenbidearen edo zientzia sozialen eta komunikazioaren alorretatik ere.

Galeristen kasuan, ulertzen dugu euren asmoa negozio bat aurrera ateratzea dela, eta, hortaz, inplikazio mailak desberdinak dira eta ezin dira inola ere alderatu politika kulturalen arduradunen inplikazioarekin. Galeristen curriculumak interesa izan dezake artearen mundura merkatarien ikuspegitik hurbiltzen direnen profilak aztertzekeo, eta merkatuko mugimenduen parte handi bat determinatzen badu ere, ez ditu determinatzen artista emergenteen profila, proiektu motak, ikusgaitasuna eta etorkizuna. Ekoizpenerako laguntzen politikek baino gutxiago, behintzat. Galeristak tamaina desberdineko arrainak dauden eta merkatu-aukera desberdinak eskaintzen dituen itsaso batean "arrantzatzen du". Apunte gisa, kolektibo honi buruzko bitxikeria bat aipatuko dugu: Espainiar Estatuan eta nazioartean, oro har, galerista gehienak emakumezkoak dira, baina Euskadin ez da gauza bera gertatzen.

Gai horren alde bitxia da konklusio argi bat duela: gure legitimazio-mekanismoei dagokienez, erabakitzeke ahalmena ekonomian, enpresan, kudeaketan edo komunikazioan espezializatuta dauden pertsonen eskuetan dago, alde batetik, eta artea negozio gisa planteatzen dutenen eskuetan, bestetik. Eta azken kasu horretan ez dugu galeristez soilik hitz egiten, zeren museo eta erakusketa-espazio batzuetako zuzendaritzatik txarteldegiko arrakastaren ikuspegitik programatzen baita sarritan. Gertaera horiek erakusten digute, berriz ere, praktika artistikoaren legitimazioa ekonomiari, onespenerari eta arrakasta sozialari men egitetik pasatzen dela.

4. Unibertsitate publikoa vs pribatua

Unibertsitatea ez da garrantzi gutxiko eragilea artearen eremuan, eta jakitun gaude hainbat aldiz aipatu ditugun legitimazio-mekanismo horien parte dela. Unibertsitatea oro har, maila sozial, ekonomiko eta kulturalean nolabaiteko hegemonia duen pieza bat dela kontsidera badaiteke ere, artearen eremuan erlatiboagoa da beraren protagonismoa. Artisten prestakuntzarekin zerikusia duen guztia funtsezkoa da eremuaren baitan, baina egia da, halaber, badagoela nolabaiteko tentsioa akademiaren eta artearen ekosistemaren gainerako atalen artean, eta alderdien arteko harremanak (beste behin ere) etengabeko negoziazioan daudela.

Zirkunstantzia hori konplexuegia da Unibertsitatearen eta Artearen Sistemaren arteko harremanen dimentsio osoan jorratzeko eta, hortaz, lurralde ezagunen irakurketa egitera mugatuko gara. Hurbilen duguna, jakina, Unibertsitatearena da, eta Euskal Herriko testuinguru hurbilenarekin duen lotura, hots, Hegoalderekin duen lotura, kontuan hartuta gogoeta hauek unibertsitate publiko batetik egiten ditugula, hau da, UPV/EHUtik.

Euskal Herriko Unibertsitateak artearen eremuan, sistemaren beste eragile batzuei lotuta, eta legitimazio-prozesuetan (elite bat eraikitzea) zer rol jokatzen duen pentsatzeko, ezinbestekoa da arreta zuzentzea Unibertsitateak berak barruan eta kanpora begira dituen harremanetara. Barneko harremanak, bere partaideak unibertsitatearen gainerako eremuetarako komunak diren arauen arabera egituratzen dituen erakunde hierarkiko eta hierarkizatzailea den neurrian. Horrek jokabide meritokratiko bat sortzen du, artisten idiosinkrasiarekin guztiz bat ez datorrena baina azkenean nagusitzen dena. Bestela esanda, edo egokitzen zara edo, modu batean edo bestean, logika horiek erresistentzia erakusten dutenak baztertzeko dituzte azkenean. Planteamendu hori sinplista izan daiteke, zeren egon baitaude, jakina, erdibideko posizioak, arrakalak eta aukerak, egitura euren ahalbideen neurrian aldatzen saiatzen diren beste estrategia batzuk garatzeko; onartu behar dugu, baina, jarrera minoritarioak direla, gero eta minoritarioagoak, zoritxarrez. Gure garaiko unibertsitate-makinariak, bere deriba burokratikoan, gero eta gehiago mugatzen du berarentzat arrotza dena.

Hori ez da gertatzen giza zientzietan soilik, baina bai bereziki, eta, zalantzarik gabe, Arte Ederren arloan.

Kanpokoari dagokionez, unibertsitate hau zer komunitatetan dagoen integratuta eta gure testuinguruko artearen sistema edo eremua zer-nolakoa den ikusita, pentsa liteke unibertsitatearen logika meritokratikoak berekin ekarriko lukeela, beste eremu batzuetan gertatzen den bezala, meritu (akademiko) handia duen pertsona multzo baten legitimazioa; pertsona horiek kapital sinbolikoa metatuko lukete eta elite bat osatu lezakete, hemen planteatu ditugun terminoetan, artearen eremuaren barruan. Errealitatea ez da zehazki horrela, eta erakusten digu ustezko elite akademiko hori ez datorrela bat artearen sisteman leku hegemoniko bat, nolabait esateko, okupatzen duen beste elite horrekin. Hori esatean ez dugu errebindikatzen unibertsitateko "elite" batek artearen beste elitearekin (eliteekin) bat etorri beharko lukeela. Bakarrik zehaztu nahi dugu hori ez dela gertatzen, beste eremu batzuekiko analogiagatik hasieran pentsatu litekeen bezala. Botere-/eragimen-talde esanguratsu horiek existitu beharko ote lirakekeen eta nola osatu beharko lirakekeen eztabaidatzea gai interesgarria da, baina hau ez da ez leku egokia ez une egokia horretarako.

Egia da, nonbait, eremu akademikotik kanpo ohikoa dela entzutea Unibertsitatea artearen sistematik kanpo dagoela, neurri handi batean, nahiz eta unibertsitate-prestakuntza protagonista den gure inguruneke artista gehienen prestakuntza-ibilbideetan. Historikoki hori ez da horrela izan, baina oso agerikoa da azken 30 urteetan.

Guztiarekin ere, hori ukaezina da, eta itxuraz agerikoa izan arren garrantzitsua da horrela dela azpimarratzea. Gure inguruneke artisten unibertsitate-prestakuntza, lehen aipatu dugun bezala, sistema publikoan soilik ematen da. Ezin ditugu aipatu gabe utzi diseinuaren, zinemaren eta ikus-entzunezkoen eskoletan prestatutako ikasleak, edo beste diziplina batzuetan prestatutakoak, baina ekimen pribatuetan ikasi dutenen presentzia nabarmen minoritarioa da.

Hala eta guztiz ere, EAE, eta zehazkiago Bilbo, gero eta indartsuagoa den ekimen pribatuaren eta unibertsitate publikoaren arteko tentsioaren kasu paradigmatico bilakatzen ari da, hots, bi alde horien arteko konkurrentziaren kasu paradigmatico, nahiz eta hori ez den bertan soilik gertatzen. Urte gutxian, artearen eremuko unibertsitate-eskaintza publikoa izoztuta eta hazi ezinik mantentzen den bitartean, unibertsitatez besteko titulazio "kreatibo" berrien agerpena modu esponentzian biderkatzen ari da ekimen pribatuaren aldetik (titulazio horiek, gainera, arautu gabekoak dira batzuetan). Gainera, eskaintza berri hori instituzio publikoen sostengu politiko, logistiko eta ekonomiko garbiarekin egiten da. Arte Ederren Fakultatearen hazteko ahalmena nabarmen mugatuta dago unibertsitate-makineriagatik beragatik eta giza baliabideen zein baliabide ekonomikoaren aldetik jasotzen dituen murrizketengatik, eta aldi berean, hiritik kilometro batzuetara duen kokagune periferikotik ikusten du nola alor publikotik zenbait proiektu pribatu sustatzen diren Bilboko erdigunean bertan, hots, Fakultatearen eskaintza akademikoarekin modu agerikoan lehiatzen diren

proiektu pribatuak. Bilbo moduko hiri batean, hau da, sozialki eta ekonomikoki ez ezik plano sinbolikoan ere (kulturaren eta arte garaikidearen ideia-eremuan) biziberritu eta berreraiki den hiri batean, bertako hirigunean eta sostengu instituzionalarekin kokatzea abantaila garbi eta ukaezina da.

Orduan, interpretatu ote liteke elite politiko bat, ekimen pribatuari ematen dion sostenguarekin, hezkuntza artistikoaren berezko dinamikak aldrebesten ari dela, unibertsitatean eragina izanik eta, horrenbestez, artearen eremuan bertan ere eragina izanik? Agian goiz da baloratzeko ea horrek ondorioak izan ote ditzakeen artearen eremuko berezko elite jakin batzuen konfigurazioan. Baina ukaezina dena da alor publikotik esanahi berriak ematen ari zaizkiela kultura, sorkuntza edo artearen moduko kontzeptuei, merkatuarekin, aisialdiarekin eta espektakularizazioarekin zerikusi handiago duten beste esparru batzuetarantz eramanez, eta Industria Kultural eta Sortzaileen paradigmen logika errepikakorrarekin bat etorritz. Eta, azterlan honen esparruan, kezkarriena da azkenean unibertsitatea ere bultzatzen duela dinamika horietarantz. Bektore industriala bektore kulturalari gailentzen zaio azkenean.

Hala, alor publikotik gure buruari nahitaez galdetu behar dizkiogun kontu batzuk planteatzen dira. Gure ustez, alor publikoa komunitatetik sortzen denez eta ondorioz, komunitatearen aurrean erantzun behar duenez, hezkuntzak, kasu honetan unibertsitate-hezkuntzak badu ardura bat, herritarrei eredu integratzaile eta inklusibo bat eskaintzea, alegia, merkatuak etengabe ezarri nahi dituen eskaintza- eta eskari-moduetatik urrunduta. Giza zientzien eta merkatuaren arteko loturez pentsatzea nahikoa da ulertzeko unibertsitate publikotik ezin zaiola jarraitu gorabehera komertzialek markatutako erritmoari. Beste alde batetik, jokaleku horretan, ekimen pribatuak duen behar bakarra bere finantza-balantzeari erantzutea da, zeren bere gizarte-erantzukizuna ez baitoa marketin-irudiaren itxura hutsetik harago. Beraz, ekimen pribatuak errentagarria zaiona soilik eskainiko du. Lehenik eta behin ekonomikoki, eta agian gero sozialki edo sinbolikoki, baina beti lehengoaren mende jarrita.

Lehenengo argudiora itzultzen bagara, hain zuzen ere unibertsitatea legitimazio-mekanismoa zela aipatzen genuenean, eragina izateko ahalmenaren konfigurazionala (elitea) zela esaten genuenean, unibertsitatearen eta artearen munduaren arteko tentsio-testuinguru batean izan arren, denborak aurrera joan ahala gerta liteke ekimen pribatua izatea protagonista absolutu bilakatzen dena, arte eta kulturaren alorreko legitimazio-aparatu gisa. Jokaleku horretan, zein izango da unibertsitate publikoaren rola artearen eremuan? Men egingo dio interesen tektonikari eta uko egingo dio bere eragimen-ahalmenari? Batzuek esango dute, azterlan honek eskaintzen dituen datu askoren argitara, hori jadanik gertatzen ari dela eta agerikoa dela arte eta kulturaren kudeaketaren espazio askotan. Izan ere, erabakiak hartzen diren eta politika kulturalak diseinatzen diren leku batzuk arte eta kulturarenak

espezifikoa ez diren arloei lotutako pertsonak okupatzen dituzte orain, eta, gainera, pertsona horiek profil "pribatu" nabaria dute.

5. Eztabaida

Pentsa liteke azterlan honen datuen interpretazioari ikuspegi teoriko batetik heldu diogula, honelako ikerketa baten konklusioei ez dagokion ikuspegi batetik, hain zuzen ere. Hala eta guztiz ere, gurearen moduko arloetan batzuetan konplexua izaten da ulertzea nola ezartzen diren harremanak eta botere-eremuak, elitearen ideari dagokionez, lan honen esparruan. Egoeraren sintesi bat egiteak nolabaiteko pedagogia soziala egitera eramaten gaitu, irakasle eta ikertzaile garen aldetik.

Hori esanda, eta elite bilakatzeko bidean artistaren prestakuntzan, ibilbidean eta batez ere legitimazioan esku hartzen duten eragile gehienek rola azaldu ondoren, begiratu bat eman behar diogu bertoko (itxuraz saneatutako) eszena artistiko eta kulturalari. Horretarako, aipatu besterik ez da egin behar ustez kulturalak diren proiektu politikoetako bat, gure lurraldeko ekintza politiko eta instituzionalaren parte handi batek beraren inguruan orbitatzen baitu, termino kulturaletan. Gehiago edo gutxiago gustatu, garbi dago Guggenheim Bilbao Museoa alor kulturalaren arretaren erdigunean dagoela aspalditik, arteari dagokionez. Bai bere protagonismo sinbolikoagatik eta bai aurrekontu publikoetan duen eraginagatik, eta, nahitaez, bere arrakastaren formulak gure inguruneke edozein politika kulturaletan proiektatzen duen eredu gisa finkatu izanagatik.

Beraren erosketen politikari begiratzen badiogu, ikusiko dugu nazioarteko enkante-etxeetan erostean oinarritzen dela neurri handi batean, hain zuzen ere euskal artearen merkatuak ia inolako presentziarik ez duen enkante-etxeetan. Programazioari begiratuz gero, berriz, ikusiko dugu egutegiaren zati gehiena aldi baterako erakusketek okupatuta dagoela, eta erakusketa horiek, orokorrean, artista bakar bati, nazioarteko ospea duen bilduma bati edo une historiko bati egoten direla dedikatuta, eta "marka" (eliteko firma) moduan funtzionatzen dutela, hori ezinbesteko baldintza gisa nabarmentzen baita kontsumo kulturalari begira. Euskal testuinguruko artistei zuzendutako erakusketek erreparatzen badiegu, ikusiko dugu museoaren ibilera-urteetan ez dela ia egon horiei zuzendutako aldi baterako erakusketarik. Legitimazio-makineria izugarri bat, testuinguruarekin elkarriketa gutxi izaten dituena, eta hori gertatzen denean botere-posizio nabarmen batetik egiten duena.

Dirudienek, arte eta kulturari buruzko ikusmolde ekonomizista orok mito izaera hartzen duen elite bat elikatzen laguntzen duten ereduak errepikatzen joera geldiezina dute; ikusmolde horrek "edukiontzia" kulturalen programazioa betetzen du, ehun kulturalaren gainerako parte zirkuitu independenteen borondatezko prekarietatik

mugitzen den bitartean, oinarri iraunkor bat egituratzera iristen ez diren ekoizpenerako laguntza batzuekin.

Egoera konplexua da eta borondate politikoa eskatzen du, baina batez ere funtsezko aldaketa estrukturalak. Espainiar Estatuaren politika kulturaletatik arte eta kulturarentzat ondorioztatzen den egoera dramatiko agerian uzten duen testu batean, Daniel Garcia Andújar-ek (2021) azpimarratzen du industria kulturalen egitura eta haien kudeaketa zuzentzen dutenek orain dela hamarkada batzuk baztertu zituztela eduki eta ekoizpen kultural berrien sorkuntza, eraikuntza kolektibo gisa, edo behintzat horrela dirudi. Instituzioek gure geografiako bazter guztietatik sustatu duten erakusleihoredu hori aldatu nahi badugu, ez badugu egon nahi noiz-behinkako proiekturen baten arrakasta edo distiraren mende, borondatezko lanaren prekarizaziotik urrundu nahi badugu, *“goitik behera aldatu beharko dugu norabidea”*, Andúja-rek dioen bezala.

Irtenbidearen ardatza da instituzio egituratuago eta pluralago bat eraikitzea; kudeaketa, kontrol eta ebaluazio sistema garden, demokratiko eta kalitatezkoekin. Andújar-ek aipatzen du beharrezkoa dela instituzio berriztatuak eta azpiegitura kultural jasangarri, hurbil, ireki eta enpatikoak izatea, herritarrek espazio egoki bat aurkitu dezaten ordezkari-tza publikorako, etengabeko prestakuntzarako eta bikaintasun artistikorako, eta baita benetako emantzipazio-tresna bat ere. Bertan, aukeraberdintasunez egindako egituraketa hori funtsezko faktorea izango da gizartearen garapen eta ongizaterako.

Artea, beste edozein prozesu kultural bezala, transmisio- eta transferentzia-prozesu bat da funtsean; etengabekoa, iraunkorra eta beharrezkoa den elkarrizketa-prozesu bat. Horrez gain, baina, autoreak adierazten duen bezala, artea honako hau ere bada: transgresioa, apurketa, ironia, parodia, jabetzea, deformazioa, konfrontazioa, ikerketa, esplorazioa, galderak planteatzea eta oposizioa. Ezin gara politikaz fidatu. Instituzio kulturalak zaintzen ez dituen politika demokratiko bat politika ahul bat da. Beste garai batean, instituzio kulturalak politikaren foku nagusia izan ziren, orduan guztiek nahi baitzuten euren museoa, euren kultur etxea, euren Lab-a; horiek abiatu ondoren, haatik, zaila da edukiontzia mantentzea erakusketa ontziratuak soilik programatzen direnean edo ekoizpen artistikoa instrumentalizatzen denean, politika kultural parte-hartzaileagoak, jasangarriak, berdintasunezkoak, pluralak eta inklusiboak lehenetsi beharrean, eta, gainera, erabakiak gardentasunik gabe hartzen direnean.


Unibertsitate publikoa garen aldetik, kultura zerbitzu publikotzat hartzen duen eredu baten eraikuntzarako hezi behar dugu, horren bidez normalizatu ahal izateko praktika artistiko garaikideetara iristeko bidea, eta baita kultura orokorrera iristeko bidea ere. Hezkuntza hori geure etxearen barruan hasten da, hots, unibertsitatean, zeren gaur egun unibertsitate pribatuekin lehiatzeaz kezkatzen baikara, zerbitzu publiko gisa bete behar ditugun funtzioak zaindu beharrean. Hezkuntza horrek oraingo ekosistema sozial, kultura eta artistikoaren aberastasun eta askotarikotasunaren balioa nabarmentzen dakiten pertsonak eraman beharko lituzke kulturaren kudeaketaren

karguetara eta, Andújar-ek dioen bezala, gai izan behar luke sektorearen autonomia eta sortzaileen adierazpen-askatasuna bermatzeko, horiexek baitira ekoizpen kultural eta artistikoaren motor nagusiak; bermatu beharko luke, halaber, publiko guztiek askotariko proposamenen artean aukeratzeko izan behar duten eskubidea. Hori, gaur egun, urrun geratzen da, urrun baino urrunago.

Idea bat geratzen da eztabaidarako. Ehun eta substratu kulturala ustezko elite baten antitesia badira, nolabait, alor publikotik aurrean dugun zeregina honako hau da: alde batetik, elite hori konfiguratzen duten korapiloak eta operazioak desegitea, eta bestetik, baina aldi berean, ehun sendo, bizi, plural eta jasangarri bat ahalbidetzeko egokiak diren baldintzak sortzea.

Bibliografía:

- ANDUJAR, Daniel G. (2021): *Por el desmantelamiento de la Industria Cultural en las Artes Visuales*.
<https://danielandujar.org/2021/02/10/por-el-desmantelamiento-de-la-industria-cultural-en-las-artes-visuales/>
- BOWNESS, Alan (1990): *The condition of success: how the modern artist rises to fame*, Thames and Hudson, Nueva York.
- BREA, José Luis (2008): *El tercer umbral. Estatuto de las prácticas artísticas en la era del capitalismo cultural*, Cendeac, Murtzia.
- BOURDIEU, Pierre (1995): *Las reglas del arte. Génesis y estructura del campo literario*, Anagrama, Bartzelona, 1995.
- (2000): *Poder, derecho y clases sociales*, Madrid, Desclée de Brouwer.
- (2002): *Campo de poder, campo intelectual. Itinerario de un concepto*, Montessor, Buenos Aires.
- (2007): *El sentido práctico*, Siglo Veintiuno, Buenos Aires.
- BOURDIEU, Pierre, WACQUANT, Loic J.D. eta Lavesque DION (1995): *Respuestas por una antropología reflexiva*. Ed. Grijalbo. México 1995.
- GROYS, Boris (2016): "Arte y Dinero". <https://es.scribd.com/document/272048900/Boris-Groys-Arte-y-Dinero>.





TAULA **ESTATISTIKOAK**

KATEGORIAK	ERREGISTRO KOPURUA	ERREGISTRO EZAGUNAK	% 2020 (2015)	UNIBERTSITATE PRESTAKUNTZA DUTENAK	% 2020 (2015)	EZ DU UNIBERTSITATE IKASKETARIK	% 2020 (2015)	EZ DA CURRICULUMA EZAGUTZEN	% EZ DA CURRICULUMA EZAGUTZEN
GUZTIAK	3.953 (% 100)	2.806	% 70,5	2.528	% 64,0	278	% 6,5	1147	% 29,5
Emakumezkoak	1.410 (% 35,7)	1.070	% 75,8	968	% 68,6	102	% 7,2	340	% 24,1
Gizonezkoak	2.542 (% 64,3)	1.736	% 68,3	1.560	% 61,4	176	% 6,9	807	% 31,7
POLITIKARIAK									
Eusko Legebiltzarra	150	65 (73)	% 86,7 (% 97,4)	59 (63)	% 78,7 (% 84)	6 (10)	% 8,0 (% 13,3)	10 (2)	% 13,3 (% 2,6)
Nafarroako Foru Parlamentariak	100	41 (40)	% 84 (% % 82)	33 (35)	% 66 (% 70)	8 (5)	16 (% 10)	9 (10)	% 18 (% 20)
Diputatuon Kongresua	46	23 (23)	% 100 (% 100)	19 (19)	% 82,6 (% 82,6)	4 (4)	17,4 (% 17,4)		
Senatariak	41	16 (18)	% 80 (% 85,7)	16 (15)	% 80 (% 71,4)	0 (3)	% 0 (% 14,2)	4 (3)	% 20 (% 14,3)
Europarlamentariak	14	5 (6)	% 71,4 (% 85,7)	5 (6)	% 71,4 (% 85,7)			2 (1)	% 28,6 (% 14,3)
Batzar Nagusiak	307	115 (105)	% 75,3 (% 68,3)	87 (77)	% 56,9 (% 50)	28 (28)	% 18,3 (% 18,3)	39 (48)	% 24,7 (% 31,7)
Hiriburuetako Agintariak	219	91 (92)	% 82,8 (% 88,4)	80 (78)	% 72,7 (% 71,6)	11 (4)	% 10,1 (% 12,8)	19 (17)	% 17,2 (% 15,6)
GOI KARGUAK									
Eusko Jauriritzan	547	251 (204)	% 84,5 (% 81,9)	239 (199)	% 80,5 (% 79,9)	12 (5)	% 4,0 (% 2,0)	46 (45)	% 15,5 (% 18,1)
Nafarroako Foru Gobernuan	421	196 (79)	% 57,7 (% 92,9)	187 (74)	% 55,1 (% 87,1)	9 (5)	% 2,6 (% 5,9)	140 (6)	% 42,7 (% 70)
Foru Aldundiak	207	112 (77)	% 94,1 (% 87,5)	107 (74)	% 89,9 (% 84,1)	5 (3)	% 4,2 (% 3,4)	7 (11)	% 5,9 (% 12,5)
ZERBITZU PUBLIKOAK									
Osakidetzak	99 (100)	49 (46)	% 49,5 (% 46)	49 (46)	% 49,5 (% 46)			50 (54)	% 50,5 (% 54)
Osasunbidea	23	15	% 65,2	15	% 65,2			8	% 44,8
Justizia Zerbitzuak	29	18	% 62,1	18	% 62,1			11	% 37,9
HEZKUNTZA ETA KULTURA									
Kultura Erakundeak	156	108	% 69,2	103	% 66	5	% 3,2	46	% 30,8
Unibertsitateak	65	53	% 81,5	53	% 81,5			12	% 18,5
Ikerketa Erakundeak	168	145	% 86,3	145	% 86,3			23	% 13,7
KOMUNIKABIDEAK ETA MEDIA									
EITB	77	57	% 74,4	53	% 68,8	4	% 5,2	20	% 31,2
Komunikazio enpresak	191	116	% 64,9	109	% 62,3	7	% 2,6	75	% 35,1
Kazetariak	87	66	% 75,8	63	% 72,4	3	% 3,4	21	% 24,1
ENPRESA PUBLIKOAK									
Zuzenbide pribatuko enpresa publikoak	431	311	% 72,2	311	% 72,2			120	% 27,8
Partizipazio Publikoko enpresak	726	524	% 72,2	505	% 69,6	19	% 2,6	221	% 27,8
Foru Aldundietako enpresa publikoak	475	367	% 75,2	343	% 72,2	24	% 5,0	132	% 24,8
ENPRESA PRIBATUAK ETA KOOPERATIBAK									
Zuzendariak eta Gerenteak	456	286	% 62,6	277	% 60,7	9	% 1,90	170	% 37,4
INFLUENTZIADUN EMAKUMEZKOAK									
Emakumeak	1410	1.070	% 75,8	968	% 68,6	102	% 7,2	340	% 24,1
MUNDU KREATIBOA ETA ARTEA									
Arte Errerak	234	213	% 91	202	% 86,3	11	% 4,7	32	% 9,0
Ikusentzunezkoak	43	32	% 74,4	24	55,8	8	% 18,6	11	25,6
Idazleak	140	96	% 68,6	89	63,6	7	% 5,0	44	31,4
Musika garaikidea	64	60	% 94,7	60	94,7			4	5,3
Basque Team	65	23	% 35,4	23	35,4			42	64,6

KATEGORIAK	HEGO EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAN % 2020 (2015)	ESTATA ESPAINOLA	ATZERRIKO UNIBERTSITATEA	UNIBERTSITATE PUBLIKOA	% 2020 (2015)	UNIBERTSITATE PRIBATUA	% 2020 (2015)
GUZTIAK	% 79,2	% 17,4	% 3,5	1425	% 56,4	1.103	% 43,6
Emakumezkoak	% 83,3	% 14,3	% 2,5	540	% 55,8	427	% 44,2
Gizonezkoak	% 76,7	% 19,3	% 4,1	884	% 56,7	676	% 43,3
POLITIKARIAK							
Eusko Legebiltzarra	% 91,4 (% 90,3)	% 5,2 (% 6,5)	% 3,4 (% 3,2)	38 (32)	% 64,4 (% 50,8)	21 (31)	% 35,6 (% 49,2)
Nafarroako Foru Parlamentariak	% 75,8 (% 80,0)	% 24,2 (% 20,0)		17 (16)	% 51,5 (% 45,7)	16 (19)	% 48,5 (% 54,3)
Diputatuen Kongresua	% 94,7 (% 78,9)	% 5,3 (% 21,1)		11 (12)	% 57,8 (% 60)	8 (8)	% 43,2 (% 40)
Senatariak	% 81,2 (% 81,8)	% 18,8 (% 18,2)		9 (12)	% 56,2 (% 80)	7 (3)	% 44,8 (% 20)
Europarlamentariak	% 80 (% 83,3)	% 20 (% 16,7)		3 (3)	% 60 (% 50)	2 (3)	% 40 (% 50)
Batzar Nagusiak	% 92,9 (% 90,8)	% 7,1 (6,6)	% 0,0 (% 2,6)	57 (47)	% 61 (% 65,5)	30 (30)	% 39 (% 34,5)
Hiriburuetako Agintariak	% 86,4 (% 87,0)	% 12,3 (11,7)	% 1,2 (% 1,3)	38 (40)	% 47,5 (% 48,7)	42 (38)	% 52,5 (% 51,3)
GOI KARGUAK							
Eusko Jaurlaritzan	% 92,4 (% 90,7)	% 7,6 (% 7,8)	% 0,0 (% 1,5)	134 (98)	% 53,4 (% 48)	117 (106)	% 46,6 (% 52)
Nafarroako Foru Gobernuan	% 71 (% 72,6)	% 29 (% 27,4)		103 (35)	% 55,1 (% 47,3)	84 (39)	% 44,9 (% 52,7)
Foru Aldundiak	% 91,6 (% 92)	% 6,5 (% 6,7)	% 1,9 (% 1,3)	62 (37)	% 57,9 (% 50)	45 (37)	% 42,1 (% 50)
ZERBITZU PUBLIKOAK							
Osakidetza	% 89,1 (% 93,9)	% 9,1 (% 4,1)	% 1,8 (% 2,0)	38 (33)	% 69,1 (% 70,2)	17 (14)	% 30,9 (% 29,8)
Osasunbidea	% 66,6	% 33,3		8	% 53,3	7	% 46,7
Justizia zerbitzuak	% 66,7	% 33,3		10	% 55,6	8	% 44,4
HEZKUNTZA ETA KULTURA							
Kultura Erakundeak	% 71,6	% 21,6	% 6,9	45	% 43,7	58	% 56,3
Unibertsitateak	% 88,7	% 11,3		24	% 45,3	29	% 54,7
Ikerketa Erakundeak	% 74,5	% 23,4	% 2,1	89	% 61,4	56	% 38,6
KOMUNIKABIDEAK ETA MEDIA							
EITB	% 90,6	% 9,4		32	% 60,4	21	% 39,6
Komunikazio enpresak	% 84,3	% 9,8	% 5,9	66	% 60,6	43	% 39,4
Kazetariak	% 84,3	% 9,8	% 5,9	26	% 50	26	% 50
ENPRESA PUBLIKOAK							
Zuzenbide pribatuko enpresa publikoak	% 89,0	% 10,0	% 1,0	165	% 53,1	146	% 46,9
Partizipazio Publikoko enpresak	% 81,1	% 16,9	% 2,0	266	% 52,7	239	% 47,3
Foru Aldundietako enpresa publikoak	% 83,5	% 15,6	% 0,9	181	% 52,8	162	% 47,2
ENPRESA PRIBATUAK ETA KOOPERATIBAK							
Zuzendariak eta Gerenteak	% 51,3	% 40,7	% 8,0	141	% 50,9	136	% 49,1
INFLUENTIADUN EMAKUMEZKOAK							
Emakumeak	% 83,3	% 14,3	% 2,5	540	% 55,8	427	% 44,2
MUNDU KREATIBOA ETA ARTEA							
Arte Ederrak	% 92,1	% 5,4	% 2,5	196	% 97,0	6	% 3,0
Ikusentzunezkoak	% 87,5	% 12,5		16	% 66,7	8	% 33,3
Idazleak	% 79,8	% 14,6	% 5,6	44	% 49,4	45	% 50,6
Musika garaikidea	% 75,8	% 16,3	% 8,2	45	% 86,5	15	% 13,8
KIROLARIAK							
Basque Team	% 60,9	% 34,8	% 4,3	13	% 56,5	10	% 43,5

*Musika garaikideko atalak Kontserbatorioaren azterketa burutzen du, ikasketa unibertsitateko baino goi mailako musika ikasketak aztertzen dira.

EREMUAK	UNIBERSIDAD DE DEUSTO	UNIBERSIDAD DE NAVARRA	MONDRAGON UNIBERTSITATEA	UPV-EHU	UPNA-NUP
GUZTIAK	% 28,8	% 16,3	% 1,6	% 49,5	% 3,8
Emakumezkoak	% 29,7	% 15,2	% 1,3	% 49,7	% 4,1
Gizonezkoak	% 28,1	% 17,1	% 1,9	% 49,4	% 3,6
POLITIKARIAK					
Eusko Legebiltzarra	% 34 (% 40)	% 1,9 (% 7,3)	% 1,9 (% 1,3)	% 62,3 (% 50,9)	
Nafarroako Foru Parlamentariak	% 8,0 (% 7,1)	% 52,0 (% 53,6)		% 16,0 (% 25,0)	% 24,0 (% 14,3)
Diputatu Kongresua	% 33,4 (% 20)	% 11,1 (% 26,6)		% 55,5 (% 53,3)	
Senatariak	% 23 (% 0)	% 30,8 (% 20)		% 38,5 (% 70)	% 7,7 (% 10)
Europarlamentariak	% 25 (% 40)			% 50 (% 60)	% 25 (% 0)
Batzar Nagusiak	% 32,5 (% 33,3)	% 1,3 (% 2,9)	% 1,3 (% 2,9)	% 63,8 (% 59,4)	% 1,4 (% 1,3)
Hiriburuetako Agintariak	% 35,7 (% 30,3)	% 21,4 (% 24,2)		% 40,0 (% 42,4)	% 2,9 (% 3,0)
GOI KARGUAK					
Eusko Jaurlaritzan	% 43,9 (% 52,4)	% 4,8 (% 3,2)	% 1,3 (% 0,5)	% 49,6 (% 43,2)	% 0,5 (% 0,4)
Nafarroako Foru Gobernuan	% 5,4 (% 5,7)	% 54,3 (% 60,1)		% 15,5 (% 15,1)	% 24,8 (% 18,9)
Foru Aldundiak	% 37,8 (% 42)	% 4,1 (% 5,8)	% 2,0 (% 1,4)	% 51 (% 49,3)	% 5,1 (% 1,4)
ZERBITZU PUBLIKOAK					
Osakidetza	% 24,5 (23,9)	% 6,1 (% 8,7)		% 69,4 (% 67,4)	
Osasunbidea		% 70		% 30	
Justizia Zerbitzuak	% 16,7	% 50		% 33,3	
HEZKUNTZA ETA KULTURA					
Kultura Erakundeak	% 52,7	% 13,5	% 1,4	% 32,4	
Unibertsitateak	% 25	% 29,2	% 6,3	% 29,2	% 10,4
Ikerketa Erakundeak	% 13,9	% 35,2	% 0,9	% 41,7	% 8,3
KOMUNIKABIDEAK ETA MEDIA					
EITB	% 27,1	% 12,5	% 2,1	% 58,3	
Komunikazio enpresak	% 17,7	% 22,9	% 1,0	% 57,3	% 1,0
Kazetariak	% 23,3	% 30,2		% 44,2	% 2,3
ENPRESA PUBLIKOAK					
Zuzenbide pribatuko enpresa publikoak	% 43,8	% 4,0	% 4,3	% 46,7	% 1,1
Partizipazio Publikoko enpresak	% 41,4	% 10,3	% 1,7	% 45,3	% 1,2
Foru Aldundietako enpresa publikoak	% 30,6	% 22,5	% 0,4	% 35,6	% 10,9
ENPRESA PRIBATUAK ETA KOOPERATIBAK					
Zuzendariak eta Gerenteak	% 42,3	% 14,1	% 4,9	% 37,3	% 1,4
INFLUENTZIADUN EMAKUMEZKOAK					
Emakumeak	% 29,7	% 15,2	% 1,3	% 49,7	% 4,1
MUNDU KREATIBOA ETA ARTEA					
Arte Ederrak		% 0,5		% 98,9	% 0,5
Ikusentzunezkoak	% 19	% 9,5	% 9,5	% 61,9	
Idazleak	% 42	% 11,6	% 1,4	% 44,9	
Musika garaikidea Kontserbatorioak	Musikene	J.C. Arriaga	F. Escudero	J. Guridi	P. Sarasate
	% 13,5	% 10,8	% 45,9	% 21,6	% 8,1
KIROLARIAK					
Basque Team	% 14,3		% 28,6	% 57,1	

BIBLIOGRAFIA

- AGIRREAZKUENAGA ZIGORRAGA, Joseba (1993): *Gerra eta bakea Euskal Herrian. Politikagintza lege zaharraren krisaldian*, San Sebastián, Gaiak Editoriala.
- (1994). *Matxinoak, langileen erakundetzea, enpresariak eta kultur moldeak lege zaharraren hondamendian (1789-1876)*. Bilbao. Beitia ediciones.
- (1995). *Diccionario biográfico de los Diputados Generales, burócratas y patricios de Bizkaia. (1800-1876)*. Bilbao. Bizkaiaiko Batzar Nagusiak-Juntas Generales de Bizkaia.
- AGIRREAZKUENAGA, Joseba; GOMEZ, Agustín eta Juan ARCE MORALES (1998): *Eusko Ikaskuntza. Hiztegi biografikoa (1918-1998)* Donostia. ISBN 84-89516-84-7.
- AGIRREAZKUENAGA, Joseba, URQUIJO, Jose Ramon., SERRANO, Susana eta Mikel URQUIJO (1992). Trayectorias de la élite parlamentaria vasca durante la crisis del Antiguo Régimen. *Historia Contemporánea*, nº 8, Bilbao, UPV-EHU, 177-190.
- (1993). *Diccionario biográfico de los parlamentarios de Vasconia, 1808-1876*, Vitoria, Parlamento Vasco.
- AGIRREAZKUENAGA, Joseba (zuz.), ALONSO-OLEA, Eduardo; SERRANO, Susana; URQUIJO, Mikel eta Javier GIL (2002): *Bilbao desde sus alcaldes. Diccionario biográfico de los alcaldes de Bilbao. 1836-1901*. Bilbao. Ayto de Bilbao.
- (2003): *Bilbao desde sus alcaldes. Diccionario biográfico de los alcaldes de Bilbao y gestión municipal, en tiempos de revolución democrática y social*. Vol.2. 1902-1937. Bilbao. Ayto de Bilbao.
- AGIRREAZKUENAGA, Joseba; ALONSO, Eduardo; GRACIA, Juan; MARTINEZ, Fernando eta Mikel URQUIJO (Zuz.). *Diccionario biográfico de Parlamentarios de Vasconia. 1876-1939*. Vitoria-Gasteiz. Eusko Legebiltzarra-Parlamento Vasco. ISBN. 84-87122-87-6
- AGIRREAZKUENAGA, Joseba eta Mikel URQUIJO (Zuz.), (2008). *Diccionario biográfico de los alcaldes de Bilbao y gestión municipal durante la dictadura franquista. (1937-1979)*. Bilbao. Ayto de Bilbao. ISBN. 978-84-88714-14-5
- URQUIJO, Mikel; AGIRREAZKUENAGA, Joseba; GRACIA, Juan; MARTINEZ, Fernando, ALONSO, Eduardo eta Susana SERRANO (2009). De la biografía a la prosopografía. los parlamentarios de los distritos de Vasconia en la II República española (1931-1939). *Cuadernos de Historia Contemporánea*. Madrid, 2009, vol. 31, 193-221. ISSN 0214-400X
- AGIRREAZKUENAGA, Joseba; URQUIJO, Mikel; MARTÍNEZ, Fernando; ALONSO-OLEA, Eduardo; Hilda OTERO eta Jon PENCHE (2012) Prosopography of the MPs during the emergence of mass politics. The Basque Country-Spain (1916-23). *Parliaments, Estates and Representation*, 32.2, 139-153. DOI. 10.1080/02606755.2012.719698
- AGIRREAZKUENAGA, Joseba; ALONSO-OLEA, Eduardo eta Mikel URQUIJO (2018). De la biographie à la prosopographie parlementaire. une analyse comparative entre les districts atlantiques et méditerranéens au Pays Basque (1877-1923). *Cahiers de la Méditerranée*, nº 96, 83-104.
- AGULHON, Maurice (1977). *Estudio de la mutación de la sociabilidad*. (2005). *Historia y política de izquierda*.
- ARAOLAZA, Oier (2012): *Euskal Dantza*, Gasteiz, Etxepare Euskal Institutua.
- ARTETXE, Karmele (2011): *Euskararen aurrerabidea zientzia eta goi mailako esparruan. Azterketa bibliometrikoa*, Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritza.
- ASKOREN ARTEAN (2018). *Mekarteak. 68aren ostean. Artea eta praktika artistikoak Euskal Herrian 1968-2018*, Bilbao, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- BAENA DEL ALCAZAR, Mariano eta Narciso PIZARRO (1985). The structure of the spanish political elite, 1939-1957. In Moore, G. (edit). *Research in politics and Society*. London, Jai Press.

- BANE, Mari J., eta Christopher JENCKS (1985). La escuela no es responsable de las desigualdades sociales y no las cambia. In *Sociología de la educación. textos fundamentales*. Narcea, 278-288.
- BOWLES, Samuel eta Herbert GINTIS (1972). IQ in the US class structure, *Social policy*.
- BOWLES, Samuel; GINTIS, Herbert eta Pasqual MARAGALL (1976). *La meritocracia y el "coeficiente de inteligencia" una nueva falacia del capitalismo. el IQ en la estructura de clases de los Estados Unidos*, Anagrama.
- CABALLER VIVES, Maria Cinta (2003): 50 años de la Escuela Universitaria de Ingeniería Técnica Industrial de Donostia-San Sebastián. (1952-2002). Caja Laboral Euskadiko Kutxa.
- CAMPOY, Margarita (1998): De clases y élites. ambigüedades para la reflexión. *Cuadernos de Trabajo Social*, nº 11, 45-66.
- CARNOY, Martin (1985): Educación, economía y Estado, in *Educación y Sociedad*, 3, Madrid, 7-52.
- CARASA, Pedro (2001): De la burguesía a las Élites entre la ambigüedad y la renovación conceptual. *Ayer*, nº 42, 213-237 orr.
- COLLER, Xavier (2008): El sesgo social de las élites políticas. el caso de la España de las autonomías (1980-2005). *Revista de estudios políticos*, nº 141, 135-159.
- COLLER, Xavier eta Andres SANTANA (2009): La homogeneidad social de la elite política. Los parlamentarios de los PANE (1980-2005). In *Papers. revista de sociología*, nº 92, 29-50.
- COLLER, Xavier; SANTANA, Andres eta Antonio M. JAIME-CASTILLO (2014); Problemas y soluciones para la construcción de bases de datos de políticos, *Revista Española de Ciencia Política*, nº 34, 169-198.
- DIAZ EGURBIDE, Jon (2013): *Jokin Zaitegiren ekarpenak euskal curriculumeanm. Eginak eta asmoak*, Donostia, *Utrusque Vasconiae*.
- EDU/520/2011 Agindua, martxoaren 7koa, ekainaren 10eko EDU/1603/2009 Agindua aldatzen duena; agindu horren bidez ezartzen da zein baliokidetasun dituzten Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoak, maiatzaren 3koak, ezartzen dituen Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduko eta Batxillerreko tituluak (BOE, 2011ko martxoaren 14koa).
- EDUCABASE. Estadísticas de la educación, desarrollo académico. Estudios de Grado. http://estadisticas.mecd.gob.es/EducaDynPx/educabase/index.htm?type=pcaxis&path=/Universitaria/Indicadores/2018/2_Academico/1_Grado&file=pcaxis&l=s0
- ELIZONDO, Arantxa (2004). La participación política de las mujeres en Euskadi. datos y reflexiones. *Feminismo-s*, vol. 3, p. 75.
- EUSKO JAURLARITZA (2017). *Pobreziari eta gizarte-desberdintasunei buruzko inkesta 2016*. Enplegu eta Gizarte Politikako Sailaren Estatistika Organo Espezifikoak.
- EUSKO JAURLARITZA; NAFARROAKO GOBERNUA ETA EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOA (2017). *VI. Inkesta Soziolinguistikoa 2016*. Nafarroako Foru Komunitatea.
- EUSKAL ESTATISTIKA ERAKUNDEA (2016). Inguruabar sozioekonomikoaren araberako batz besteko errenta sexuaren arabera. https://www.eustat.eus/elementos/tbl0003029_e.html
- (2018). 18 urteko eta gehiagoko biztanleria, errenta pertsonalaren geruzaren, lurralde historikoaren eta sexuaren arabera. https://eu.eustat.eus/elementos/euskal-aeko-biztanleen-batez-besteko-errenta-21500-ingurukoa-izan-da-2018an/not0017704_e.html
- (2020). Aumenta el número de estudiantes de las universidades vascas en el curso 2018/19 por segundo año consecutivo, nota de prensa 20/07/2020. https://www.eustat.eus/elem/ele0017400/not0017485_c.pdf
- EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA (2019). UPV-EHUren datu orokorrak, 2018-2019. <https://www.ehu.eus/eu/web/gardentasun-ataria/datu-orokorrak>

- (2019). Unibersitatea zenbakitan/Universidad en Cifras 2017-2018. Bilbao. <http://www.ehu.eus/zenbakitan/es.html>
- EZKERRA, Estibaliz eta Cameron WATSON (2014). *XX. Mendeko Euskal Literatura*. Donostia, Etxepare Euskal Institutua.
- FELIU MARTÍNEZ, Ricardo: *La distribución social del poder. La élite navarra en el cambio de siglo*. (Tesis de Sociología, UPNA).
- FLAQUER-FUSTER, Juan (2011): *Universidad de Navarra. Tecnun, 50 años formando personas*.
- HERNÁNDEZ ARMENTEROS, Juan eta Jose Antonio PEREZ GARCIA (dirs.) (2018): *La Universidad española en cifras 2018-2019*. Madrid. Conferencia de Rectores de las Universidades Españolas (CRUE).
- HERRI KONTUEN EUSKAL EPAITEGIA, 2019. Euskal Herriko Goi-Mailako Musika Ikastegirako Fundazio Pribatua. <http://www.tvcp.org/informe/musikene.pdf>
- IMAZ BENGOTXEA, Jose Inazio (2019): *Hezkuntzaren Soziologia*. Bilbao, Udako Euskal Unibertsitatea UEU.
- IMIZKOZ BEUNZA, Jose Maria (1996a): *Élites, poder y red social. Las élites del País Vasco y Navarra en la Edad Moderna, Bilbao. Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua*.
- (1996b). Comunidad, red social y élites. un análisis de la vertebración social en el Antiguo Régimen. In *Élites, poder y red social. las élites del País Vasco y Navarra en la Edad Moderna (estado de la cuestión y perspectivas)*, 13-50. Servicio de Publicaciones.
- IZTUETA ARMENDARIZ, Paulo (1996a): "Irakaskuntza Katolikoa Hego Euskal Herrian". *Jakin* 95. zenbakia, 64-85.
- (1996b): *Euskal Intelligentsia kimatuaren orbela*. Donostia. Kutxa fundazioa.
- (1997): "UPV/EHU-ren hezkuntza elebiduna". *Jakin*. 100. zenbakia, 19-32.
- (2016): *Hizkuntza-asimilazioa eta Hezkuntza-sistema Euskal Herrian*. Donostia. Utriusque Vasconiae.
- LARRINAGA RENTERIA, Ane (2012): Genero-ikuspegia herritarren tokiko parte-hartzearen diseinuan Bilboko hirian. *Uztaro* 83, 91-107.
- MACUA AUDITORES (2019). *Basque Team Fundazioaren auditoria txostena, urtekokontuak eta kudeaketatxostena*. 2019ko abenduaren 31n.
- MILBURN, Alan (2014): *Elitist Britain? A report by the independent reviewer on social mobility and child poverty*.
- MINISTERIO DE CIENCIA, INNOVACIÓN Y UNIVERSIDADES (ED.). (2018). *Datos y cifras del Sistema Universitario Español*. Ministerio de Ciencia, Innovación y Universidades. Madrid.
- (2019). *Datos y Cifras del Sistema Universitario Español*. Ministerio de Ciencia, Innovación y Universidades. Madrid.
- MINISTERIO DE EDUCACIÓN Y FORMACIÓN PROFESIONAL (2020). *Sistema estatal de indicadores de la Educación*. Instituto Nacional de Evaluación Educativa. Madrid.
- MORAZA, Juan Luis (2007): *Ezezagunak-Euskal Herriko arte garaikidearen kartografiak*. Guggenheim, Bilbao.
- MURUA, Hilario (Coor.); ALTUNA, Jon; DAVILA, Pauli; EIZAGIRRE, Ana eta Iñaki ZABALETA (2020): *El Modelo Vasco de Formación Profesional. Claves de su reciente evolución*. Bilbao, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- NAFARROAKO HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA (2018). *Estadística Centros Universitarios de Navarra*. Pamplona.
- NAFARROAKO GOI MAILAKO MUSIKA KONTSERBATORIOA. Proyecto Educativo de Centro, Curso 2019-2020, pag. 2-4.
- OKIÑENA, Josu (2019): *The History of Basque Music*. Center for Basque Studies Press, University of Nevada.

- ONAINDIA, Aritz (2017). De la biografía a la prosopografía. los parlamentarios de la Comunidad Autónoma Vasca, (1977-1982).
- PAIME, Edison Fredi Leon (2013): La nobleza del Estado. educación de élite y espíritu de cuerpo. Siglo XXI.
- PASSERON, Jean-Claude (1964): *Les héritiers. les étudiants et la culture*. Éditions de Minuit.
- PEREZ, C. E. P., & VILAR, J. M. P. (2019). Conservatorios de música en España. *Epistemus. Revista de Estudios en Música, Cognición y Cultura*, 7(1), 004-004.
- PÉREZ, Franciso, et al. (2012): *Universidad, universitarios y productividad en España*. Bilbao. Fundación BBVA.
- RAMIREZ DE LA PISCINA, Txema (1991). Politikariak-kazetariak. Boterearekiko lilura. *Uztaro*, vol. 87, p. 96.
- REAL DECRETO 303/2010, de 15 de marzo, por el que se establecen los requisitos mínimos de los centros que impartan enseñanzas artísticas reguladas en la ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación (BOE, 9 de abril de 2010).
- REIG MARTINEZ, Ernesto, et al (2017): *La competitividad de las regiones españolas ante la economía del conocimiento*. Bilbao. Fundación BBVA.
- SANCHEZ HERRERA, Javier (2004): La élite parlamentaria de Canarias. perfil sociodemográfico. *Revista de Sociología e Política*, no 23.
- SANCHEZ EKIZA, Karmele (2012). *Euskal Musika Klasikoa*. Gasteiz. Etxepare Euskal Institutua.
- SANTOS, Iago (2008): Una aproximación a la red social de la élite del poder económico en España. *XI Jornadas de Economía Crítica*.
- SAVAGE, Mike et al. (2013): A new model of social class? Findings from the BBC's Great British Class Survey experiment. *Sociology*, vol. 47, no 2, p. 219-250.
- SOCIAL MOBILITY AND CHILD POVERTY COMMISSION (SMCPC) (2014). *Elitist Britain*. London. The Stationery Office.
- SOCIAL MOBILITY COMMISSION, ET. AL. (2019). *Elitist Britain 2019*. Government Publishing Service.
- THOMPSON, Edward Palmer; DOMÈNECH, Antoni eta Eric J. HOBBSAWM (1989): La formación de la clase obrera en Inglaterra.
- UGARTE, Itziar (2020): Euskal Artea Erdaldun, Berria, 2020-03-29, 28. or.
- UNIVERSIDAD DE DEUSTO (2020). Oferta y demanda académica. Transparencia de la Universidad de Deusto.
https://www.deusto.eus/cs/Satellite/deusto/eu/deustuko-unibertsitatea-2/deusturi-buruz/erakundea/gardentasuna?cambiodioma=si&_ga=2.58849316.849686915.1606395090-2094803722.1606395090
- UNIVERSIDAD DE NAVARRA (2019). *Memoria Universidad de Navarra, Curso 2017/18*. Pamplona. Servicio de Publicaciones Corporativas Facultad de Comunicación de la Universidad de Navarra.
- WRIGHT MILLS, Charles (1956): *La élite del poder*. Barnes & Noble.
- ZUBIRI ESNAOLA, Harkaitz (2012). Estrategia meritokratikoa auzitan. Ibilbide akademiko-profesionalen azterketa Donostialdean. *Uztaro*. giza eta gizarte-zientzien aldizkaria, no 81, p. 91-111.

